BPGaren hazkundeari dagokionez, 2025ean % 2,3koa, % 2,3koa eta % 2,8koa izan zen EAEn, Nafarroan eta Estatuan, eta 2021ean abiatutako hobekuntza-joera finkatu zen kasu guztietan, pandemia osteko garai konplexua gaindituz –2021ean espiral inflazionista hasi zen eta 2025ean ez zen % 2ko joerara itzuli–. Horri oraindik zabalik dirauten bi gatazka belikoek (Ukraina eta Gaza) eragindako ezegonkortasun geopolitikoa eta Trumpen Administrazioak sortutako ziurgabetasun handia gehitu behar zaizkio, muga-zergen hitzarmenetan egindako aldebakarreko aldaketengatik, Groenlandiari edo Kubari egindako aipamenengatik edo merkatu energetikoetan egindako esku-hartzeengatik (Venezuela eta Iran 2026an).

Azken batean, 2026 hasieran galdera berriak sortu dira, aurreikusten zen inflazioaren beherakada globala ezbaian dagoelako dagoeneko, ikusteke baitago nolakoa izango den brent petrolioaren[2] edo gasaren[3] prezioen ibilbidea. Izan ere, prezioa apaldu ezean, eragin handia izango du inflazioan eta 2026ko eta 2027ko hazkunde ekonomikoan.

[1] Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta NDF, hurrenez hurren.

[2] Otsailaren 26aren (70$ upeleko) eta martxoaren 15aren artean (104$ upeleko) % 48 handitu da. 2022ko otsailaren eta uztailaren artean soilik gainditu zen upeleko 100$eko langa (Ukrainako gerra hasi zen eta inpaktua arintzeko hitzarmenak egin ziren ondoren), bai eta 2011ko martxoaren eta 2014ko abuztuaren artean ere. Hornikuntzaren fluxua (Ormuzko itsasartea) berrezarri ezean, upeleko prezioa 150$ra heltzea aurreikusten da.

[3] Martxoaren 15ean 62,7€ Mwh-ko izan da prezioa (TTF gas naturala). 2022ko otsailaren eta martxoaren artean izandako aldakortasun handiaren ondorioz azken bi urtetan erregistratutako 50 eurotik beherako atalaseak gainditu ditu horrek. Orduko hartan, 100 € Mwh-ko prezioa erregistratu zen Ukrainia inbaditu zuten egunean eta 200€ MWh-ko eta 300 €/Mwh-ko tarteak izan ziren 2022ko martxoko lehen hamabostaldiko izualdiko uneetan. Orain, 150 €/Mwh-ko preziora iristea aurreikusten da.

1. koadroa. BPGaren eta enpleguaren bilakaera(*)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

	BPG			Enplegua (LOB)		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
EAE	3,0	2,5	2,3	1,8	1,5	1,4
Nafarroa	1,9	2,7	2,3	1,4	2,3	1,6
Estatua	2,5	3,5	2,8	3,6	2,8	3,1

(*): BPGa, kateatutako bolumenaren indizean oinarrituta; eta, enplegua, lanaldi osoko baliokidetasunean, Nafarroarako izan ezik (lanpostuen guztizkoa)

Segidaren haustura (aurreko txostenak), oinarri-urtea aldatu delako. Eustat, 2022 eta EIN eta Nastat, 2020

Iturria: EIN, Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua. Geuk egina.

2025ean, enpleguaren bilakaera positiboa azpimarratu behar da (lanaldi osoko lanpostu baliokideak), igoera nabarmena izan baitzuen (+% 1,4, +% 1,6 eta +% 3,1, EAEn, Nafarroan eta Estatuan, hurrenez hurren). Hiru eremuek enpleguaren gehiengo historiko berriak erregistratu zituzten (998,9, 333,3 eta 20.913,9 mila enplegu-LOB), 2008an erregistratutako balioa gainditu zuten eta barne eskariak hazkunde ekonomikoaren faktore bultzatzaile gisa duen garrantzia berretsi zuten (familien gastuaren eta inbertsioaren erabakiak). Gainera, enpleguaren urte arteko hazkundea BPGa baino txikiagoa izan zen, eta produktibitatea (lan-faktorearena) areagotzea eragin zuen, % 0,9 eta % 0,7 EAEn eta Nafarroan, Estatuan ez bezala, han jaitsi egin baitzen (-% 0,3).

Gizarte Segurantzako afiliazioaren eboluzioak hobekuntza hori berretsi zuen; bigarren eta hirugarren urtez jarraian, EAEk eta Estatuak 1 eta 21 milioi afiliatuko langa gainditu zuten, hurrenez hurren. EAEko (+% 1,1) eta Estatuko (+% 2,3) afiliazioaren urte arteko hazkundea 2024an erregistratutakoaren antzekoa izan zen (+% 1,0 eta +% 2,3); Nafarroakoa, berriz, sendoagoa izan zen (+% 1,2 eta +% 1,8 2024an eta 2025ean, hurrenez hurren).

Araudiaren aldaketaren inpaktua[1] xurgatuta, 2025eko balantzeak erakusten du kontratazio berria oso antzekoa izan zela EAEn (+% 1,2) eta Estatuan (+% 1,5) eta bultzada handia izan zuela Nafarroan (+% 4,0). Hala, EAEko eta Nafarroako lau kontratu berritatik bat inguru mugagabea izan zen (% 23,3 eta % 20,3) eta ratio hori ia bikoitza izan zen Estatuan (% 41,2). Hiru kasuetan, ratio hori 2024koaren antzekoa izan zen (% 23,1, % 21,6 eta % 42,0, EAEn, Nafarroan eta Estatuan), beraz, erreformaren helburua beteta egongo litzateke, erreforma horren aurretik ohikoa izaten zen % 10 eskas horretatik urruntzea lortu baita.

[1] 2022ko martxoaren 30ean ezarritako araudiaren aldaketak 2023ko emaitzetan erakutsi zuen bere inpaktua, erregistratutako kontratu berriak murriztu ziren eta kontratu mugagabeak areagotu.

2. koadroa. Gizarte Segurantzako afiliazioaren eta erregistratutako kontratazioaren bilakaera

	Kopurua			Urte batetik besterako aldakuntza (%)		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Afiliazioa						
EAE	1.008.687	1.018.969	1.029.984	2,1	1,0	1,1
Nafarroa	303.200	306.917	312.302	2,4	1,2	1,8
Estatua	20.733.042	21.201.126	21.679.951	2,8	2,3	2,3
Kontratazioa						
EAE	730.146	749.692	758.341	-10,5	2,7	1,2
Nafarroa	288.064	284.224	295.622	-13,8	-1,3	4,0
Estatua	15.444.205	15.420.104	15.645.243	-15,7	-0,2	1,5

Oharra: Urte bakoitzeko abenduaren 31ko afiliatu kopurua (erregimen guztietan) eta urte bakoitzaren itxieran metatutako kontratuak.

Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE. Geuk egina.


Afiliazioaren hileko bilakaerari dagokionez, ekitaldia lauagoa izan zen: EAEn, Nafarroan eta Espainian erregistratutako hileko batez besteko hazkundea (+% 1,0, +% 1,5% eta +% 2,3) 2024koa baino txikiagoa izan zen (+% 1,6, +% 1,8 eta +% 2,6) eta maiatzean (+% 1,6, +% 2,3 eta +% 2,7) eta ekainean (+% 0,2, +% 0,6 eta +% 1,6) erregistratu ziren ekitaldiko urte arteko hileko dinamismorik handiena eta txikiena. Horrez gain, afiliazioaren hileko batez besteko hazkundea lehenengo seihilekoan (+% 0,9, +% 1,5 eta +% 2,1) baino apur bat handiagoa izan zen bigarren seihilekoan (+% 1,1, +% 1,6 eta +% 2,4), hiru eremuetan.

Kontratazio berriaren hileko bilakaerak berresten du hori, profila dinamikoagoa izan baitzen Nafarroan (+% 3,8, urte arteko hileko aldakuntza-tasaren batezbestekoa) EAEn eta Estatuan baino (+% 0,9 eta +% 1,3). Hiru kasuetan, hilabeteko batez besteko hazkundea handiagoa izan zen 2025eko azken seihilekoan (+% 2,8, +% 5,1 eta +% 2,6, hurrenez hurren), afiliazioan antzemandako joerarekin bat etorrita.

LABORAL kutxa

1. grafikoa. Gizarte Segurantzako afiliazioa eta erregistratutako kontratuak. Hileko bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: Gizarte Segurantza eta SEPE. Geuk egina.

Afiliazioaren bilakaera erregimenen arabera aztertuta, ikus daiteke Estatuak EAEk baino hazkunde handiagoa izan zuela; zehazki, aztertutako hiru kategorietatik bitan jardun positiboa izan zuten. Hala, soldatapeko enpleguak EAEko hazkundearen (+% 1,5) ia bikoitza izan zuen Estatuan (+% 2,8) eta, bi kasuetan, garrantzi handia izan zuen afiliazio osoan. Hala, soldatapeko enpleguaren tasa indartu egin zen EAEn (% 80,8; ehuneko +0,3 puntu) eta Estatuan (% 79,3; ehuneko +0,4 puntu). Esan beharra dago, bi kasuetan, hazkundea 2024an baino handiagoa izan zela (+% 1,4 eta +% 2,7).

Era berean, autonomoen afiliazioetan bilakaera desberdina izan zen: gora egin zuen Estatuan (+% 1,1), eta beheranzko arina izan zuen EAEn (-% 0,4), eta, bi kasuetan, 2024ko emaitzak okertu ziren (+% 1,2 eta -% 0,1, hurrenez hurren). Azkenik, gainerako

erregimenekin lotutako afiliazioak[1] behera egin zuen EAEn (-% 1,0) eta Estatuan (-% 2,2), eta beherakada hori 2024koa baino txikiagoa izan arren (-% 3,4 eta -% 1,7, hurrenez hurren), 2023-2025 hirurtekoan eboluzioaren profila negatiboa izan zela berresten du.

Azken batean, enpleguaren igoera besteren konturako modalitateak bultzatu zuen eta, hala, soldatapeko langileen tasak finkatzen jarraitu zuen. Aldi berean, enplegu autonomoak pisua galdu zuen bi kasuetan[2], eta, erregimen orokorraren dinamismoaren aldean hazkunde erlatibo txikiagoa izan zuen. Badirudi epe laburrean eutsi egingo zaiola joera horri[3].

3. koadroa. Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregimenaren arabera

	EAE			Estatua		
	2025	%	Δ 25/24	2025	%	Δ 25/24
Erregimen orokorra	832.120	80,8	1,5	17.187.639	79,3	2,8
Autonomoak	166.001	16,1	-0,4	3.419.210	15,8	1,1
Gainerakoak*	31.881	3,1	-1,0	1.073.102	4,9	-2,2
Afiliazioa, guztira	1.029.984	100,0	1,1	21.679.951	100,0	2,3

(*): Barne hartzen ditu: Itsasoko Langileen Erregimen Berezia, Erregimen Orokorreko Etxeko Langileen Sistema Berezia, Erregimen Orokorreko Nekazaritzako Langileen Sistema Berezia.
Oharra: Afiliatuak, urte bakoitzeko abenduaren 31n.
Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.

Afiliazioaren hobekuntza nahiko partekatua izan zen, eta lehen sektorea (-% 2,7; -297 afiliazio), manufakturaren industria (-% 0,2; -412), merkataritza eta ibilgailuen konponketak (-% 0,2; -232), beste zerbitzu batzuk (-% 0,5; -143) eta familia enplegatzaileak (-% 0,5; -138) izan ziren salbuespena. Gainerako jardueren dinamismoak konpentsatu zituen galera horiek, eta, batez ere, jarduera hauen multzoak, urte arteko % 2tik gorako hazkundea izan baitzuten: uraren hornikuntza eta saneamendua (+% 2,4; +163); eraikuntza (+% 2,3; +1.340); informazioa eta komunikazioa (+% 2,3; +624); jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+% 2,6; +1.688), administrazio-jarduerak eta osagarriak (+% 3,1; +2.078) eta arte-, aisialdi- eta entretenimendu-jarduerak (+% 3,2; +652). Horiez gain, hezkuntzako jarduerak (+% 1,9; +1.592) eta osasun arlokoak (+% 1,9, +2.321) ratio horren inguruan gelditu ziren eta bolumen handiko ekarpena egin zioten bai afiliazio osoari, bai garbiari.

[1] Talde horretan sartzen dira etxeko enplegatzaileen erregimen berezian izandako afiliazioak (% 83,9 eta % 32,1 EAEn eta Estatuan); 2024an arlo horrek 1.084 (-% 3,9) eta 18.847 (-% 5,1) afiliazio galdu zituen, hurrenez hurren; izan ere, beheranzko profila izan zuen, lan-merkatuaren dinamismo orokorretik aldenduta. Bestalde, erregimen multzo horren barruan, murriztu egin zen nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako afiliazioa EAEn (-% 0,8), eta ia berdina izan zen Estatuan (-% 0,1).

[2] 2024an % 16,4 eta % 16,0 EAEn eta Estatuan.

[3] Enplegutik ateratzeko unearen ondorioz (lan-bizitza amaitzea, familiako negozioekin lotuta dauden eta ordezkatzen zailak diren jardueretan, ostalaritzan, txikizkako merkataritzan, etab.); aldi berean, lanpostuen eskaintza handiari eusten zaio (publikoa eta pribatua, soldatapeko modalitatean), eta horrek oraindik eta zailagoa egiten du norbere konturako lana aukeratzea.

LABORAL kutxa

Ekitaldiaren bilakaerak ez zuen enpleguaren barruko konposizioa aldatu. Jarduera batzuek pisu handia izan zuten, baina 2024koa baino apur bat txikiagoa edozelan ere, horiek izan ziren manufakturaren industria (% 16,8, ehuneko -0,3 puntu), merkataritza eta ibilgailuen salmenta eta konponketa (% 13,2; ehuneko -0,2 puntu) eta administrazio publikoa (% 5,1; ehuneko -0,1 puntu). Aldiz, eraikuntzaren (% 5,8), jarduera profesionalen, zientifikoen eta teknikoen (% 6,4), administrazio-jardueren eta osagarrien (% 6,7) eta osasun-jardueren (% 11,8) pisu erlatiboak hobera egin zuen (ehuneko +0,1 puntu kasu guztietan). Azken finean, talde horrek bere pisu erlatiboa hobetu zuen, bai eta hezkuntzak (% 8,3) eta Administrazio Publikoak ere (% 5,1), eta hiruren artean EAEko afiliazio ia osoa osatu zuten (% 44,1).

4. koadroa. Gizarte Segurantzako afiliazioa, jarduera arloen arabera. EAE

	2024	2025		
	Afiliazioa	Afiliazioa	%	Δ 25/24
Lehen sektorea	10.924	10.627	1,0	-2,7
Erauzketa-industriak	535	570	0,1	6,5
Manufaktura-industria	173.798	173.386	16,8	-0,2
Energia-hornidura	1.768	1.787	0,2	1,1
Ur-hornidura eta hondakinak	6.715	6.878	0,7	2,4
Eraikuntza	58.173	59.513	5,8	2,3
Ibilgailuen merkataritza eta konponketa	136.516	136.284	13,2	-0,2
Garraioa eta biltegiratzea	47.439	47.952	4,7	1,1
Ostalaritza	71.530	72.367	7,0	1,2
Informazioa eta komunikazioa	27.427	28.051	2,7	2,3
Finantza- eta aseguru-jarduerak	17.315	17.619	1,7	1,8
Higiezinen arloko jarduerak	4.383	4.458	0,4	1,7
Jarduera profesional zientifiko-teknikoak	64.311	65.999	6,4	2,6
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	66.886	68.964	6,7	3,1
Administrazio Publikoa eta Gizarte Segurantza	52.660	52.648	5,1	0,0
Hezkuntza	84.259	85.851	8,3	1,9
Osasungintzako jarduerak eta gizarte-zerbitzuak	119.107	121.428	11,8	1,9
Artearen, aisialdiaren eta entretenimenduaren arloko jarduerak	20.128	20.780	2,0	3,2
Beste zerbitzu batzuk	27.064	26.921	2,6	-0,5
Etxeko langileak	27.944	27.806	2,7	-0,5
Lurraldez kanpoko erakundeak	87	95	0,0	9,2
Afiliazioa, guztira	1.018.969	1.029.984	100,0	1,1

Oharra: Afiliatuak, urte bakoitzeko abenduaren 31n.
Iturria: Gizarte Segurantza. Geuk egina.

Erregistratutako langabeziaren bilakaera azken urteetako beheranzko joeraren barruan mantendu zen, pandemiaren biurtekoak utzitako efekturik okerrenak egokitu ostean. Hala, 2025 amaieran, Nafarroan eta Estatuan behera egin zuen berriro ere adierazle horrek (-% 2,9 eta -% 5,9), baina EAEn balio berbera errepikatu zen (+% 0,1). Bestalde, langabeziaren tasa % 10etik beherakoa izan zen hiru eremuetan (% 7,5, % 8,1 eta % 9,9 EAEn, Nafarroan eta Estatuan). EAEn (ehuneko -0,8 puntu) eta Estatuan (ehuneko -0,7

puntu) jaitsiera izan zuen eta Nafarroan (ehuneko +1,4 puntu) gora egin zuen, aurretiazko joerarekin apurtuz eta erregistratutako langabeziak zekarren joeratik urrunduz[1].


5. koadroa. Erregistratutako langabeziaren eta langabezia-tasaren bilakaera

	Datua			Urte batetik besterako aldakuntza		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Erregistratutako langabezia (kop.; %)						
EAE	107.779	107.380	107.434	-2,7	-0,4	0,1
Nafarroa	29.998	30.355	29.483	-5,1	1,2	-2,9
Estatua	2.707.465	2.560.718	2.408.670	-4,6	-5,4	-5,9
Langabezia-tasa (%; ep)						
EAE	6,5	8,3	7,5	-2,6	1,8	-0,8
Nafarroa	9,3	6,7	8,1	-1,0	-2,6	1,4
Estatua	11,9	10,7	9,9	-1,2	-1,2	-0,7

Oharra: urte bakoitzeko abenduan erregistratutako langabezia eta urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoko langabezia-tasa (16 - 64 urte). Langabezia-tasaren aldakuntza ehuneko puntutan adierazi dugu.
Iturria: SEPE eta EIN (BAI, Biztanleria Aktiboaren Inkesta). Geuk egina.

2. grafikoa. Sektoreko adierazle nagusien bilakaera. EAE

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Oharra: Industria Ekoizpenaren Indizea, Eraikuntza Indize Koiunturala, Merkatuko Beste Zerbitzu Batzuen Indizea eta Txikizkako Merkataritzaren Indizea zerbitzugunerik gabe (biak, prezio konstanteetan).
Iturria: Eustat. Geuk egina.


Jarduera sektorialaren balantzeak erakusten du ibilbide bakoitza desberdina izan zela, nahiz eta emaitza partekatua izan: ekitaldi-amaiera positiboaren prebalentzia. Hala, eraikuntzaren jardueran hazkunde handia izan zen, hobekuntza-ibilbide garrantzitsua izan baitzen 2025ean, bi digituko urte arteko hazkundearekin (+% 10,4 eta +% 12,0 bigarren eta hirugarren hiruhilekoan). Aldiz, merkatuko zerbitzuek eta txikizkako merkataritzak ibilbide positiboa mantendu zuten, eta urte arteko batez besteko hazkundea % 2tik gorakoa izan zen (+% 2,7 eta +% 2,3). 2024arekin alderatuta, hazkundea, hurrenez hurren, txikiagoa

[1] Langabezia-tasa EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestan lortutako emaitzen arabera osatzen da, eta erregistratutako langabezia, aldiz, errolda-izaera duen erregistro administratiboa da, benetan enplegurik ez duten pertsona guztien gainekoa.

(+% 3,4) eta handiagoa (+% 1,8) izan zen. Azkenik, egoera ahulean egon arren, industriak urte arteko bilakaera positiboa lortu zuen urteko azken bi hiruhilekoetan (+% 0,0 eta +% 0,6) eta 2024an hasitako atzeranzko joera etetea lortu zuen.

Euskal ekonomiaren termometroaren grafikoak erakusten du ekitaldiaren ibilbidea oso positiboa izan zela: 100era iristear (99,4) hasi zen, aurreko urteko hileko erregistro guztiak hobetuz, eta atalase horren gainetik (104,2) amaitu zen urtea. Gainera, zortzi hilabetez jarraian geratu zen erreferentzia horren gainetik. Horrek berresten du urteko balantzean hileko hobekuntza jarraitua izan zela, eta hobekuntzak kateatu zirela 24 hilabetez, urteko 93,2ko eta 100,2ko batez besteko balioarekin 2024an eta 2025ean.

3. grafikoa. Euskadiko ekonomiaren termometroa



Oharra: Adierazlea 50 baino baxuagoa bada, ekonomiak behera egin duela esan nahi du; 50 eta 100 artean kokatzen bada, apur bat hazi dela; eta 100etik gorakoa bada, ekonomiak hazkunde sendoa izan duela.
Iturria: Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Ekonomia Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza)


Baina 2025eko datu makroekonomikoak positiboak izan ziren arren, EAEko familien konfiantzak okerrera egin zuen hiruhileko batetik bestera, eta urtea azken zortzi hiruhilekoetako emaitzarik txarrenarekin itxi zen. Euskadiko familien konfiantza urrun zegoen neutraltasunetik eta balio oso negatiboetan kokatu zen (-6, urte arteko batezbestekoa). Hortaz, 2024ko emaitza onenetik urrundu zen (-3,5) eta aurreko biurtekoko ezkortasunaren bidera itzuli zen (2023an eta 2022an -9 eta -11, hurrenez hurren).

Ekonomia orokorraren joeraren gaineko igurikimenek okerrera egin izana izan zen konfiantzaren galeraren arrazoi nagusia (2024an eta 2025ean -15 eta -22, urte arteko batezbestekoa), munduko[1] eta estatuko testuinguru geopolitikoak eragindako ziurgabetasunaren eraginez. Familiek aurrezteko gaitasunean zuten konfiantzak eta langabeziaren eboluzioak ez zuten hori konpentsatzea lortu (2024an eta 2025ean +2 eta +3, bi kasuetan). Familiek familiako ekonomiaren joeraren gainean zuten konfiantzak

[1] Trumpen Administrazioaren jarduna (muga-zergak) eta gatazka belikoak (Ukraina, Gaza, Iran...) elementu oso desegonkortzaileak izan ziren eta mesfidantza handia eragin zuten mundu mailan.

okerrera egin zuen (-5 eta -9, hurrenez hurren, 2024an eta 2025ean), ingurunea oso nahasia eta ziurgabea zelako eta, horrez gain, prezioen eboluzioen gaineko igurikimenek okerrera egin zutelako (+4 eta -18 2024an eta 2025ean).

4. grafikoa. Familien konfiantza-indizea. EAE



Oharra: indizea positiboa bada (100 arte), egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek; indizea negatiboa bada (-100 arte), berriz, egoerak okerrera egingo duela uste dute familia gehienek.
Iturria: Laboral Kutxa. Geuk egina.

Azkenik, 2025ean zehar EAEko BPGa hazteak berretsi egiten ditu aipatutako alderdi horiek. Hazkunde ekonomikoaren bilakaerak pixkanakako hobekuntza erakusten du, behetik gora egin baitzuen: 2024ko hiruhileko areko tasak behera egin zuen etengabe, eta % 0,5eko batezbestekoan geratu zen. 2025eko ibilbidea, berriz, atalase horren gainetik (% 0,6) mantendu zen eta 2025ean lortutako hobekuntza-profila ahalbidetu zuen, % 2,3ko urte arteko balantze globala lortuz, 2024koa (% 2,5) baino bi hamarren txikiagoa soilik. Hortaz, hobekuntza-ibilbidearen barruan mantendu zen, bizitako agertoki ziurgabearen ondorioz.


Euskal ekonomiak 2026rako dituen hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenek oraindik ez dituzte barneratu Ekialde Ertaineko egoera belikoak jarraituz gero krisi energetikoak[1] izan ditzakeen inpaktuak, batez ere Irango desegonkortze-egoera dela eta. 2025 amaieran, Laboral Kutxak[2] (% 1,7tik % 2,0ra), Confebaskek[3] (+% 2,1) eta Eusko Jaurlaritzak[4] (+% 1,9) egindako aurreikuspenek 2025ean baino balio neurritsuagoak aurreikusten zituzten, BBVA Researchek[5] izan ezik, adibidez (+% 2,2). Datozen hilabeteetan gertatzen dena erabakigarria izango da urte osoari begira. Izan ere, Trumpen Administrazioak sortutako

[1] 2026ko apirilaren erdialdean, bi fronte ditu erronkak: Ormuzko itsasartearen irekiera (merkataritzako fluxua) eta hondatutako instalazioetan egindako konponketak, baita horiek egiteko epea ere. Horrek guztiak energia-merkatuen tentsionamendua (eskuragarritasuna) eta prezioak (inpaktua prezioetan islatuko da) baldintzatuko ditu.
[2] 2025eko azaroaren 25a.
[3] 2025eko abenduaren 18a.
[4] 2025eko abenduaren 26a.
[5] 2026ko urtarrilaren 20a.

gatazka bideratu behar du, eta egun oso ahuldua dagoen sinesgarritasunaren oinarriak finkatu behar ditu.

5. grafikoa. BPGaren hiruhilekoko bilakaera. EAE

(Aldakuntza-tasa)



Oharra: bolumen-indize kateatua, urtaroen eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak oinarri hartuta.
Iturria: Hiru hilez behingo kontu ekonomikoak. Eustat. Geuk egina.

6. koadroa. Prezioen bilakaeraren testuingurua

	KPI orokorra[1]			Azpiko KPI[2]		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Eurogunea	2,9	2,4	2,0	3,9	2,7	2,3
Alemania	3,8	2,8	2,0	3,7	3,3	5,4
Frantzia	4,1	1,8	0,7	3,8	1,9	3,7
Italia	0,5	1,4	1,2	3,2	1,8	1,1
Danimarka	0,4	1,8	1,9	2,5	1,4	2,4
Herbehereak	1,0	3,9	2,7	3,7	4,3	3,1
Portugal	1,9	3,1	2,4	3,1	3,0	8,3
Suedia	1,9	1,6	2,1	5,0	2,7	3,9
Espainia	3,3	2,8	2,9	4,0	2,6	2,6
EAE	3,1	3,6	2,9	3,9	3,3	2,4
Nafarroa	2,9	2,7	2,6	3,5	2,5	2,2

[1] (HICP) – KPI orokor bateratua [2] (HICP) – KPI, prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak barne hartu gabe.
Oharra: Urte arteko aldakuntza-tasa, urte bakoitzeko abendutik abendura.
Iturria: Eurostat (oinarri-urtea 2015 eta 2025) eta EIN (oinarri-urtea 2025). Geuk egina.

Argi eta garbi, 2025ean % 2ko joerara (KPI orokorra) itzuli zen Euro Eremua, baina balio horren gainetik mantendu zen azpiko osagarrian (% 2,3). Baina, gainera, desberdintasun geografiko handiak mantendu ziren: Frantziako (% 0,7) eta Italiako (% 1,2) inflazioa Alemaniako (% 2,0), Espainiako[1] (% 2,9) edo Herbeheretako (% 2,7) edo Suediako (% 2,1) inflazioaren erdia izan zen, herrialde horietan % 2ko atalasea gainditu baitzen. Hala, inflazioaren beheranzko ibilbideak, eta, batez ere, Europako jarduera ekonomikoa

[1] Espainiako KPIaren (Eurostat) emaitzak +% 3,1 eta +% 1,4koak izan ziren, KPI Orokorraren hazkundearen antzekoak, baina emaitza oso desberdinarekin azpiko osagarrian, EINen emaitzarekin alderatuz gero.

dinamizatzeko beharrak[1] justifikatu zuten 2025ean izandako interes-tasen murrizketa. Orduan izan zuen mailarik baxuena 2023ko urtarriletik.

2026-2027rako munduko ekonomiaren hazkundearen igurukimenak % 3 ingurukoak dira, lrango gerrak eragindako ezegonkortasun geopolitikoa dela eta. ELGAk dio *"igurikimen ekonomikoak sendoak direla, nahiz eta krisi energetikoarengatik eta arrisku geopolitikoengatik ahuldu"*: Era berean, NDFk uste du *"gatazka luzeago edo zabalago batek, zatiketa geopolitiko are larriagoak, adimen artifizialaren ondorioz produktibitatearen gaineko igurikimenak berregokitzeak edo merkataritzako tentsioek asko ahuldu dezaketela hazkundea eta finantza-merkatuak ezegonkortu ditzaketela. Zor publiko handiak eta sinesgarritasun instituzionalaren galerak zaurgarritasunak areagotzen dituzte"*.

Bi erakundeek uste dute merkatu energetikoetan eta garraioaren fluxuetan izandako tentsioek garrantzia izango dutela, eta inpaktu horrek ondasunen eta zerbitzuen prezio (ia) guztiei eragingo diela. Horrek munduko jarduera ekonomikoa baldintzatuko du eta inpaktu desberdina izango du esposizioaren (gatazkaren hasieran inflazioarekiko izandakoa) eta arlo bakoitzean neurri zuzentzaileak ezartzeko gaitasunaren arabera. Egiazki, Trumpen Administrazioaren (2025-2026) erabakiek eta komunikazio-estrategiek tradizio diplomatikoaren zati garrantzitsu bat kolokan jarri dute, guztion onerako nazioarteko adostasunen erabilgarritasuna eta beharra zalantzan jarri dituzte, eta, horrez gain, aldakortasun handia izan dute, ziurgabetasun eta segurtasun falta juridiko handia transmitituz eragile ekonomikoei zein sozialei.

7. koadroa. Egindako ekonomia-aurreikuspenak.

(%)

	ELGA			NDF		
	2025	2026	2027	2025	2026	2027
Eurogunea	1,4	0,8	1,2	1,4	1,1	1,2
Alemania	0,3	0,7	1,1	0,2	0,8	1,2
Frantzia	0,9	0,7	0,8	0,9	0,9	0,9
Italia	0,5	0,5	0,6	0,5	0,5	0,5
Espainia	2,8	2,2	1,7	2,8	2,1	1,8
Munduko ekonomia	3,4	2,8	3,1	3,4	3,1	3,2
AEB	2,1	2,0	1,8	2,1	2,3	2,1
Txina	5,0	4,5	4,3	5,0	4,4	4,0

Iturria: ELGA (2026ko martxoa) eta NDF (2026ko apirila). Geuk egina.

[1] 2025eko ekainaren 6an, EBZk interes-tasen azken murrizketa egin zuen eta ez zuen aldaketarik egin 2025 amaierara arte (2025eko abenduaren 18ko bilera). 2026ko martxoaren 19ko bileran ere ez dira aldatu, baina erakundea *"arretaz aztertzen ari da egoera, eta datuen araberako ikuspegiak lagunduko dio moneta-politikarentzako bitarteko egokia definitzen"*. Jarrera hori interes-tasetan murrizketa berriei atea ireki diezaiekeen seinaletzat jotzen da; izan ere, 2026an EBZk inflazioaren igurikimena handitu du abenduarekin alderatuta (2,6; ehuneko +0,7 puntu) eta hazkunde ekonomikoa murriztu du (0,9; ehuneko -0,3 puntu).

LABORAL kutxa

2. INGURUNE EKONOMIKOA (NAZIOARTEKOA ETA ESTATUKOA)

2.1 NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak: ekoizpen-jarduera

Nazioarteko Diru Funtsaren arabera[1], munduko ekonomia % 3,4 hazi zen 2025ean. Era horretan, aurreko ekitaldian lortutako hedapen-erritmoa mantendu zen nazioarteko testuinguru asaldatuan, ziurgabetasun ekonomiko eta komertzial handiak, muga-zergen igoerak eta tentsio geopolitikoen iraunkortasunak eragindako oztopoekin. Hala ere, kontrako faktore horiek hein batean orekatu ziren, hasieran iragarritako muga-zergen eragina txikiagoa izan zelako, finantza-baldintzak moldakorragoak izan zirelako, ekonomia batzuetan zerga- eta moneta-politikak lagungarriak izan zirelako, dolarrak balioa galdu zuelako eta inbertsio teknologikoa dinamikoa izan zelako, batik bat adimen artifizialari lotutakoa.

Oro har, munduko jarduera ekonomikoaren bulkadak neurritsua izaten jarraitu zuen, baina egonkor samarra. Ekonomia aurreratuen hazkunde-erritmoa zertxobait areagotu zen (% 1,9 2025ean, eta % 1,8 2024an); aldi berean, susperraldian eta garapen-bidean dauden merkatuetako ekonomietan, hedapena oso neurri txikian jaitsi zen (% 4,4, eta aurreko urtean, % 4,5), eta, edonola ere, munduko hazkundearen euskarri nagusia izaten jarraitu zuten.

Herrialde industrializatuei erreparatuta, ELGAk ekainean egindako aurreikuspenen arabera, aurrerapausoen 2025eko erritmoa eta aurreko ekitaldikoa antzekoak izan ziren, % 1,8ko hedapenarekin. Alde horretatik, AEBko ekonomia izan zen dinamikoena ekonomia aurreratuen artean, nahiz eta dezeleraziora jo, argi eta garbi.

[1] 2026ko apirileko World Economic Outlookeko informazioa.

8. koadroa. Barne Produktu Gordinaren bilakaera

(% Δ)

Herrialdea	2023	2024	2025
Estatu Batuak	2,9	2,8	2,1
Japonia	0,7	-0,2	1,1
Alemania	-0,7	-0,5	0,3
Frantzia	1,6	1,1	0,9
Italia	0,9	0,8	0,5
Erresuma Batua	0,3	1,0	1,4
Kanada	2,0	2,0	1,7
Eurogunea	0,5	0,9	1,4
ELGA, guztira	1,8	1,8	1,8

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2026ko ekaina)

Zehazki, AEBko ekonomia % 2,1 hazi zen 2025ean (aurreko ekitaldian baino ehuneko zazpi hamarren gutxiago), kontsumo publikoak indarra galdu zuelako (% 0,6ko igoera ahula) eta, hein txikiagoan, inbertsioa eta kontsumo pribatua txikiagotu zirelako (% 2,7ko eta % 2,6ko aurrerapenak, hurrenez hurren).

Bestalde, Japoniak % 1,1 egin zuen gora 2025ean (atzerapauso txikia 2024an, -% 0,2), nola kontsumo pribatua hala inbertsioa suspertu zirelako (% 1,3ko eta % 0,9ko igoerak, hurrenez hurren), nahiz eta kontsumo publikoa neurritsua izan (% 1eko igoera).

Susperraldian eta garapen-bidean dauden merkatuetako ekonomien esparruan, India nabarmendu behar da, dinamismo handiagatik (% 7,6ko hazkundea 2025ean); baita Brasil ere, aurrerapen-erritmoa mugatu duelako (% 2,3); eta Errusia, geldialdia izan duelako (% 1eko hedapen txikia), Ukrainarekiko gatazka armatua luzatzen ari da eta.

9. koadroa. Kontsumo pribatuaren, kontsumo publikoaren eta inbertsioaren bilakaera

(% Δ)

Herrialdea	Kontsumo pribatua			Kontsumo publikoa			Inbertsioa		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Estatu Batuak	2,6	2,9	2,6	3,0	3,3	0,6	3,8	3,5	2,7
Japonia	0,1	-0,6	1,3	-0,2	1,6	1,0	1,9	-0,6	0,9
Alemania	-0,5	0,5	1,5	-0,2	2,6	1,5	-1,6	-3,2	0,0
Frantzia	0,8	1,0	0,5	1,5	1,4	1,6	0,7	-1,3	0,8
Italia	0,5	1,2	1,1	1,0	1,5	0,6	10,1	-3,1	3,5
Erresuma Batua	-0,4	-0,2	1,0	2,1	2,9	1,6	0,5	1,7	4,3
Kanada	2,3	2,2	2,3	2,4	3,8	2,4	-1,0	0,7	1,4
Eurogunea	0,5	1,3	1,5	1,5	2,3	1,6	2,5	-2,6	3,0
ELGA, guztira	1,8	2,0	2,1	2,0	2,7	1,6	3,1	0,8	2,2

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2026ko ekaina)

Europan, Euroguneak % 1,4raino indartu zuen hazkundea 2025ean, ahula izanik ere (% 0,9 2024an). Dena den, Alemaniako ekonomiak oso ahul jarraitu zuen (% 0,3 besterik ez zen igo 2025ean). Nolanahi ere, moneta bakarraren planoan alderdi positibo gisa aipatu behar

LABORAL kutxa

da inbertsioa suspertu zela (% 3ko aurrerapena 2025ean, eta aurreko ekitaldian, -% 2,6) eta kontsumo pribatua zertxobait indartu zela (% 1,5eko hazkundea, aurreko urtean % 1,3 izanik).

Kanpo-merkataritza

Hedapen ekonomikoa oraindik neurritsua den agertoki batean, ELGAko herrialdeen kanpo-merkataritza aurreko ekitaldian baino zertxobait dinamikoagoa izan zen 2025ean. Hartara, hazkundea azaleratu zen bai esportazioetan, bai inportazioetan (% 2,4 eta % 3,7 2025ean, eta % 1,8 eta % 1,9 2024an, hurrenez hurren). Hala ere, nahiz eta hobekuntza gertatu, nazioarteko merkataritzaren tonu orokorrak neurritsu samar jarraitu zuen, egoera ikusita: ziurgabetasuna, merkataritza-fluxuen berrantolaketa eta tentsio geopolitiko zein komertzialen iraunkortasuna.

Herrialdeen arabera, Frantziak eta Erresuma Batuak kanpoan egindako erosketen bultzada azpimarratzekoa da (% 4,3ko eta % 4,2ko igoera, hurrenez hurren), eta, hein txikiagoa, Japoniak eta Frantziak kanpoan egindako salmentena (% 2,5eko eta % 2,3ko hazkundea, hurrenez hurren). Kontrako muturrean, AEBko esportazioek eta inportazioek indarra galdu zuten, ezbairik gabe (% 1,6ko eta % 2,7ko aurrerapausoak 2025ean, eta % 3,6 eta % 5,8koak 2024an, hurrenez hurren).

10. koadroa. Ondasun eta zerbitzuen truke-bolumenaren aldakuntzak

(% Δ)

Herrialdea	Inportazioak			Esportazioak		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Estatu Batuak	-0,9	5,8	2,7	2,8	3,6	1,6
Japonia	-0,4	1,7	3,8	3,1	2,2	2,5
Alemania	-1,0	-0,4	3,2	-0,9	-1,9	-0,7
Frantzia	0,1	-1,3	4,3	2,8	2,4	2,3
Italia	-1,9	-1,0	3,6	-0,2	-0,4	1,2
Erresuma Batua	-1,6	2,7	4,2	-2,3	1,3	2,1
Kanada	1,2	0,7	-0,4	6,2	0,9	-1,7
ELGA, guztira	-0,6	1,9	3,7	0,5	1,8	2,4

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2026ko ekaina)

Prezioak

Petrolioaren prezioak 2025ean izandako beherakadak (Brent upelaren prezioa, 2024an upeleko 80,5 dolarrekoa izatetik, 2025ean 69,1 dolarrekoa izatera pasatu zen) inflazioaren gaineko presioak arintzen lagundu zuen kontuan hartutako herrialde gehienetan.

Hala, ELGAren arabera, 2025ean kontsumoko prezio-indizearen hazkundea % 2,7ra jaitsi zen Estatu Batuetan, eta % 2,1era Eurogunean; aurreko ekitaldian % 3ko eta % 2,4ko hazkundeak izan ziren, hurrenez hurren.

11. koadroa. Kontsumoaren prezio-indizearen bilakaera

(% Δ)

Herrialdea	2023	2024	2025
Estatu Batuak	4,1	3,0	2,7
Japonia	3,3	2,7	3,2
Alemania	6,0	2,5	2,3
Frantzia	5,7	2,3	0,9
Italia	5,9	1,1	1,6
Erresuma Batua	7,3	2,5	3,4
Kanada	3,9	2,4	2,1
Eurogunea	5,4	2,4	2,1

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2026ko ekaina)

Egoera horretan, aipatzekoa da AEBko Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak moneta-politikak doitzen jarraitu zutela 2025ean zehar. Hala, esku hartzeko tasak mailaz maila egokitu zituzten, bilakaera makroekonomikoa ikusita. Azkenean, ekitaldia amaitu zenean, % 2,15 izan zen Europako Banku Zentralaren kasuan, eta % 3,75, Erreserba Federalarenean (ehuneko -1 eta -0,75 puntu 2024aren amaieraren aldean, hurrenez hurren).

Lan-merkatua

Herrialde industrializatuetako lan-merkatuek portaera heterogeneoa eduki zuten 2025ean, eta pixka bat okerrera egin zuen AEBn. Han, langabezia-tasa pixka bat igo zen, 2024ko % 4tik % 4,3ra. Eurogunean, aldiz, tasa hori egonkortu egin zen, eta % 6,4an jarraitu zuen. Mundu-mailan, ELGA osatzen duten herrialdeei begira, langabezia-tasa oso gutxi igo zen, 2024ko % 4,9tik 2025eko % 5era. Bilakaera horrek adierazten du lan-merkatua erresistente samarra dela oraindik, baina ahultasun-seinaleekin noizean behin.

12. koadroa. Langabezia-tasa

(biztanleria aktiboaren %)

Herrialdea	2023	2024	2025
Estatu Batuak	3,6	4,0	4,3
Japonia	2,6	2,5	2,5
Alemania	3,1	3,4	3,8
Frantzia	7,4	7,4	7,7
Italia	7,7	6,5	6,0
Erresuma Batua	4,0	4,3	4,8
Kanada	5,4	6,4	6,8
Eurogunea	6,6	6,4	6,4
ELGA, guztira	4,8	4,9	5,0

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2026ko ekaina)

LABORAL kutxa

Diru- eta aurrekontu-politika

2025ean, ekonomia industrializatu nagusietako administrazio publikoen finantzazio-premiak hein batean onbideratu ziren, baina aldeak daude herrialde batetik bestera. Esate baterako, AEBko defizita jaitsi egin zen: BPG nominala -% 7,9 izan zen 2024an, eta 2025ean, -% 7,3. Aldi berean, hobera egiteko bidean jarraitu zuen Euroguneak, -% 3,1etik -% 2,9ra igarota. ELGA osoan, saldo negatiboa ere neurritsuagoa izan zen: aurreko ekitaldiko -% 4,7tik 2025eko -% 4,4ra arte. Halaber, testuinguru honetan, aztertu diren herrialde gehienen defizit publikoa neurritsu samarra izan zen, Alemania salbuetsita, egonkor jarraitu baitzuen -% 2,7rekin.

13. koadroa. Administrazio Publikoen finantzaketa-beharrak (finantzaketa-ahalmena (+) edo finantzaketa-beharra (-), BPG nominalaren ehunekoaren arabera)


(BPGaren %)

Herrialdea	2023	2024	2025
Estatu Batuak	-7,8	-7,9	-7,3
Japonia	-2,3	-1,7	-1,0
Alemania	-2,5	-2,7	-2,7
Frantzia	-5,4	-5,8	-5,1
Italia	-7,1	-3,4	-3,1
Erresuma Batua	-6,0	-6,1	-5,5
Kanada	-0,2	-2,1	-1,8
Eurogunea	-3,5	-3,1	-2,9
ELGA, guztira	-4,7	-4,7	-4,4

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2026ko ekaina)

Moneta-politikari dagokionez, aurrez esan dugun moduan, 2025ean zehar hainbat doikuntza izan zituzten Erreserba Federalaren eta Europako Banku Zentralaren erreferentziazko tasek (kasu guztietan jaitsi egin ziren, bi kasuetan); hala, ekitaldiaren amaieran % 3,75ekoa eta % 2,15ekoa ziren, hurrenez hurren.

6. grafikoa. Interes-tasen bilakaera



Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2026ko ekaina)

Europar Batasuna

Europako Batzordeak udaberrian egindako aurreikuspenei jarraikiz, 2025ean, Europar Batasun osoak hedapen-erritmoa biziagotzen jarraitu zuen, % 1,5eraino (% 0,4 eta % 1,1, hurrenez hurren, 2023an eta 2024an), dinamismo neurritsuko testuinguru batean, nazioarteko ziurgabetasun handia ikusita.

Osagaiz osagai nabarmendu behar da barne-eskariaren hazkundea hein handian indartu zela (% 2,2, eta aurreko ekitaldian, % 0,9), bi alderdik bultzatuta: batetik, inbertsioaren igoera (% 2,8ko aurrerapena, eta urtebete lehenago, -% 2,2), eta bestetik —hein txikiagoan—, kontsumo pribatuaren dinamismoa mantendu izana (% 1,7ko hedapena, aurreko ekitaldikoaren antzekoa, % 1,6), nahiz eta kontsumo publikoaren hazkundea neurrizkoagoa izan zen (2025ean, % 1,7, eta 2024an, % 2,4).

Kanpo-merkataritzaren harira, Europar Batasuneko esportazioak eta inportazioak aurreko ekitaldian baino dinamikoagoak izan ziren (% 2,3ko eta % 3,7ko aurrerapausoak, eta urtebete lehenago, % 0,8 eta % 0,4, hurrenez hurren). Alabaina, oro har, kanpo-sektorea ehuneko zazpi hamarren negatiboko ekarpenetik hazkunde osora igaro zen (2024an, bi hamarreneko ekarpen positiboa).

14. koadroa. Adierazle nagusiak (EB)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2023	2024	2025
Jarduera			
–Kontsumo pribatua	0,3	1,6	1,7
–Kontsumo publikoa	1,6	2,4	1,7
–Kapital Finkoaren Eraketa Gordina	2,6	-2,2	2,8
–Barne-eskaria	-0,3	0,9	2,2
–Esportazioak	-0,4	0,8	2,3
–Inportazioak	-1,8	0,4	3,7
–BPG	0,4	1,1	1,5
Prezioak eta soldatak			
– BPGaren deflatorea	6,3	3,2	2,6
– Kontsumo pribatuaren deflatorea	6,5	2,6	2,3
– Banakako lan-kostu errealak	0,6	1,6	0,5

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2026ko udaberria).

Europar Batasuna osatzen duten herrialde guztiek hazkunde-tasa positiboak eduki zituzten 2025ean, nahiz eta alde handiak dauden batetik bestera. Zehazki, Alemaniak —Batasuneko ekonomia handiena eta ohiko trakzio-ekonomia nagusia— eta Finlandiak eduki zuten dinamismorik txikiena (% 0,2 bietan). Aitzitik, Irlanda, Malta, Zipre, Polonia, Kroazia eta Bulgaria bereziki indartsu aritu ziren, % 3tik gorako hazkundeekin (% 12,3, % 4, % 3,8, % 3,6, % 3,4 eta % 3,1, hurrenez hurren). Bestalde, Espainiak hedapen-erritmoa murriztu zuen; 2024an % 3,5etik 2025ean % 2,8ra. Dena den, kontuan hartu behar da aurreko ekitaldiaren aldean indarra galtzea gailendu dela oro har.

15. koadroa. Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundea (Europar Batasuna)

(Urte arteko aldakuntzaren %)

Herrialdea	2023	2024	2025
Irlanda	-2,5	2,6	12,3
Malta	10,6	6,2	4,0
Zipre	3,6	3,9	3,8
Polonia	0,2	3,2	3,6
Kroazia	3,8	3,8	3,4
Bulgaria	1,7	3,4	3,1
Danimarka	0,6	3,5	2,9
Lituania	0,7	3,0	2,9
Espainia	2,5	3,5	2,8
Txekiar Errepublika	0,0	1,3	2,6
Grezia	2,1	2,1	2,1
Letonia	-0,9	0,0	2,1
Portugal	3,1	2,2	1,9
Herbehereak	-0,6	1,1	1,8
EB	0,4	1,1	1,5
Suedia	-0,2	1,0	1,5
Eslovenia	2,4	1,7	1,1
Belgika	1,6	1,1	1,0
Eslovakia	2,1	1,9	0,8
Frantzia	1,4	1,2	0,8
Errumania	2,3	0,9	0,7
Luxenburgo	0,1	0,4	0,6
Estonia	-2,7	-0,1	0,6
Austria	-0,8	-0,7	0,6
Italia	0,9	0,8	0,5
Hungaria	-0,8	0,7	0,5
Finlandia	-1,3	0,4	0,2
Alemania	-0,9	-0,5	0,2

Iturria: European Economy. Europako Batzordea (2026ko udaberria).

Per capita BPGari dagokionez, erosketa-ahalmenaren parekotasuna kontuan hartuta, 2025ean oraindik ere ezberdintasun handiak zeuden Batasuneko herrialdeen artean. Hala, Luxenburgok zuen mailarik altuena (239; EB-27 osoari dagokion indizea 100 da), eta Bulgariak eta Greziak txikiena (68 bi kasuetan); hala, bata bestea baino 3,5 aldiz handiagoa zen. Herrialde hauek gainditu zuten Batasuneko batezbestekoa (neurri ezberdinetan): Irlanda (237), Herbehereak (134), Danimarka (127), Austria (117), Belgika eta Alemania (115 bi kasuetan), Malta eta Suedia (110 bi kasuetan) eta Finlandia (101). Gainerako herrialdeak batezbestekotik behera geratu ziren. Horrekin lotuta, aipatzekoa da EBn bata bestearen segidan kide berriak sartzearen ondorioz nabarmen jaitsi zela Batasuneko batez besteko per capita BPGa, beste urte batez.

LABORAL kutxa

16. koadroa. Europar Batasuneko *per capita* BPGa (PPS) 2025

Herrialdea	EB-27=100
Luxenburgo	239
Irlanda	237
Herbehereak	134
Danimarka	127
Austria	117
Belgika	115
Alemania	115
Malta	110
Suedia	110
Finlandia	101
EB-27 guztira	100
Frantzia	98
Zipre	98
Italia	96
Txekiar Errepublika	92
Espainia	92
Eslovenia	91
Lituania	88
Polonia	81
Portugal	81
Estonia	79
Kroazia	78
Errumania	78
Hungaria	76
Eslovakia	75
Letonia	71
Bulgaria	68
Grezia	68

Iturria: Eurostat (2026ko maiatza).

Aurreikuspenak

Ziurgabetasun handiak 2026-2027 biurtekorako aukerak baldintzatzen ditu. Agertoki horretan, tentsio geopolitikoen eta komertzialen iraunkortasuna larriagotu egin da Ekialde Ertaineko gatazkaren ondorioz eta merkatu energetikoetan izan ditzakeen eraginagatik, baita inflazio-igurikimenengatik eta mundu-mailako finantza-baldintzengatik ere.

Horiek horrela, Nazioarteko Diru Funtsak aurreikusten du munduko ekonomia % 3,1 haztea 2026an, eta % 3,2 2027an, hau da, 2024an eta 2025ean lortutako erritmoa baino zertxobait motelago, eta pandemiaren aurretiko batezbesteko historikotik urruti oraindik.

ELGAren ekaineko aurreikuspenei dagokienez, herrialde industrializatuen multzoaren hazkundea neurrizkoa izango da: % 1,5 eta % 1,7 2026an eta 2027an, hurrenez hurren. AEBko ekonomia dezeleratuko da (% 2,0tik % 1,8ra); Japonia neurri txikian suspertuko da (% 0,6 eta % 0,8); eta Euroguneak mailaz maila egingo du hobera (% 0,8 eta % 1,2, hurrenez hurren). Prezioen harira, inflazioaren joera apaltzea izango da, AEBn bereziki, Euroguneko

mailekin bat egiteko bidean. Bestalde, saldo publikoek defizit handi samarrak izaten jarraituko dute, batez ere AEBn eta, hein txikiagoan, Eurogunean.

17. koadroa. Ekonomia-aurreikuspenak (industrializatutako herrialdeak)

(%)

Kontzeptua	2026	2027
– BPG erreala (% Δ)		
Estatu Batuak	2,0	1,8
Japonia	0,6	0,8
Eurogunea	0,8	1,2
ELGA, guztira	1,5	1,7
– Inflazioa (kontsumoaren prezio-indizea) (%Δ)		
Estatu Batuak	3,5	2,3
Japonia	1,8	2,2
Eurogunea	2,8	2,4
– Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)		
Estatu Batuak	4,4	4,3
Japonia	2,7	2,7
Eurogunea	6,4	6,3
ELGA, guztira	5,1	5,0
– Defizit publikoa (BPGaren %)		
Estatu Batuak	-8,0	-7,7
Japonia	-1,9	-1,1
Eurogunea	-3,2	-3,3
ELGA, guztira	-4,8	-4,6

Iturria: ELGA. Ekonomia-aurreikuspenak (2026ko ekaina)

LABORAL kutxa

2.2 ESPAINIAKO EKONOMIA

Ezaugarri nagusiak

2025ean, Espainiako ekonomiaren hazkunde-erritmoa jaitsi egin zen % 2,8ra iritsi arte, aurreko ekitaldian baino zazpi hamarren baxuago (2024an % 3,5). Hala ere, Europako ekonomia nagusiek baino dinamismo handiagoa izan zuen.

Eskariaren ikuspegitik, 2025ean Espainiako ekonomiaren hazkundeari ekarpen positiboa egin zion barne-eskariak, ehuneko 3,6 puntutan kokatu baitzen (aurreko ekitaldian ehuneko 3,3 puntu positibo). Aldiz, kanpo-sektoreak igoera orokorrari zortzi hamarreneko jaitsiera eragin zion (ehuneko bi hamarren positibo 2024an).

Lan-merkatuari dagokionez, lau jarduera-sektore nagusietan enpleguak gora egin zuen oro har 2025ean, eta, ondorioz, biztanleria okupatua % 2,6 hazi zen (aurreko ekitaldian, % 2,2). Bestetik, langabetuen kopurua -% 5,9 murriztu zen; hala, 2.608.100 pertsona langabetu zenbatu ziren 2025ean, hau da, langabezia-tasa % 10,5ekoa izan zen (2024an % 11,3koa).

Prezioei dagokienez, 2025aren itxieran (abendutik abendura), KPIaren urte arteko aldakuntza % 2,9koa izan zen (aurreko ekitaldiaren itxieran, % 2,8koa zen). Urteko batezbestekoa, berriz, % 2,7koa izan zen (2024koa % 2,8koa izan zen).

Azkenik, aurrekontuen gauzatzeari dagokionez, Administrazio Publikoek BPGaren -% 2,39ko defizita izan zuten 2025ean (DANA denboraldiaren eragina barne); hala, aurreko ekitaldiko emaitza baino ehuneko 0,83 puntu hobea izan zen (2024an -% 3,22ko defizita izan zen).

Agregatu makroekonomiko nagusiak

2025ean zehar, Espainiako ekonomiak beheranzko joera izan zuen. Estatuko BPGaren urte arteko aldakuntza % 3,1ekoa izan zen lehen hiruhilekoan, % 2,9koa bigarrenean, % 2,7koa hirugarrenean eta % 2,6koa laugarrenean.

Txosten honen aurreko edizioetan egin bezala, jarraian ikuspegi hauen arabera aztertuko dugu jardueraren bilakaera: eskaria (norakoa), eskaintza (jarduera) eta errenta (banaketa).

- 2025ean, Estatuko guztizko BPGa 1.687.152 milioi eurokoa[1] izan zen. Azkeneko kontsumoari dagozkio 1.261.417 milioi (918.852 familiena, 18.595 familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeena eta

[1] Prezio korronteak.

323.970 administrazio publikoena), inbertsioari 347.698 (181.913 eraikuntzan, 95.395 ekipo-ondasunetan eta armamentu-sistemetan, 2.869 landatutako baliabide biologikoetan eta 67.521 jabetza intelektualaren produktuetan) eta izakinen aldakuntzari 13.518. Hala, barne-eskaria 1.622.633 milioi eurokoa izan zen. Esportazioak (618.130 milioi euro) eta inportazioak (553.611 milioi euro) ere kontuan izanda, haien arteko aldea kanpo-eskaria izanik, guztizko eskaria kalkulatzen da.

- Barne-eskariak hazkunde orokorrari egindako ehuneko 3,6 puntuko ekarpen positiboa konpentsatu du neurri batean kanpo-eskariak egindako ehuneko 0,8 puntuko ekarpen negatiboak. Barne-eskariari dagokionez, kontsumo pribatuaren hazkundea pixka bat handitu zen (2025ean % 3,3ko hazkundea eta 2024an % 3koa), kontsumo publikoa, aldiz, jaitsi egin zen (2025ean % 2,4, eta aurreko ekitaldian % 2,9) eta inbertsioaren hazkundeak sendotu egin du igoera % 5,8ra arte (2024an % 3,6koa izan zen).
- Sektorearen araberako banaketari erreparatuta, 45.255 milioi euro dagozkio lehen sektoreari, 240.086 milioi euro industriari, 90.183 milioi euro eraikuntzari eta 1.153.285 milioi euro zerbitzuei. Zifra horiek zerga garbiei (158.343 milioi euro) gehituta, guztizko ekoizpena kalkulatzen da.
- Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, sektore industrialaren eta eraikuntzaren hazkunde-erritmoa biziagotu egin zen (% 2,3 eta % 5,6 2025ean, eta % 1,9 eta % 4,8 2024an, hurrenez hurren). Lehen sektorean eta zerbitzuetan, ordea, behera egin zuen (% 1,2 eta % 3,2 2025ean, eta % 10,8 eta % 4 urtebete lehenago, hurrenez hurren).

18. koadroa. Barne-produktu gordina eta haren osagaiak (Eskaria eta Eskaintza)

(urte arteko tasaren %, bolumen kateatua)

	Eragiketak	2024	2025
ESKARIA	Azken kontsumoaren gastua	3,0	3,1
	– Etxebizitzena	3,0	3,3
	– EZIAGGE-ena	5,4	4,9
	– Administrazio publikoena	2,9	2,4
	Kapital finkoaren eraketa gordina	3,6	5,8
	– Eraikuntza	4,0	5,2
	– Ekipo-ondasunak eta armamentu-sistemak	1,9	7,4
	Izakinen aldakuntza*	0,3	0,0
	Barne-eskaria*	3,3	3,6
	Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	3,2	3,6
	Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	2,9	6,2
	Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan	3,5	2,8
ESKAINTZA	Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	10,8	1,2
	Industria	1,9	2,3
	Eraikuntza	4,8	5,6
	Zerbitzuak	4,0	3,2
	Produktuen gaineko zerga garbiak	-1,3	-0,5

(*): Merkatuko prezioen BPGaren hazkundeari egindako ekarpena.
Iturria: EIN.

Errentaren ikuspegitik, 2025ean, guztizko BPGaren % 48,5 hartu zuen soldatapekoen ordainketak, % 41,5 ustiapenaren soberakin gordinak eta, gainerako % 10a, ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiek.

19. koadroa. Barne Produktu Gordinaren banaketa (Errenta)

(% Δ nominala)

Eragiketak	2023	2024	2025	2025 (M eurotan)
Soldatapekoen ordainketa (1)	8,5	7,3	7,2	818.768
Ustiapenaren soberakin gordina(2)	9,3	5,2	3,6	699.457
Ekoizpenaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak(3)	8,9	7,9	8,6	168.927
Barne-produktu gordina, merkatu-prezioan(4)	8,9	6,4	5,8	1.687.152

(4) =(1)+(2)+(3).
Iturria: EIN.

Kanpo-merkataritza

Mundu mailan ziurgabetasun handia egon arren, estatuko esportazioak eta batez ere inportazioak handiagoak izan dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zehazki, kanpo-salmenten hazkundea % 3,2koa izan zen 2024an, eta % 3,6koa izatera pasatu zen 2025ean, eta kanpo-erosketen hazkundea, % 2,9tik % 6,2ra igo zen.

Era horretan, erkatuz gero, inportazioen dinamismoa handiagoa da esportazioena baino, eta kanpo-eskariak hazkunde osoari egindako ekarpena negatiboa izatera pasatu zen:

ehuneko -0,8 puntu 2025ean, eta ehuneko 0,2 puntu positibo aurreko ekitaldian. Datuak hiruhilekoen arabera aztertuta, kanpo-eskariak mundu mailako hazkundeari egindako ekarpena negatiboa izan zen hiruhileko guztietan.

Laneko prezioak eta kostuak

Estatuan, prezioen hazkundeak profil heterogeneoa eduki zuen 2025ean zehar. Haatik, oro har, bidea goranzkoa izan zen lehen bost hilabeteetan, eta beheranzkoa ordutik aurrera. Zehazki, Estatuko KPIaren urte batetik besterako aldakuntza % 2,9koa izan zen urtarrilean, % 3koa otsailean, % 2,3koa martxoan, % 2,2koa apirilean, % 2koa maiatzean, % 2,3koa ekainean, % 2,7koa uztailean zein abuztuan, % 3koa irailean, % 3,1ekoa urrian, % 3koa azaroan eta % 2,9koa abenduan.

Gauzak hala, 2025aren amaieran (abendutik abendurako urte arteko tasa) % 2,9koa izan zen inflazioa (2024aren amaieran, % 2,8). Aldi berean, prezioen batez besteko hazkundea % 2,7koa izan zen 2025ean (aurreko ekitaldian % 2,8). Nolanahi ere, azpimarratzekoa da azpiko inflazioak beheranzko joerari eutsi ziola, eta % 2,3an geratu zela (% 6koa izan zen 2023an eta % 2,9koa 2024an). Era berean, elikagaien kategoriak bere prezioen hazkundea % 2,7ra mugatu zuen (% 11,1koa izan zen 2023an eta % 3,6koa 2024an).

ELGAren arabera, 2025ean Eurogunearen inflazio-tasa (kontsumo-prezioen indizearen aldakuntzaren bidez neurtua) % 2,1ekoa izan zenez (2024an % 2,4koa), euroa duten herrialdeen blokea baino ehuneko 0,6 puntu handiagoa izan zen Espainiako ekonomiako inflazio-tasa (aurreko ekitaldian ehuneko 0,4 puntukoa izan zen).

Ondasun-multzoei erreparatuz, etxebizitzaren prezioak igo ziren gehien, alde handiz (% 6,2). Ondoren, nolabaiteko distantziara, aseguruak eta finantza-zerbitzuak geratu ziren (% 4,9); jatetxeak eta ostatu-zerbitzuak (% 4,3), edari alkoholdunak eta tabakoa (% 3,8), eta zaintza pertsonala, babes soziala eta askotariko ondasunak eta zerbitzuak (% 3). Horien guztien tasak % 3 edo handiagoak izan ziren. Jarraian, hauek geratu ziren: irakaskuntza, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak, osasungintza eta aisialdiko, kiroleko eta kulturako jarduerak, tasa txikixeagoekin (% 2,5, % 2,4, % 2,0 eta % 1,5, hurrenez hurren). Eta, azkenik, tasa txikienekin geratu ziren altzariak, garraioa, jantziak eta oinetakoak, eta informazio eta komunikazioak (hurrenez hurren, % 0,7, % 0,5, % 0,4 eta % 0,3).

LABORAL kutxa

20. koadroa. Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) eta Industriako Prezioen Indizea (IPRI)

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2023	2024	2025
KPI			
– Indize Orokorra(1)	3,1	2,8	2,9
– Indize Orokorra(2)	3,5	2,8	2,7
Elikagaiak	11,1	3,6	2,7
Elikagaiak ez direnak	1,0	2,5	2,7
Elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak	11,7	3,6	2,4
Alkoholdun edariak, tabakoa	7,6	4,0	3,8
Jantziak eta oinetakoak	2,2	0,9	0,4
Etxebizitza	-11,0	3,6	6,2
Etxeko tresneria	5,0	0,8	0,7
Osasuna	1,9	2,0	2,0
Garraioak	-0,4	0,7	0,5
Informazioa eta komunikazioak	1,9	-0,1	0,3
Aisialdiko, kiroleko eta kulturako jarduerak	5,4	2,9	1,5
Irakaskuntza	2,0	2,8	2,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	6,8	4,8	4,3
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	3,5	4,5	4,9
Zaintza pertsonala, babes soziala eta beste batzuk	5,0	2,7	3,0
Azpikoa	6,0	2,9	2,3
IPRI			
– Indize orokorra	-4,7	-3,7	0,9
Kontsumo-ondasunak	10,3	2,5	-0,9
Ekipo-ondasunak	3,3	2,1	1,8
Bitarteko ondasunak	-2,2	-2,7	-0,2
Energia	-19,9	-12,2	2,4

(1): Abendutik abendura.
(2): Urteko batez besteko aldakuntza.
Iturria: EIN.

Prezio industrialetan, indize orokorra % 0,9 igo zen 2025ean (2024an -% 3,7), batez ere prezio energetikoek hazkunde positiboak eduki zituztelako berriro (% 2,4, eta aurreko ekitaldian, -% 12,2). Bestalde, beherakada motelagoa izan zen tarteko ondasunen prezioetan (-% 0,2, eta -% 2,7 2024an). Ekipo-ondasunek, bestalde, hazkunde neurritsuagoa eduki zuten (2025ean % 1,8, eta % 2,1 aurreko ekitaldian). Ostera, kontsumo-ondasunen hazkundeak atzera egin zuen (2025ean -% 0,9, eta % 2,5 aurreko urtean).

2025ean laneko kostuek izandako bilakaerari dagokionez, laneko kostu unitarioa hazi egin zen: % 4,2 (2024an % 3,4ko hazkundea). Izan ere, produktibitatea -% 0,3 jaitsi zen, enplegu baliokidea (% 3,1) gehiago hazi zelako jarduera baino (% 2,8), eta soldatapeko bakoitzeko ordainketa % 3,9 hazi zen.

21. koadroa. Errenten eta soldata-kostuen adierazleak

(% Δ)

Kontzeptua	2023	2024	2025
BPG erreala	2,5	3,5	2,8
Enplegua guztira*	3,6	2,8	3,1
Produktibitatea	-1,1	0,7	-0,3
Soldatapekoen ordainketa	8,5	7,3	7,2
Soldatapeko enplegua*	3,7	3,2	3,3
Soldatapeko bakoitzeko ordainketa	4,8	4,1	3,9
Lan-kostu unitarioa	5,9	3,4	4,2

(*): Kontabilitate Nazionaleko enpleguaren datuak erabili dira: Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Guk geuk eginiko balioespena, EINen datuetatik abiatuta.

Lan-merkatua

Estatuko BPGa hazteko erritmoa moteldu egin zen 2025ean eta gora egin zuen okupazioak, eta behera langabeziak. Ondorioz, langabezia-tasa murriztu egin zen.

Zehazki, Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) Biztanleria Aktiboa Inkestaren (BAI) arabera, biztanleria okupatuak % 2,6 egin zuen gora 2025ean (2024an, % 2,2). Biztanleria aktiboaren guztizkoak, berriz, % 1,7 egin zuen gora.

Bestalde, jarduera-tasa zertxobait igo zen, % 59raino (2024an % 58,8); gizonezkoen tasa pixka bat jaitsi zen (2025ean % 63,8, eta % 63,9 aurreko ekitaldian), eta emakumezkoena, berriz, handitu (% 53,9tik % 54,4ra).

Sektorearen arabera, lana 22.221.100 pertsona enplegatura arte areagotu zen 2025ean (% 2,6), eta orokorra izan zen sektore guztietan. Zehatz-mehatz, eraikuntzari lotutako enplegua % 4,5 areagotu zen; industriari dagokiona, % 4,1; zerbitzuei lotutakoa, % 2,2; eta lehen sektorekoa, % 1,5.

Edonola ere, kontuan izan behar da, termino absolutuei dagokienez, hirugarren sektoreak izan zuela sektoreko enpleguaren hazkunderik handiena (2024an baino 370.800 pertsona okupatu gehiago). Hala, 2025ean sortutako enpleguaren % 65,4 baino gehiago hirugarren sektoreari zegokion.

LABORAL kutxa

22. koadroa. Lan-magnitude nagusien bilakaera. Urteko batezbestekoak

(mila pertsona eta %)

Kontzeptua	2025	% Δ		
		2023	2024	2025
Biztanleria aktiboa	24.829,3	2,1	1,3	1,7
Biztanleria okupatua	22.221,1	3,1	2,2	2,6
– Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	763,7	-3,9	-2,0	1,5
– Industria	3.005,5	1,3	2,6	4,1
– Eraikuntza	1.530,0	3,2	4,7	4,5
– Zerbitzuak	16.921,9	3,8	2,2	2,2
Biztanleria langabetua	2.608,1	-4,6	-5,7	-5,9
Langabezia-tasa*	10,5	-6,5	-6,9	-7,4

(*): Biztanleria aktiboaren %.
Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2026ko otsaileko datuak).

Biztanleria okupatuaren esparruan, soldatapeko langileak % 2,7 ugaritu ziren, eta soldatapekoak ez zirenak, % 2,2. Kontratu motari dagokionez, kontratu mugagabea zuten soldatapekoen kopuruak % 3,4 egin zuen gora 2025ean, eta aldi baterako kontratua zutenen kopuruak, berriz, -% 1,1 behera. Lanaldi motaren arabera, hazkunde handiagoa izan zuen lanaldi partzialeko enpleguak (% 3,6) lanaldi osokoak baino (% 2,5).

Biztanleria langabetua -% 5,9 murriztu zen 2025ean, eta 2.608.100 langabetu zenbatu zituzten. Hala, langabezia-tasa % 10,5era jaitsi zen (2024an % 11,3koa zen), baina Europako altuenetakoa izaten jarraitu zuen.

23. koadroa. Enplegua, lan-egoeraren eta kontratu motaren arabera. Urteko batezbestekoak

(mila pertsona eta %)

Kontzeptua	2025	% Δ		
		2023	2024	2025
Biztanleria okupatua	22.221,1	3,1	2,2	2,6
Soldatapekoak	18.936,2	3,4	2,7	2,7
– Sektore pribatua	15.387,4	3,9	3,0	3,4
– Sektore publikoa	3.548,8	1,6	1,1	-0,3
Soldatapekoak ez direnak*	3.284,9	1,3	-0,2	2,2
– Enplegu-emaileak	954,1	2,6	-5,8	-0,7
– Autonomoak	3.277,5	1,5	-0,2	2,2
– Kooperatibistak	23,7	-8,6	0,8	-4,4
– Familia-laguntza	68,2	-18,2	-2,5	10,4
Soldatapekoak, kontratu mugagabea	16.038,1	8,8	4,3	3,4
Soldatapekoak, aldi baterako kontratua	2.898,1	-16,4	-5,4	-1,1
Lanaldi osoko okupazioa	19.181,8	3,4	1,9	2,5
Lanaldi partzialeko okupazioa	3.039,3	1,2	4,1	3,6

(*): Batura ez dator bat guztizkoarekin, bertan sailkatu ezin direnak ere sartu baitira.
Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2026ko otsaileko datuak).

Sektore publikoa eta interes-tasak

2026ko martxoaren amaieran Ogasun Ministerioak emandako informazioaren arabera, 2025ean BPGaren -% 2,39 adinako defizita erregistratu zuten administrazio publikoek (DANA denboralearen eragina barne hartuta). Hala, ia ehuneko zortzi hamarrenetan hobetu zen aurreko ekitaldian erregistratutako saldo negatiboa: -% 3,22ko defizita 2024an.

Erakunde guztiak aintzat hartuta, tokiko erakundeek izan ezik (superabit txikia izan zuten, % 0,31koa), guztiek izan zuten saldo defizitarioa kontuetan 2025ean. Emaitza negatiborik handiena Administrazio Zentralak izan zuen (-% 1,86) eta, gero, Gizarte Segurantzak (-% 0,33) eta Autonomia Erkidegoek (-% 0,3). Aurreko urtearekin alderatuta, Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren saldo defizitarioa murriztu egin zen. Aldiz, Autonomia Erkidegoena handitu egin zen eta Tokiko Udalbatzena murriztu.

24. koadroa. Defizit publikoa

(BPGaren %)


Kontzeptua	2024	2025
Administrazio zentrala	-2,61	-1,86
Autonomia-erkidegoak	-0,18	-0,30
Tokiko udalbatzak	0,45	0,31
Gizarte Segurantza	-0,51	-0,33
DANAk denboralearen inpaktua izan zuten Administrazio Publikoak, guztira	-3,22	-2,39

Iturria: Ogasun Ministerioa (2026ko martxoak 31).

Azkenik, 2025aren itxieran Europako Banku Zentralaren eta Erreserba Federalaren erreferentziazko tasak % 2,15ekoak eta % 3,75ekoak izan ziren, hurrenez hurren, ekonomia dinamizatzeko egindako jaitsiera ugarien ondoren.

LABORAL kutxa

7. grafikoa. Interes-tasa ofizialen bilakaera: Europako Banku Zentrala eta Erreserba Federala



Iturria: EBZ (finantzazio-eragiketa nagusien tasa), Erreserba Federala (federal funds-en tarte objektiboaren goiko muga).

Aurreikuspenak

Bereziki ziurgabea den nazioarteko inguruneak baldintzatzen ditu ekitaldi honetarako aurreikuspen ekonomikoak. Izan ere, Ekialde Ertaineko gatazkak eta merkatu energetikoetan, inflazio-igurikimenetan eta mundu-mailako finantza-baldintzetan dauzkan eraginek larriagotu dute tentsio geopolitiko eta komertzialen iraunkortasuna. Hala ere, Espainiako ekonomiak hazkunde-diferentzial positiboa mantenduko du 2026an, Europako ekonomia handi gehienen ondoan, nahiz eta egungo dezelerazio-bidean jarraitu.

Alde horretatik, Gobernuak taula ekonomikoaren eguneratzea argitaratu zuen 2026ko ekainaren amaieran eta, horri jarraikiz, BPGak ekitaldi horretan % 2,6 aurrera egingo du (2027an % 2,2), barne-eskarian oinarrituta, enplegua % 2,4 areagotuta eta % 10etik zertxobait beherako langabezia-tasarekin (% 9,9).

25. koadroa. Espainiako ekonomiaren aurreikuspenak (2026)

Kontzeptua	Urte arteko aldakuntza-tasa
BPG eta ESKARI-AGREGATUAK	
Nazio mailako azken kontsumo pribatuaren gastua	2,8
Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua.	1,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,0
– Barne-eskaria (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena)	2,9
– Ondasunen eta zerbitzuen esportazioa	1,6
– Ondasunen eta zerbitzuen inportazioa	2,9
– Kanpo-saldoa (BPGaren hazkundeari egindako ekarpena)	-0,4
– BPG	2,6
LAN MERKATUA	
– Enpleguaren aldakuntza %-tan(*)	2,4
– Langabezia-tasa	9,9

(*): Lanaldi osoko enplegua edo baliokidea

Iturria: Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa. Irango gerrari erantzuteko eta taula ekonomikoa eguneratzeko errege lege-dekretua (2026ko ekainak 29).

LABORAL kutxa

3. IKUSPEGI OROKORRA

Hazkunde ekonomiko ahularen nazioarteko testuinguruan, EAEko BPGren hazkunde-erritmoa % 2,3ra jaitsi zen 2025ean eta, hala, 2022an hasitako dezelerazioarekin jarraitu zen (% 6,1, % 5,7, % 3 eta % 2,5eko hazkundea 2021ean, 2022an, 2023an eta 2024an, hurrenez hurren).

26. koadroa. Bilakaera orokorra

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
EAE					
– BPG	6,1	5,7	3,0	2,5	2,3
– Enplegua	3,2	2,2	2,9	-0,8	1,2
– Langabezia-tasa(1)	10,3	8,9	7,7	8,1	7,3
– KPI(2)	6,4	5,4	3,1	3,6	2,9
NAFARROA					
– BPG	5,9	4,3	1,9	2,7	2,3
– Enplegua	2,7	3,4	1,1	4,6	1,0
– Langabezia-tasa(1)	10,7	9,7	9,9	7,6	7,7
– KPI(2)	6,6	6,4	2,9	2,7	2,6
ESPAINIA					
– BPG	6,7	6,4	2,5	3,5	2,8
– Enplegua	3,3	3,6	3,1	2,2	2,6
– Langabezia-tasa(1)	14,9	13,0	12,2	11,3	10,5
– KPI(2)	6,5	5,7	3,1	2,8	2,9

(1): Biztanleria aktiboaren %.
(2): Aldakuntza abendutik abendura.
Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN (BAI, Biztanleria Oinarria, 2021).


Edonola ere, aintzat hartuta EAEko hazkundea handiagoa izan zela Eurogunekoa baino (% 1,4ko hazkunde txikia, ELGAren arabera), 2025ean aurrera jarraitu zuen Europako ekonomia nagusiekin bat etortzeko prozesuak.

Bestalde, BBVA Research eskualdeko behatokiak 2026ko martxoan egindako aurreikuspenei jarraituz, autonomia-erkidego guztiak modu orokortuan hazi ziren 2025ean. Dinamikoenak Kanariak (% 3,4), Balearrak eta Valentziako Erkidegoa (% 3,2 bietan) izan ziren, baita Gaztela-Mantxa, Madril eta Murtzia ere (% 3,1 hiruretan), % 3tik gorako hazkundeekin denak. Bestalde, dinamismo txikiena egokitu zitzaien Kantabria eta Euskadiri (% 2,3 bi erkidegoetan), eta Aragoi eta Nafarroari (% 2,2 bietan, baina % 2,3 Nafarroako Estatistika Erakundearen arabera).

Lan-merkatuari dagokionez, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2025ean % 1,1 igo zen okupazio-tasa Euskal Herrian (% 1,2 EAEn eta % 1 Nafarroan). Estatuan handiagoa izan zen hazkundea (% 2,6).

Hori horrela, langabezia-tasak behera egin zuen orokorrean (Foru Erkidegoan izan ezik, % 7,6tik % 7,7ra igo zelako): 2024an % 8,1etik 2025ean % 7,3ra EAEn, eta % 11,3tik % 10,5era Estatuan.

8. koadroa. BPGaren bilakaera



Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN.

Prezioei erreparatuta, oro har, igoera txikiagoa izan zen 2025ean. Hala, 2025ean, inflazio-tasa metatua (abendutik abendura) % 2,9ra jaitsi zen EAEn eta % 2,6ra Nafarroan (2024aren itxieran % 3,6 eta % 2,7koak ziren, hurrenez hurren). Estatuan, aldiz, % 2,9ra igo zen tasa hori (% 2,8koa zen aurreko ekitaldiko abenduan).

Azkenik, aipatzekoa da 2026ko lehen hiruhilekoan EAEko BPGak urte arteko % 2,2ko hazkundea izan zuela. Hala, aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino bi hamarren baxuagoa izan zuen hazkunde-erritmoa (% 2,4koa, 2025eko laugarren hiruhilekoan). Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2026ko martxoan egindako aurreikuspenetan % 1,9ko hazkundea aurreikusi du ekitaldi honetarako, eta igoera apaldu egingo dela 2027rako, % 1,6ra arte.

3.1 PRODUKZIOA

BPGaren hazkundearen intentsitatea neurritsuagoa izan zen 2025ean, aztertu diren hiru eremu geografikoetan: EAEn, 2024ko % 2,5etik 2025eko % 2,3ra; Nafarroan, % 2,7tik % 2,3ra; eta estatu osoan, % 3,5etik % 2,8ra.

27. koadroa. Barne produktu gordinaren (BPG) bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa erreala)

Kontzeptua	2023	2024	2025
EAE (*)			
– Nekazaritza	12,2	4,3	-0,6
– Industria	2,2	2,0	0,4
– Eraikuntza	4,2	2,0	3,7
– Zerbitzuak	3,3	2,9	2,8
– Guztira	3,0	2,5	2,3
NAFARROA(*)			
– Nekazaritza	3,4	0,6	1,5
– Industria	0,4	2,5	0,3
– Eraikuntza	0,9	2,3	2,3
– Zerbitzuak	2,6	2,9	3,0
– Guztira	1,9	2,7	2,3
ESPAINIA(*)			
– Nekazaritza	3,4	10,8	1,2
– Industria	-1,8	1,9	2,3
– Eraikuntza	1,1	4,8	5,6
– Zerbitzuak	3,8	4,0	3,2
– Guztira	2,5	3,5	2,8

(*): Oinarrizko prezioetarako balio erantsi gordina sektoreen kasuan, merkatu-prezioetarako BPGa guztizkoaren kasuan.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

Hala ere, EAEk eta Nafarroako Foru Erkidegoak portaera desberdinak eduki zituztela ikusten da hiruhilekoen araberako azterketan. Zehazki, euskal ekonomia bulkada irabazten joan zen mailaz maila (urte arteko % 2,1, % 2,2, % 2,3 eta % 2,4ko hazkundea ondoz ondoko hiruhilekoetan). Nafarroako ekonomiak, ordea, bulkada galdu zuen pixkanaka (urte arteko % 2,6ko hazkundea lehen hiruhilekoan, % 2,3koa bigarrenean, eta % 2,1ekoa hirugarren zein laugarrenean).

Eskaintzaren ikuspegiari erreparatuz, lau sektore handiek hazkunde orokorra izan zuten 2025ean kontuan hartutako hiru eremu geografikoetan, EAEko lehen sektoreak izan ezik, baina dinamismoan izandako bilakaera desberdina izan zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Zehazki, EAEko esparruan, lehen sektorea uzkurtu egin zen (-% 0,6, eta urtebete lehenago, % 4,3). Aldi berean, industriak eta zerbitzuek indarra galdu zuten (2025ean, % 0,4 eta % 2,8ko hazkundea, eta 2024an, % 2 eta % 2,9koa, hurrenez hurren), eta industriak bulkada irabazi zuen (% 3,7ko hedapena, eta aurreko ekitaldian, % 2koa).

Nafarroan, berriz, lehen sektoreak eta zerbitzuek hazkundea indartu zuten (% 1,5 eta % 3 2025ean, eta % 0,6 eta % 2,9 2024an, hurrenez hurren). Eraikuntzak egonkor jarraitu zuen (% 2,3 bi ekitaldietan), eta industriarena txikiagotu egin zen (% 0,3, eta urtebete lehenago, % 2,5).

Industria-sektoreari erreparatuz, Industria Produkzioaren Indizeak (IPI) atzera egiteko erritmoari eutsi zion 2025ean, EAEn (-% 0,9 2024an nahiz 2025ean), eta Foru Erkidegoan uzkurtu egin zen (-% 2,1, eta % 1,4 aurreko ekitaldian).

Nolanahi ere, industriako enplegua % 2,1 igo zen EAE (Eustaten BJAren arabera, % 0,9), eta % 7,9 Nafarroan. Alabaina, azken eremu geografiko horretan, hala industria-giroak nola egungo eskaerek kontrako bilakaera izan zuten aurreko ekitaldiaren aldean, eta saldoak 2024ko -2tik 2025eko -3ra pasatu ziren, eta -9tik -11ra, hurrenez hurren.

28. koadroa. Industria Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2023	2024	2025
EAE			
– Industria Produkzioaren Indizea (IPI) (1)	1,0	-0,9	-0,9
– Industria-enplegua(2)	0,4	-2,7	2,1
– Industria-enplegua(3)	0,2	2,2	0,9
NAFARROA			
– Industria Produkzioaren Indizea (IPI) (4)	-5,2	1,4	-2,1
– Industria-giroa(5)	-1	-2	-3
– Egungo eskaerak(5)	-8	-9	-11
– Aurreikusitako eskaerak(5)	11	9	9
– Industria-enplegua(2)	-1,6	11,7	7,9

(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
(2): EIN.
(3): BJA (Eustat)
(4): Urtaroko efektuaren eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak
(5): Erantzunen saldoak.
Iturria: Eustat, EIN eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Eraikuntzari dagokionez, EAEko ekoizpen-indizearen hazkunde-erritmoa indartu egin zen eta % 8,2ra iritsi zen 2025ean (aurreko ekitaldian % 3,4). Izan ere, hazkunde handiagoa izan zuen etxegintzak (% 9,6ko hazkundea, eta aurreko urtean % 1,8koa), nahiz eta ingeniaritza zibilak atzerakada izan (% 5,1eko hazkundea, eta 2024an % 6,7koa). Bestalde, lizitazio ofizialak % 11,4raino eutsi zion hedapenari (aurreko ekitaldian, % 52,2). Testuinguru horretan, sektoreetako enplegua % 12,8 igo zen, 2024ko -% 17,3ko jaitsierarekin konparatuz (% 6,8ko errebotea, Eustaten BJAren arabera).

Nafarroan, lizitazio ofiziala hazkunde-tasa positiboetara itzuli zen 2025ean (% 14,1, eta aurreko ekitaldian, -% 25,3), eta berdin gertatu zen amaitutako etxebizitzekin (% 7,1 eta -% 32,8, hurrenez hurren). Aitzitik, hasitako etxebizitzek kontrako portaera eduki zuten (-% 11,3ko atzerakada 2025ean, eta % 14,4ko igoera 2024an). Hala, Nafarroako sektore horretako enpleguaren beherakada neurritsuagoa izan zen, -% 0,6koa (aurreko ekitaldian -% 4,7koa).

LABORAL kutxa

29. koadroa. Eraikuntza Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2023	2024	2025
EAE			
– Ekoizpen-indizea (1)	8,8	3,4	8,2
– Etxegintza	8,9	1,8	9,6
– Ingeniaritza zibila	8,3	6,7	5,1
– Zementuaren itxurazko kontsumoa*	-4,3	8,1	10,4
– Lizitazio ofiziala(2)	-28,1	52,2	11,4
– Hasitako etxebizitzak(3)	-1,8	-3,3	e.d.
– Amaitutako etxebizitzak(3)	-28,2	26,5	e.d.
– Enplegua(4)	5,8	-17,3	12,8
– Enplegua(5)	-2,1	-0,9	6,8
NAFARROA			
– Zementuaren itxurazko kontsumoa*	-4,3	8,1	10,4
– Lizitazio ofiziala(2)	37,4	-25,3	14,1
– Hasitako etxebizitzak(3)	-13,0	14,4	-11,3
– Amaitutako etxebizitzak(3)	37,4	-32,8	7,1
– Enplegua(4)	-16,9	-4,7	-0,6

E.d.: Ez dago daturik

(*): Oficemen-eko bazkideen (Ipar Eremua: Aragoi, Nafarroa, EAE eta Errioxa) zementuaren itxurazko kontsumoari egiten dio erreferentzia.

(1): Eraikuntzaren koiunturazko indizea (EUSTAT). Oinarria 2021=100

(2): SEOPAN.

(3): Eustat eta Etxebizitza Ministerioa.

(4): EIN.

(5): BJA (Eustat)

Iturria: Eustat, EIN, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila eta Nafarroako Gobernua.

Zerbitzuekin lotuta, aurreko txostenetan egin izan den moduan, gogoratu behar da sektorearen heterogeneotasunak zaildu egiten duela sektorearen analisi bateratua egitea. Dena den, oro har, eboluzio positiboa izan zuen.

Zehazki, EAEn, portuetako merkantzien kasuan izan ezik (jaitsiera izan zuten 2025ean, -% 6,5, eta 2024an, aldiz, % 4,3ko igoera), aztertutako gainerako aldagaien kasuan % 4 inguruko hazkundea izan zen. Hala, hoteletako gau-igarotzeak % 3,6 igo ziren (urtebete lehenago, % 3,4); aireko trafikoko bidaiarien kopurua, % 4,2 (% 5,6 aurreko ekitaldian); eta txikizkako merkataritzako salmenta, % 3,5 (aurreko ekitaldian, % 3). Dena den, sektoreko enplegua -% 0,1 jaitsi zen (% 1eko igoera Eustaten BJAren arabera).

Era berean, Nafarroan gora egin zuten hoteletako gau-igarotzeek eta aireko trafikoko bidaiari kopuruak (% 8,7 eta % 5,9 2025ean, eta % 3,7 eta % 10,9 2024an, hurrenez hurren). Aitzitik, Nafarroako sektoreetako enplegua jaitsi egin zen (-% 1,6).

30. koadroa. Zerbitzuen Sektoreko Adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2023	2024	2025
EAE			
– Hoteletako gaualdiak	12,0	3,4	3,6
– Aire-trafikoko bidaiariak	23,8	5,6	4,2
– Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea	3,2	3,0	3,5
– Portuetako salgaiak	0,6	4,3	-6,5
– Enplegua(1)	3,4	1,3	-0,1
– Enplegua(2)	1,9	2,1	1,0
NAFARROA			
– Hoteletako gaualdiak	5,6	3,7	8,7
– Aire-trafikoko bidaiariak	14,5	10,9	5,9
– Enplegua(1)	3,1	3,1	-1,6

(1): EIN.
(2): BJA (Eustat)
Iturria: AENA, EUSTAT, EIN, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Estatistika Institutua.

3.2 ESKARIA

Barne-eskaria

Hazkunde ekonomiko txikiagoa izan arren (2025ean % 2,3ra jaitsi zen EAEko BPGaren hazkunde-erritmoa; aurreko ekitaldian % 2,5ekoa izan zen), barne-eskariak hazkunde-erritmoari eutsi eta % 2,8ra igo zen (2024ko zifra berbera).

Osagaiz osagai azterturik, hala kontsumo pribatuak nola inbertsioak aurrerapausoak indartu zituzten (2025ean % 2,7 eta % 4, eta 2024an % 2,5 eta % 2,7, hurrenez hurren). Aitzitik, kontsumo publikoak atzera egin zuen nabarmen (% 1,7, eta aurreko urtean, % 3,5).

31. koadroa. Barne-eskariaren adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2023	2024	2025
EAE			
– Kontsumo pribatua	2,0	2,5	2,7
– Kontsumo publikoa	1,9	3,5	1,7
– Kapital Eraketa Gordina	2,4	2,7	4,0
– Barne-eskaria	2,1	2,8	2,8
NAFARROA			
– Kontsumo pribatua	3,2	3,5	3,5
– Kontsumo publikoa	1,8	2,2	1,7
– Kapital Eraketa Gordina	1,4	2,0	0,3
– Barne-eskaria*	2,4	2,8	2,3

(*): Hazkunde orokorrari egindako ekarpena.
Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua.

Nafarroako ekonomian, BPGa aurreko ekitaldian baino neurri txikiagoan hazi zen, orobat (2025ean % 2,3 eta 2024an % 2,7). Barne-eskariak hazkunde osoari egiten dion ekarpena ehuneko 2,3 puntura arte jaitsi zen, kontuan harturik ehuneko 2,8 puntu positibo eman zituela aurreko ekitaldian. Osagaiei erreparatuta, berriz, kontsumo pribatuak indarrari eutsi zion (% 3,5eko hedapena bai 2024an, bai 2025ean), eta, garai berean, kontsumo publikoak eta inbertsioak aurrerapen txikiagoak lortu zituzten (2025ean % 1,7 eta % 0,3, eta 2024an % 2,2 eta % 2, hurrenez hurren).

32. koadroa. Kontsumo- eta inbertsio-adierazleak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

Kontzeptua	2023	2024	2025
EAE			
– Kontsumo-ondasunen IPIa[1]	1,2	-0,6	-0,7
– Turismoen matrikulazioa	6,0	5,4	15,3
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	15,6	-1,7	2,3
– KPI[2]	3,1	3,6	2,9
– Soldata-igoera[3]	4,89	3,78	4,33
– Ekipo-ondasunen IPIa[1]	4,2	-1,1	1,2
NAFARROA			
– Turismoen matrikulazioa	-0,8	10,7	10,0
– KPI[2]	2,9	2,7	2,6
– Soldata-igoera[3]	4,28	3,51	2,91
– Ibilgailu industrialen matrikulazioa	11,4	23,1	6,1

(1): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
(2): Aldakuntza-tasa abendutik abendura.
(3): Hitzarmenetan itundua.
Iturria: DGT, Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, EIN eta Enplegu eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa.

Kanpo-merkataritza

2025ean ziurgabetasun handia izan zen eta, testuinguru horretan, EAEko kanpo-merkataritzak jaitsiera izan zuen: -% 4,5 jaitsi ziren esportazioak eta -% 2,7 inportazioak (urtetik urterako tasak -% 4,5 eta % 1,5 izan ziren 2024an, hurrenez hurren). Edonola ere, komeni da kontuan izatea osagarrien araberako dinamika nahiko bestelakoa izan zela; izan ere, kanpoko salmentek beherakada izan zuten osagarri energetikoetan zein ez energetikoetan, energetikoek intentsitate handiagoko jaitsiera izan arren (hurrenez hurren -% 37,3ko eta -% 2,2ko jaitsierak). Kanpoko salmenten kasuan, berriz, energetikoek behera egin zuten (-% 23,1) eta ez energetikoek gora (% 4,8).

Xehetasunei begira, esportazio osoak 29.851,2 milioi euro izan ziren (horietatik 1.290,9 milioi euro, esportazio energetikoenak); hots, aurreko ekitaldian lortutako bolumena baino % 4,5 txikiagoa. Bestalde, inportazio osoak 26.611,3 milioi euro izan ziren (5.622,7 milioi euro, inportazio energetikoenak), alegia, -% 2,7ko jaitsiera.

Hala, 2025ean merkataritza-balantzaren saldo positiboa 3.239,9 milioi eurora murriztu zen (aurreko ekitaldian 3.921,2 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa igo egin zen (2025ean % 112,2, eta 2024an % 114,3).

33. koadroa. Kanpo-merkataritzaren bilakaera Euskal Herrian

(M euro)

Kontzeptua	2023	2024	2025*	% Δ 25/ 24
EAE				
– ESPORTAZIOAK, guztira	32.750,4	31.262,4	29.851,2	-4,5
– Energia-esportazioak, guztira	1.984,3	2.057,6	1.290,9	-37,3
– Esportazio ez-energetikoak, guztira	30.766,1	29.204,8	28.560,3	-2,2
– INPORTAZIOAK, guztira	26.944,2	27.341,2	26.611,3	-2,7
– Energia-inportazioak, guztira	6.892,4	7.311,2	5.622,7	-23,1
– Inportazio ez-energetikoak, guztira	20.051,8	20.030,0	20.988,6	4,8
– SALDOA, GUZTIRA	5.806,2	3.921,2	3.239,9	-17,4
NAFARROA				
– ESPORTAZIOAK, guztira	10.256,2	10.117,1	9.521,8	-5,9
– INPORTAZIOAK, guztira	7.045,1	6.563,7	6.080,2	-7,4
– SALDOA, GUZTIRA	3.211,1	3.553,3	3.441,5	-3,1

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera), eta Nafarroako Estatistika Institutua.

Merkataritza bloke handiei dagokienez, Euroguneak jarraitu zuen EAEko kanpo-sektorearen merkataritza-bazkide nagusia izaten. Eurogunera egin ziren esportazioen % 52,6, eta handik egin ziren inportazioen % 45,3. Horrekin lotuta, zehaztu beharrekoa da Alemaniara eta Frantziara saltzen dela guztizkoaren % 29,5, eta handik erosten dela guztizkoaren % 23,8.

Produktuen araberako sailkapena dela eta, esportazioetan, makineriari eta garraio-ekipoei dagokie guztizkoaren % 51,4. Ondoren, halako distantzia batera datoz artikulu manufakturatuak, % 27,6ko partaidetzarekin. Inportazioetan, orobat, nabarmentzekoak dira makineria eta garraio-ekipoak (guztizkoaren % 27,6) eta, jarraian, artikulu manufakturatuak berriz ere (% 22,1). Kasu honetan, aipatzekoak dira erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak ere (% 21,1).

LABORAL kutxa

34. koadroa. EAEko esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sekzioen arabera

(M euro)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2023	2024	2025*	%	% Δ 25/ 24	2023	2024	2025*	%	% Δ 25/ 24
GUZTIRA (guztizkoak)	32.750,4	31.262,4	29.851,2	100,0	-4,5	26.944,2	27.341,2	26.611,3	100,0	-2,7
HERRIALDEEN ARABERA (guztizkoak)										
–Frantzia	4.901,0	4.869,5	4.363,1	14,6	-10,4	2.167,8	2.169,9	2.169,9	8,2	0,0
–Alemania	5.168,3	4.475,0	4.443,1	14,9	-0,7	3.984,4	4.020,1	4.143,7	15,6	3,1
–Italia	1.842,6	1.799,6	1.799,0	6,0	0,0	1.333,6	1.321,1	1.293,5	4,9	-2,1
–Erresuma Batua	2.036,5	2.342,2	1.955,4	6,6	-16,5	576,4	661,2	717,8	2,7	8,6
–Eurogunea	17.782,8	16.384,2	15.710,4	52,6	-4,1	12.029,7	11.842,7	12.062,3	45,3	1,9
–ELGA	28.054,3	26.317,6	24.719,2	82,8	-6,1	18.481,9	18.091,9	18.327,1	68,9	1,3
–Beste helmuga batzuk	4.696,1	4.944,8	5.132,0	17,2	3,8	8.462,3	9.249,3	8.284,2	31,1	-10,4
SEKZIOEN ARABERA (guztizkoak)										
–Elikagaiak eta animalia biziak	1.332,6	1.137,0	1.219,9	4,1	7,3	1.351,5	1.362,7	1.594,4	6,0	17,0
–Edariak eta tabakoak	289,1	289,1	291,1	1,0	0,7	49,2	47,0	44,0	0,2	-6,4
–Jateko ez diren erregai gordinak, erregaiak salbu	368,4	412,4	388,7	1,3	-5,7	1.912,0	1.889,9	1.817,4	6,8	-3,8
–Erregaiak eta lubrifikatzaile mineralak eta horiei lotutako produktuak	1.984,3	2.057,6	1.290,9	4,3	-37,3	6.892,4	7.311,2	5.622,7	21,1	-23,1
–Olioak, koipeak eta argizariak (animalienak eta landareenak)	447,1	207,0	319,5	1,1	54,3	337,3	274,0	323,6	1,2	18,1
–Produktu kimikoak eta haiei lotutako produktuak, beste inon zehaztu gabeak	1.264,2	1.204,9	1.226,4	4,1	1,8	2.123,9	2.177,1	2.157,5	8,1	-0,9
–Artikulu manufakturatuak, batez ere materialaren arabera sailkatuak	9.799,1	8.877,2	8.230,2	27,6	-7,3	5.930,8	5.933,0	5.888,4	22,1	-0,8
–Makineria eta garraio-ekipamendua	15.519,1	15.299,4	15.334,1	51,4	0,2	6.931,7	6.900,7	7.356,0	27,6	6,6
–Hainbat artikulu manufakturatu	1.167,0	1.179,1	1.205,4	4,0	2,2	1.349,6	1.390,2	1.736,3	6,5	24,9
–NMSUren beste kontzeptu batean sailkatu gabeko salgaiak eta elikagaiak	579,4	598,8	345,0	1,2	-42,4	65,9	55,6	70,9	0,3	27,5

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat (Aduana eta Zerga Berezien Sailaren datuen arabera).

Nafarroako kanpo-merkataritzan, EAEn gertatutakoaren antzera, merkataritzako trukeen jaitsiera gailendu zen 2025ean. Zehazki, kanporanzko salmentak -% 5,9 beheratu ziren, 9.521,8 milioi eurora arte, eta kanpoan egiten diren erosketek, aldiz, -% 7,4 egin zuten behera, 6.080,2 milioi euroraino.

Gauzak hala, Nafarroako merkataritza-balantzaren saldo positiboa 3.441,5 milioi eurora murriztu zen 2025ean (aurreko ekitaldian 3.553,3 milioi eurokoa zen). Inportazioen gaineko esportazioen estaldura-tasa apur bat igo zen (% 156,6, eta 2024an % 154,1).

EAEren kasuan bezala, Nafarroarentzat ere Europa (EB-27) izan zen kanpo-merkataritzaren jatorri eta helmuga nagusia. 2025ean, Europara egin zituzten esportazioen % 71,5, eta handik inportatu zuten guztizkoaren % 70,6.

Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da Alemaniara eta Frantziara egin zirela kanpo-salmenten % 17,7 eta % 17,4, hurrenez hurren, eta handik egin ziren kanpoko erosketen % 24,4 eta % 11,6, hurrenez hurren.

Muga-zergen partidei dagokienez, 2025ean garraiorako materiala izan zen esanguratsuena, esportazioen % 34,9 eta inportazioen % 13,4 hartu baitzuen. Horrek neurri handian baldintzatu zuen Nafarroako kanpo-merkataritzaren dinamika.

35. koadroa. Nafarroako esportazioak eta inportazioak, herrialdeen eta sektoreen arabera

(M euro)

Kontzeptua	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2023	2024	2025*	%	% Δ 25/ 24	2023	2024	2025*	%	% Δ 25/ 24
GUZTIRA	10.256,2	10.117,1	9.521,8	100,0	-5,9	7.045,1	6.563,7	6.080,2	100,0	-7,4
HERRIALDEAREN ARABERA										
–Frantzia	2.084,3	1.779,0	1.656,3	17,4	-6,9	839,4	712,0	704,9	11,6	-1,0
–Alemania	1.541,2	1.642,0	1.682,7	17,7	2,5	1.580,0	1.619,0	1.485,1	24,4	-8,3
–Italia	884,4	999,3	772,1	8,1	-22,7	464,7	435,1	417,7	6,9	-4,0
–Erresuma Batua	492,2	465,5	454,4	4,8	-2,4	96,5	77,8	68,5	1,1	-12,0
–Portugal	649,1	644,6	657,4	6,9	2,0	277,9	302,9	243,2	4,0	-19,7
–EB-27 guztira	7.504,7	7.198,1	6.810,9	71,5	-5,4	5.258,5	4.766,0	4.289,6	70,6	-10,0
–Europako gainerakoak	815,1	844,8	735,3	7,7	-13,0	331,8	276,5	320,1	5,3	15,8
–Estatu Batuak	417,9	367,2	391,2	4,1	6,5	96,9	132,4	128,9	2,1	-2,6
–Beste helmuga batzuk	1.518,5	1.707,0	1.584,4	16,6	-7,2	1.357,9	1.388,8	1.341,6	22,1	-3,4
SEKTOREAREN ARABERA										
–Lehen sektorea	995,6	1.071,4	1.142,4	12,0	6,6	780,4	627,0	721,0	11,9	15,0
–Nekazaritzako elikagaien industria	735,6	762,9	822,6	8,6	7,8	250,6	207,8	265,6	4,4	27,8
–Industria kimikoa	211,0	252,5	271,2	2,8	7,4	591,7	351,0	368,4	6,1	5,0
–Material plastikoak, kautxua	445,2	434,2	426,5	4,5	-1,8	373,5	363,3	350,5	5,8	-3,5
–Metal komunen manufaktura	1.050,1	970,7	898,8	9,4	-7,4	844,2	800,0	666,0	11,0	-16,8
–Makinak, material elektrikoa	2.207,8	1.942,7	1.866,6	19,6	-3,9	2.226,8	2.335,6	2.144,9	35,3	-8,2
–Garraiorako materiala	3.689,5	3.817,7	3.324,8	34,9	-12,9	1.271,7	1.149,9	816,0	13,4	-29,0
–Gainerakoak	1.366,6	865,0	768,9	8,1	-11,1	706,2	729,1	747,8	12,3	2,6

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

3.3 PREZIOAK ETA SOLDATAK

2022an prezio maximoetara iritsi ostean, 2023tik aurrera nazioarteko prezioen desazelerazioa hasi zen eta 2024an finkatu zen joera hori. 2025ean, ziurgabetasun geopolitikoak bere horretan jarraitu arren eta lehengai batzuetan aldakortasun puntualak izan arren, inflazio globalak egonkortzeko joera hartu zuen, eta inflazioaren zikloko unerik altuenean izandako mailaren azpitik geratu zen.

Horrela, Brent upelaren prezioa % 14,2 jaitsi zen 2025an zehar, eta prezioek beheranzko profila erakutsi zuten urte arteko gorakadetan, hala EAEn nola Nafarroan urtarrila eta

LABORAL kutxa

maiatza artean. Ekaina eta azaroa bitartean goranzko joera izan zuten, eta abenduan, berriz, jaitsiera txiki bat.

Hori horrela, 2025ean metatutako inflazio-tasa (abendutik abendura bitartekoa) % 2,9ra jaitsi zen EAEn (2024 amaieran % 3,6) eta % 2,6ra Foru Erkidegoan (aurreko ekitaldiaren itxieran % 2,7). Hala ere, urteko batez besteko tasari dagokionez, mailak aurreko ekitaldiaren antzekoak edo berdinak izan ziren: % 3 EAEn eta % 2,6 Nafarroan (2024 osoan % 3,1 eta % 2,6, hurrenez hurren).

36. koadroa. Prezioen bilakaera EAEn eta Nafarroan

(Urte arteko aldakuntza-tasa)

EAE	2023	2024	2025	NAFARROA	2023	2024	2025
KPI				KPI			
Orokorra(1)	3,6	3,1	3,0	Orokorra(1)	3,6	2,6	2,6
Orokorra(2)	3,1	3,6	2,9	Orokorra(2)	2,9	2,7	2,6
– Elik. eta alkoh. gabeko edariak	6,8	3,6	3,9	– Elik. eta alkoh. gabeko edariak	7,3	2,0	3,4
– Alkoholdun edariak, tabakoa	2,8	7,0	3,5	– Alkoholdun edariak, tabakoa	3,5	5,2	4,7
– Jantziak eta oinetakoak	1,9	1,5	-1,7	– Jantziak eta oinetakoak	1,7	2,0	1,1
– Etxebizitza	-6,8	8,3	5,3	– Etxebizitza	-6,3	6,7	4,6
– Etxeko tresneria	2,8	1,4	1,1	– Etxeko tresneria	1,8	1,7	1,1
– Osasuna	2,4	2,4	2,2	– Osasuna	2,2	1,8	2,4
– Garraioak	4,6	0,9	2,0	– Garraioak	4,1	0,6	1,3
– Informazioa eta komunikazioak	2,2	-0,1	0,2	– Informazioa eta komunikazioak	1,9	-0,9	0,3
– Aisialdiko, kiroleko eta kulturako jarduerak	3,5	5,1	0,2	– Aisialdiko, kiroleko eta kulturako jarduerak	2,4	4,1	0,5
– Irakaskuntza	2,2	2,4	2,3	– Irakaskuntza	3,2	3,4	3,1
– Hotelak eta jatetxeak	5,4	3,8	4,6	– Hotelak eta jatetxeak	5,4	2,6	3,7
– Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,5	5,2	5,0	– Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,8	5,7	5,5
– Zaintza pertsonala, babes soziala eta beste batzuk	4,3	3,2	2,2	– Zaintza pertsonala, babes soziala eta beste batzuk	2,8	3,3	2,8
Industria Prezioen Indizea (IPRI)				Nekazariek Jasotako Prezioen Indizea			
Orokorra	-2,6	-4,0	0,7	Orokorra	16,7	-2,5	-1,0
Kontsumoa	8,5	3,5	3,3	Nekazaritza-produktuak	9,4	-7,2	-4,3
Ekipamendua	4,7	3,8	2,4	Baso-produktuak	43,2	2,5	-24,0
Bitartekoak	0,0	-1,4	1,0	Animalia-produktuak	29,7	1,8	2,0
Energia	-17,6	-22,0	-4,0				

(1): Urteko batez besteko aldakuntza.

(2): Abendutik abendura.

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua eta EIN.

2025eko abenduan erregistratutako urtetik urterako aldakuntzari erreparatuta eta ondasun multzoak aintzat hartuta, EAEn, etxebizitzak izan zuen prezioen hazkunderik handiena (% 5,3), gero aseguruek eta finantza-zerbitzuek (% 5), jatetxeek eta ostatu-zerbitzuek (% 4,6), elikagaiek eta alkoholik gabeko edariek (% 3,9) eta edari alkoholdunek eta tabakoak (% 3,5). Multzo horiek guztiek % 3tik gorako tasak izan zituzten. Nafarroan, prezioen hazkunderik handiena aseguruetan eta finantza-zerbitzuetan (% 5,5), edari

alkoholdunetan eta tabakoan (% 4,7), etxebizitzan (% 4,6), jatetxeetan eta ostatu-zerbitzuetan (% 3,7), elikagaietan eta alkoholik gabeko edarietan (% 3,4) eta irakaskuntzan (% 3,1) izan zen eta multzo horiek guztiek ere % 3tik gorako hazkundea izan zuten prezioetan. Aldiz, jantzien eta oinetakoen prezioek behera egin zuten EAEn (-% 1,7), eta informazioak eta komunikazioek izan zuten igoerarik txikiena Foru Erkidegoan (% 0,3).

EAEko prezio industrialei dagokienez, % 0,7ko hazkundea izan zuten 2025ean (-% 4ko atzeraldia aurreko ekitaldian). Energiaren prezioek beherakada neurritsua izan zuten (-% 22koa 2024an eta -% 4koa 2025ean) eta tarteko produktuen preziok, aldiz, gorakada izan zuten (-% 1,4 eta % 1, hurrenez hurren). Izan ere, kontsumo-ondasunen zein ekipo-ondasunen prezioen hazkunde-erritmoa moteldu egin zen (2024an % 3,5 eta % 3,8koak izatetik 2025ean % 3,3koak eta % 2,4koak izatera, hurrenez hurren).

Nafarroako nekazariek 2025ean jasotako prezioei dagokienez, indize orokorraren beherakada -% 1era murriztu zen (-% 2,5 urtebete lehenago). Testuinguru horretan, nekazaritzako produktuen prezioek aurreko ekitaldian baino beherakada txikiagoa izan zuten (-% 4,3tik -% 7,2ra), basogintzako produktuenak asko jaitsi ziren (2025ean -% 24 eta 2024an % 2,5), eta animalien produktuen prezioen hazkundea indartu egin zen apur bat (% 2 eta % 1,8, hurrenez hurren).

37. koadroa. Soldata-adierazleak

Kontzeptua	2023	2024	2025
EAE			
Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	4,2	2,6	3,2
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	3,7	2,3	3,8
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	627	592	520
– Eragina jasandako langileak	358.089	352.704	346.798
– Adostutako soldata-igoera	4,89	3,78	4,33
NAFARROA			
Soldata-kostuak (urte arteko aldakuntza-tasa)			
– Soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko	5,5	3,9	3,7
– Soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko	6,3	3,3	2,9
Hitzarmenak			
– Hitzarmen kopurua	215	184	151
– Eragina jasandako langileak	120.548	126.901	109.153
– Adostutako soldata-igoera	4,28	3,51	2,91

Iturria: Lan Kostuaren Hiruhilekoko Inkesta (EIN) eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa (2026ko otsaileko hitzarmenetako datuak).

Azkenik, laneko kostuei dagokienez, 2025ean EAEn eta Nafarroan hazi egin zen soldata-kostua ordu efektibo bakoitzeko, baita soldata-kostua langile eta hilabete bakoitzeko ere. Zehazki, lehen adierazlea % 3,2 hazi zen EAEn eta % 3,7 Nafarroan; bigarrena, berriz, % 3,8 eta % 2,9 igo zen, hurrenez hurren. Hala ere, EAEren kasuan igoerak 2024an erregistratutakoak baino handiagoak izan ziren; Nafarroako Foru Komunitatean, aldiz, txikiagoak.

3.4 LAN-MERKATUA ETA DEMOGRAFIA

Lan-merkatua Euskal Herrian

Hazkunde ekonomikoaren erritmoa neurritsua izan zen arren aztertutako hiru eremu geografikoetan, okupazioak hazkunde orokorra izan zuen. Langabetuen kopuruak, berriz, behera egin zuen EAEn eta Estatuan, eta gora Nafarroan.

Lehenik eta behin, biztanleria aktiboari erreparatuko diogu. 2025ean % 0,5 hazi zen Euskal Herrian, eta 1.420.400 pertsonatara iritsi zen. Horietatik 1.315 mila pertsona okupatuak ziren (urte arteko % 1,1eko igoera) eta 105,4 mila pertsona langabezian zeuden (aurreko ekitaldian baino % 6,6 gutxiago). Halaber, Estatu mailan ere hazi egin ziren biztanleria aktiboa (% 1,7) eta okupazioa (% 2,6) 2025ean, eta langabetuen kopuruak behera egin zuen (-% 5,9).

Sexuari dagokionez, Euskal Herriko biztanleria okupatuak gora egin zuen bai gizonen kasuan (% 1,1), baita emakumeen kasuan ere (% 1,2). Dinamika berbera izan zen Estatu osoan ere (% 2,3 eta % 3, hurrenez hurren). Euskal Herriko langabetuen kasuan ordea, behera egin zuen gizonen artean (-% 16) eta gora emakumeen artean (% 4,2). Estatuan, berriz, bi kolektiboen kasuan izan zuen beherakada (-% 7,6 eta -% 4,3), hurrenez hurren). Hori horrela, Euskal Herrian behera egin zuen gizonen biztanleria aktiboak (-% 0,3), eta emakumeenak, gora (% 1,4), Estatuan, aldiz, bi kasuetan izan zen hazkundea (% 1,3 eta % 2, hurrenez hurren).

Testuinguru horretan, 2025ean % 56,5era jaitsi zen jarduera-tasa Euskal Herrian (aurreko ekitaldian % 56,8koa zen), behera egin baitzuen EAEn (% 56,1etik % 55,8ra) zein Nafarroan (% 59,3tik % 58,9ra). Bestetik, Estatuko jarduera-tasak gora egin zuen, 2024ko % 58,8tik 2025eko % 59ra. Hala, 2025ean handitu egin zen Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko aldea (2,5 puntukoa izan zen, eta 2024an, aldiz, 2koa).

Sexua kontuan hartuta, Euskal Herriko gizonen jarduera-tasak behera egin zuen (% 60,2, eta aurreko ekitaldian % 61), eta emakumeenak, gora (% 53,1 eta % 52,8, hurrenez hurren). Dinamika hori berbera izan zen estatuan (% 63,8 eta aurreko ekitaldian % 63,9; eta % 54,4 eta aurreko ekitaldian % 53,9, hurrenez hurren). Estatuak, bestalde, gizonen eta emakumeen jarduera-tasa handiagoak erregistratu zituen (% 63,8 eta % 54,4, hurrenez hurren), Euskal Herrikoekin alderatuta (% 60,2 eta % 53,1, hurrenez hurren).

Azterketa Euskal Herriko biztanleria langabetuan zentratuz gero, 2025ean -% 6,6ko beherakada izan zen, 105,4 mila pertsonara iritsi arte, baina kontuan izan behar da biztanleria langabetuaren kopurua -% 9,2 jaitsi zela EAEn eta % 1,9 igo Nafarroan. Aitzitik, Estatu mailan -% 5,9 murriztu zen biztanleria langabetua.

Hori horrela, 2025ean langabezia-tasak behera egin zuen orokorrean. Salbuespen bakarra Foru Erkidegoa izan zen, igoera arina izan baitzuen bertan, 2024ko % 7,6tik 2025eko % 7,7ra. EAEn beherakada izan zuen, % 8,1etik % 7,3ra, Euskal Herri osoan % 8tik % 7,4ra, eta Estatuan % 11,3tik % 10,5era.

38. koadroa. Biztanleria aktiboa, enplegua eta langabezia

(urteko batezbestekoak, milakotan)

Eremua		2024			2025		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
EAE	Potentzialki aktiboak	924,5	992,9	1.917,4	934,1	999,2	1.933,3
	Aktiboak	557,2	517,6	1.074,9	551,7	526,8	1.078,4
	Okupatuak	508,6	479,2	987,7	512,0	487,3	999,3
	Langabeak	48,7	38,5	87,1	39,6	39,5	79,1
	Jarduera-tasa	60,3	52,1	56,1	59,1	52,7	55,8
	Langabezia-tasa	8,7	7,4	8,1	7,2	7,5	7,3
	Erregistratutako langabezia*	46,1	61,2	107,4	45,9	61,5	107,4
Nafarroa	Potentzialki aktiboak	281,5	289,4	570,9	286,0	294,2	580,2
	Aktiboak	179,0	159,3	338,4	182,2	159,8	342,0
	Okupatuak	166,6	145,9	312,5	170,4	145,3	315,7
	Langabeak	12,4	13,4	25,8	11,7	14,6	26,3
	Jarduera-tasa	63,6	55,0	59,3	63,7	54,3	58,9
	Langabezia-tasa	7,0	8,4	7,6	6,4	9,1	7,7
	Erregistratutako langabezia*	11,9	18,4	30,4	11,6	17,8	29,5
Euskal Herria	Potentzialki aktiboak	1.206,0	1.282,3	2.488,3	1.220,1	1.293,4	2.513,5
	Aktiboak	736,2	676,9	1.413,3	733,9	686,6	1.420,4
	Okupatuak	675,2	625,1	1.300,2	682,4	632,6	1.315,0
	Langabeak	61,1	51,9	112,9	51,3	54,1	105,4
	Jarduera-tasa	61,0	52,8	56,8	60,2	53,1	56,5
	Langabezia-tasa	8,3	7,7	8,0	7,0	7,9	7,4
	Erregistratutako langabezia*	58,1	79,7	137,7	57,6	79,4	136,9
Espainia	Potentzialki aktiboak	20.209,0	21.356,7	41.565,8	20.500,5	21.611,1	42.111,7
	Aktiboak	12.912,6	11.512,0	24.424,6	13.082,2	11.747,0	24.829,3
	Okupatuak	11.601,4	10.052,5	21.653,9	11.870,5	10.350,6	22.221,1
	Langabeak	1.311,2	1.459,5	2.770,7	1.211,7	1.396,4	2.608,1
	Jarduera-tasa	63,9	53,9	58,8	63,8	54,4	59,0
	Langabezia-tasa	10,2	12,7	11,3	9,3	11,9	10,5
	Erregistratutako langabezia*	1.029,2	1.531,6	2.560,7	964,7	1.444,0	2.408,7

(*): Abendua.

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2026ko otsaileko datuak) eta SEPE.

Puntu horretatik aurrera, txostenaren aurreko edizioetako ikuspegi berarekin, jarraian langabeziaren bilakaera aztertuko dugu, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE) erregistratutako langabeziaren ikuspegitik. Horretarako, aintzat hartu beharko da, kasu zehatz honetan, eskainitako informazioa abenduari dagokiola, eta ez ekitaldi osoari. Hala,

LABORAL kutxa

aipatutako iturriaren arabera, SEPEren Euskal Herriko bulegoetan 136,9 mila pertsona langabetu zeuden erregistratuta 2025eko abenduan, hau da, 2024ko amaieran baino % 0,6 gutxiago. Horietatik 107,4 mila pertsona EAEkoak ziren (aldaketarik gabe) eta 29,5 mila pertsona Foru Erkidegokoak (urte arteko -% 3ko jaitsiera). Estatuari dagokionez, 2025eko abenduan 2.408,7 mila langabetu zeuden erregistratuta, aurreko urtean baino -% 5,9 gutxiago.

39. koadroa. Langabezia-tasa adin-tarteen arabera. Urteko batezbestekoak

(%)

Eremua	Urtea	16-19	20-24	25-54	55 eta gehiago	Guztira
EAE	2023	33,3	22,1	6,1	8,2	7,7
	2024	30,6	21,8	7,4	6,4	8,1
	2025	29,8	16,7	6,4	7,4	7,3
Nafarroa	2023	45,0	21,9	9,3	6,9	9,9
	2024	34,1	20,7	6,8	5,0	7,6
	2025	31,0	19,5	7,1	5,4	7,7
Euskal Herria	2023	36,6	22,0	6,9	7,9	8,3
	2024	31,7	21,5	7,3	6,1	8,0
	2025	30,1	17,5	6,5	6,9	7,4
Espainia	2023	43,1	25,6	10,9	11,1	12,2
	2024	40,6	23,4	10,1	10,2	11,3
	2025	37,2	22,4	9,3	9,7	10,5

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2026ko otsaileko datuak).

Biztanleria Aktiboaren Inkesta berriro ere aintzat hartuta (urteko batez besteko datuak), kontuan hartu behar da langabezia-tasa nabarmen aldatzen dela adinaren arabera; hala, gazteenek dituzte maila altuenak. Zehatzago esanda, Euskal Herrian, 16 eta 19 urte artekoen artean langabezia-tasa % 30,1koa zen 2025ean. Zerrendan hurrengoak 20 eta 24 urte artekoak izan ziren (% 17,5), ondoren 55 urte edo gehiago zituztenak (% 6,9) eta, azkenik, 25 eta 54 urte artekoak (% 6,5).

Urte arteko datuei begiratuta, eboluzioa nahiko antzekoa izan zen Euskal Herrian eta Estatu osoan; izan ere, Estatuan orokorrean jaitsi zen tasa, eta Euskal Herrian adin handieneko pertsonen kasuan bakarrik egin zuen gora (% 6,1etik % 6,9ra). Zehazki, Euskal Herrian behera egin zuen pertsona gazteenen langabezia-tasak (% 31,7tik % 30,1era); baita 20 eta 24 urte artekoenak (% 21,5etik % 17,5era), eta 25 eta 54 urte artekoenak ere (% 7,3tik % 6,5era).

40. koadroa. Enpleguaren bilakaera, sektore ekonomikoen arabera. Urteko batezbestekoak

(m pertsona)

Eremua	Urtea	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
EAE	2023	10,8	200,0	56,7	728,3
	2024	8,5	194,7	46,9	737,7
	2025	10,8	198,7	52,9	736,9
Nafarroa	2023	10,3	74,9	17,2	196,4
	2024	10,0	83,7	16,4	202,4
	2025	9,9	90,3	16,3	199,1
Euskal Herria	2023	21,1	274,9	73,9	924,7
	2024	18,5	278,4	63,3	940,1
	2025	20,7	289,0	69,2	936,0
Espainia	2023	767,3	2.814,5	1.398,0	16.202,4
	2024	752,1	2.886,8	1.463,8	16.551,1
	2025	763,7	3.005,5	1.530,0	16.921,9

Iturria: EIN (Biztanleria Aktiboaren Inkestako biztanleria-oinarria, 2021. 2026ko otsaileko datuak). (EJSN-09).

Euskal Herriko biztanleria okupatuaren eboluzio sektorialari dagokionez, zerbitzuen kasuan izan ezik (-% 0,4), gainerako sektoreetan gora egin zuen enpleguak: lehen sektorean % 11,9, eraikuntzan % 9,3 eta industrian % 3,8. Kopuru absolutuei dagokienez, industria-sektorean igo zen gehien enplegua (2024an baino 10.600 pertsona okupatu gehiago). Euskal Herriko enpleguaren % 22 dagokio sektore horri.

Estatu mailan, 2025ean sektore guztietan igo zen enplegua: eraikuntzan % 4,5; industrian % 4,1; zerbitzuetan % 2,2 eta lehen sektorean % 1,5. Kasu honetan, hirugarren zerbitzuan izan zen hazkunde absoluturik handiena (aurreko ekitaldian baino 370.800 okupatu gehiago).

SEPEn erregistratutako kontratuak aintzat hartuta, 2025ean gora egin zuten bi geografia-eremuetan. Hala, ekitaldi horretan 1.053.963 kontratu jakinarazi zituzten Euskal Herrian, aurreko ekitaldian baino % 1,9 gehiago (% 1,2 EAEn eta % 4 Nafarroan). Estatuan, berriz, 15.645.243 kontratu jakinarazi zituzten, aurreko ekitaldian baino % 1,5 gehiago.

Kontratu motaren arabera, Euskal Herriaren kasuan, kontratu mugagabeek zein aldi baterakoek gora egin zuten 2025ean (% 0,8 eta % 2,3, hurrenez hurren). Aldiz, estatuan lehengo motakoek behera egin zuten (-% 0,6), eta bigarren motakoek, aldiz, gora (% 3).

LABORAL kutxa

41. koadroa. SEPEren bulegoetan erregistratutako kontratuak

Eremua	Urtea	Mugagabeak			Aldi baterakoak			KONTRATUAK, GUZTIRA
		Mugagabea	Konbertsioak	Guztira	Produkzio-baldintzak	Gainerakoak	Guztira	
EAE	2023	162.617	23.875	186.492	361.286	182.368	543.654	730.146
	2024	153.700	19.818	173.518	373.062	203.112	576.174	749.692
	2025	158.690	17.947	176.637	373.440	208.264	581.704	758.341
Nafarroa	2023	58.201	8.241	66.442	134.509	87.113	221.622	288.064
	2024	53.973	7.343	61.316	132.366	90.542	222.908	284.224
	2025	52.653	7.371	60.024	144.542	91.056	235.598	295.622
Euskal Herria	2023	220.818	32.116	252.934	495.795	269.481	765.276	1.018.210
	2024	207.673	27.161	234.834	505.428	293.654	799.082	1.033.916
	2025	211.343	25.318	236.661	517.982	299.320	817.302	1.053.963
Espainia	2023	6.130.189	490.794	6.620.983	6.484.917	2.338.305	8.823.222	15.444.205
	2024	6.037.338	444.654	6.481.992	6.544.824	2.393.288	8.938.112	15.420.104
	2025	6.030.898	412.548	6.443.446	6.746.895	2.454.902	9.201.797	15.645.243

Iturria: SEPE.

Bestetik, aipamen txiki bat egin behar dugu autonomoen eboluzioari buruz. Horrekin lotuta, EINek egindako BAIren arabera, Estatuan 71.000 pertsonako igoera izan zuen norberaren konturako langileen kopuruak 2024 eta 2025 artean (urteko batezbestekoak kontuan hartuta). Euskal Herrian, aldiz, 6.300 pertsonako jaitsiera izan zuen kopuru horrek.

Negoziazio kolektiboari dagokionez, 2025ean hitzarmen gutxiago negoziatu zituzten, eta, orokorrean, langile gutxiagori eragin zieten hitzarmen horiek. Hala, 2025ean negoziatutako hitzarmenek urte arteko jaitsiera hauek izan zituzten: EAEn -% 12,2, Nafarroan -% 17,9 eta Estatuan -% 16,9. Bestalde, hitzarmen horien eraginpeko langileak -% 1,7 murriztu ziren EAEn, -% 14 Foru Erkidegoan eta -% 10,7 Estatu osoan. Bestalde, itundutako soldata-igoerak % 4,33koak, % 2,91koak eta % 3,55ekoak izan ziren, hurrenez hurren.

42. koadroa. Hitzarmen kolektiboak eta grebak

Eremua	Urtea	Hitzarmen kolektiboak			Grebak*			
		Kop.	Eragindako langileak	Adostutako soldata-igoera	Kop.	Parte hartu zuten langileak	Greba bakoitzeko langileak	Lan egin gabeko lanaldiak
EAE	2023	627	358.089	4,89	306	58.865	192	169.569
	2024	592	352.704	3,78	253	29.526	117	109.661
	2025	520	346.798	4,33	190	36.726	193	165.435
Nafarroa	2023	215	120.548	4,28	53	6.129	116	11.673
	2024	184	126.901	3,51	54	10.343	192	15.439
	2025	151	109.153	2,91	77	8.396	109	15.444
Espainia	2023	5.162	12.965.321	3,69	778	294.760	379	988.129
	2024	4.569	12.772.447	3,31	707	231.739	328	703.178
	2025	3.797	11.406.124	3,55	648	329.636	509	709.771

(*) 2023 eta 2024 ekitaldiek ez dituzte barne hartzen greba orokorretako datuak. 2025eko datuak urtarrila-abendua bitarteko aurrerapenari dagozkio.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa. 2026ko otsaileko hitzarmenen datuak. 2026ko martxoko greben datuak.

Laneko gatazkei dagokienez, 2025ean grebek behera egin zuten EAEn eta estatuan (-% 24,9 eta -% 8,3, hurrenez hurren) eta gora Nafarroan (% 42,6); greba horietako parte-hartzaileen kopuruak gora egin zuen EAEn eta estatu-mailan (% 24,4 eta % 42,2, hurrenez hurren) eta behera Nafarroan (-% 18,8); eta grebengatik lan egin gabeko lanaldien kopuruak gora egin zuen EAEn eta Estatu osoan (% 50,9 eta % 0,9, hurrenez hurren) eta bere horretan mantendu zen Foru Erkidegoan (% 0).

Biztanleria

Eskuragarri dagoen behin betiko azken informazioaren arabera, Euskal Herriko biztanleria % 0,6 hazi zen 2024an; igoera izan zuen bai EAEn, bai Nafarroan (% 0,5 eta % 1, hurrenez hurren). Dinamika horren arabera, 2.908.790 biztanlera iritsi ziren ekitaldi horretan: 2.230.452 biztanle EAEn eta gainerako 678.338ak Foru Erkidegoan. Era berean, Estatuan ere biztanleria handitu zen 2024an (% 1,2), 48.587.813 biztanlera arte.

2024an Euskal Herrian 17.518 jaiotza (urte arteko -% 2,5eko jaitsiera) eta 28.439 heriotza (aurreko ekitaldian baino % 0,9 gehiago) erregistratu ziren. Hori kontuan hartuta, saldo begetatiboa negatiboa izan zen, -10.921 pertsonakoa. Hala, nolabaiteko bat-etortzea izan zuen 2023an izandako hazkunde begetatibo negatiboarekin (-10.217 pertsona).

43. koadroa. Biztanleriaren mugimendu naturala. Jaiotza- eta heriotza-tasak, 2024

Eremua	Jaiotzak	Heriotzak	Hazkunde begetatiboa	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotza-tasa (‰)
Araba	2.094	3.025	-931	6,2	8,9
Bizkaia	6.426	12.045	-5.619	5,5	10,4
Gipuzkoa	4.430	7.327	-2.897	6,1	10,0
EAE	12.950	22.397	-9.447	5,8	10,0
Nafarroa	4.568	6.042	-1.474	6,7	8,9
Euskal Herria	17.518	28.439	-10.921	6,0	9,8
Espainia	318.005	436.118	-118.113	6,5	9,0

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala eta Errolda (EIN).

Hala, Euskal Herrian jaisten jarraitu zuen jaiotza-tasak (2024an ‰ 6 eta 2023an ‰ 6,2). Heriotza-tasak igoera arina izan zuen (2024an ‰ 9,8 eta 2023an ‰ 9,7). Guztira, Estatuko jaiotza-tasa handiagoa izan zen (‰ 6,5), eta heriotza-tasa txikiagoa (‰ 9).

Ezkontzei dagokienez, 2024an gora egin zuten bai Euskal Herrian (% 2,5), bai estatu-mailan (% 1,4), 9.146 eta 168.028ra iritsi arte, hurrenez hurren.

LABORAL kutxa

44. koadroa. Euskal Herriko biztanleriaren mugimenduaren bilakaera

Urtea	Biztanleria	Ezkontzak	Jaiotzak	Jaiotza-tasa (‰)	Heriotzak	Heriotza-tasa (‰)	Hazkunde begetatiboa	Migrazio-saldoa (autonomia artekoa)
2014	2.829.775	9.595	25.562	9,0	25.677	9,1	-115	4.078
2015	2.829.733	9.861	24.856	8,8	27.191	9,6	-2.335	3.138
2016	2.830.181	9.763	24.141	8,5	26.951	9,5	-2.810	3.305
2017	2.837.392	9.733	22.823	8,0	27.478	9,7	-4.655	1.052
2018	2.846.642	9.187	21.498	7,6	27.582	9,7	-6.084	682
2019	2.861.990	9.079	20.820	7,3	27.134	9,5	-6.314	147
2020	2.881.701	5.008	19.779	6,9	30.914	10,7	-11.135	-539
2021	2.875.530	7.756	19.389	6,7	28.857	10,0	-9.468	-699
2022	2.872.291	9.639	18.422	6,4	30.520	10,6	-12.098	-1.353
2023	2.890.765	8.926	17.958	6,2	28.175	9,7	-10.217	384
2024	2.908.790	9.146	17.518	6,0	28.439	9,8	-10.921	482

Iturria: Biztanleriaren mugimendu naturala, errolda eta migrazio-saldoak (EIN).

Azkenik, aipatu behar da 2024an Euskal Herriak migrazio-saldo (autonomia artekoa) positiboa izan zuela, 482 pertsonakoa, immigrazio kopurua handiagoa izan zelako emigrazio kopurua baino. Zehazki, EAEk 770 pertsonako migrazio-saldo positiboa izan zuen, eta Foru Erkidegoak, berriz, -288 pertsonako migrazio-saldo negatiboa.



3.INDUSTRIA

LABORAL kutxa

1. IKUSPEGI OROKORRA

Aztertutako informazioaren arabera, oro har, 2025ean euskal industriako enpresek aurreko ekitaldian baino portaera hedakor apalagoa izan zuten.

Eremu geografikoei dagokienez, bai EAEn, bai Nafarroan, sektoreko balio erantsi gordina handitu egin zen 2025ean, baina aurreko urtean lortutakoa baino erritmo nabarmen apalagoan. Zehazki, EAEren kasuan, % 0,4 hazi zen, eta Nafarroako Foru Komunitatean, % 0,3; 2024an, berriz, % 2 eta % 2,5 hazi ziren, hurrenez hurren.

Hala ere, 2025eko hiruhilekoei erreparatuta, bilakaera irregularra izan zen. EAEn, hiruhilekoz hiruhileko urte arteko hazkundeak honako hauek izan ziren: % 0,4 lehen hiruhilekoan, % 0,1 bigarrenean, % 0,2 hirugarrenean eta % 0,9 laugarrenean. Nafarroan, berriz, hazkundeek indarra galdu zuten pixkanaka, eta urtea tasa negatiboarekin itxi zen (% 1, % 0,4, % 0,1 eta −% 0,5, hurrenez hurren).

Estatu mailan, aldiz, 2025ean industria-sektoreak aurreko ekitaldian baino hazkunde handiagoa izan zuen (% 2,3 eta aurreko urtean % 1,9); zehazki, hazkunde-erritmoa pixkanaka indartzen joan zen (lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan urte batetik besterako % 1,6, % 2,3, % 2,7 eta % 2,6ko hazkundeak erregistratu zituzten, hurrenez hurren).

Ekoizpen-indizeak

Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) erreparatuta, bai EAEn, bai Nafarroako Foru Komunitatean, behera egin zuen; Estatuan, berriz, gora egin zuen.

Zehazki, EAEn IPIa −% 0,9 jaitsi zen 2025ean (−% 0,8 aurreko ekitaldian), eta Nafarroan −% 2,1 jaitsi zen (2024an % 1,4 hazi zen). Aitzitik, Estatuan hazkundea indartu egin zen, % 1,3ra iritsi arte (% 0,5 aurreko urtean).

45. koadroa. Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera

(%)

Urtea	EAE IPI(*)	Nafarroa IPI(**)	Estatua IPI(*)
2018	2,4	-0,1	0,6
2019	1,5	9,0	0,6
2020	-13,3	-10,5	-9,3
2021	10,5	10,2	7,3
2022	4,1	4,1	2,5
2023	1,1	-5,2	-1,6
2024	-0,8	1,4	0,5
2025	-0,9	-2,1	1,3

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
(**): Urtaroko efektuaren eta egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
Iturria: Geuk egina, Eustaten, Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) eta EINen datuetatik abiatuta.

Helburu ekonomikoaren arabera, oro har, Industria Produkzioaren Indize (IPI) orokorrari buruz aurretik adierazitako portaera berretsi da: aurreko ekitaldian baino bilakaera okerragoa izan zuen, zenbait ñabardurarekin.

46. koadroa. Euskal Herriko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, ondasunen jomuga ekonomikoaren arabera

(%)

Urtea	Bitarteko ondasunak		Ekipo-ondasunak		Kontsumo-ondasunak		Energia	
	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa	EAE*	Nafarroa
2021	10,6	6,6	13,6	13,8	12,4	5,5	0,3	19,4
2022	-0,3	-3,9	9,2	12,5	6,5	2,7	10,2	6,6
2023	0,8	-6,5	4,1	-1,4	1,2	-3,0	-8,3	-18,4
2024	-0,7	4,3	-1,1	4,3	-0,6	5,9	0,7	-15,8
2025	-2,2	2,2	1,2	-11,2	-0,7	0,3	-3,2	8,2

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
Iturria: Geuk egina Eustaten eta Nafarroako Estatistika Institutuaren (NEI) datuetatik abiatuta.

Hala, EAEn, 2025ean IPIa –% 2,2 jaitsi zen bitarteko ondasunen kasuan (–% 0,7 2024an), –% 0,7 kontsumo-ondasunen kasuan (–% 0,6 aurreko ekitaldian) eta –% 3,2 energiaren kasuan (aurreko ekitaldian % 0,7ko hazkundea). Ekipo-ondasunen IPIa, berriz, % 1,2 hazi zen (–% 1,1 2024an).

Nafarroako Foru Komunitatean, bitarteko ondasunen zein kontsumo-ondasunen IPIaren hazkunde-erritmoa moteldu egin zen (% 2,2 eta % 0,3 2025ean; aurreko urtean, berriz, % 4,3 eta % 5,9, hurrenez hurren); ekipo-ondasunen IPIa behera egin zuen (–% 11,2; aurreko ekitaldian % 4,3ko hazkundea), eta energiari dagokiona nabarmen suspertu zen (% 8,2; 2024an, –% 15,8).

Industria Produkzioaren Indizea (IPI) jarduera-adarren arabera aztertuta, EAEn bilakaera heterogeneoa izan zen.

LABORAL kutxa

Hala, 2025ean produktu informatiko eta elektronikoek aurreko ekitaldiko beherakada areagotu zuten (–% 8; aurreko urtean, –% 3,2); era berean, erauzketa-industriek (–% 6,1), elikagaien, edarien eta tabakoaren industriek (–% 1), zuraren, paperaren eta arte grafikoen industriek (–% 2,2), koke-lantegiek eta petrolio-finketak (–% 12,5), industria kimikoak (–% 1,4) eta metalurgiak (–% 2,6) tasa negatiboak izan zituzten 2025ean (2024an, % 7,3, % 0,3, % 2,2, % 7,8, % 2 eta aldakuntza nulua, hurrenez hurren).

Bestalde, ehungintzak, jantzigintzak, larrugintzak eta oinetakogintzak (–% 1,1) zein kautxuak eta plastikoek (–% 1,1) beherakada-erritmoa moteldu zuten (aurreko ekitaldian, –% 5,1 eta –% 2,6, hurrenez hurren). Era berean, farmaziako produktuen dinamismoa moteldu egin zen (% 0,4ko hazkundea; 2024an, % 10); material eta ekipo elektrikoa (% 2,6), makineria (% 0,7), garraio-materiala (% 2,3), altzariak eta bestelako manufakturak (% 3,5) eta energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 1,6), berriz, hazi egin ziren (2024an, –% 0,4, aldakuntza nulua, –% 4,4 eta –% 3,2 azken bi kasuetan, hurrenez hurren).

47. koadroa. EAEko Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera*

(%)

Kontzeptua	2023	2024	2025
Erauzketa-industriak	0,4	7,3	-6,1
Elikagai, edari eta tabakoaren industriak	0,4	0,3	-1,0
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza	-5,4	-5,1	-1,1
Zura, papera eta arte grafikoak	-5,0	2,2	-2,2
Koke-fabrikak eta petrolio-finketa	-5,4	7,8	-12,5
Industria kimikoa	-1,3	2,0	-1,4
Farmaziako produktuak	17,8	10,0	0,4
Kautxua eta plastikoak	-2,6	-2,6	-1,1
Metalurgia	0,5	0,0	-2,6
Informatika- eta elektronika-produktuak	18,4	-3,2	-8,0
Material eta ekipo elektrikoa	5,2	-0,4	2,6
Beste makineria eta ekipo batzuk	1,0	0,0	0,7
Garraiorako materiala	8,2	-4,4	2,3
Altzariak eta beste manufaktura batzuk	4,6	-3,2	3,5
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-11,8	-3,2	1,6

(*): Egutegiaren arabera zuzendutako datuak.
Iturria: Eustat.

48. koadroa. Nafarroako Industria Produkzioaren Indizearen (IPI) bilakaera, jarduera-adarraren arabera

(%)

Kontzeptua	2023	2024	2025
Nekazaritzako elikagaien industria	-2,1	7,5	2,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	-7,2	-1,2	-3,7
Papera, zura eta altzariak	-8,8	5,2	4,3
Garraiorako materiala	3,2	8,5	-12,2
Beste manufaktura-industria batzuk	-5,1	8,3	-0,9

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NEI).

Nafarroan, joera nagusia aurreko ekitaldian baino portaera okerragoa izatea izan zen, zenbait ñabardurarekin. Zehazki, bai garraio-materialek, bai bestelako manufaktura-industria gisa sailkatutakoek jarduera-maila murriztu zuten (–% 12,2 eta –% 0,9 2025ean; 2024an, berriz, % 8,5 eta % 8,3ko hazkundeak, hurrenez hurren); metalurgiak eta produktu metalikoek, berriz, beherakada areagotu zuten (–% 3,7; aurreko urtean, –% 1,2). Bestalde, nekazaritzako elikagaien industriak eta paperaren, zuraren eta altzarien industriak aurreko ekitaldian baino dinamismo txikiagoa izan zuten (% 2,4 eta % 4,3ko hazkundeak 2025ean; 2024an, berriz, % 7,5 eta % 5,2, hurrenez hurren).

Enpresen emaitzak

Enpresa-portaerara hurbiltzeko, jarraian Espainiako Bankuaren Hiruhilekoko Balantzeen Zentralak emandako emaitzak aztertzen dira.

Horri dagokionez, 2025eko lehen seihileko informazioak lagineko finantza-enpresak ez diren enpresen negozio-zifraren susperraldia erakusten du: aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, % 2,7 handitu zen; 2024ko lehen seihilekoan, berriz, % 1,4 jaitsi zen. Hala ere, salmenten hobekuntza hori ez zen balio erantsi gordinera ezta enpresa-emaitzetara ere igaro: BEGa –% 1,6 jaitsi zen eta emaitza ekonomiko gordina –% 7,7; 2024ko aldi berean, berriz, % 5,7 eta % 6,6 hazi ziren, hurrenez hurren.

Bilakaera hori lagineko enpresen ohiko emaitza garbian ere islatu zen: 2025eko lehen seihilekoan –% 4,6 jaitsi zen; 2024ko aldi berean, berriz, % 8,3 hazi zen. Gainera, aktiboaren ohiko errentagarritasuna zertxobait jaitsi zen, % 5etik % 4,7ra; hala ere, errentagarritasunaren eta finantza-kostuaren arteko aldea % 1,6tik % 1,8ra handitu zen.

LABORAL kutxa

49. koadroa. Xehetasunak, jardueraren eta tamainaren arabera

	Negozio-zifra (aldakuntza-tasak)				Balio erantsi gordina faktoreen kostuarekiko (aldakuntza-tasak)				Emaitza ekonomiko gordina (aldakuntza-tasak)			
	CBI		CBT (*)		CBI		CBT (*)		CBI		CBT (*)	
	2023	2024	2024ko I. hh-tik II.era	2025eko I. hh-tik II.era	2023	2024	2024ko I. hh-tik II.era	2025eko I. hh-tik II.era	2023	2024	2024ko I. hh-tik II.era	2025eko I. hh-tik II.era
GUZTIRA	0,5	-1,6	-1,4	2,7	9,6	4,7	5,7	-1,6	9,2	4,8	6,6	-7,7
Tamaina												
Txikiak	6,8	-	-	-	12,3	-	-	-	13,5	-	-	-
Ertainak	4,9	5,1	4,3	5,7	11,5	11,0	11,7	5,0	15,8	19,8	20,8	2,9
Handiak	-2,4	-1,6	-1,4	2,6	7,9	4,7	5,6	-1,7	6,8	4,7	6,5	-7,7
Jardueraren arabera zehaztuta												
Energia	-231	-14,2	-20,1	6,2	-1,5	-0,2	-6,7	-10,9	-4,1	-0,8	-8,4	-13,2
Industria	-0,7	0,9	3,5	-3,5	7,8	0,1	12,2	-18,8	8,0	-6,7	19,4	-42,9
Komertzioa eta ostalaritza	1,6	-0,8	1,3	4,6	9,2	9,6	8,9	9,6	6,8	16,6	18,3	16,0
Informazioa eta komunikazioak	7,3	3,0	4,1	2,6	11,3	1,8	4,2	2,8	10,2	3,0	5,9	2,5
Gainerako jarduerak	8,3	7,4	6,6	9,0	12,6	10,1	10,8	8,8	18,8	19,8	21,2	15,3

(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.
Iturria: Espainiako Bankua.

50. koadroa. Xehetasunak, jardueraren eta tamainaren arabera

	Ohiko emaitza garbia (aldakuntza-tasak)				Aktiboaren ohiko errentagarritasuna (R.1) (ratioak)				Aldea: errentagarritasuna − kostu finantzarioa (R.1. - R.2.) (ratioak)			
	CBI		CBT (*)		CBI		CBT (*)		CBI		CBT (*)	
	2023	2024	2024ko I. hh-tik II.era	2025eko I. hh-tik II.era	2023	2024	2024ko I. hh-tik II.era	2025eko I. hh-tik II.era	2023	2024	2024ko I. hh-tik II.era	2025eko I. hh-tik II.era
GUZTIRA	8,8	12,5	8,3	-4,6	6,1	7,4	5,0	4,7	2,5	4,1	1,6	1,8
Tamaina												
Txikiak	13,3	-	-	-	4,9	-	-	-	2,0	-	-	-
Ertainak	16,3	24,8	23,2	6,9	9,3	9,2	9,8	8,5	5,3	6,4	7,1	6,6
Handiak	6,4	12,4	8,2	-4,7	6,3	7,4	5,0	4,7	2,6	4,1	1,6	1,8
Jardueraren arabera zehaztuta												
Energia	-8,7	0,2	-9,8	-21,0	9,1	10,8	10,1	8,2	6,0	8,2	7,5	5,7
Industria	8,2	-10,6	30,6	-68,1	9,4	7,3	8,9	3,7	4,9	2,8	4,3	-0,3
Komertzioa eta ostalaritza	3,8	24,4	16,9	31,5	9,5	12,0	8,9	11,8	5,5	7,0	4,0	7,3
Informazioa eta komunikazioak	15,9	16,9	1,7	39,3	9,9	13,7	10,7	13,3	5,5	9,7	6,4	9,2
Gainerako jarduerak	24,4	29,4	41,6	19,5	4,4	5,7	2,5	2,8	1,0	2,6	-0,7	0,1

(*): Zutabe horietako datu guztiak hiruhilekoko datuen batezbesteko haztatu moduan kalkulatu dira.
Iturria: Espainiako Bankua.

2. ENERGIA

2025eko azaroan Belémen (Brasil) egindako Alderdien 30. Konferentziak (COP30) energia-trantsizioa, klima-finantzaketa eta klima-aldaketara egokitzea nazioarteko eztabaidaren erdigunean jarri zituen berriro.

Hala, COP30 Belémgo Paketea deritzona onartuta amaitu zen. Pakete horrek egokitzapenaren, bidezko trantsizioaren, klima-finantzaketaren, merkataritzaren, generoaren eta teknologiaren arloko erabakiak jasotzen ditu. Aurrerapen garrantzitsuenen artean, egokitzapen-agenda indartzea eta herrialde zaurgarrienek klima-aldaketaren ondorioei aurre egin ahal izateko beharrezkoa den finantzaketan aurrera egiteko konpromiso irmoa nabarmentzen dira. Era berean, karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioak sozialki bidezkoa izan behar duela azpimarratzen jarraitzen da, haren kostuak lurralde, ekoizpen-sektore edo familia kalteberenen gain modu desorekatuan eror ez daitezen.

Hala ere, aurreko goi-bileretan bezala, COP30aren emaitza orokorra ez zela nahikoa izan uste izan zen. Nabarmentzekoa da erregai fosilak pixkanaka ezabatuz emisioak murrizteko ibilbide-orri esplizitu batean aurrerapen urria egin zela, ez baitziren beharrezko atxikimenduak lortu. Beraz, Goi Bileraren balantzea eskastzat jo zen berriro; izan ere, egokitzapenean, finantzaketan eta bidezko trantsizioan aurrera egin bazen ere, erregai fosilen erabilera murrizteari buruzko erabaki garrantzitsuak hartzeke geratu ziren. Erabaki horiek adostasun zabala behar dute, eta, egungo zatiketa geopolitikoen testuinguruan, adostasun hori lortzea are zailagoa dirudi.

2.1 EAEKO BALANTZE ENERGETIKOA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE) arduratzen da jarraian aurkeztuko dugun balantze energetikoa egiteaz. Eurostaten metodologia erabiltzen du EAEko balantze energetikoa kalkulatzeko. Balantze horretan, energia mota ezberdinen jarraipen xehea azaltzen da: jatorria (erauzketa edo inportazioa), eraldaketa eta kontsumoa. Hala, balantzea bi ataletan bereizten da. Lehenengo atalean (1-5 puntuak) lehen mailako iturrien energia-hornikuntza jasotzen da, erauzketak (1. Lehen mailako energiaren ekoizpena) eta inportazioak (2. Sarrera guztiak) kontuan izanda. Kopuru horien guztizkoa stocken mugimenduarekin (3), esportazioekin (4) eta itsas-garraioarekin (5) doitzen du, eta emaitza barne-kontsumorako eskuragarri dagoen energia da (6. puntua=1+2+3-4-5). Balantzearen bigarren atalak energiaren eraldaketa-prozesuak eta kontsumorako erabilgarri dagoen energia hartzen ditu kontuan (12=6-7+8+9-10-11), konbertsio-prozesuen (7 eta 8), trukeen (9), energia-sektorearen kontsumoaren (10) eta galeren (11) ostean. Kontsumorako

LABORAL kutxa

eskuragarri dagoen energiari (12) azken kontsumo ez-energetikoa (13) kendu ondoren, azken kontsumo energetikoa geratzen zaigu (14).

49. koadroa. EAEko balantze energetikoa (2025)

(ktep)

Sektorea	Ikatza eta deribatuak	Petrolioa eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Energia elektrikoa	Guztira
1. Lehen mailako energiaren ekoizpena	0	0	0	24	584	0	609
2. Sarrera guztiak	0	7.591	4.248	0	100	771	12.730
3. Stocken mugimendua	0	-150	197	0	0	0	48
4. Irteera guztiak	0	4.665	2.703	0	0	0	7.369
5. Bunkerrak (itsas-garraioa)	0	0	0	0	0	0	0
6. Barne-kontsumo gordina(1)	20	2.777	1.742	24	684	771	6.018
7. Eraldaketara sarrerak	0	7.493	780	9	122	0	8.404
7.1. Zentral termoelektrikoak	0	31	526	0	44	0	601
7.2. Kogenerazioa	0	20	177	9	77	0	284
7.3. Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
7.4. Findegiak	0	7.442	77	0	0	0	7.519
8. Eraldaketatik irteerak	0	7.319	0	0	0	423	7.741
8.1. Zentral termoelektrikoak	0	0	0	0	0	278	278
8.2. Kogenerazioa	0	0	0	0	0	144	144
8.3. Koke-fabrikak	0	0	0	0	0	0	0
8.4. Findegiak	0	7.319	0	0	0	0	7.319
9. Trukeak	0	0	0	0	-72	72	0
10. Sektore energetikoaren kontsumoa	0	289	136	0	0	95	520
11. Garraio eta banaketako galerak	0	0	0	0	0	41	41
12. Azken kontsumorako erabilgarri dagoena(2)	20	2.314	826	15	490	1.130	4.795
13. Azken kontsumo ez-energetikoa	0	139	0	0	0	0	139
***14. Azken kontsumo energetikoa(3)	20	2.175	826	15	490	1.130	4.656

(*): Behin-behineko datuak.
(1): 6=1+2+3-4-5
(2): 12=6-7+8+9-10-11
(3): 14=12-13
Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)

EEEk 2025eko energia-balantzeari buruz emandako informazioaren arabera (behin-behineko datuak), EAEko azken energia-kontsumoa 4.656 ktep-ra iritsi zen, 2024an baino % 1,8 gehiago. Barne-kontsumo gordina, berriz, 6.018 ktep-koa izan zen (+% 0,3), eta energia primarioaren ekoizpena 609 ktep-ra igo zen (+% 0,1), ia osorik energia berriztagarrietan oinarrituta (584 ktep).

50. koadroa. EAEko azken kontsumoa energia moten arabera

(ktep)


Sektorea	2023	2024	2025	% Δ 25/24
Petrolioa eta deribatuak	2.192	2.266	2.175	-4,0
Energia elektrikoa	1.130	1.136	1.130	-0,5
Gas naturala	838	824	826	0,2
Energia berriztagarriak	335	311	490	57,6
Ikatza eta deribatuak	19	21	20	-4,2
Energia deribatuak	14	17	15	-12,5
Guztira	4.527	4.573	4.656	1,8

Iturria: EEE. Geuk egina.

Azken energia-kontsumoak energia-iturrien arabera izandako bilakaerari dagokionez, 2025ean energia berriztagarrien portaera nabarmendu zen: urte arteko hazkunde handia izan zuten (+% 57,6), 490 ktep-ra iritsi arte. Horren ondorioz, haien pisu erlatiboa % 10,5era igo zen, 2024an baino ehuneko 3,7 puntu gehiago. Igoera esanguratsu hori gainerako energien beherakadarekin kontrajartzen da, gas naturala salbu; izan ere, 2024ko maila ia berean mantendu zen (+% 0,2), eta haren kuota % 18 inguruan finkatu zen.

Hala, petrolioak eta haren deribatuek, kontsumoan nagusi izaten jarraitu zutenek —2.175 ktep eta guztizkoaren % 46,7—, beheranzko aldakuntza izan zuten (–% 4,0). Joera bera izan zuen, neurri txikiagoan bada ere, energia elektrikoak (–% 0,5), eta bigarren kontsumo-iturria izaten jarraitu zuen (1.130 ktep eta % 24,3ko pisu erlatiboa). Ikatzaren eta haren deribatuen kontsumoak ere behera egin zuen (–% 4,2), baita energia eratorrienak ere (–% 12,5); hala ere, guztizkoan oso partaidetza txikia izan zuten (% 0,4 eta % 0,3, hurrenez hurren).

9. grafikoa. EAEko azken kontsumoa energia moten arabera (ktep)



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea (EEE)

Sektorekako banaketak energia-kontsumoan goranzko aldakuntza txikiak erakusten ditu kasu guztietan, baina horiek ez zuten ia aldaketarik eragin sektorekako kontsumo-egituran. Hala, garraioa, energia-kontsumitzaile nagusia (guztizkoaren % 47,9), 2.228 ktep-ra iritsi zen, energia-kontsumoa % 1,6 handitu ondoren; industria-jarduerak, berriz, bigarren tokian, 1.501 ktep-rekin eta % 32,2ko kuotarekin, 2024ko mailari ia bere horretan eutsi zion (+% 0,2). Beraz, bi sektore horiek, batera, EAEko azken energia-kontsumoaren zatirik handiena hartu zuten (% 80,1).

Gainerako sektoreei dagokienez, etxebizitzen eremuan % 5,5eko igoera izan zen, 518 ktep-ra iritsi arte; horren ondorioz, haren pisu erlatiboa zertxobait igo zen, % 11,1era arte. Zerbitzuek antzeko bilakaera izan zuten: 374 ktep-ko kontsumoa eta azken kontsumoaren % 8,0ko partaidetza izan zuten, energia-kontsumoa % 5,1 handitu ondoren. Lehen sektorean, berriz, kontsumoa % 3,3 handitu zen, 36 ktep-ra iritsi arte, hau da, guztizko kontsumoaren % 0,8.

51. koadroa. EAEko azken kontsumoa sektoreen arabera

(ktep)

Sektorea	2023	2024	2025	% Δ 25/24
Lehen sektorea	29	35	36	3,3
Industria	1.528	1.498	1.501	0,2
Garraioa	2.133	2.193	2.228	1,6
Zerbitzuak	358	356	374	5,1
Etxebizitzak	480	491	518	5,5
Guztira	4.527	4.573	4.656	1,8

Iturria: EEE. Geuk egina.

Bestalde, eta EAEko trantsizio energetikoari dagokionez, 2016-2030 aldirako Eusko Jaurlaritzaren politika energetikoaren helburuak eta oinarrizko ildoak definitzen ditu Euskadiko Energia Estrategia 2030ek.

Estrategia horren epe luzerako helburua geroz eta jasangarriagoa izango den sistema energetikoa lortzea da: lehiakorragoa, hornidura bermatzen duena eta karbono maila baxukoa.

Zehazki, honako hauek dira aipatutako estrategiak 2030erako ezartzen dituen helburuak:

- Lehen mailako energiaren urteko 1.250.000 tepeko aurrezpena lortzea 2016-2030 artean, hau da, % 17ko aurrezpena 2030erako. Hala, intentsitate energetikoa % 33 hobetuko litzateke aldi horretan.
- Energia berriztagarrien erabilera % 126 handitzea, 2030. urterako 966.000 tepeko aprobetxamendua lortzeko; modu horretan, energia berriztagarriek % 21eko kuota izango lukete amaierako kontsumoan.
- EAEko administrazio publikoaren konpromiso eredugarria sustatzea, haren instalazioetako kontsumo energetikoa 10 urtetan % 25 murrizteko; administrazioaren eraikinen % 25ean energia berriztagarria aprobetxatzeko instalazioak jartzea; eta, gainera, zerbitzu publikoaren parke mugikorrean eta flotetan ibilgailu alternatiboak txertatzea.
- Errepide bidezko garraioan energia alternatiboen % 25eko kuotara iristea, modu progresiboan petrolioa erabiltzeari utziz eta ibilgailu jasangarriagoak erabiliz.
- Kogenerazioaren eta energia berriztagarrien partaidetza handitzea elektrizitatea sortzeko, 2030ean partaidetza % 40koa izan dadin (2015ean % 20koa zen).
- EAEko enpresen, teknologia-zentroen eta eragile zientifikoen sarearen lehiakortasuna indartzea, ikerketaren, garapen teknologikoaren eta industriaren

arloko lehentasunezko 9 arloak bultzatuz, Euskadiko espezializazio adimendunerako RIS3 estrategiaren ildotik.

- Aldaketa klimatikoari aurre egiten laguntzea, berotegi-efektuko gasak urtean 3 Mt murriztearen bidez, neurri energetikoak aplikatuta; hala, jatorri energetikoa duten berotegi-efektuko gasen isurpenak % 35 murriztuko lirateke 2005. urtearekiko.

Halaber, sektorekako jarduketa-ildoak zehazten ditu Euskadiko Energia Estrategia 2030ek. Honako helburuak dituzte:

- EAEko industriaren lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetzea.
- Garraio-sektorean petrolioarekiko mendekotasuna murriztea.
- Eraikinetan eta etxebizitzetan kontsumoa murriztea eta energia berriztagarrien erabilera handitzea.
- EAEko administrazio publikoa energetikoki eraginkorragoa izan dadin sustatzea.
- Eraginkortasuna sustatzea eta lehen sektoreko baliabideak aprobetxatzea.
- Energia elektriko berriztagarriaren ekoizpena bultzatzea.
- Hornidura energetikoko azpiegiturak eta merkatuak gainbegiratzea.
- Garapen teknologiko energetikoa bideratzea.

2.2 ENERGIA ELEKTRIKOA

Red Electricak argitaratutako informazioaren arabera, 2025ean 256.086 GWh-eko energia elektrikoaren eskaera izan zen Espainian, bigarren urtez jarraian igoera izanik (+% 2,8). Penintsulako sisteman, Estatuko guztizkoaren % 94 inguru hartzen duen horretan, eskaria 240.341 GWh-koa izan zen, % 2,9ko hazkundearekin. Bestalde, Estatuko sistema elektrikoaren potentzia instalatuak inoizko maximoa lortu zuen, 142.558 MW-rekin, 2024an baino % 7,3 gehiago; beste mugarri historiko batek bultzatu zuen hazkunde hori: ahalmen berriztagarria 10 GW handitu izana, historiako hazkunderik handiena. Hala, potentzia instalatu berriztagarria Estatuko sistema elektrikoaren potentzia instalatu osoaren % 67,1 zen jada.

Energia motaren araberako xehetasunetara jaitsita, eguzki-energia fotovoltaikoak hazkunde nabarmena izan zuen 2025ean (+% 26,9), eta Estatuko mixaren buru izatera igaro zen, % 29,2ko pisu erlatiboarekin. Ondoren energia eolikoa kokatu zen, % 23,3ko kuotarekin; horrek ere gora egin zuen, baina neurri txikiagoan (+% 3,6). Hirugarren tokian ziklo konbinatua kokatu zen; ez zuen aldaketarik izan eta % 18 inguruko pisuari eutsi zion. Ondoren energia hidraulikoa kokatu zen, beherakada txiki batekin (–% 0,1) eta % 12ko ekarpenarekin. Energia nuklearrak, berriz, % 5eko ekarpena egin zuen, eta kogenerazioak % 3,7koa; gainerakoen partaidetza oso txikia izan zen. Hala ere, ikatzaren bilakaera nabarmendu behar da: 2025ean % 27,3ko uzkurdura izan zuen, eta haren pisu erlatiboa % 1,1era mugatu zen.

LABORAL kutxa

Puntu honetan, 2025eko apirilaren 28an izandako itzalaldi elektrikoa aipatu behar da, Penintsulako sistema elektrikoan aurrekaririk gabeko gertakaria izan baitzen eta sistema erabat leheneratzeko 23 ordu behar izan baitziren. Ondorengo azterketak ondorioztatu zuen gertakariak faktore anitzeko jatorria izan zuela; horrek tentsio elektrikoa azkar eta kontrolik gabe handitzea eragin zuen, eta, ondorioz, sistema kolapsatu egin zen.

Bestalde, Euskal Herriari dagokionez, Iberdrolak emandako informazioaren arabera, 2025eko ekitaldia 1.455,3 milioi kWh-ko ekoizpen osoarekin itxi zen, 2024an baino % 14,0 gutxiago; kontsumo osoa, berriz, 6.233,1 milioi kWh-ra iritsi zen, eta horrek ere % 9,4ko beherakada erakusten du. Horren ondorioz, autosorkuntza-tasa % 23,3koa izan zen, aurreko urtean erregistratutakoa baino ehuneko 1,3 puntu txikiagoa.

52. koadroa. Energia elektrikoaren ekoizpena eta eskaria Euskal Herrian

Urtea	Ekoizpena, guztira					Kontsumo guztia	% auto-sorkuntza
	Hidrauli-koa	Termikoa	Eolikoa	Kogenera-zioa	Guztira: (1+2+3+4)		
	1	2	3	4	5	6	(5/6) x 100
2022	226,4	1.378,8	571,0	368,9	2.545,2	7.458,9	34,1
2023	147,0	696,6	510,8	262,3	1.616,8	7.183,5	22,5
2024	247,4	698,0	473,0	274,0	1.692,4	6.883,3	24,6
2025	210,3	542,3	481,1	221,7	1.455,3	6.233,1	23,3

Iturria: Iberdrola.

2025ean aldaketak izan ziren ekoizpen-egituran, eta energia eolikoa izan zen aurreko ekitaldiko mailetan ia bere horretan mantendu zen energia-iturri bakarra. Hala, energia termikoa izan zen ekoizpenaren buru, 542,3 milioi kWh-rekin eta guztizkoaren % 37,3rekin, urte artean % 22,3 jaitsi bazen ere. Energia eolikoak, bigarren tokian, ekoizpena zertxobait handitu zuen (+% 1,7), 481,1 milioi kWh-ra arte, eta haren partaidetza % 30etik gora finkatu zen (% 33,1). Aitzitik, energia hidraulikoa % 15,0 jaitsi zen, eta guztizkoari 210,3 milioi kWh-ko ekarpena egin zion, hau da, % 14,5ekoa. Azkenik, kogenerazioak ere joera nagusiari jarraitu zion, eta haren balioek % 19,1 egin zuten behera; horren ondorioz, ekoizpena 221,7 milioi kWh-koa izan zen, guztizkoaren % 15,2.

Lurraldekako banaketari dagokionez, Nafarroatik hasita, 2025ean Euskal Herriko ekoizpen osoan zuen partaidetza % 37,4koa izan zen, bere ekoizpen-mailak % 11,5 jaitsi baziren ere. Energia motaren arabera, energia termikoaren % 51,2ko eta energia eolikoaren % 47,1eko ekarpenagatik nabarmendu zen. Bigarren tokian Araba kokatu zen, guztizkoaren % 30eko partaidetzarekin eta taldeko beherakadarik txikienarekin (–% 7,3); nabarmentzekoa izan zen kogenerazioan egindako ekarpena (% 91,1), baita energia hidraulikoan (% 42,9) eta eolikoan (% 30,1) egindakoa ere. Bizkaiak, berriz, ekoizpenaren % 28,6 hartu zuen, ekoizpen-erritmoa nabarmen murriztu zuen ekitaldi batean (–% 23,2); hala ere, jarduera hidraulikoaren % 47,4 eta termikoaren % 48,8 Bizkaiari zegozkion.

Azkenik, Gipuzkoak osatu zuen ekoizpen-mapa, askoz ere partaidetza txikiagoarekin (% 3,9), energia eolikoan egindako ekarpenean soilik oinarrituta (% 11,9).

Kontsumoari dagokionez, beherakaden testuinguruan, Gipuzkoan izandakoa nabarmendu zen (–% 16,1); lurralde horri kontsumo osoaren % 23,6 zegokion. Antzeko pisu erlatiboarekin (% 27,7), Nafarroak ere kontsumoa murriztu zuen 2025ean (–% 7,6); ondoren Araba kokatu zen, % 12,8ko kuotarekin eta % 8,9ko beherakadarekin; eta, azkenik, Bizkaia, energia-kontsumoaren % 35,9rekin, kontsumoa % 6,2 murriztu ondoren.

53. koadroa. Energia elektrikoaren kontsumo garbia lurraldearen arabera

(M kWh)

Lurraldea	2021	2022	2023	2024	2025(1)	% Δ 25/24
Araba	1.069,6	1.188,8	1.023,7	878,9	800,7	-8,9
Bizkaia	2.514,8	2.549,5	2.528,4	2.387,80	2.239,7	-6,2
Gipuzkoa	1.687,6	1.712,7	1.806,5	1.751,90	1.469,0	-16,1
EAE	5.272,0	5.451,0	5.358,6	5.018,60	4.509,4	-10,1
Nafarroa	1.888,1	2.007,9	1.824,9	1.864,70	1.723,8	-7,6
Euskal Herria(2)	7.160,1	7.458,9	7.183,5	6.883,30	6.233,1	-9,4

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Fakturatutako energia elektrikoa. Ez da kontuan hartzen Iberdrola ez den beste hornitzailerik, ezta Iberdrolaren kontsumoa ere.

Iturria: Iberdrola.

Kapitulua amaitzeko, Iberdrola Taldeak azken ekitaldian lortutako emaitza batzuk aurkeztuko ditugu jarraian.

Hala, 2025ean konpainiak berriro hobetu zituen bere magnitude ekonomiko nagusiak, eta 6.285 milioi euroko mozkin garbia lortu zuen, 2024an baino % 12 gehiago. Bestalde, EBITDA 15.680 milioi eurora iritsi zen, aurreko ekitaldian baino % 3,1 gehiago; aldi berean, plantillak ere gora egin zuen, 4.500 kontratazio berri egin baitziren, eta guztira 45.400 pertsonako plantilla osatu zen.

Inbertsioari dagokionez, Iberdrolak 14.460 milioi euroko inbertsioak egin zituen 2025ean, argi eta garbi sareen negoziora bideratuta; izan ere, negozio horrek guztizkoaren ia bi heren hartu zituen. Zehazki, 2025a urte errekorra izan zen konpainiarentzat: inoiz baino inbertsio handiagoak egin zituen Estatu Batuetako eta Erresuma Batuko banaketa- eta garraio-sareen azpiegituretan, eta horiek izango dira datozen urteetako hazkunde-eragile nagusiak.

Etorkizun hurbilari dagokionez, Ignacio Galán Iberdrolako presidenteak adierazi duenez, "gure dibertsifikazio geografikoko estrategia, finantzaketa eta teknologia eskuratzeko aukera eta arrakastaz gauzatutako ibilbidea dira, eta izaten jarraituko dute, epe luzera emaitzetan eta dibidenduetan hazteko bermerik onena". Horren guztiaren ondorioz, 2026rako aurreikuspena 6.600 milioi eurotik gorako mozkin garbi doitua lortzea da, eta 2028an 7.600 milioi eurotik gorakoa izan liteke.

LABORAL kutxa

3. SIDERURGIA

3.1 IKUSPEGI OROKORRA

2025eko ekitaldia konplexua izan zen munduko industria siderurgikorako, tirabira geopolitikoek beren horretan iraun zutelako, merkataritzako neurriak gogortu zituztelako eta deskarbonizazioari loturiko exijentziek aurrera egin zutelako.

Gainera, produkzio-prozesuak lehiari lotutako presio handiagoko egoera batera egokitu behar dira, eta alde nabariak daude altzairuaren eremu ekoizle eta kontsumitzaile nagusien artean.

Testuinguru horretan, World Steel Associationek argitaratutako informazioari jarraikiz, altzairu gordinaren munduko ekoizpena 1.850,2 milioi tonakoa izan zen 2025ean, hots, urte arteko -% 1,9ko beherakada. Bestalde, produktu siderurgikoen munduko kontsumoa 1.718,2 milioi tona izan zen 2025ean, eta hori ere -% 1,9ko atzerapena da.

Altzairuaren ekoizpena herrialdeen arabera aztertuz gero ikusten da Txinak munduko ekoizle nagusia izaten jarraitu zuela (guztizkoaren % 51,9). Dena den, ekoizpena -% 4,4 jaitsi zen, 1.000 milioi tonako langatik behera geratzeraino. Era berean, ekoizpenak behera egin zuen Japonian (-% 4), Alemanian (-% 8,6), Frantzian (-% 7,8), Erresuma Batuan (-% 36,3), Espainian (-% 0,6) eta EB-27 osoan (-% 3,9). Ostera, Indiak dinamismo handi samarrari eutsi zion (% 10,4ko igoera), eta AEBk, Kanadak eta Italiak aurrerapauso txikixeagoak lortu zituzten (baterako % 1,8ko hazkundea eta % 3,7ko igoera, hurrenez hurren).

54. koadroa. Altzairu gordinaren ekoizpena


Herrialdea	2024			2025		
	M Tm	% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	91,7	-1,9	4,9	93,4	1,8	5,0
Japonia	84,0	-3,4	4,5	80,7	-4,0	4,4
Txina	1.005,1	-2,3	53,3	960,8	-4,4	51,9
India	149,4	6,2	7,9	164,9	10,4	8,9
Alemania	37,3	5,4	2,0	34,1	-8,6	1,8
Italia	20,0	-5,0	1,1	20,7	3,7	1,1
Frantzia	10,8	7,6	0,6	9,9	-7,8	0,5
Erresuma Batua	4,0	-28,6	0,2	2,6	-36,3	0,1
Espainia	11,9	3,7	0,6	11,8	-0,6	0,6
EB-27	133,7	5,9	7,1	128,5	-3,9	6,9
Mundu osoa	1.886,8	-0,9	100,0	1.850,2	-1,9	100,0

Iturria: World Steel Association

Hortaz, munduko ekoizpenaren banaketa geografikoak oso profil kontzentratua edukitzen jarraitu zuen. Asiaren ekarpena munduko ekoizpenaren ia hiru laurden izan zen

iaz ere (% 73,1), Txinaren, Indiaren, Japoniaren eta Hego Korearen pisuak bultzatuta. Bestalde, Europaren ekarpena altzairuaren munduko ekoizpenaren % 11,4 izan zen; Amerikarena, % 8; eta beste eremuena gainerako % 7,4a izan zen.

10. grafikoa. Altzairuaren mundu mailako ekoizpena



Iturria: World Steel Association.

Produktu siderurgikoen kontsumoaren harria, beherakada -% 1,9koa izan zen 2025ean, eta horrek munduko eskaria ahul dagoela berresten du. Herrialdez herrialde, Txinak merkatu kontsumitzaile nagusia izaten jarraitu zuen, alde handiz, baina kontsumoa -% 7,1 gutxiagotu zuen 2025ean. Indian kontrakoa gertatu zen: hazkunde nabarmena eduki zuen (+% 8) eta, beraz, munduko bigarren merkatu handienaren posizioa indartuta geratu zen (guztizkoaren % 9,3). Orobat, EB-27ko kontsumoa igo zen (+% 3,6). Espainian, aldiz, -% 1,5 egin zuen behera, 2024an gertatutako hazkundearen ostean.

55. koadroa. Siderurgia-produktuen kontsumoa

	2024			2025		
	M Tm	% Δ	%	M Tm	% Δ	%
AEB eta Kanada	102,0	-1,4	5,8	103,5	1,5	6,0
Japonia	49,7	-3,7	2,8	48,0	-3,4	2,8
Txina	856,6	-5,4	48,9	796,0	-7,1	46,3
India	147,9	11,4	8,4	159,8	8,0	9,3
Alemania	26,5	-6,4	1,5	29,2	10,2	1,7
Italia	22,9	-1,3	1,3	23,8	3,9	1,4
Frantzia	11,5	2,7	0,7	9,9	-13,9	0,6
Erresuma Batua	9,2	13,6	0,5	9,7	5,4	0,6
Espainia	13,5	6,3	0,8	13,3	-1,5	0,8
EB-27	130,5	1,0	7,5	135,2	3,6	7,9
Mundu osoa	1.751,1	-1,5	100,0	1.718,2	-1,9	100,0

Iturria: World Steel Association

3.2 ESPAINIAKO SIDERURGIA

Unesiden arabera (Unión de Empresas Siderúrgicas), Espainiako industria siderurgikoak hainbat baldintzatzaile eduki zituen 2025ean: nazioarteko ingurune konplexua, kostu energetiko handia, araudiaren presioa eta nazioarteko lehia. Faktore horien guztien eraginez, altzairuaren ekoizpena zertxobait murriztu zen, eta entregak zein ageriko kontsumoa ahuldu ziren. Horiek horrela, Unesidek neurriak eskatzen jarraitu zuen sektorearen lehiakortasuna indartzeko, kostu energetikoen arrakala murrizteko eta hainbat tresna (adibidez, CBAM Karbonoaren Muga Doitzeko Mekanismoa) eta merkataritza-defentsako neurriak ondorengo produktu eraldatuetara ere hedatzeko, karbono-ihesak eta industria-deslokalizazioak saihesteko, eta Europak autonomia estrategikoa ez galtzeko.

56. koadroa. Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak*

(mila Tm)

Urtea	Produkzioa	Esportazioak	Inportazioa	Ageriko kontsumoa
2018	14.320	9.649	10.761	13.683
2019	13.588	9.494	10.286	13.181
2020	11.141	7.974	8.988	11.651
2021	14.205	9.461	10.070	13.008
2022	11.573	8.106	9.819	12.501
2023	11.445	7.636	10.144	12.651
2024	11.841	7.710	10.434	13.470
2025	11.792	7.966	10.352	13.398


(*): Ekoizpena eta ageriko kontsumoa altzairu gordinari dagozkio, eta kanpo-merkataritza, berriz, siderurgia-produktu guztiei.

Iturria: Unesid.

Xehetasunetan sartuta, 2025ean altzairu-ekoizpena 11.792 mila tonakoa izan zen, hots, 2024ko kopuruarekiko atzerapen txiki bat izan zuen (11.841 mila tona izan ziren orduan).

Bolumen hori 2007ko kopurua baino askoz txikiagoa da. Urte horretan altzairuaren ekoizpenaren inoizko maximoa erregistratu zen: 18.999 mila tona. Kanpo-merkataritzari buruz, inportazioak 10.352 mila tonakoak izan ziren, eta esportazioak, 7.966 mila tonakoak. Zehazki, aurreko urtearen aldean, -% 0,8ko beherakada txikia eta % 3,3ko igoera izan ziren, hurrenez hurren. Bestalde, ageriko kontsumoak -% 0,5 soilik egin zuen behera, 13.398 mila tonaraino.

11. grafikoa. Espainiako siderurgia-sektoreko magnitude nagusiak



Iturria: Unesid.

Halaber, inportaturiko lehengai nagusien bilakaera desberdina izan zen. Burdin mearen, pelleten eta txatarraren kontsumoa igo egin zen 2025ean: (burdin mea eta pelletak % 18,2, eta txatarra % 7,7). Haatik, koke bihur daitekeen harrikatzarena jaitsi zen (-% 2,3). Lehengai horien prezioek behera egin zuten oro har: koke bihur daitekeen harrikatzarena, -% 24; burdin mea eta pelletena, -% 15,9; eta txatarrarena, -% 15,1.

57. koadroa. Inportatutako lehengaiak

Urtea	Koke bihur daitekeen harrikatza		Burdin-mea eta pelleta		Txatarra	
	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)	Kontsumoa (m Tm)	Prezioa (euro/Tm)
2016	1.768	107,5	6.010	52,0	4.004	263,5
2017	1.767	207,3	6.572	76,3	4.242	321,0
2018	1.621	191,7	6.556	74,5	4.040	345,1
2019	780	188,2	5.557	91,6	4.024	304,4
2020	360	118,8	3.564	101,9	3.385	298,0
2021	1.421	177,9	5.650	155,3	4.122	444,3
2022	1.728	372,3	4.759	134,7	3.052	495,0
2023	2.014	274,9	5.013	105,3	3.203	423,3
2024	1.587	230,9	4.811	102,2	3.226	394,7
2025	1.550	175,5	5.689	86,0	3.474	335,0
Hazkundea % 25-24	-2,3	-24,0	18,2	-15,9	7,7	-15,1

Iturria: Unesid.

Aipatu den moduan, 2025eko ekitaldia konplikatua izan zen Espainiako sektore siderurgikorako, gatazka geopolitikoek, tirabira komertzialek, hirugarren herrialdeetako inportazioen presioak eta kostu energetiko handiek beren horretan jarraitu baitzuten. Hala ere, sektoreak trantsizioan aurrera egiten jarraitu zuen, siderurgia jasangarriagoa, lehiakorragoa eta berritzaileagoa izateko bidean. Hartara, Europako industria-autonomiarako daukan paper estrategikoa indartu zuen.

Testuinguru horretan, Espainiako sektore siderurgikoak zuzeneko 21.720 enplegurekin itxi zuen 2025a (2024aren aldean, -% 1,2). Azpisektore jakin batzuetako eskari ahulak, kostu energetiko handiek, inportazioen presioak eta muga-zergei lotutako neurriek eragin nabaria izan zuten lan-egoeran, eta alderdi horiek inpaktua eragin zuten enplegu-mailan eta lan-harremanetan. Arlo horretan, erronka nagusietako bat absentismoa izan zen berriro ere, lanaren ondorio ez diren gaixotasun arruntengatiko bajek hiru milioi orduko galera gainditu baitzuten lehenbizikoz (lan egin gabeko ordu guztien % 60 baino gehiago). Gainera, baimen ordainduak % 18 areagotu ziren 2024tik 2025era artean, eta konplexutasuna gehitu zioten enpresetako lan-antolaketari.

Emakumeen enpleguari dagokionez, aurrerapausoak lortu ziren 2025ean, emakumeek sektorean daukaten presentzia dela eta. Zehazki, emakumeen enplegu-tasa % 11,9ra iritsi zen, aurreko urteko datua halako bi, eta emakumeen kopuruaren igoera nabarmena egiaztatu da hainbat profil profesionaletan, langile teknikoen % 39 eta zuzendaritzako karguen % 30 izateraino.

Energiaren esparruan, UNESIDek egiturazko neurriak eskatzen jarraitu zuen 2025ean, beste eskualde industrial batzuen aldean kostu elektrikoen arrakala murrizteko eta prezio lehiakorrak eta aurresangarriak bermatzeko industria elektrointentsiboan. Horren harira,

elkarte horrek defendatu zuen Europako gidalerroetan ahalbidetzen diren konpentsaziorik handienetara lortzeko beharra, zeharkako kostuetan, eta beste herrialde lehiakide batzuenekin konparatzeko moduko aurrekontu-zuzkidurak baliatuta. Halaber, 2025eko apirilaren 28ko itzalaldiak kezka areagotu zuen horniduraren segurtasunaren inguruan eta, orobat, doikuntza-zerbitzuek eta murrizketa teknikoek faktura elektrikoan daukaten gero eta pisu handiagoaren inguruan.

Ingurumenari dagokionez, Karbonoaren Muga Doitzeko Mekanismoaren (CBAM) aurrerapena nagusitu zen 2025ean. Modu praktikoan aplikatu denean agerian geratu da zer erronka dauden EBtik kanpoko hornitzaileek egiaztatutako datuen eskuragarritasunari lotuta, bai eta lehiaren gaineko distortsioak geratzeko arriskuari lotuta ere. Testuinguru horretan, UNESIDek defendatu du ezen, altzairuaren ekoizpena ez ezik, ondorengo produktu eraldatuen eraldaketa-jarduerak ere babestu ditzala CBAMk. Era berean, sektoreak lanean jarraitu zuen industria-isuriei buruzko zuzentarau berria gurera ekartzeko, eta altzairua ekoizteko eskura dauden teknika onenei buruzko dokumentua (Iron and Steel BREF) berrikusteko prestaketak egiten, EUROFERekin koordinatuta eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioarekin solasean.

3.3 EUSKAL SIDERURGIA

Nazioarteko eta Estatuko eremuen harira adierazitakoa ere gertatu zitzaion euskal ehun siderurgikoari 2025ean: ziurgabetasun handiko ingurunea, inportazioen gaineko lehiaren presioak, kostu energetiko handiek, tirabira komertzialek eta gero eta arau- eta klima-exijentzia handiagoek baldintzatuta. Horiek horrela, euskal enpresa siderurgikoek erronka bikoitzari egin zioten aurre: alde batetik, lehiakortasunari eta marjinei eustea tenkaturik dauden nazioarteko merkatuetan; eta beste aldetik, inbertsioak bizkortu dituzte eraginkortasun energetikoan, deskarbonizazioan, digitalizazioan eta ekoizpen-berrikuntzan.

LABORAL kutxa

12. grafikoa. Euskal Herriko siderurgia- eta metalurgia-establezimendu nagusien kokapena



Iturria: Geuk egina.

Euskal industria siderurgikoaren kanpo-merkataritza aintzakotzat hartuta, esportazio-jarduerak atzera egin zuen 2025ean, nola bolumenari hala alderdi monetarioari erreparatuta. Aldi berean, inportazio-jardueraren tona kopurua igo egin zen, eta balioa, berriz, jaitsi.

Zehazki, EAEko sektore siderurgikoak 1.904,2 mila tona esportatu zituen beste herrialde batzuetara; alegia, -% 5,1eko atzerapena gertatu zen. Alderdi monetarioaren beherakada biziagoa izan zen (-% 12), 1.820,6 milioi eurorekin.

Inportazioetan, 3.798,8 mila tona izan ziren 2025ean, hau da, % 12ko igoera. Bestalde, inportaturiko 2.524,5 milioi euroek -% 0,9ko jaitsiera txikia eragin zuten.

58. koadroa. EAEko siderurgia-industriaren kanpo-merkataritza

Urtea	Inportazioak		Esportazioak	
	m Tm	M euro	m Tm	M euro
2016	3.388,8	1.467,5	2.443,9	1.413,7
2017	3.614,3	1.851,2	2.140,6	1.523,5
2018	3.566,5	2.055,0	2.267,1	1.847,0
2019	3.564,7	1.947,9	2.204,2	1.678,6
2020	2.796,4	1.447,7	1.816,1	1.290,7
2021	3.465,0	2.465,7	2.243,6	2.180,5
2022	3.102,8	3.029,0	1.987,7	2.813,7
2023	3.171,2	2.705,3	1.814,1	2.235,0
2024	3.392,8	2.547,6	2.006,2	2.068,2
2025*	3.798,8	2.524,5	1.904,2	1.820,6

(*): Behin-behineko datuak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila eta Eustat.

Siderurgia-jarduerak duen garrantzi ekonomikoa Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Industria Inkestan emandako informazioarekin osatu dugu. Hala, aurreko txostenetan bezala, komeni da kontuan izatea estatistika-sailkapena ezin dela zuzenean alderatu kapitulu honetan jasotakoarekin; izan ere, hau Eustatek merkataritza eta/edo produktuen sailkapen baten aurrean egiten duen A-86 sailkapena da, eta siderurgia integralari, ez-integralari, altzairu bereziei eta soldadurarik gabeko hodiei dagokie.

Eskura dauden azken datuei jarraikiz, talde siderometalurgikoak sortutako BEGa (Balio Erantsi Gordina) 5.017 milioi eurora iritsi zen, urterik urterako -% 3ko jaitsiera. Jardueraren azpisektoreei erreparatuz gero, siderurgia-, galdaketa-, forjaketa- eta estanpazio-industriak sortutako BEGa 2.048 milioi eurokoa izan zen. Bestalde, eraikuntza metalikoko, ingeniaritza metalikoko jarduerek eta gai metalikoek 2.969 milioi euroko ekarpena egin zuten. Modu horretan, 2024an, euskal industriak sortutako BEGaren % 28,9 jarduera siderometalurgikoen multzoaren ekarpena izan zen, eta 68.172 pertsonari eman zien enplegua.

LABORAL kutxa

59. koadroa. Siderurgia-jarduerak EAEko industriari egindako ekarpena

Kontzeptua	BEGa (M euro)			Enplegua (pertsona kopurua)		
	2022	2023	2024	2022	2023	2024
Siderurgia eta burdinarekin egiten ez den metalurgia	1.296	1.165	993	9.863	10.204	10.312
Galdaketa	430	506	501	6.552	7.312	7.003
Metalezko eraikuntzak	539	597	618	9.731	9.761	9.935
Forjaketa eta estanpazioa	531	571	554	6.841	6.824	6.736
Ingeniaritza mekanikoa	1.201	1.313	1.359	20.351	20.640	20.756
Metalezko artikuluak	955	1.017	992	13.942	13.640	13.430
Multzo siderometalurgikoa, guztira	4.953	5.170	5.017	67.280	68.381	68.172
Industria	16.650	17.555	17.337	204.774	208.367	209.459
Partaidetza (%)						
– *Siderurgia/Industria*	7,8	*6,6*	*5,7*	*4,8*	*4,9*	*4,9*
– *Siderometalurgia/Industria*	*29,7*	*29,5*	*28,9*	*32,9*	*32,8*	*32,5*

Iturria: Industria Inkesta (Eustat).

Altzairu arrunta eta altzairu bereziak

2025eko ekitaldian, altzairu arruntaren mota nagusiek bilakaera heterogeneoa izan zuten. Altzairuaren guztizko ageriko kontsumoa 13.398 milioi tonakoa izan zen, aurreko ekitaldiko bolumena baino % 0,5 txikiagoa. Beherakada hori gertatu zen aztertu diren lau produktu-motetatik biren kontsumoa txikiagotu zelako. Zehatz-mehatz, beroan ijeztutako produktu lauen ageriko kontsumoa -% 10,3 jaitsi zen, eta lingote eta erdiproduktuena, -% 9,9. Aitzitik, ijeztutako produktu lauen ageriko kontsumoa % 6,8 igo zen, eta amaitutako produktu luzeena, % 0,7.

60. koadroa. Altzairuaren ageriko kontsumoa, produktuen arabera

(m Tm)

Produktuak	Ageriko kontsumoa			
	2023	2024	2025	% Δ 25/24
Amaitutako produktu motaren arabera*				
– Lingoteak eta amaitugabeak	458	383	345	-9,9
– Produktu luze amaituak	4.546	4.708	4.740	0,7
– Produktu lau beroak	3.310	3.716	3.333	-10,3
– Produktu lau hotzak eta estaliak	4.337	4.665	4.980	6,8

(*): Altzairu arruntak eta bereziak barne.
Iturria: Unesid.

Beroan ijeztutako produktuen ekoizpenaren bilakaera kaltegarria izan zen 2025ean, beherakadak gertatu baitziren aztertutako bi segmentu handietan. Zehazki, beroan ijeztutako produktu lauen ekoizpena 3.708 mila tona izan zen, 2024koa baino % 1,6 txikiagoa. Bestalde, beroan ijeztutako produktu luzeek 7.396 mila tonako bolumenarekin itxi zuten urtea, hau da, aurreko ekitaldian baino -% 0,7 gutxiago. Dinamika hori azaltzeko,

hariletan datorren alanbre-burdinaren ekoizpena (-% 5,8) eta beste profil komertzial batzuena (-% 6,2) jaitsi zela kontuan hartu behar da, eta bideko materialen (% 7,3), egiturazko profilen (% 5,6) eta hormigoirako biribilen (% 1,2) igoerak ezin izan zuen jaitsiera hori orekatu.

61. koadroa. Beroan ijeztutako produktuen ekoizpena*

(m Tm)

Produktuak	Produkzioa			
	2023	2024	2025	% Δ 25/24
Beroan ijeztutako produktu luzeak	7.509	7.450	7.396	-0,7
– Trenbideetako materiala	242	232	249	7,3
– Egiturazko profilak	2.502	2.500	2.639	5,6
– Alanbre-burdin biribildua	1.591	1.469	1.384	-5,8
– Hormigoirako biribilak	1.309	1.416	1.433	1,2
– Beste merkataritza-profil batzuk	1.441	1.328	1.246	-6,2
Beroan ijeztutako produktu lauak	3.300	3.767	3.708	-1,6

(*): Bi altzairu-kalitateak barne: altzairu arrunta eta altzairu berezia.
Iturria: Unesid.

CIE Automotive

CIE Automotive erreferentziazko industria-enpresetako bat da Euskal Herrian, eta automobilgintzaren balio-katean kokatuta dago. Konpainiak dioen bezala, haren misioak, ikuspegiak eta balioek adierazten dute nolako konpromisoa daukan kalitatearekin, berrikuntzarekin, jasangarritasunarekin eta balioa sortzearekin. 2025ean, taldeak 26.000 enplegatu inguru zituen, 80 bezero baino gehiago (OEM eta Tier 1), 111 ekoizpen-zentro, I+G-ko 10 zentro, ekoizpen-presentzia eta I+G presentzia 17 herrialdetan, eta 7.000 erreferentziatik gorako eskaintza, zazpi teknologia erabiliz fabrikatua.

Taldearen memoriari jarraituz, 2025 Plan Estrategikoa itxi zuten 2025ean, automobilgintzarako bereziki konplexua den testuinguru batean. Alde horretatik, konpainiak adierazi du zer alderdik baldintzatu zuten sektorea iaz: konplexutasun makroekonomiko handiko ingurunea, tirabira geopolitiko eta komertzialak, hasieran aurreikusitakoa baino motelago eta desberdin doan elektrifikaziorako trantsizioa, eta alde nabariak eremu geografiko batetik bestera.

Hala ere, 3.958,3 milioi euroko salmenta lortu zuen CIE Automotivek 2025ean, hots, % 2,1eko hazkundea truke-tasa konstantean. Bestalde, EBITDA 746,2 milioi eurokoa izan zen (% 2,5eko igoera), eta etekin garbiak inoizko maximo berria jo zuen: 335,8 milioi euro (% 3,1eko aurrerapena).

Urteko mugarrien artean, hauek azpimarratu behar dira: "Bikain" kalifikazioa lortu zuen Erosketa jasangarrien ISO 20400 ziurtagirian; 20 milioi euroko mailegua sinatu zuen Finantzen Euskal Institutuarekin, Euskal Herriko inbertsioak sustatzeko; eta CIE Metal

LABORAL kutxa

Norte instalazio multiteknologikoa inauguratu zuen Saltillon (Mexiko). Maila korporatiboan, konpainiak Engrecon erosi zuen 15,8 milioi euroren truke, baita Techniplas Brasil ere, 65 milioi euroan. Era horretan, bere gaitasunak indartu zituen engranajeetan, osagai mekanikoetan eta konplexutasun handiko plastikoetan. Gainera, 2025eko abenduan iragarri zuen Aludecen erosketa sinatu zutela 200 milioi euroan.

Aurreratu den moduan, CIE Automotivek 2025 Plan Estrategikoa betetzat jo zuen 2025ean, bai alderdi operatiboan, bai ingurumenari, gizarteari eta gobernantzari begira (ASG). Zehazki, 2021-2025 aldirako definitutako konpromisoak bete zituen, hazkundearen diferentziala ehuneko 25 puntukoa izan zen merkatuaren aldean, Capexen egindako inbertsio metatua 1.058 milioi eurokoa izan zen, eta batez besteko EBITDA bihurketa % 66,9 izan zen kutxa operatiboan.

Ingurumenaren harira, CIE Automotivek jasangarritasunarekin daukan konpromisoa berretsi zuen, Deskarbonizazio Plan berria garatu zuen-eta 2025ean. Inbertsioen Europako Bankuarekin elkarlanean prestatu zuen, eta Science Based Targets Initiativek (SBTi) baliozkoturiko klima-helburuak mantendu zituen. Orobat, produktuen garapenean ekodiseinuko eta ekonomia zirkularreko irizpideak txertatzen jarraitu du konpainiak, arauzko exijentzia berriei aurrea hartzeko, trazabilitatea hobetzeko, material birziklatuen erabilera sustatzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko osagaien bizi-zikloan zehar.

Azkenik, gizarteari dagokionez, CIE Automotivek ia milioi bat euro bideratu zuen gizarte-ekintzako programetara 2025ean: 4.579 enplegatuk parte hartu zuten, boluntariotzako 3.100 ordu baino gehiago metatu ziren eta inpaktua 17.066 onuraduni heldu zitzaiela jo da. Alde horretatik, konpainiak azpimarratu zuen instalazioetan bertan antolatzen direla ekintzak, nagusiki, eta tokiko ingurune bakoitzean identifikaturiko premien ondorio dira. Hala, gizarte-proiektuen, ekimen komunitarioen eta konpainia dagoen eskualdeetako garapenean laguntzeko ekintzen bitartez jarduten da.

Soldadurarik gabeko hodiak

62. koadroa. Soldadurarik gabeko hodien kanpo-merkataritza

(m Tm)

Urtea	Esportazioa	Inportazioa
2016	196	117
2017	278	137
2018	289	182
2019	239	163
2020	186	110
2021	209	123
2022	293	132
2023	262	133
2024	208	120
2025	221	120

Iturria: Unesid.

Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioaren kanpo-merkataritzari buruzko estatistikekin bat etorriz, soldatu gabeko hodien esportazioak % 12,9 suspertu ziren 2025ean. Salmenten helmuga nagusia Europar Batasuna izan zen berriro, guztizkoaren % 38,5ekin, eta esportaturiko bolumena % 8,4 areagotu zen. Partaidetzari erreparatuta, AEB oso hurbil geratu zen, % 36,9ko kuotarekin eta salmentak % 9,5 handiturik. Europan, Frantzia, Austria eta Portugal nabarmendu behar dira, dinamismoagatik (% 62,1, % 19,6 eta % 18,6ko igoera, hurrenez hurren). Ostera, Norvegia (-% 59,1), Herbehereak (-% 34,0) eta Erresuma Baturako (-% 24,2) esportazioek nabariki egin zuten behera.

Bestalde, Asiako eta Ekialde Hurbileko merkatuek bilakaera desberdinak izan zituzten. Zehazki, Saudi Arabian egindako salmenta hein handian hazi zen (% 133,3); atzerapen nabariak gertatu ziren Txinan (-% 82,1) eta Hego Korean (-% 76,9), ordea, baina horien partaidetza-kuotak ia hutsalak dira.

LABORAL kutxa

63. koadroa. Soldadurarik gabeko hodien esportazioak, helmugako herrialdeen arabera

(m Tm)

Eremua	2023	2024	2025	%	% Δ 25/24
Estatu Batuak	94,1	61,8	67,7	36,9	9,5
Alemania	17,4	18,3	19,3	10,5	5,5
Italia	13,9	14,9	15,7	8,6	5,4
Frantzia	15,2	9,5	15,4	8,4	62,1
Arabiar Emirerri Batuak	4,6	7,6	9,3	5,1	22,4
Herbehereak	3,5	5,0	3,3	1,8	-34,0
Saudi Arabia	4,8	4,8	11,2	6,1	133,3
Austria	2,8	4,6	5,5	3,0	19,6
Portugal	4,1	4,3	5,1	2,8	18,6
Txina	1,8	3,9	0,7	0,4	-82,1
Erresuma Batua	5,7	3,3	2,5	1,4	-24,2
Turkia	2,8	2,8	2,8	1,5	0,0
Hego Korea	2,9	2,6	0,6	0,3	-76,9
Norvegia	1,4	2,2	0,9	0,5	-59,1
Oman	0,2	1,6	0,8	0,4	-50,0
EB-27 guztira	76,7	65,2	70,7	38,5	8,4
Mundua, guztira	214,3	162,6	183,5	100,0	12,9

Iturria: Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioaren kanpo-merkataritzako estatistikak.

Tubacex


2025a erresilientzia- eta egokitze-ekitaldia izan zen TUBACEX taldearentzat. Energia, industria eta mugikortasunerako balio erantsi handiko industria-irtenbide aurreratuen mundu-mailako hornitzaile gisa daukan posizioa mantendu zuen. Kontuan hartzekoa da talde horrek balio-kate bateratuarekin diharduela: I+G metalurgikoa, industrializazioa, fabrikazioa, mekanizazioa, kalitate-kontrola, trazabilitatea, azken entrega eta eragiketetako laguntza teknikoa. Hartara, neurrira egindako hodi-irtenbideak eskain ditzake eragiketa kritikoetarako, korrosio, presio eta tenperatura handiko baldintzetan. 2025ean, TUBACEXek 25 instalazio, 14 zerbitzu-zentro eta ia 2.800 enplegatu zituen.

2025ean zehar, konpainiarako faktore garrantzitsuenen artean egon ziren hauexek: batetik, Abu Dhabin dagoen CRA OCTGko instalazioa (korrosioa jasaten duen aleazioa, petrolio- eta gas-hobietan baliatzen diren hodi berezietan) ekoizpen betean sartzea, hori industria-aktibo estrategikoa da gaserako CRA OCTG hodien mundu-mailako eskariaren gune geografikoan; eta bestetik, ADNOCi ematea *Sentinel Prime* teknologia jabea erabiltzeko eskubideen gaineko lizentzia, CRA ez den karbono-altzairuaren OCTG aplikazioetarako, 50 milioi dolarren truke. Era berean, taldeak espezializazio handiko eta ziklo luzeko negozioak indartu zituen: aurrerapenak gertatu ziren *offshore subsea*n, arlo aeroespazialeko inoizko fakturazio handiena lortu zuen, eta garapen berriak erdietsi zituen sektore nuklearrean, EDFrekin batera.

Konpainiak lortutako emaitzak ikusita, 2025ean 719,3 milioi euroko fakturazioa izan zuen (urtetik urterako -% 6,3) eta 105,8 milioi euroko EBITDA (urtetik urterako -% 1,1). Dena dela, marijna % 14,7raino hobetu zen (2024ko % 13,9aren aldean), eta eskaeren zorroak maila altuetan jarraitu zuen, 1.233 milioi eurorekin. Horri lotuta aipatu behar da hainbat alderdik baldintzatu zutela ekitaldiaren bilakaera: petrolioaren prezio txikiagoa, lehengai jakin batzuen beherakada, nikelaren beheranzko joera, eta ingurune komertzial ziurgabeagoa. Horrek guztiak eragina izan zuen, bereziki, balio erantsi txikiagoko produktuetan. Ostera, premium segmentuek, proiektuei lotutakoek eta ziklo luzekoek sendotasun handiagoa izan zuten.

TUBACEX taldearen 2025eko salmentaren banaketa geografikoa ikusita, Asiak eta Ekialde Ertainak jarraitu zuten salmentaren helmuga nagusia izaten, guztizkoaren % 44rekin (2024an baino ehuneko bi puntu gehiago). Batik bat, Ekialde Ertainak E&P Gasen negozioan daukan pisuak eta Abu Dhabiko instalazioa ekoizpen betearekin hasi izanak bultzatu zuten hori. Bestalde, Europa izan zen bigarren, salmentaren % 28rekin (2024ko % 29tik zertxobait beherago); eta Amerikara bideratu zen % 25 (aurreko ekitaldian, % 26). Azkenik, Afrikak pisu txikia baina egonkorra mantendu zuen, taldearen salmentaren % 3rekin.

13. grafikoa. Salmenten banaketa geografikoa 2025ean



Iturria: Tubacex taldea.

"Ambición 2030" estrategiaren harira, negozioaren kudeaketan eta maila guztietako erabakietan jasangarritasuna txertatzen jarraitu zuen TUBACEXek. Hala, Jasangarritasun Planak konpromiso zehatz, helburu neurgarri eta ekimen espezifiko (ingurumena, gizartea eta gobernantza, ESG) bihurtu zituen estrategia korporatiboa eta Plan Estrategikoa. Modu horretan, konpainiak materialtasun bikoitzeko urteko azterketa batetik abiatuta egituratu zituen lehentasunak, jasangarritasunari buruzko informaziorako Europako arauekin (NEIS)

bat etorriz. Lau ekintza-ardatz nagusiak mantendu zituen: neutraltasunerantz aurrera egitea eta negozioaren zirkularitatea sustatzea, trantsizio energetikorako irtenbide berritzaileak garatzen laguntzea, pertsonak eta hurbileko ingurunea zaintzea, eta zuzen jokatzea eta gardentasuna sustatzea.

Gizartearen ikuspegitik, TUBACEX fundazioak lau ekintza-ildotan antolatu zuen bere jarduera 2025ean, trazatu daitekeen gizarte- eta ingurumen-inpaktua eragiteko asmoz: kalitate oneko prestakuntza, dibertsitatea eta inklusioa, komunitateei laguntzea, eta ingurumen-inpaktua eta sentsibilizazioa. Iazko mugarri nagusien artean, hauek azpimarratu behar dira: Austria eta Euskal Herriko prestakuntza-programak sendotzea, unibertsitateko prestakuntza duala bultzatzea, elkarlana abiaraztea Umbargeongo (India) lanbide-heziketako ikastetxe batekin, Open Campus onlineko plataforma hedatzea, eta Green Ideas Award sarien bigarren edizioa. Gainera, fundazioak ONCErekiko elkarlana berritu zuen, aliantzak mantendu zituen UNICEF Españarekin eta Colabora Birmaniarekin, zuhaitzak landatzeko ekintzak sustatu zituen Laudion, eta Waste Lab Bizkaia proiektua babestu zuen.

Tubos Reunidos

Urteko memorian adierazitakoari jarraituz, soldatu gabeko altzairuzko hodien munduko merkaturako testuinguru bereziki konplexuak baldintzatu zuen Tubos Reunidosen 2025eko egoera, egoera geopolitikoa, nazioarteko merkataritzako tentsioak eta merkataritza-oztopoak gogortzea tarteko. Zehazki, AEBk kuota askeak eta salbuespenak kendu zituen martxoan, eta altzairuaren muga-zergak % 50eraino igo zituen ekainean. Horrenbestez, eskaerak nabarmen jaitsi ziren AEBko merkatuan, hura izanik Tubos Reunidosen fakturazioaren % 45, gutxi gorabehera. Horri gehitu behar zaio, halaber, sektoreak egiturazko gehiegizko gaitasuna daukala (Asian dago batez ere), eta Europako lehiak eragiten duen presioa.

Horiek horrela, AEBko eskaeren beherakadak eragindako inpaktua arintze aldera, Tubos Reunidosek bere ekintza komertziala indartu zuen eta Plan Estrategikoko ekimen giltzarriak bizkortu zituen, merkatuak eta produktuak dibertsifikatzeko helburuarekin. Ekintza horien artean, hauek dira aipatzekoak: jarduera komertziala areagotzea Kanadan, delegazio bat zabaltzea Düsseldorfen (Alemania), Indiako presentzia indartzea, eta Tubos Reunidos Premium Threadsen (TRPT) % 100 erostea. Alabaina, konpainiaren esanetan, proiektu ugari moteldu edota gelditu ere egin ziren mundu osoan eta, ondorioz, eskaeren sarrera ez zen aski izan merkatu nagusian historikoki lorturiko bolumena orekatzeko. Hortaz, ekoizpen-doikuntzak egin behar izan zituen hainbat instalaziotan. Testuinguru horretan, taldea konkurtso-administrazioarekin ari da lanean, jarduera babestu, jarraitutasun operatiboa bermatu eta industria-proiektuan interesa daukaten inbertitzaileak erakartzeko.

Jasangarritasunari, berrikuntzari eta dibertsifikazio komertzialari loturiko hainbat mugarrik bereizi zuten 2025eko ekitaldia. Ildo horretan, *O-Next* gamak isuri gutxiko hodi-irtenbide gisa daukan posizionamendua sendotu zuen: 10.500 tona baino gehiagok osatu zuten hornidura, eta taldearen ospea indartu zen, balio erantsi handiko produktuen hornitzaile den aldetik. Halaber, aipatzekoa da energia berriztagarriaren salerosketa-akordio bat sinatu zuela (PPA) Iberdrola Españarekin, Euskal Herriko instalazioetako hornidurarako; hornidura elektrikoaren % 30en jatorria energia berriztagarriak izatea lortu zuen; Amurrioko autokontsumoko instalazio fotovoltaikoaren lehen fasea abiarazi zuen; eta aintzatespena jaso zuen BBK ESG Hub Cámarabilbao sarietan eta Retina Eco sarietan, jasangarritasunean, ingurumen-berrikuntzan eta trantsizio energetikoan emandako aurrerapausoengatik.

Gainera, ahalegin dezente bideratu zituen Jasangarritasuneko Gida Plana (2024-2028) hedatzeko; izan ere, eguneroko kudeaketan txertatu zuen pixkanaka, eta aurrera egin zuen ingurumenean, gizartean eta gobernantzan hartutako konpromisoak erdiesteko bidean.

Testuinguru horretan, Tubos Reunidos taldeak 365,7 milioi euroko negozio-zifrarekin itxi zuen 2025a (% 12,9ko igoera 2024koaren aldean). Nolanahi ere, emaitzen bilakaerak erakusten du ingurune operatiboa eta komertziala okertu dela: EBITDA -22,8 milioi euro izan zen (2024an, 8,8 milioi positibo), ekitaldiaren emaitza -110,6 milioi euro izan zen zergen aurretik, eta sozietate nagusiari egotz dakiokeen emaitza -118,1 milioi eurora igo zen.

Jarduera gauzatzeko, Tubos Reunidosek nazioarteko presentzia handi samarra dauka, eta bezeroekin elkarlanean dihardu 50 herrialdetan baino gehiagotan. Xehetasunei begira, taldeak I+G-ko hiru zentro zituen 2025ean, bost bulego komertzial eta 15 agentzia komertzial, eta zuzeneko ia 1.400 langile, batez beste.

64. koadroa. Negozio arloak eta enpresa-unitateak. Tubos Reunidos taldea. 2025

Negozio arloak	Unitateak/establezimenduak
Ekoizpen-zentroak	Tubos Mill (Amurrio, Araba) Productos Mill (Trapagaran, Bizkaia) Tubos Reunidos Premium Threads (Iruña Oka, Araba) RDT, Inc (Beasley, Texas)
I+G	I+G arloko 3 zentro
Bulego komertzialak	Bost bulego komertzial, Düsseldorfeko (Alemania) bulego komertzial berria barne
Agentzia komertzialak	15 agentzia komertzial

Iturria: Urteko Txostena-Jardueren Memoria. Tubos Reunidos taldea (2024 eta 2025).

LABORAL kutxa

4. ONTZIGINTZA

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Nahiz eta tentsio geopolitikoak, merkataritza-oztopoak eta ibilbide giltzarrietako etenak bereizgarri suertatu ziren, munduko itsas merkataritzak errekorra hautsi zuen 2025ean, eta 13.005 milioi tona garraiatu zituen.

Itsasontzi berrien mundu-mailako kontratazioaren harira, pisu hilaren 176,5 milioi tona izan ziren 2025ean, hau da, aurreko ekitaldiko ezohiko mailaren aldean, urte arteko -% 11,5eko beherakada izan zen bolumenean. Aitzitik, itsasontzi berrien entregak % 4,8 handitu ziren, 93,7 milioi tona pisu hilera arte.

65. koadroa. Munduko merkataritza-flota

(MGT)

Urtea	Tonak	% Δ
2015	1.107,8	3,8
2016	1.148,0	3,6
2017	1.182,8	3,0
2018	1.221,3	3,3
2019	1.263,0	3,4
2020	1.324,7	4,9
2021	1.353,8	2,2
2022	1.400,0	3,4
2023	1.438,7	2,8
2024	1.494,4	3,9
2025	1.564,5	4,7

Iturria: ANAVE.

Hala, munduko merkataritza-flota 1.564,5 milioi tona gordinekoa izan zen 2025ean, hau da, aurreko urtean baino % 4,7 handiagoa. Beraz, urtebete lehenago erregistratutako aurrerapen-erritmoa handitu egin zen bigarren urtez jarraian (2023an % 2,8 eta 2024an % 3,9).

Flota horren herrialde nagusiari erreparatuz gero, aurreko ekitaldian bezala, Liberia izan zen protagonista nagusia: munduko merkataritza-flotaren % 17,1 hartu zuen bere gain, gertutik jarraitu zion Panamak (% 15,2), eta distantzia handiagora geratu ziren Marshall Uharteak (guztizkoaren % 11,5). Europa mailan Malta nabarmendu zen, guztizkoaren gaineko % 5,5eko parte-hartzearekin. Hala, alde handiarekin gainditu zituen Greziaren (% 2,1), Portugalen (% 1,7), Danimarkaren (% 1,4) eta Zipreren kuotak (% 1,4) kuotak.

66. koadroa. Munduko merkataritza-flota, jatorrizko herrialdearen arabera

Herrialdea	2023		2024		2025		% Δ 25/ 24
	MGT	%	MGT	%	MGT	%	
Liberia	229,0	15,9	251,4	16,8	267,1	17,1	6,2
Panama	232,7	16,2	239,5	16,0	237,5	15,2	-0,8
Marshall Uharteak	174,5	12,1	180,4	12,1	179,2	11,5	-0,6
Hong Kong	126,0	8,8	128,1	8,6	131,9	8,4	3,0
Singapur	87,8	6,1	93,1	6,2	102,2	6,5	9,8
Malta	78,6	5,5	77,3	5,2	86,0	5,5	11,2
Txina	64,3	4,5	66,8	4,5	68,2	4,4	2,0
Bahamak	51,7	3,6	51,9	3,5	51,1	3,3	-1,4
Grezia	34,1	2,4	33,7	2,3	32,4	2,1	-4,0
Japonia	30,6	2,1	30,7	2,1	31,4	2,0	2,2
Portugal	20,1	1,4	22,2	1,5	26,3	1,7	18,6
Danimarka	22,3	1,6	21,9	1,5	22,6	1,4	3,2
Zipre	19,8	1,4	20,2	1,4	22,5	1,4	11,4
Indonesia	18,1	1,3	19,1	1,3	20,3	1,3	6,3
Hego Korea	15,0	1,0	17,0	1,1	17,6	1,1	4,0
Norvegia	16,3	1,1	16,5	1,1	16,5	1,1	0,1
Iran	11,6	0,8	11,6	0,8	12,0	0,8	3,4
Italia	12,7	0,9	11,9	0,8	11,8	0,8	-0,9
Frantzia	8,1	0,6	9,0	0,6	10,0	0,6	11,2
Bermuda	9,6	0,7	9,2	0,6	9,8	0,6	6,5
India	9,8	0,7	9,9	0,7	9,7	0,6	-1,4
Alemania	7,1	0,5	7,7	0,5	8,5	0,5	9,3
Belgika	6,0	0,4	6,1	0,4	6,1	0,4	0,5
Holanda	4,4	0,3	3,6	0,2	3,6	0,2	-0,4
Suedia	2,2	0,2	2,1	0,1	2,2	0,1	6,3
Espainia	2,4	0,2	2,2	0,1	2,1	0,1	-5,6
Finlandia	1,7	0,1	1,8	0,1	1,7	0,1	-8,0
Kroazia	1,0	0,1	0,8	0,1	0,8	0,1	2,7
Erresuma Batua	21,1	1,5	20,9	1,4	--	--	--
Barbados	2,9	0,2	3,7	0,2	--	--	--
Gainerako herrialdeak	117,1	8,1	124,1	8,3	173,1	11,1	39,6
EEE, guztira*	238,7	16,6	239,0	16,0	254,9	16,3	6,7
Mundu osoa	1.438,7	100,0	1.494,4	100,0	1.564,5	100,0	4,7

(*): Europako Esparru Ekonomikoa.
Iturria: ANAVE.

Itsasontzi-motei dagokienez, aurreko ekitaldietan ikusitakoarekin bat etorriz, 2025ean ere solteko gaien itsasontziak munduko merkantzia-ontzidiaren herena baino gehiago izan ziren (% 35,1). Eta gero, ordena honetan, edukiontziak garraiatzekoak (% 20,7), petrolioa garraiatzekoak (% 20), gainerako merkataritzako ontziak (% 12,3), gasa garraiatzekoak (% 7) eta, azkenik, kargaontziak (% 5).

Aurreko ekitaldiaren aldean, dinamismo handiena edukiontziak garraiatzeko itsasontziei egokitu zitzaien 2025ean (% 10eko hazkundea), eta txikiena, aldiz, petrolioa garraiatzekoei (% 0,4ko igoera txikia).

LABORAL kutxa

67. koadroa. Munduko merkataritza-flota, itsasontzi motaren arabera

(MGT)

Itsasontzi mota	2022	2023	2024	2025
Petrolioa garraiatzekoak	297,7	306,0	311,8	312,9
Gasa garraiatzekoak	92,4	95,2	101,4	109,7
Solteko salgaienak	502,8	514,9	530,0	548,4
Kargaontziak	68,3	71,1	74,0	78,4
Edukiontziak garraiatzekoak	263,5	272,5	293,8	323,3
Beste merkataritzako ontzi batzuk	175,3	178,9	183,5	191,8
Merkataritzako ontziak guztira	1.400,0	1.438,7	1.494,4	1.564,5

Iturria: ANAVE.

Amaitzeko aipatu behar da 2025ean munduko merkantzia-ontzidiaren batez besteko adina igotzen joan zela 21 urte izan arte (2024an, 20,7 urte, batez beste), desegiteko jarduera murritza izan zen testuinguru batean, bilakaera historikoa ikusita. Ontzi motaren arabera, metanoa garraiatzeko ontziak izan ziren mundu mailako ontzidiko gazteenak (10,1 urte batez beste), eta hozkailuek jarraitzen dute, berriz ere, zaharrenak izaten (34,5 urte).

4.2 ONTZIGINTZA ESPAINIAN

2025ean, Estatuko ontzi berrien ekoizpenak -% 18ko atzeraldia izan zuen, aurreko ekitaldian goraldia izan ostean (2024an % 23,2). Hala, 100 mila tona konpentsatukoa izan zen ekoizpena[1]. Dena dela, ekoizpen faseei begira aipatu behar da hasitako tonak % 4,8 hazi zirela; aitzitik, uretaratutako tona kopurua -% 14,5 jaitsi zen, eta entregatutako tonak, -% 46,6.

[1] Atal honetako informazioa tona konpentsatuetan jasotzen da, kontrakoa adierazi ezean.

68. koadroa. Espainiako itsasontzien ekoizpena

(mCGT) [1]

Urtea	Tonaje haztatua[2]	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea	Konpentsazio-koefizientea[3]
2016	103	84	103	124	0,48
2017	130	142	122	133	0,75
2018	201	136	246	178	0,98
2019	160	188	123	207	0,87
2020	101	92	124	64	0,48
2021	117	101	92	182	0,49
2022	111	119	116	94	0,48
2023	99	105	92	106	0,52
2024	122	124	117	131	0,48
2025	100	130	100	70	0,47

(1): CGT: tona gordin konpentsatuak. Erregistroko tonaje gordin konpentsatuaren neurria, tona gordinekin erlazionatuta, itsasontzi mota eta neurri bakoitzerako koefiziente baten bidez. Koefiziente horrek eraikitzeko konplexutasuna hartzen du aintzat, itsasontzia egiteko erabilitako lanorduak oinarri hartuta.

(2): Tonaje haztatua = (Hasitako tonajea + 2 Uretaratutako tonajea + Entregatutako tonajea)/4.

(3): Ratioa (tona gordinak/tona gordin konpentsatuak).

Iturria: Industriako Estatu Idazkaritza. Industria eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Bestalde, Espainiako ontziolen eskaera-zorroa % 24,2 hazi zen, 334 mila tonara arte; bai esportazioak (% 25,2), bai barne-merkatua (% 20,3) areagotu egin ziren, eta guztizkoaren % 79 eta % 21 dagokie, hurrenez hurren.

69. koadroa. Eskarien zorroa urtearen amaieran

Urtea	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira
	mCGT	%	mCGT	%	mCGT
2016	209	45	259	55	468
2017	233	46	273	54	506
2018	126	28	322	72	448
2019	27	7	350	93	377
2020	38	11	318	89	356
2021	39	13	252	87	291
2022	82	27	224	73	306
2023	77	31	173	69	250
2024	59	22	210	78	269
2025	71	21	263	79	334

Iturria: Industriako Estatu Idazkaritza. Industria eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Ontziei dagokienez, 2025aren amaieran Estatuko guztizko eskaera-zorroa osatzen zuten 64 itsasontzietatik 13 merkatu nazionalera bideratutakoak ziren, eta gainerako 51k kanpo-merkatura bideratutako itsasontziak ziren.

LABORAL kutxa

70. koadroa. Eskarien zorroa itsasontzi motaren arabera, urtearen amaieran. 2025

Itsasontzi mota	Barne-merkatua		Esportazioak		Guztira	
	Itsasontzi kopurua	CGT	Itsasontzi kopurua	CGT	Itsasontzi kopurua	CGT
Bi kroskoko petrolio-ontziak	0	0	0	0	0	0
Produktu kimikoak	0	0	1	8.728	1	8.728
Kargaontziak	1	5.644	0	0	1	5.644
Hozkailuak	0	0	0	0	0	0
Ferryak	3	36.784	7	15.464	10	52.248
Bidaiariak	0	0	1	8.252	1	8.252
Arrantza-ontziak	2	10.002	4	31.338	6	41.340
Beste itsasontzi batzuk	7	18.337	38	199.368	45	217.705
Guztira	13	70.767	51	263.150	64	333.917

Iturria: Industriako Estatu Idazkaritza. Industria eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Itsasontzi motaren arabera, honakoek osatzen zuten barne-merkatua: kargaontzi bat, hiru ferry, bi arrantza-ontzi eta beste mota bateko zazpi ontzi. Kanpo-zorroa, berriz, hauek osatzen zuten: produktu kimikoetarako ontzi bat, zazpi ferry, bidaiarientzako ontzi bat, lau arrantza-ontzi eta beste mota bateko hogeita hemezortzi ontzi.

Azkenik, estatuko ontziolei buruz adierazi behar da Navantiak ekitaldi sendoarekin itxi zuela 2025a, karga industrialari, nazioartekotzeari eta aurrerapen teknologikoari dagokienez. Bereziki azpimarratu behar da hau guztia: armadarako lehen F-110 fragataren uretaratzea (programan bost unitate dira guztira); S-80 itsaspekoen programaren aurrerapausoak, S-82 *Narciso Monturiol* ur gainean jarrita (S-80 multzo estrategikoko bigarren unitatea); nazioarteko hedapena Erresuma Batuko Harland & Wolff erosita; kontratu berri bat sinatu izana itsas ekintzako bi itsasontzitarako (BAM) Puerto Realen; Lockheed Martinen SPY-7 radarra konpainiak berak F-110 programaren barruan garatutako SCOMBA sisteman txertatu izana; Europako 2025eko Defentsa Funtseko lau proiektutan hautatua suertatu izana (E DOMINION, MINERVA, SHIELD eta ABYSSA); eta itsasoko eolikoan izandako hazkundea, Navantia Seanergiesen bidez.

4.3 ONTZIGINTZA EUSKAL HERRIAN

Estatuan gertatutako beherakadarekin bat etorrita, Euskal herriko ontzigintzaren ekoizpena -% 41,2 txikiagotu zen 2025ean, 10 tona gordineraino. Hala, jarduerak behera egin zuen hasitako tona kopuruan (-% 45), uretaratutako tona kopuruan (-% 30,8) eta entregatutakoan (-% 58,3).

71. koadroa. Ontzigintza Euskal Herrian

(mGT)

Urtea	Tonaje haztatua	Hasitako tonajea	Uretaratutako tonajea	Entregatutako tonajea
2016	23	13	26	28
2017	25	15	30	26
2018	23	17	20	35
2019	18	16	17	20
2020	15	21	16	5
2021	17	22	13	19
2022	26	24	31	19
2023	18	8	19	24
2024	17	20	13	24
2025	10	11	9	10

Iturria: Industriako Estatu Idazkaritza. Industria eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Halaber, azterketa tonaje konpentsatuaren arabera eginez gero, EAEko itsasontzien ekoizpenak ere behera egin zuen 2025ean, zehazki -% 48,4 egin zuen behera, eta estatuko ekoizpen osoaren gaineko parte-hartze kuota jaitsi egin zen (% 16, eta aurreko ekitaldian % 26), konparazioan atzeraldi handiagoa izan zuelako.

72. koadroa. Ontzigintza Euskal Herrian. Estatuko partaidetza. Tonaje konpentsatua

Kontzeptua	2024		2025	
	mCGT	Espainiako %	mCGT	Espainiako %
Tonaje haztatua	31	26	16	16
Hasitako tonajea	36	29	19	15
Uretaratutako tonajea	24	20	14	14
Entregatutako tonajea	42	32	17	24

Iturria: Industriako Estatu Idazkaritza. Industria eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Tona kopuru konpentsatuari buruz, jarraipena eginda adierazi behar da ekoizpen fase guztietan egin zuela behera jarduerak 2025ean, hasitako, uretaratutako eta entregatutako tona kopuruan (-% 47,2, -% 41,7 eta -% 59,5, hurrenez hurren).

Dinamika hori eta estatuan ikusitakoa loturik, egiaztatu dugu Euskal Herriak guztizko nazionalean daukan partaidetza-kuota jaitsi zela oro har: hasitako tona kopurua 2024ko % 29tik 2025eko % 15era pasatu zen; uretaratutakoa, % 20tik % 14ra; eta entregatutakoa, % 32tik % 24ra.

LABORAL kutxa

14. grafikoa. Ontzigintzako eskaera-zorroaren eta ekoizpen haztatuaren bilakaera (mCGT)



Iturria: Industriako Estatu Idazkaritza. Industria eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Euskal ontziolen eskarien zorroari dagokionez, 2025aren itxieran 65 mila tona konpentsatukoa zen, aurreko urtean baino % 22,6 handiagoa (2023an eta 2024an -% 40,4ko eta -% 10,2ko jaitsierak izan ziren).

73. koadroa. Eskarien zorroa Euskal Herrian

Urtea	mCGT
2016	161
2017	171
2018	73
2019	65
2020	100
2021	108
2022	99
2023	59
2024	53
2025	65

Iturria: Industriako Estatu Idazkaritza. Industria eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Arreta Euskal Herriko ontzigintzako enpresetan jarrita, jada desagertu den Sestaoko La Navali erreparatuko diogu aurrena. Legatu industrial handia utzi zuen, eta barrutiaren dagokion zatia babes bereziko ondasun kultural izendatu zuen Eusko Jaurlaritzak, monumentu multzoen kategorian. Birmoldatzeko hirigintza-desblokeoak bere bidean jarraitu zuen 2025ean. Era horretan, 2025ean, desagertutako ontziola zaharretik etorkizuneko parke industrial edo logistikora egin zuen jauzi, ondare industrialaren zati bat babesturik eta Sestaon jarduera ekonomikoa 2026tik aurrera berreskuratzeko igurikimenarekin.

74. koadroa. Eskarien zorroa, amaitutako ontziak eta hasitako ontziak, enpresen arabera

(CGT unitateak)

Enpresa	Eskarien zorroa		Amaitutako itsasontziak		Hasitako itsasontziak	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Astilleros Murueta	30.948	33.806	11.288	16.576	14.372	19.434
Astilleros Balenciaga	0	0	9.455	0	0	0
Astilleros Zamakona	22.068	30.800	21.436	0	22.068	0
CNN Sestao	0	0	0	0	0	0

Iturria: Industriako Estatu Idazkaritza. Industria eta Turismo Ministerioa. Geuk egina.

Astilleros Muruetaren kasuan, hona hemen 2025eko zer gertaera azpimarratu behar diren: azken belaunaldiko izokin-ontzi baterako kontratua sinatu zuten (arrain bizidunen garraioa eta tratamendua), Norvegiako Frøy taldearentzat; *Kaassassuk* arrasteko lantegi-ontzia Royal Greenlandi entregatu izana; *Bahía Candela* kimika-ontzi hibridoa ur gainean jarri izana Mureloilentzat; eta 6200 segidako seigarren karga-ontzia, *Busturia NM,* uretaratu izana MAASentzat, 2026an bertan, nabarmentzekoa da *Bahía Beatriz* uretaratu izana (*Bahía Candela*ren bikia), kontratu berria Mureloilekin beste kimika-ontzi baterako (*Bahía Lisboa*), eta balio erantsi handiko *itsasontzi berdeetan* posizionatzen jarraitu izana.

Balenciaga ontziolari buruz, enpresa-erreskatea izan da azpimarragarriena, jabe-aldaketarekin eta abian den berraktibazio industrialarekin batera. Hartara, AD Ports Groupen sartu zenez 2026aren hasieran —SAFEEN Drydocks filialaren bidez—, itsasontzi

LABORAL kutxa

espezializatuetara begira birposizionatzeko aukera izaten ari da, batez ere itsasoko *offshore* eolikoari lotuta.

Zamakona ontziolaren harira, hau da aipatzekoa 2025ean: *wellboat* (arrain bizidunak garraiatzea) hibrido baterako kontratua, Norvegiako Trident Agua Serviceserekin; eta salbamenduan eta itsasoko laguntzan espezializatutako bi atoiontzi esleitu izana, Sasemarentzat. 2026an, nabarmendu behar da: *Eidsvaag Aurora* ur gainean ipini izana, Norvegiako Eidsvaag A/Sk kontratatu dituen arrainentzako bi elikadura-itsasontzietako lehena; eta aliantza estrategikoa Semco Maritimerekin, *Las Palmas Shipyard* sustatzeko, zehazki, konponketan, modernizazioan, plataformen *upgrade*etan, *offshore* itsasontzietan eta Atlantikoko itsas proiektu konplexuetan espezializatutako *hub* gisa.

Kapitulu hau amaitzeko aipatzekoa da ezen, batzar nagusiaren esparruan (2026ko ekainean egin zen), Euskal Herriko Itsas Foroak arlo hauetan jarri duela arreta, ikuspegi estrategikotik: deskarbonizazioa, digitalizazioa, propultsio alternatiboa, kudeaketa energetikoa eta itsasoko eolikoa. Izan ere, arlo horiek polo teknologiko garrantzitsua dira Euskal Herrian.

5. AUTOMOBILGINTZA

Automobilgintzaren sektoreak bere krisi partikularrean murgilduta jarraitzen du, eta erronka berriak gehitu zaizkie lehendik ezagunak ziren beste batzuei. Beste industria batzuetan bezala, nazioarteko testuinguru ekonomiko eta geopolitikoak haren jarduera zailtzen badu ere (gatazka belikoak, neurri protekzionistak…), horri hornidura-kateetako ziurgabetasun handia, automobilgintza birdefinitzen ari diren hainbat teknologiaren txertaketa eta, jakina, Europan, sektorea deskarbonizatzeko egutegia ezartzen duen ibilbide-orria gehitu behar zaizkio.

Testuinguru horretan, 2025eko ekitaldiak automobilgintzaren munduko jardueraren susperraldi partziala erakutsi zuen, eremu geografikoaren arabera oso bestelako errealitateak izan baitziren. Hala, nazioarteko ekoizpena 96.383.650 ibilgailura iritsi zen 2025ean, 2024an baino % 3,9 gehiago eta pandemia aurreko balioak baino % 5,0 gehiago; hobekuntza, argi eta garbi, Asian kontzentratu zen. Zehazki, Asia-Ozeania izan zen eskualde-mailan urte arteko hazkundea izan zuen bakarra; Europak eta Amerikak, berriz, beheranzko aldakuntza txikiak izan zituzten, eta pandemiaren aurreko mailen azpitik jarraitu zuten.

Horren guztiaren ondorioz, ekoizpen-mapa nabarmen lerratu zen Asia-Ozeaniarantz; eskualde horretan 10 ibilgailutik 6 ekoitzi ziren (% 61,4), ekoizpena % 7,6 handitu ondoren. Europak, aldiz, ekoizpena 2024ko mailan mantendu zuen ia (–% 0,8; –% 19,1 2019arekin alderatuta), eta munduko ekoizpen-jardueraren % 17,8 hartu zuen. Amerikak, % 19,4ko partaidetzarekin, jarduera murriztu zuen 2025ean (–% 2,1), eta Afrikak ia bere horretan mantendu zuen (–% 0,3), nahiz eta munduko ekoizpen-mapan askoz presentzia txikiagoa izan (% 1,3).

LABORAL kutxa

75. koadroa Ibilgailuen ekoizpena Herrialde nagusiak

(unitateak)

Herrialde nagusiak	2019	2023	2024	2025	% Δ 25/24	% Δ 25/19
Txina	25.750.650	30.160.966	31.281.592	34.530.738	10,4	34,1
AEB	10.892.884	10.639.140	10.522.394	10.243.844	-2,6	-6,0
Japonia	9.684.507	8.998.538	8.234.645	8.410.232	2,1	-13,2
India	4.524.366	5.852.143	6.016.764	6.490.810	7,9	43,5
Alemania (1)	4.663.749	4.109.371	4.069.222	4.148.836	2,0	-11,0
Hego Korea	3.950.614	4.243.597	4.128.242	4.102.200	-0,6	3,8
Mexiko	4.013.137	4.001.964	4.202.724	4.092.448	-2,6	2,0
Brasil	2.944.988	2.324.838	2.553.869	2.644.054	3,5	-10,2
Espainia(3)	2.822.632	2.451.243	2.376.504	2.274.026	-4,3	-19,4
Frantzia(1)	2.172.515	1.505.079	1.357.701	1.463.991	7,8	-32,6
Thailandia	2.013.710	1.834.986	1.468.997	1.455.569	-0,9	-27,7
Txekiar Errep.	1.433.961	1.404.501	1.458.892	1.452.776	-0,4	1,3
Turkia	1.461.244	1.468.393	1.365.296	1.419.464	4,0	-2,9
Kanada	1.916.585	1.553.758	1.339.288	1.237.075	-7,6	-35,5
Indonesia	1.286.848	1.395.717	1.196.664	1.147.600	-4,1	-10,8
Eslovakia	1.107.902	1.080.000	993.000	1.070.000	7,8	-3,4
Errusia	1.720.487	729.680	979.283	853.897	-12,8	-50,0
Erresuma Batua	1.381.405	1.025.990	905.233	764.715	-15,5	-44,6
Asia-Ozeania	49.333.841	55.019.721	55.002.706	59.210.250	7,6	20,0
Amerika	20.160.401	19.165.115	19.148.624	18.742.843	-2,1	-7,0
Europa	21.234.501	18.097.223	17.338.834	17.201.525	-0,8	-19,1
Afrika (2)	1.095.151	1.170.447	1.233.116	1.229.032	-0,3	10,0
Mundua, guztira	91.823.894	93.452.506	92.723.280	96.383.650	3,9	5,0

(1): Turismoak eta ibilgailu komertzial arinak bakarrik.
(2): Afrika, Egipto aintzat hartu gabe.
(3): ANFACen datua.
Iturria: OICA

Herrialdekako jarduera xeheago aztertuta, eta Asia-Ozeaniatik hasita, Txinak nabarmen indartu zuen ekoizpen-mapan zuen lidergoa: 34.530.738 unitatera iritsi zen, munduko ekoizpenaren % 35,8ra, urte artean % 10,4 hazi ondoren (+% 34,1 2019arekin alderatuta). Japonia, berriz, munduko hirugarren ekoizle gisa kokatu zen (8.410.232 unitate), eta 2025a balio positiboekin itxi zuen (+% 2,1), baina ez zen COVID-19aren aurreko balioetara iritsi (–% 13,2). Indiaren portaera ere nabarmendu behar da (6.490.810 unitate): ekoizle handien artean bigarren hazkunderik handiena izan zuen (+% 7,9), eta 2019ko datuekin alderatuta hobekuntza nabarmena erakutsi zuen (+% 43,5). Kontinente horretan, kontrapuntua Hego Koreak jarri zuen, 2024ko ekoizpen-jarduera ia errepikatu baitzuen (–% 0,6).

Europako eremua aztertuta, ekoizpenak behera egin zuela ikusten da, Espainia edo Erresuma Batua bezalako ekoizle handiek dinamismoa galdu zutelako. Zehazki, Espainiak 2.274.026 ibilgailu ekoitzi zituen, eta ekoizpen-maila % 4,3 murriztu zen; Erresuma Batuak, berriz, 764.715 unitaterekin, bi digituko beherakada izan zuen (–% 15,5), eta ekoizpen-bolumena 2019koaren ia erdira jaitsi zen. Alemaniak, berriz, munduko bosgarren ekoizleak (guztizkoaren % 4,3) eta Europako lehenak, ekitaldia hazkundearekin ixtea lortu zuen

(+% 2,0), Frantziak (+% 7,8), Turkiak (+% 4,0) eta Eslovakiak (+% 7,8) bezala; azken horiek, hala ere, askoz pisu erlatibo txikiagoa zuten, % 1-% 1,5 ingurukoa.

Amerikari dagokionez, AEBk munduko bigarren ibilgailu-ekoizlea izaten jarraitu zuten, 10,2 milioi unitateko ekoizpenarekin, baina bere jarduerak uzkurdura-zantzuak erakutsi zituen. Hala, 2025ean ekoizpen-mailak behera egin zuen berriro (–% 2,6), eta horrek 2019ko erreferentziatik gero eta gehiago urrundu zuen; urte hartan, fabrikazio-jarduera 11 milioi unitatetik gertu zegoen. Mexikok eta Brasilek eskualdearen pisua indartu zuten ekoizpen-mapan, 4,1 eta 2,6 milioi ibilgailurekin, hurrenez hurren, nahiz eta kontrako bilakaera izan zuten. Hala, Mexikoko ekoizpena jaitsi egin zen 2025ean (–% 2,6), baina pandemiaren aurreko balioen gainetik kokatu zen (+% 2,0); Brasilek, berriz, bilakaera hobea izan zuen (+% 3,5), baina ez zen nahikoa izan 2019ko bere datuetara iristeko (–% 10,2). Kanadan, ekoizpen-erritmoa moteldu zen (–% 7,6), eta 1,2 milioi unitateko ekoizpena izan zuen; 2019an, berriz, 2 milioitik gertu zegoen.

Azken batean, ekoizpena argi eta garbi Asiarantz lekualdatzen ari dela ikusten da, askotariko errealitateak batera gertatzen diren testuinguru batean: herrialde batzuek zailtasun handiagoak dituzte beren ekoizpen-kateak lehia- eta araudi-testuinguru berrira egokitzeko; beste batzuek, berriz, etengabeko hazkunde-bidean jarraitzen dute. Horrek guztiak automobilgintzako eragileen mundu-mailako birkokapena dakar.

Matrikulazioen bilakaera aztertuta, datuen lehen hurbilketak ekoizpenaren esparruan adierazitakoa baino portaera hobea erakusten du, nahiz eta eremu geografikoaren arabera portaera heterogeneoak izan.

Hala, 2025ean 99.798.406 ibilgailu matrikulatu ziren, 2024an baino % 4,7 gehiago eta 2019ko datua baino % 8,4 gehiago. Hazkunde horretan Asia-Ozeaniak izan zuen ekarpen nagusia: 10 matrikulaziotik 6 eskualde horri zegozkion (% 64,7), eta urte artean % 7ko hazkundea izan zuen. Amerikak, % 29,2ko partaidetzarekin, salmentetan ere hazkundea izan zuen, baina askoz apalagoa (+% 2,9), eta ez zen nahikoa izan 2019ko merkatu-bolumenera iristeko (–% 2,1). Europak, berriz, matrikulazioetan beheranzko aldakuntza oso txikiarekin itxi zuen 2025a (–% 0,4); Afrikan, aldiz, matrikulazioek gorakada nabarmena izan zuten (+% 22), nahiz eta Europaren ekarpena askoz handiagoa izan (% 21,9 eta % 1,5, hurrenez hurren).

LABORAL kutxa

76. koadroa. Ibilgailuen matrikulazioa. Herrialde nagusiak

(unitateak)

Herrialde nagusiak	2019	2023	2024	2025	% Δ 25/24	% Δ 25/19
Txina	25.796.931	30.093.698	31.436.193	34.399.621	9,4	33,3
AEB	17.488.154	16.009.268	16.340.472	16.675.488	2,1	-4,6
India	3.816.858	5.080.361	5.226.784	5.517.594	5,6	44,6
Japonia	5.195.216	4.779.086	4.421.494	4.565.777	3,3	-12,1
Alemania	4.017.059	3.204.298	3.192.031	3.207.713	0,5	-20,1
Brasil	2.787.850	2.308.689	2.634.904	2.689.634	2,1	-3,5
Erresuma Batua	2.736.559	2.307.438	2.368.574	2.400.106	1,3	-12,3
Frantzia	2.755.728	2.208.501	2.155.052	2.042.788	-5,2	-25,9
Kanada	1.976.440	1.762.238	1.906.866	1.934.022	1,4	-2,1
Italia	2.132.630	1.797.977	1.793.038	1.746.314	-2,6	-18,1
Hego Korea	1.795.134	1.749.729	1.632.751	1.681.611	3,0	-6,3
Mexiko	1.360.008	1.416.429	1.555.115	1.564.471	0,6	15,0
Errusia	1.778.841	1.317.438	1.833.852	1.485.671	-19,0	-16,5
Turkia	491.947	1.284.046	1.285.789	1.413.901	10,0	187,4
Espainia	1.501.244	1.127.873	1.219.241	1.369.095	12,3	-8,8
Australia	1.062.867	1.218.450	1.222.785	1.209.805	-1,1	13,8
Europa	20.930.134	17.942.469	18.700.694	18.630.198	-0,4	-11,0
Amerika	25.389.730	23.215.717	24.154.016	24.864.617	2,9	-2,1
Asia-Ozeania	44.545.103	50.641.764	51.406.410	55.018.183	7,0	23,5
Afrika	1.200.291	1.050.105	1.053.611	1.285.408	22,0	7,1
Mundua, guztira	92.065.258	92.850.055	95.314.731	99.798.406	4,7	8,4

(*): ANFACen datua.
Iturria: OICA.

Herrialdeka, Txina, 34,4 milioi matrikulazio ingururekin eta urte arteko % 9,4ko hazkundearekin, sailkapenaren buruan kokatu zen berriro, bigarren merkatu handitik, AEBtik, alde handira; AEBk 16,7 milioi matrikulazio izan zituen, % 2,1eko gorakadarekin. India eta Japonia ere postu nabarmenetan kokatu ziren, 5,5 eta 4,6 milioi unitaterekin, hurrenez hurren; biek goranzko joera izan zuten (+% 5,6 eta +% 3,3, hurrenez hurren), baina Indiak soilik hobetu zituen 2019ko datuak.

Alemania, berriz, bosgarren postuan kokatu zen, 2025ean 3,2 milioi ibilgailu salduta, urte artean % 0,5eko hazkunde txikia izan ondoren. Ondoren Brasil kokatu zen, 2,7 milioi matrikulaziorekin (+% 2,1); Erresuma Batua, 2,4 milioirekin (+% 1,3); eta Frantzia, 2 milioi unitateak zertxobait gainditua, 2024ko datuekin alderatuta % 5,2ko beherakada izan ondoren. 2 milioi matrikulaziotik behera baina milioitik gora, herrialde ugari kokatu ziren; horien artean Espainia, 2025ean 1.369.095 ibilgailu salduta, 2024an baino % 12,3 gehiago.

5.1 SEKTOREA ESPAINIAN

2025eko ekitaldiak argi-ilunez betetako balantzea utzi zuen Estatuko automobilgintzaren sektorean: ekoizpen-jarduera murriztu zen, eta barne-eskaria, berriz, hazi egin zen. Hala, ibilgailuen ekoizpena uzkurtu egin zen, nagusiki bi arrazoirengatik: batetik, lantegiak modelo elektrifikatu berrien fabrikaziora egokitu behar izan zirelako; bestetik, Estatuko produktuen helmuga diren Europako merkatu nagusiek dinamismo txikia izan zutelako. Horren guztiaren ondorioz, sektorearen ekoizpen-maila 2,2 milioi unitate ingurukoa izan zen, COVID-19aren aurreko balioetatik urrun (2,8 milioi); salmentek, berriz, milioi bat unitateko muga nabarmen gainditu bazuten ere, 2019koak baino askoz txikiagoak izaten jarraitu zuten (1,5 milioi).

Ekoizpenaren portaeratik hasita, 2025ean 2.274.026 ibilgailu fabrikatu ziren Espainian kokatutako lantegietan; horrek urte arteko % 4,3ko beherakada ekarri zuen, eta ekoizpena beherantz doitu zen bigarren urtez jarraian. Joera bera izan zen esportazioetan: 1.950.103 unitate esportatu ziren, eta uzkurdura are handiagoa izan zen (–% 8,2). Emaitza horien jatorrian turismoen eta lur orotako ibilgailuen portaera dago; horiek ekoizpen- eta esportazio-jardueraren zatirik handiena hartzen dute (bi kasuetan % 80 inguru), eta ekoizpenean % 5,7ko eta esportazioetan % 9,9ko beherakadak izan zituzten. Aitzitik, ibilgailu komertzialek hazkundeak izan zituzten bi adierazleetan (+% 3,3 ekoizpenean eta +% 1,2 esportazioetan), baina ez ziren nahikoa izan turismoen doikuntza eta ibilgailu industrialek izandako beherakada handia konpentsatzeko (–% 15,9 ekoizpenean eta –% 21,6 esportazioetan).

77. koadroa. Espainiako automobil-industriaren ekoizpena, matrikulazioa eta kanpoko merkataritza

(unitateak)

Azpisektorea	Produkzioa			Esportazioak			Matrikulazioak*		
	2024	2025	%Δ	2024	2025	%Δ	2024	2025	%Δ
Turismoak eta lur orotakoak	1.918.831	1.810.331	-5,7	1.708.283	1.539.357	-9,9	1.016.963	1.148.650	12,9
Merkataritza-ibilgailuak	408.264	421.658	3,3	373.758	378.182	1,2	165.801	185.056	11,6
Industria-ibilgailuak	49.996	42.037	-15,9	41.543	32.564	-21,6	36.512	35.389	-3,1
Guztira	2.377.091	2.274.026	-4,3	2.123.584	1.950.103	-8,2	1.219.276	1.369.095	12,3

(*): Ibilgailu industrialen matrikulazioen zifrak lur autobusen matrikulazioak ere aintzat hartzen ditu.
Iturria: Anfac.

Matrikulazioen bilakaerak, aldiz, nolabaiteko arnasa eman zion sektoreari. 2025ean, ibilgailuen salmentak % 12,3 handitu ziren, 1.369.095 unitatera iritsi arte, segmentu nagusiaren —turismoen eta lur orotako ibilgailuen— matrikulazioek izandako portaera onari esker; segmentu hori % 12,9 hazi zen eta milioi bat unitateko muga aise gainditu zuen. Ibilgailu komertzialek antzeko bilakaera izan zuten (+% 11,6), eta

185.056 matrikulazio erregistratu zituzten; ibilgailu industrialek, berriz, % 3,1 egin zuten behera, nahiz eta guztizkoan askoz ekarpen txikiagoa izan, segmentu horretan saldutako unitateak 35.000 inguru izan baitziren.

Puntu honetan, matrikulazioen gorakadan ibilgailu elektrifikatuek izan zuten protagonismoa nabarmendu behar da; lehen aldiz, 200.000 unitateko muga gainditu zuten. Gainera, 2025ean bi programa egon ziren indarrean: Estatu-mailako Moves III Plana eta DANA denboraleak kaltetutako ibilgailuentzako ezohiko laguntzak. Horiek ibilgailu-parkea berritzen lagundu zuten eta motor alternatiboen salmenten hazkundea bultzatu zuten.

Era berean, industria-jarduerara itzulita, energia-iturrien araberako banaketak agerian uzten du Estatuko lantegiak pixkanaka eraldatzen ari direla, ekoizpen-kateetan modelo elektrifikatuen fabrikazioa txertatuz.

78. koadroa. Turismoen eta ibilgailuen ekoizpena, energia-iturriaren arabera, 2025*

(unitateak)

Energia-iturriak	Turismoak			Ibilgailuak guztira		
	2025	Kuota (%)	%Δ	2025	Kuota (%)	%Δ
Gasolina	874.895	48,3	-22,3	890.495	39,2	-22,3
Diesela	70.540	3,9	-38,0	492.241	21,6	-6,1
HEV (hibrido ez-entxufagarria)	626.441	34,6	34,3	626.441	27,5	34,3
PGL eta gasa	39.456	2,2	7,0	39.643	1,7	4,3
Elektrikoak	*198.999*	*11,0*	*13,0*	*225.206*	9,9	*11,2*
Hibrido entxufagarria-PHEV	*117.474*	*6,5*	*33,8*	*117.474*	5,2	*33,8*
Bateria elektrikoa-BEV	*81.525*	*4,5*	*-7,8*	*107.732*	4,7	*-6,1*
Alternatiboak, guztira	*864.896*	*47,8*	*27,3*	*891.290*	*39,2*	*26,1*
Guztira	1.810.331	100,0	-5,7	2.274.026	100,0	-4,3

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: Anfac.

Hala, gasolina-motorrak buruan mantendu baziren ere, 890.495 ibilgailurekin eta % 39,2ko kuotarekin, haien ekoizpena % 22,3 murriztu zen 2025ean. Diesel ibilgailuek ere behera egin zuten (–% 6,1), baina Estatuko ekoizpen-mapan pisu erlatibo esanguratsua izaten jarraitu zuten (% 21,6). Aitzitik, hibrido ez entxufagarriak 626.441 unitatera iritsi ziren, hazkunde nabarmena izan ondoren (+% 34,3), eta Estatuko lantegietan presentzia handiagoa lortu zuten (ekoizpen osoaren % 27,5). Ibilgailu elektrifikatuei dagokienez, 225.206 unitate muntatu ziren Espainian 2025ean; ekoizpen osoaren % 9,9 izan ziren, 2024an baino % 11,2 gehiago. Segmentu elektrifikatuaren barruan, hibrido entxufagarrien dinamismoa nabarmendu behar da (+% 33,8); bateria elektrikoko ibilgailuen ekoizpena, aldiz, uzkurtu egin zen (–% 6,1). Hala, ibilgailu alternatiboek —elektrifikatuak, hibrido konbentzionalak, gas naturala eta PGL barne— hazkunde nabarmena izan zuten (+% 26,1), eta haien kuota % 39,2ra igo zen.

Turismoen kategorian oinarritutako azterketa berak ñabardura garrantzitsu bat ematen du: motor alternatiboen aurrerapena handiagoa izan zen, eta ekoizpenaren % 47,8 hartu zuten; ibilgailu guztien kasuan, berriz, % 39,2.

79. koadroa. Turismoen eta ibilgailuen matrikulazioa, energia-iturriaren arabera, 2025*

(unitateak)

Energia-iturriak	Turismoak			Ibilgailuak guztira		
	2025	Kuota (%)	%Δ	2025	Kuota (%)	%Δ
Gasolina	318.210	27,7	-16,0	324.596	23,7	-16,0
Diesela	62.669	5,5	-35,0	256.906	18,7	-8,6
Hibrido ez-entxufagarria-HEV	482.880	42,0	23,1	484.416	35,3	22,7
Elektrikoak	*225.617*	*19,6*	*94,6*	*245.630*	*17,9*	96,1
Hibrido entxufagarria-PHEV	*123.989*	*10,8*	*111,7*	*130.567*	*9,5*	*118,7*
Bateria elektrikoa-BEV	*101.627*	*8,8*	*77,1*	*115.062*	*8,4*	*75,7*
Erregai-pila darabilen elektrikoa, FCEV	*1*	*0,0*	*-85,7*	*1*	*0,0*	*-98,4*
Gasa	*59.225*	*5,2*	*76,7*	*59.783*	*4,4*	*76,4*
GNC/GNL	*49*	*0,0*	*-2,0*	*797*	*0,1*	*-35,6*
Alternatiboak, guztira	*767.771*	*66,8*	*41,7*	*790.626*	*57,6*	*42,4*
Guztira	1.148.650	100,0	12,9	1.372.128	100,0	12,2

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: Anfac.

Bestalde, eta aurretik adierazi bezala, matrikulazio-datuek berresten dute 2025ean eskaria nagusiki motorizazio alternatiboen aldekoa izan zela (elektrifikatuak, hibridoak eta gasa).

Ibilgailu guztien artean, motor alternatiboek merkatuaren % 57,6 hartu zuten eta % 42,4 hazi ziren; gasolina- eta diesel-motorren salmentek, berriz, behera egin zuten (–% 16 eta –% 8,6, hurrenez hurren), eta kuota galdu zuten (% 23,7 eta % 18,7, hurrenez hurren). Hala ere, elektrifikatuen pisua % 17,9koa izan zen; horrek eskariaren aurrerapen nabarmena berresten du, nahiz eta oraindik gehiago bideratu tipologia hibridoetara % 100 elektrikoak diren modeloetara baino.

Turismoetan oinarrituta, hibrido ez-entxufagarriak (HEV) salmenten buruan kokatu ziren, 482.880 unitaterekin eta % 42,0ko kuotarekin, gehien saldutako bigarren motorizazioaren —gasolinazko modeloen— oso gainetik (% 27,7). Turismo elektrifikatuek, berriz, matrikulazioen % 19,6 hartu zuten, % 94,6 hazi ondoren; emaitza horretan hibrido entxufagarriek (+% 111,7) zein bateria elektrikoko modeloek (+% 77,1) lagundu zuten.

Bi azterketen arteko datu bereizgarri gisa, diesel modeloek nolabaiteko kuotari eutsi zioten salmenta guztietan (ibilgailuen % 18,7); turismoen kasuan, berriz, proportzio hori nabarmen murriztu zen (% 5,5).

LABORAL kutxa

80. koadroa. Turismoen matrikulazioa marken arabera

(unitateak)

Marka nagusiak	2023	2024	2025	%Δ 25/24	%Δ 25/19
Toyota	79.883	95.614	96.290	0,7	34,3
Renault	56.176	64.237	83.308	29,7	-3,6
Volkswagen	63.871	66.904	76.545	14,4	-18,9
Seat	58.586	65.300	66.142	1,3	-40,9
Audi	40.663	38.770	41.260	6,4	-19,3
Škoda	31.778	38.255	42.387	10,8	44,2
Cupra	18.947	22.431	26.589	18,5	--
Volkswagen taldea	*213.845*	*231.660*	*252.923*	*9,2*	*-11,8*
KIA	66.245	59.915	61.708	3,0	3,7
Hyundai	58.874	64.855	68.568	5,7	9,2
Peugeot	58.488	51.767	57.142	10,4	-41,7
Citroën	42.213	38.475	34.286	-10,9	-48,9
Opel	27.522	25.719	26.549	3,2	-61,6
Fiat	22.332	14.082	9.768	-30,6	-79,3
Jeep	11.078	10.286	10.355	0,7	-44,2
Stellantis Taldea:	*161.633*	*140.329*	*138.100*	*-1,6*	*-53,9*
Dacia	48.844	54.777	65.788	20,1	18,1
Mercedes	42.972	47.120	50.721	7,6	-5,6
BMW	34.970	45.249	45.867	1,4	-2,2
MG	29.048	30.770	45.163	46,8	--
Nissan	24.926	31.519	34.711	10,1	-32,7
Ford	30.683	25.596	29.065	13,6	-49,2
Volvo	14.516	18.178	15.173	-16,5	-8,6
Mazda	16.217	17.526	19.003	8,4	-17,9
Tesla	13.242	16.680	16.005	-4,0	680,7
Marka nagusiak, guztira	892.074	944.025	1.022.393	8,3	-12,9
Gainerako markak	57.288	72.938	126.257	73,1	49,7
Matrikulazioak, guztira	949.359	1.016.963	1.148.650	12,9	-8,7

(*) Taldeko marka nagusiak soilik daude sartuta.
Iturria: Anfac.

Marka bakoitzak Estatuko turismoen merkatuan zuen presentziari erreparatuta, bigarren urtez jarraian, Toyota sailkapenaren buruan mantendu zen, 96.290 unitate salduta, 2024ko datuekin alderatuta aldakuntza ia hutsala izan arren (+% 0,7). Renault, berriz, bigarren postuan, urte arteko gorakada nabarmenagatik nabarmendu zen (+% 29,7), 83.308 unitatera iritsiz; horri esker, hiru postu egin zituen gora 2024arekin alderatuta. Hirugarren tokian Volkswagen kokatu zen, 76.545 matrikulaziorekin (+% 14,4); ondoren Hyundai, laugarren tokian, 68.568rekin (+% 5,7), eta Seat, bosgarren postuan, 66.142 unitate salduz (+% 1,3).

Lehen 10 marken sailkapena Daciak —% 20,1eko gorakada handiarekin eta 65.788 turismo salduta—, Kiak —% 3ko hazkunde txikiarekin eta 61.708 matrikulaziorekin— eta Peugeotek —bi digituko hazkundearekin (+% 10,4) eta 57.142 unitateren salmentekin— osatzen dute. Ondoren Mercedes kokatu zen; haren salmentek gora egin zuten (+% 7,6 eta 50.721 unitate), BMWren salmentek bezala, nahiz eta azken horren hazkundea

apalagoa izan (+% 1,4) eta bolumena zertxobait txikiagoa (45.867 matrikulazio). Horien atzetik, dinamismo handiagatik nabarmenduta, MG kokatu zen (+% 46,8); 45.163 matrikulaziorekin, hamaikagarren postua lortu zuen, ekitaldi bakarrean 8 postu igo ondoren (19. postua 2024an).

Automobilgintza-talde handien arabera, 2025ean Volkswagenek bere posizioa indartu zuen, 252.923 matrikulazio pilatuta (+% 9,2), eta haren marka nagusiek neurri handiagoan edo txikiagoan lagundu zuten emaitza horretan; Stellantisek, berriz, salmentak zertxobait murriztu zituen (–% 1,6), Citroënen eta Fiaten beherakadek baldintzatuta.

Hala ere, Txinako lehiakide berrien sarrerak Estatuko merkatua birkonfiguratu zuen; izan ere, 2025ean Txinako hogei marka[1] inguru zeuden merkatuan, eta haien matrikulazio bateratuak bikoiztu egin ziren 2024arekin alderatuta, merkatuaren % 10 inguru eskuratuz.

81. koadroa. Ibilgailuen esportazio nazionalen jomugako herrialde nagusiak

(unitateak)

Herrialdea	2023	2024	2025	%Δ 25/24	%Δ 25/19
Alemania	369.981	363.410	340.179	-6,4	-31,5
Frantzia	361.172	391.737	337.166	-13,9	-23,9
Erresuma Batua	281.450	268.116	240.826	-10,2	-28,6
Turkia	206.760	202.702	233.284	15,1	540,9
Italia	253.784	261.775	199.525	-23,8	-21,5
Polonia	52.100	58.338	59.585	2,1	3,1
Belgika	67.164	55.574	51.615	-7,1	-42,2
Portugal	47.709	48.449	46.037	-5	-6,3
Herbehereak	48.251	48.049	36.982	-23	-32,7
Mexiko	34.967	37.230	32.563	-12,5	13,5
10 herrialde nagusiak, guztira	1.723.338	1.735.380	1.577.762	-9,1	-14,6
Gainerakoak	488.129	388.204	372.341	-4,1	-19,6
Esportazioak, guztira	2.211.467	2.123.584	1.950.103	-8,2	-15,6

Iturria: Anfac.

Esportazio-jarduerari dagokionez, automobilgintzaren sektoreak esportaziorako joera handia du: ekoizpenaren % 85,8 gure mugetatik kanpo saldu zen, nagusiki Europara (% 92,6). Horri gehitu behar zaio kanpo-salmentek sakabanaketa geografiko handia duten arren herrialde gutxitan ere kontzentrazio handia dagoela.

2025ean, Alemania sailkapenaren buruan kokatu zen berriro, % 17,4ko partaidetzarekin; oso hurbil Frantzia izan zuen, % 17,3ko pisu erlatiboarekin. Biek behera egin zuten 2024arekin alderatuta (–% 6,4 eta –% 13,9). Erresuma Batuak, hirugarren tokian eta

[1] Azterketarako hainbat irizpide daude: azterlan batzuetan % 100 Txinako kapitaleko markak soilik hartzen dira kontuan; beste batzuetan, berriz, joint venture-ak edo Txinako taldeek kontrolatutako markak ere sartzen dira (hala nola Ebro, Lotus edo Polestar).

LABORAL kutxa

% 12,3ko partaidetzarekin, beherakada izan zuen halaber (–% 10,2); joera horrekin bat egin zuen Italiak ere, bosgarren postuan (guztizkoaren % 10,2), taldeko bilakaerarik txarrenarekin (–% 23,8). Testuinguru horretan, kontrapuntua Turkiak jarri zuen: Estatuko industriarekin zituen merkataritza-harremanak areagotu zituen (+% 15,1), eta laugarren postuan finkatu zen, % 12ko partaidetzarekin. Beraz, 5 herrialdek eskariaren zatirik handiena hartu zuten, kanpo-jardueraren % 70 inguru bereganatuta.

82. koadroa. Automobilgintza-sektoreko esportazioak eta inportaziok (ibilgailuak gehi osagarriak)

(M euro)

Kontzeptua	Esportazioak			Inportazioak			Saldoa: Esportazioak - Inportazioak		
	2024	2025	%Δ	2024	2025	%Δ	2024	2025	%Δ
Turismoak eta lur orotakoak	36.704	34.211	-6,8	21.900	24.706	12,8	14.804	9.505	-35,8
Merkataritza-ibilgailuak, industria-ibilgailuak eta autobusak	5.684	4.851	-14,7	4.497	4.166	-7,4	1.187	685	-42,3
Zatiak, piezak eta osagarriak	10.166	9.580	-5,8	12.077	10.986	-9,0	-1.911	-1.406	26,4
Motorrak eta abiadura-kaxak	2.564	1.945	-24,1	6.296	5.907	-6,2	-3.732	-3.962	-6,2
Guztira	55.118	50.587	-8,2	44.770	45.765	2,2	10.348	4.822	-53,4

Iturria: Anfac.

Merkataritza-balantzari dagokionez, 2025ean kanpo-jarduerak narriadura txikia izan zuen: esportazioek balioa galdu zuten (50.587 milioi euro, 2024an baino % 8,2 gutxiago), eta inportazioen balioa, berriz, handitu egin zen (45.765 milioi euro, % 2,2 gehiago). Horren guztiaren ondorioz, merkataritza-saldoak positiboa izaten jarraitu bazuen ere (4.822 milioi euro), nabarmen egin zuen behera 2024arekin alderatuta (–% 53,4).

Segmentukako xehetasunetara jaitsita, segmentu nagusiaren —turismoen eta lur orotako ibilgailuen— bilakaera izan zen emaitza horren eragile nagusia. Saldoa positiboa izan bazen ere (9.505 milioi euro), 2024ko balioetatik oso behera kokatu zen (–% 35,8), esportatutako balioa murriztu egin baitzen (–% 6,8), eta inportatutako balioa, aldiz, handitu (+% 12,8). Gainerako segmentuek, aldiz, joera bera izan zuten, bi adierazleetan intentsitate handiagoko edo txikiagoko beherakadekin. Emaitza positiboa izan zen ibilgailu komertzial, industrial eta autobusen kasuan (685 milioi euro, 2024an baino –% 42,3), eta negatiboa, berriz, pieza, osagai eta osagarrien kasuan (2024arekin alderatuta –1.406 milioi euro, +% 26,4), baita motorren eta abiadura-kaxen kasuan ere (2024arekin alderatuta –3.962 milioi euro, –% 6,2).

Jarraian, Sernautok emandako datuak aurkezten dira. Sernauto automobilgintzarako ekipoen eta osagaien fabrikatzaileak biltzen dituen Estatuko elkartea da, eta industria

hornitzailearen jardueraren bilakaera jasotzen du; industria hori funtsezko sektorea da automobilgintzaren lehiakortasunean.

Industria hornitzaileak, testuinguru konplexuan jardun arren, mugikortasun jasangarriago, digitalago eta konektatuagorako trantsizioan murgilduta jarraitzen du. Balio-katean duen funtsezko eginkizunaz jabetuta —ibilgailuaren balioaren % 75 inguru ematen du—, sektorearen ezaugarriak dira berrikuntzaren aldeko apustu sendoa, egokitzeko gaitasun handia eta, batez ere, kualifikazio handiko profesionalak izatea; horiek enpresa-ehun sendo eta erresilientea osatzen dute.

Hainbat faktorek, kanpokoek zein barnekoek, eskariaren moteltzea eragin zuten, eta, ondorioz, industria hornitzaileak 2024koa baino ekitaldi-amaiera okerragoa izan zuen.

83. koadroa. Automobilgintzako ekipoen eta osagaien Espainiako industriaren zifra nagusiak

(M euro)

Kontzeptua	2023	2024	2025	%Δ 25/24
Fakturazioa	41.529	41.238	40.949	-0,7
Merkatu nazionaleko salmentak	16.389	16.174	16.261	0,5
- Ekipo originala	10.094	9.419	9.236	-1,9
- Ordezkoak	6.295	6.755	7.025	4,0
Esportazioak	25.140	25.065	24.688	-1,5
I+G+b inbertsioa	1.271	1.245	1.220	-2,0
Zuzeneko enplegua (langile kopurua)	204.650	203.250	203.658	0,2

Iturria: Sernauto.

Zehazki, 2025ean fakturazioa 40.949 milioi eurokoa izan zen, 2024an baino % 0,7 txikiagoa, eta bi joera desberdin izan ziren merkatuen arabera.

Batetik, Estatuko salmenten balioa zertxobait handitu zen (+% 0,5), 16.261 milioi eurora arte, ordezko piezen merkatuaren portaera onari esker (+% 4,0); gainera, merkatu horrek inoizko zifrarik handiena lortu zuen (7.025 milioi euro), eta jatorrizko ekipamenduaren beherakada konpentsatzea lortu zuen (9.236 milioi euro eta –% 1,9).

Bestetik, esportazioek, fakturazioaren % 60 inguru izaten jarraitzen dutenek, % 1,5 egin zuten behera, 24.688 milioi eurora arte. Testuinguru horretan, Europar Batasunak sektoreko esportazioen helmuga nagusia izaten jarraitu zuen (% 67,9), eta ekitaldia gorakada txiki batekin ixtea ere lortu zuen (+% 0,8 2024arekin alderatuta). Europako esparruaren barruan, Alemania nabarmendu zen merkatu nagusi gisa (% 24,1eko kuota eta urte arteko +% 2,4); ondoren Frantzia (% 22,3ko partaidetza eta –% 2,7), Portugal (% 14,4 eta +% 3,7), Italia (% 6,8 eta –% 10,0) eta Polonia (% 5,7 eta –% 9,5) kokatu ziren. Bilakaerari dagokionez, Ekialdeko hainbat herrialderen dinamismoa nabarmendu zen, hala nola Txekiar Errepublikarena (+% 12,0), Eslovakiarena (+% 14,9) eta Errumaniarena (+% 21,0).

LABORAL kutxa

EBtik kanpo, Erresuma Batuak Europar Batasunetik kanpoko helmuga nagusia izaten jarraitu zuen (% 5,7ko partaidetza), eta portaera ona izan zuen 2025ean (+% 4,7), bigarren eta hirugarren merkatuek —Marokok (% 4,2) eta AEBk (% 3,3)— izandako portaeratik urrun; azken horiek nabarmen murriztu zituzten Estatuko produktuen erosketak (bi kasuetan % 19 inguruko beherakadak). Laugarren tokian, Turkiak urte arteko aldakuntzarik onena izan zuen (+% 10,7), eta % 3,2ko kuota lortu zuen; Mexikok, berriz, Europar Batasunetik kanpoko bost helmuga nagusien multzoa osatu zuen, % 2,2ko partaidetzarekin eta urte arteko % 11,2ko beherakadarekin.

Inbertsioari dagokionez, ekoizpen-ahalmenetarako inbertsioak uzkurdura txikia izan zuen (1.450 milioi euro, −% 1,1), Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzarako (I+G+b) zuzkiduran gertatutakoarekin bat etorriz; azken hori 1.220 milioi eurora iritsi zen, % 2ko beherakada izan ondoren. Hala ere, nabarmendu behar da kopuru hori sektorearen fakturazioaren % 3 dela eta industria-sektorearen batez besteko erreferentzia bikoizten duela; horrek sektoreak berrikuntzarekin duen konpromiso irmoa berresten du.

Enpleguari dagokionez, 203.658 pertsonak egiten zuten lan zuzenean automobilgintzako industria hornitzailean, 2024an baino % 0,2 gutxiagok; horrek agerian uzten du sektorearen erresilientzia eta giza kapitala lehiakortasunerako funtsezko elementu gisa mantentzearen aldeko apustua.

5.2 AUTOMOBILGINTZAKO HORNIDURA-INDUSTRIA EAEN

EAEn, automobilgintzako sektore hornitzailea 300 enpresak osatzen dute, eta 140.000 pertsonari baino gehiagori ematen diete lana mundu osoan; horietatik 38.200 Euskal Herrian daude. Gainera, Euskal Herrian Estatuko automobilgintzako osagaien sektorearen erdia dago. Sektore horren ezaugarriak dira etengabeko berrikuntza, efizientzia eta eraginkortasuna eta mundu-mailako presentzia; izan ere, atzerriko kapitala duten 48 multinazionalek urteak daramatzate lurraldean inbertitzen.

Horrez gain, enpresa-sare zabal horri Mercedes-Benzek Vitoria-Gasteizen duen lantegiaren pisu espezifikoa gehitu behar zaio; 70 urtetik gorako ibilbidea du, eta 5.000 pertsona inguruko plantilla. Vitoria-Gasteizko lantegiarentzat, 2025a trantsizio-urtea izan zen, fabrika eraldatzeko prozesuan aurrera egin baitzen, % 100 elektrikoa den Mercedes-Benz VLE berriaren serieko ekoizpena txertatzeko. Beraz, 2025aren amaieran, ekoizpena 120.000 furgonetatik behera geratu zen, azken bost urteetako bolumenik txikiena; hala ere, 2026an hobetzea espero da, modelo desberdinen —% 100 elektrikoa den VLE, V Klasea, Vito eta eVito— ekoizpena muntaketa-kate berean eta erabateko malgutasunez konbinatuko baita.

Horrenbestez, euskal automobilgintzako sektore hornitzaileak (Mercedes-Benz Vitoria kontuan hartu gabe) 2025eko ekitaldia enpleguan eta fakturazioan doikuntza txikiekin itxi zuen, aurreko urtean lortutako maximoen ondoren.

Zehazkiago, sektorearen fakturazioa 24.853 milioi eurokoa izan zen 2025ean, 2024an baino % 1,9 txikiagoa, eta azken urteetan ikusitako hobekuntza-ibilbidea eten zen. Enplegua, berriz, 38.200 pertsonakoa izan zen; horrek urte arteko % 1,3ko murrizketa ekarri zuen.

ACICAEren[1] arabera, emaitza horiek euskal enpresek presentzia handia duten zenbait merkatutan, hala nola Europan eta Ipar Amerikan, ibilgailuen ekoizpena geldotzearen ondorio dira. Horri beste faktore batzuk gehitu zitzaizkion: Europako industria kaltetu zuen muga-zergen politika, ibilgailu elektrikoen salmentek igurikimenekin alderatuta izandako moteltzea eta Europako enpresei merkatu-kuota kendu dieten Txinako lehiakideen sarrera.

84. koadroa. Automobilgintzako euskal hornidura-sektorearen bilakaera

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025(*)
Fakturazioa (M euro)	18.351	22.423	25.023	25.349	24.853
Enplegua (pertsona kopurua)	38.142	38.414	38.480	38.700	38.200

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: ACICAE.


Erantsitako grafikoan ikus daitekeenez, denbora-ikuspegi zabalago batetik, sektoreko fakturazioaren goranzko ibilbidea berresten da; ibilbide hori pandemiaren bi urterik zailenetan (2020-2021) eten zen, bai eta 2025ean izandako beherakada txikiaren ondorioz ere. Beraz, azken ekitaldiak sektorearen dinamika hautsi zuen, eta aldi berean eragin zien fakturazioari eta enpleguari, ordura arte historikoki balio handiak erregistratzen ari baitziren.

[1] Euskadiko Automobilgintza Klusterra.

LABORAL kutxa

15. grafikoa. Sektoreko fakturazioaren bilakaera

(M euro)



Iturria: ACICAE

Azkenik, ACICAEko zuzendari nagusi Inés Anituaren arabera: "2026ari begira, egoerak delikatua izaten jarraitzen du, sektorea sakon eraldatzen ari baita aldaketa teknologiko, arautzaile eta geopolitikoen ondorioz; horiei, gainera, kanpoko beste faktore berri bat gehitu zaie, Irango gerra. Dena den, egoera erlatibizatzen ere jakin behar da, fakturazioan eta enpleguan errekorrak izan dituzten urteetatik gatozelako; beraz, datozen hilabeteetan sektorearen bilakaera ikusi beharko dugu"

6. MAKINA-ERREMINTAK ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIAK

6.1 MAKINA-ERREMINTEN EUROPAKO INDUSTRIA

CECIMOk[1] argitaratutako informazioaren arabera, 2025ean Europako makina-erremintaren sektoreak testuinguru ekonomiko oso konplexuan garatu zuen bere jarduera, eskaria ahuldu egin baitzen hainbat faktore kaltegarriren eraginez, eta, aldi berean, mundu-mailako lehia areagotu egin baitzen.

Baldintza horien pean, Europako ekoizpenak narriadura nabarmena izan zuen (–% 6,6), eta guztizko zenbatekoa 23.500 milioi eurokoa izan zen. Egoera horrek eragina izan zuen Europak nazioarteko ekoizpen-mapan zuen posizioan; 2025ean % 30,8koa izan zen, eta azken bi urteetan ia ehuneko 3 puntuko galera izan zuen (2023an % 33,4).

Ekoizpenaren esparruan gertatutakoaren antzera, Europako makina-erremintaren merkatuak moteltze-zantzu argiak erakutsi zituen: haren balioak urte artean % 3,7 uzkurtu ziren, eta horri esportazio-jardueraren uzkurdura handiagoa gehitu zitzaion (–% 8,8).

Etorkizuneko aurreikuspenei dagokienez, CECIMOk sektoreko adierazle nagusien hobekuntza apala aurreikusten du 2026rako, sektoreak ziurgabetasun handiko ingurune batean jarduten jarraituko duela kontuan hartuta; ingurune horretan tentsio eta gatazka geopolitikoak, merkataritza-arriskuak, balizko muga-zerga neurriak, energia-merkatuaren aldakortasuna eta Europako funtsezko ekonomietako inbertsio-dinamika ahula izango dira nagusi.

Hala, François Duval CECIMOko presidenteak ondorengoa ohartarazi zuen: *"Makina-erremintak eta fabrikazio-teknologia aurreratuak funtsezkoak dira Europako industria estrategikoentzat, industria-produktibitatea bultzatzen dute, berrikuntza bultzatzen dute eta funtsezkoak dira lehiakortasun globalari eusteko eta balio handiko funtsezko sektoreetan merkatu-kuota ziurtatzeko. Europako fabrikazioaren oinarri teknologikoak hondatzen jarraitzen badu, ondorioek industria eraldatzaileen lehiakortasuna ahuldu dezakete, eta kanpoko hornitzaileekiko mendekotasuna handitu oinarrizko ekoizpen-teknologietarako".*

[1] Makina-erreminten eta lotutako fabrikazio-teknologien industriaren Europako elkartea.

LABORAL kutxa

6.2 MAKINA-ERREMINTA ETA FABRIKAZIO-TEKNOLOGIA AURRERATUAK EUSKAL HERRIAN

Aurreko gogoetak oinarri hartuta, Europako industriak jarduten duen ziurgabetasun-testuingurua Estatu-mailara ere hedatu zen, eta 2025eko ekitaldia bereziki konplexua izan zen.

AFMk[1] —Espainian dauden makina-erremintaren eta fabrikazio-teknologia aurreratuen enpresen % 90 ordezkatzen duen elkarteak— argitaratutako oraindik behin-behinekoak diren datuen arabera, 2025ean fakturazioa 2.248 milioi eurokoa izan zen, 2024ko datuekin alderatuta % 3,3 jaitsi ondoren.

Emaitza hori bi azpisektore nagusien —txirbil-harroketa eta deformazioa— bilakaeran kontrako bi joera batera gertatzearen ondorio izan zen. Hala, txirbil-harroketak, bezero diren sektoreen dibertsitate handiagoak lagunduta, ekoizpena % 1,6 handitu zuen 2025ean, eta inoizko zifrarik handiena lortu zuen (944 milioi euro). Deformazioak, aldiz, automobilgintzaren sektorearen egoerak eta Txinako lehiaren gero eta presio handiagoak eraginda, ekoizpena moteldu zuen 2025ean, % 11,9ko beherakadarekin. Horren guztiaren ondorioz, txirbil-harroketak ekoizpen-jardueraren zatirik handiena hartzen jarraitu zuen (% 42,0); deformazioak, berriz, pisu txikiagoa izan zuen (% 21,4).

Era berean, gainerako produktuek ekoizpen-erritmoa murriztu zuten bitartean, osagaiek, 406 milioi euroko fakturazioarekin eta % 18,1eko partaidetzarekin, urte arteko % 2,6ko gorakada izan zuten ekoizpen-mailetan. Hala, mozteko eta deformatzeko tresnek (guztizkoari 140 milioi euroko ekarpena egiten diote), beste makinek (191 milioi euroko ekarpena) eta beste zerbitzuek (101 milioi euroko balio zenbatetsia), % 7,3ko, % 7,3ko eta % 9,0ko beherakadak izan zituzten, hurrenez hurren.

[1] AFM: Advanced Manufacturing Technologies, Makina-erreminta, Osagarri, Osagai eta Erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

85. koadroa. Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen ekoizpena

(M euro)

Produkzioa	2024	2025	%Δ 25/24
Makina-erremintak	1.475	1.425	-3,4
· Abioa	929	944	1,6
· Deformazioa	546	481	-11,9
Osagaiak, ekipoak eta softwarea	396	406	2,6
Mozteko eta deformatzeko tresnak	151	140	-7,3
Beste makina batzuk	206	191	-7,3
Beste zerbitzu batzuk	111	101	-9,0
Ekoizpenaren guztizkoa(*)	2.324	2.248	-3,3

(*): Makina-erreminta nazionaletan txertatutako osagaiak eta osagarriak salbu.
2025eko behin-behineko datuak.
Iturria: AFM.

Esportazioen esparruan, esportazioen balioa 1.764 milioi eurora iritsi zen, 2024ko datuen ia maila berean (+% 0,9), nahiz eta Europako industria batzuk —tradizionalki Estatuko produktuen helmuga izan direnak— ahul egon.

Azpisektoreka, ekoizpenaren atalean bezala, txirbil-harroketak hazkundearekin itxi zuen ekitaldia (+% 6,9), 904 milioi eurora iritsiz; deformazioak, berriz, 289 milioi euroko balio zenbatetsiarekin, % 4,0ko beherakada izan zuen. Hala, esportatutako produktuaren erdia txirbil-harroketako makineria izan zen (% 51,2), deformazioko makineriaren pisu espezifikotik urrun; azken horrek % 16,4ko partaidetza izan zuen. Antzeko pisu erlatiboarekin (% 15,4) kokatu ziren osagaiak, urte artean % 2 inguruko hazkundearekin; beste makinek (–% 10,5 eta % 8,7ko kuota), erremintek (–% 6,8 eta % 4,6ko partaidetza) eta beste zerbitzuek (–% 16,9 eta % 3,6) izandako beherakadetatik urrun.

86. koadroa. Makina-erreminten eta fabrikazio-teknologien sektorearen esportazioa

(M euro)

Esportazioa	2024	2025	%Δ 25/24
Makina-erremintak	**1.147**	**1.193**	**4,0**
· Abioa	846	904	6,9
· Deformazioa	301	289	-4,0
Osagaiak, ekipoak eta softwarea	266	271	1,9
Mozteko eta deformatzeko tresnak	88	82	-6,8
Beste makina batzuk	171	153	-10,5
Beste zerbitzu batzuk	77	64	-16,9
Esportazioen guztizkoa	1.749	1.764	0,9

2025eko behin-behineko datuak.
Iturria: AFM.


Sektoreko esportazioen helmuga nagusiei dagokienez, AEB sailkapenaren buruan kokatu zen, guztizkoaren % 13,7ko partaidetzarekin, eta Alemania oso hurbil izan zuten (% 12,7). % 10eko partaidetzatik behera kokatu ziren Mexiko (% 9,0), Italia (% 8,5), Txina (% 5,5), Frantzia (% 5,5), Portugal (% 3,9) eta Kanada (% 3,9). Nabarmendu behar da, Trumpen

LABORAL kutxa

Administrazioak muga-zergen politika gogortzeko behin eta berriz egindako mehatxuak gorabehera, AEBk Estatuko industriarentzako merkatu estrategiko nagusia izaten jarraitzen duela.

16. grafikoa. Espainiako makina-erremintaren eta fabrikazio-teknologien sektoreko esportazioen jomugako herrialde nagusien pisua (2025)

(%)



Behin-behineko datuak.
Iturria: AFM.

2026rako aurreikuspenei dagokienez, AFMko zuzendaritzak 2025ekoaren oso antzeko dinamika aurreikusten du azpisektorekako bilakaeran: *"Txirbil-harroketak unea aprobetxatzen jarraitu behar du, eta sektoreak hainbat industria traktoretan duen posizio ona baliatu, eskaeren kaptazio-maila egokiari eusteko. Deformazioak beherakada bati egin behar dio aurre; automobilgintzaren sektoreko inbertsio-dinamikak ikusita, beherakada horrek egiturazkoa dirudi, eta eraldaketa-, dibertsifikazio- eta birkokapen-erabakiak hartu beharko ditu".*

6.3 ESKUZKO ERREMINTAK ETA INDUSTRIA-HORNIDURA

2025eko ekitaldia oso emaitza onekin amaitu zen Eskuineko[1] eskuko erreminten eta sarrailagintza industrialaren Estatuko 22 fabrikatzaileentzat: inoizko fakturazio-zifrarik handiena lortu zuten, 500 milioi euroko fakturazioaren muga gaindituta, Estatuko merkatuaren eta esportazio-merkatuaren portaera onari esker.

Zehazkiago, barne-eskaria % 8,7 handitu zen, 246 milioi eurora iritsi arte, eta esportazioek ere gora egin zuten (+% 5,8), 270 milioi euro ingurura iritsita.

Bezero motaren araberako azterketan, industria-sektorearen dinamismo nabarmena azpimarratu behar da; barne-salmenten % 48,6 hartu zuen, eta bi digituko urte arteko

[1] Burdindegi eta Industria Hornikuntzaren Klusterra.

hazkundea izan zuen (+% 11 2024ko datuekin alderatuta). Etxegintzak, guztizkoaren % 44,5 hartuta, joera horrekin bat egin zuen, nahiz eta proportzio apalagoan (+% 6,8). Nekazaritza-sektoreak, askoz pisu erlatibo txikiagoarekin (% 6,9), % 5eko gorakada izan zuen halaber.

Kanpo-salmenten helmugari dagokionez, esportazio-mapa aurreko ekitaldietakoaren oso antzekoa izan zen. Europa buruan kokatu zen, Estatuko kanpo-salmenten zatirik handiena hartuta (guztizkoaren % 78); alde handira, Amerika (% 11), Afrika (% 6), Ekialde Hurbila (% 3) eta, azkenik, Asia eta Ozeania (% 2) kokatu ziren.

Lurraldekako xehetasunetara jaitsita, Frantzia lehen postuan finkatu zen, % 11ko partaidetzarekin; ondoren Portugal kokatu zen, % 8ko kuotarekin; AEB, % 5,5eko pisu erlatiboarekin; eta Alemania, oso antzeko pisuarekin (% 5).

87. koadroa. Sektorearen magnitude nagusien bilakaera.

(M euro)

Kontzeptua	2024	2025(*)	% 25/24
Produkzioa	481,2	515,6	7,1
Barne-salmentak	226,3	246	8,7
-Industria	107,7	119,5	11,0
-Eraikuntza	102,5	109,5	6,8
-Nekazaritza	16,1	16,9	5,0
Esportazioak	254,8	269,6	5,8

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: ESKUIN –Burdindegi eta industria-hornikuntzaren klusterra–.

2026rako aurreikuspenei dagokienez, Eskuinek emaitzek jarraipena izango dutela aurreikusten du, baina ohar garrantzitsu honekin: *"Hala ere, kezkatzen gaitu datozen hilabeteetan lehengaien kostuen eta logistika-gastuen igoerak izango duen eraginak, bai eta dolarraren eta yuanaren truke-tasaren bilakaerak ere; faktore horiek eragin nabarmena izan dezakete sektorearen lehiakortasunean eta marjinetan"*

LABORAL kutxa

7. PAPERA

7.1 NAZIOARTEKO EGOERA

Confederation of European Paper Industries-ek (CEPI) emandako datuetatik abiatuta, Paper eta Ore Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak (ASPAPEL) emandako informazioaren arabera, 2025ean -% 1,7 jaitsi zen paperaren eta kartoiaren ekoizpena, 77.365 mila tonara arte. Hala, berriz ere hartu zen aurreko ekitaldietan erregistratutako atzerako joera 2024an puntualki % 6,5eko igoerarekin eten zena (2022an -% 6,2ko atzerakada eta 2023an -% 13koa).

88. koadroa. Paperaren eta kartoiaren ekoizpena (CEPIko kideak)

Urtea	m Tm	% Δ
2020	85.208	-4,9
2021	90.531	6,2
2022	84.933	-6,2
2023	73.933	-13,0
2024	78.742	6,5
2025*	77.365	-1,7

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea, CEPIren (Confederation of European Paper Industries) datuetan oinarrituta.

Mundu mailako paperaren ekoizpena herrialdearen arabera aztertuta, eta kasu honetan eskura dugun azken informazioa 2024koa dela kontuan hartuta, Txinak eta Estatu Batuek bereganatu zuten ekoizpen osoaren erdia baino gehiago (% 55,1). Aldiz, Alemania, Italia eta Suedia nabarmendu ziren Europan, baina parte-hartze askoz ere txikiagoekin (% 5,5 eta % 2,3 azken bi kasuetan, hurrenez hurren).

89. koadroa. Paperaren eta kartoiaren ekoizpena, herrialdeka

(m tona)

Herrialdea	2024*	% Δ
Alemania	19.192	3,0
Austria	4.433	13,7
Belgika	1.356	-8,9
Bulgaria	110	-26,7
Danimarka	69	1,5
Eslovakia	1.011	11,8
Espainia	6.561	8,5
Finlandia	6.727	7,0
Frantzia	6.531	6,3
Grezia	345	2,1
Hungaria	804	4,0
Italia	8.067	6,2
Holanda	2.182	-1,8
Polonia	4.841	5,4
Portugal	2.189	9,3
Erresuma Batua	3.287	2,0
Txekiar Errepublika	888	13,4
Suedia	8.069	7,7
Norvegia	839	4,4
Suitza	909	5,9
Brasil	11.433	4,6
Kanada	8.217	1,2
Txina	127.772	5,0
Estatu Batuak	63.854	3,2
India	26.748	2,2
Japonia	21.619	-1,8
Errusia	9.786	6,4

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2024ko informazioa baino ez dago eskuragarri.
Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

Pastaren ekoizpenari dagokionez, 2024an Estatu Batuak, Brasil, Txina eta Kanada izan ziren eragile nagusiak, eta, guztira, ekoizpen osoaren ia bi heren hartu zituzten (% 66,5); Europan, berriz, Suediak eta Finlandiak % 7,3ra eta % 6,3ra mugatu zituzten beren partaidetzak, hurrenez hurren.

LABORAL kutxa

90. koadroa. Ore-ekoizpena, herrialdeen arabera

(m tona)

Herrialdea	2024*	% Δ
Alemania	1.743	-9,1
Austria	1.410	8,5
Belgika	310	-16,2
Bulgaria	168	16,7
Eslovakia	659	11,9
Espainia	1.696	5,3
Finlandia	9.519	2,5
Frantzia	1.412	22,8
Italia	98	12,6
Holanda	28	-6,7
Polonia	1.186	13,5
Portugal	2.564	1,7
Erresuma Batua	194	2,1
Txekiar Errepublika	598	19,6
Suedia	11.070	5,1
Norvegia	841	16,2
Suitza	86	6,2
Brasil	25.524	5,2
Kanada	12.532	0,9
Txina	25.464	15,6
Estatu Batuak	37.670	1,0
India	2.183	7,1
Japonia	7.059	-0,5
Errusia	8.088	0,8

(*): Herrialdeen araberako banaketaren kasuan, 2024ko informazioa baino ez dago eskuragarri.
Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

7.2 SEKTOREA ESPAINIAN

ASPAPELen Txosten Estatistikoaren arabera, 2025ean paperaren eta kartoiaren ekoizpena -% 3,9 jaitsi zen Espainian, 6.306,8 mila tonara arte. Gutxi gorabehera, CEPIren eremuan izandako jaitsieraren (paperaren eta kartoiaren ekoizpena -% 1,7 murriztu zen) antzekoa izan zen.

Bestalde, 2025ean Espainiako paper-esportazioek (2.737,1 mila tona) % 5,4 egin zuten behera; inportazioek (3.097,2 mila tona), berriz, % 1,1 egin zuten gora. Hala, 2025ean Estatuko paperaren merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -360,1 mila tonara igo zen (aurreko ekitaldian -169,4 mila tonakoa izan zen saldo negatiboa).

91. koadroa. Paperaren eta kartoiaren ekoizpena eta kontsumoa. Espainia, guztira.


(m Tm)

Urtea	Produkzioa	Inportazioa	Esportazioak	Ageriko kontsumoa
2016	6.218,6	3.256,0	2.830,1	6.644,5
2017	6.217,8	3.266,6	2.681,4	6.802,9
2018	6.156,6	3.288,4	2.584,9	6.860,1
2019	6.436,6	3.088,4	2.651,1	6.873,9
2020	6.268,5	2.877,3	2.592,9	6.552,9
2021	6.658,9	3.067,7	2.823,3	6.903,3
2022	6.342,4	3.176,9	2.492,6	7.030,9
2023	6.049,4	2.743,1	2.455,7	6.336,8
2024	6.561,5	3.064,3	2.894,9	6.730,9
2025	6.306,8	3.097,2	2.737,1	6.666,9

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

17. grafikoa. Paperaren sektorearen aldagai nagusien bilakaera Espainian

(Indizea: 1985= 100)



Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

Eremu geografikoen arabera, aurreko ekitaldietan bezala, 2025ean ere Europa izan zen Estatuaren merkataritza-bazkide nagusia. Handik egin ziren kanpo-erosketen % 86,4, eta hara egin ziren kanpo-salmenten % 64,8. Zehatzago esanda, Frantziari dagokio inportazioen % 16,6, Alemaniari % 13,2 eta Finlandiari % 11,4. Bestetik, Portugali, Frantziari eta Italiari dagozkie esportazioen % 23,2, % 17 eta % 6,3, hurrenez hurren.

Paper mota desberdinak kontuan hartzen hasita, 2025ean horiek guztiek jaitsi zuten beren ekoizpena modu orokortuan; Test Liner eta Kraft Linerrerako uhin-kartoietara bideratutako paperaren salbuespen bakarrarekin (+% 2,4). Zehazki, bestelako

ontzietarako eta kartoi iztukaturako produkzioa -% 11,7 jaitsi zen, prentsa eta inprimaketa eta idazketarako produkzioa -% 10,3, higieniko eta sanitarioena -% 2,4, uhin-kartoiari dagokiona -% 1,5 eta beste paper batzuei eta paper bereziei dagokiena -% 0,9.

92. koadroa. Ekoizpena eta kontsumoa, paper motaren arabera

(m Tm)

Mota	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2025	% Δ 25/24	2025	% Δ 25/24	2025	% Δ 25/24	2025	% Δ 25/24
Prentsa eta inprimatzea eta idazketa	648,1	-10,3	728,5	-4,2	801,2	-10,3	575,4	-2,5
Higienikoak eta sanitarioak	903,6	-2,4	209,1	6,3	235,2	-6,8	877,4	0,9
Uhin-kartoirako	3.595,2	-1,5	1.104,8	8,0	1.220,7	3,3	3.479,2	-0,4
– Uhinetarako	1.573,6	-4,0	281,1	2,6	414,5	-5,6	1.440,2	-2,3
– Test Liner eta Kraft Liner	1.698,6	2,4	799,9	9,9	718,6	6,8	1.779,8	3,9
– Bikoak eta larruak	323,0	-8,3	23,7	11,9	87,6	26,7	259,1	-14,9
Beste ontzi batzuk eta kartoi iztukatua	752,5	-11,7	982,4	1,5	427,7	-16,9	1.307,2	0,1
Beste paper batzuk eta bereziak	407,5	-0,9	72,4	-37,6	52,2	-2,8	427,6	-9,7
Papera eta kartoia, guztira	6.306,8	-3,9	3.097,2	1,1	2.737,1	-5,4	6.666,9	-1,0

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

Paper-orearen azpisektoreari dagokionez, 2025ean haren ekoizpenak % 4,5 egin zuen behera, 1.619,7 mila tonara arte; era berean, esportazioek (–% 7,2), inportazioek (–% 6,3) eta ageriko kontsumoak (–% 4,3) ere behera egin zuten, 921,6 mila tonara, 1.215,1 mila tonara eta 1.913,1 mila tonara arte, hurrenez hurren.

Gauzak horrela, orearen Estatuko merkataritza-balantzaren saldo negatiboa -293,5 mila tonara murriztu zen 2025ean (-302,7 mila tonako saldo negatiboa zuen 2024an), eta estaldura-tasa % 75,8koa izan zen (aurreko ekitaldian % 76,6koa).

Berreskuratutako paperaren ageriko kontsumoa -% 3,1 jaitsi zen 2025ean eta 5.040 mila tonatan kokatu zen.

93. koadroa. Ekoizpena eta kontsumoa, ore motaren arabera

(m Tm)

Mota	Produkzioa		Inportazioa		Esportazioak		Ageriko kontsumoa	
	2025	% Δ 25/24	2025	% Δ 25/24	2025	% Δ 25/24	2025	% Δ 25/24
Ore birjinak, guztira	1.619,7	-4,5	1.215,1	-6,3	921,6	-7,2	1.913,1	-4,3
Paper zaharra (ageriko bilketa)	4.609,8	3,4	1.413,6	-9,1	983,4	21,3	5.040,0	-3,1

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

Txosten honen aurreko edizioetan egindakoaren antzera, jarraian labur-labur aztertuko dugu berreskuratutako paperaren erabilera, adierazle hauen arabera: ageriko bilketa-tasa (paper zaharraren ekoizpena/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): 2025ean % 74,1 (% 71,7 izan zen 2024an); erabilera-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren ekoizpena): % 79,9 (% 79,3 aurreko ekitaldian); eta birziklatze-tasa (paper zaharraren kontsumoa/paperaren eta kartoiaren kontsumoa): % 81 (urtebete lehenago, % 83,7).

7.3 SEKTOREA EUSKAL HERRIAN

CEPIren eremuan (-% 1,7) eta Estatuan (-% 3,9) erregistratutako jaitsieren ildotik, Euskal Herrian ere behera egin zuen paperaren sektoreko paperaren eta kartoiaren ekoizpenak 2025ean. Izan ere, -% 0,5eko jaitsiera erregistratu zen; hala, 1.382,3 mila tonara egin zuen atzera ekoizpenak. Hala, Euskal Herriko jaitsiera erlatiboa txikiagoa izan zen Estatukoa baino eta, ondorioz, Euskal Herriko paperaren sektorearen partaidetza-kuota apur bat igo zen (2025ean Espainiako ekoizpenaren % 21,9, eta aurreko ekitaldian, % 21,2).

94. koadroa. Paperaren eta orearen ekoizpena Euskal Herrian

(m Tm)

Kontzeptua	2023	2024	2025	% Δ 25/24
Papera eta kartoia, guztira	1.260,6	1.389,7	1.382,3	-0,5
Orea, guztira	448,9	489,6	503,7	2,9

Iturria: Ore, Paper eta Kartoi Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea.

Oreari dagokionez, Estatuan ez bezala (-% 4,5 egin zuen behera Estatuan), Euskal Herrian % 2,9 igo zen orearen ekoizpena 2025ean, hau da, 503,7 mila tonara arte hazi zen. Ondorioz, Estatuko ekoizpenaren gaineko kuota handitu egin zen: 2025ean % 31,1 eta 2024an % 28,9.

Kanpo-merkataritzako elkartrukeei dagokienez, eta kasu honetan aurkezten diren zifrak monetarioak direla aintzat hartuta, 2025ean jaitsi egin ziren Euskal Herriko paperaren eta manufakturen esportazioak zein inportazioak. Hala, kanpora egindako salmentak -% 13,9 jaitsi ziren, 959.517 mila eurora arte, eta kanpotik egindako erosketak -% 4,5 jaitsi ziren, 856.449 mila eurora arte. Gauzak hala, merkataritza-balantzaren saldo positiboa 103.068 mila eurora arte jaitsi zen (2024an 217.012 mila eurokoa zen).

Azkenik, paperaren sektoreko Euskal Herriko enpresa nagusiak ageri dira jarraian, modu sintetikoan, eta bakoitza non dagoen eta zer paper mota ekoizten duen adierazten da.

LABORAL kutxa

95. koadroa. Euskal Herriko paperaren sektoreko enpresa nagusiak

Enpresak	Kokapena	Produkzioa
Papresa	Errenteria	Pentsa-papera (desagertuta)
Smurfit Westrock Nervión	Iurreta	Orea, kraft papera
Smurfit Westrock Navarra	Galar	Orea, kraft papera, uhin-kartoia eta zakuak
Essity Operations Allo (Sca Hygiene Spain)	Allo	Tisu papera
Papelera Guipuzcoana de Zikuñaga (Iberpapel)	Hernani	Inprimatzeko eta idazteko orea eta papera
Munksjö Tolosa (Munksjö Paper DECOR)	Berastegi	Laminatuetarako oinarri-papera
Papelera del Oria	Zizurkil	Inprimatzeko eta idazteko papera
Papelera del Ebro	Viana	Uhin-papera eta -kartoia (desagertuta)
Bertako	Uharte	Uhin-papera eta -kartoia
Solidus Solutions San Andrés (Newark San Andrés)	Atarrabia	Uhin-kartoia
Sonoco Tudela (Papertech)	Tutera	Orearen, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa
Papeles El Carmen	Eguesibar	Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa
Sofidel Spain (Ibertissue)	Buñuel	Paperezko eta kartoizko artikuluen fabrikazioa
Solidus Solutions Videcart (Videcart)	Atarrabia	Paperaren eta kartoiaren fabrikazioa

*Iturria: "Sabi INFORMA" enpresen datu-**basea**.*

8. KAUTXUA

8.1 NAZIOARTEKO EGOERA

International Rubber Study Groupen informazioaren arabera, kautxuaren munduko kontsumo osoak % 0,2ko hazkunde txikia izan zuen 2025ean, eta 31,9 milioi tonara iritsi zen. Kautxu naturalaren zein sintetikoaren kontsumoa ere maila horretan hazi zen.

96. koadroa. Kautxu naturalaren eta sintetikoaren munduko kontsumoa

(M Tm)

Kontzeptua	Kautxu naturala			Kautxu sintetikoa			Guztira		
	2024	2025	% Δ 25/24	2024	2025	% Δ 25/24	2024	2025	% Δ 25/24
Guztira	15,3	15,3	0,2	16,6	16,6	0,2	31,9	31,9	0,2

Iturria: Malaysian Rubber Council, International Rubber Study Groupen datuetan oinarrituta.

8.2 KAUTXUAREN ERALDAKETA-SEKTOREA ESPAINIAN ETA EAEN

Aurreko ekitaldian ikusitako portaera jarraitua izan zenez gero, kautxuaren transformatuen estatuko ekoizpenak atzera egin zuen 2025ean. Ageriko kontsumoa, aitzitik, igo egin zen (-% 1,4 eta % 5,8 2025ean, eta -% 6,6 eta % 2,6 2024an, hurrenez hurren). Bestalde, bilakaera nahiko desberdinak izan dira pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorean, pieza teknikoenean (kautxu industriala) eta kautxuaren transformatuetan.

Zehazki, Kautxuaren Partzuergoak emandako informazioaren arabera, 2025ean 715.746 tonara jaitsi zen sektorearen ekoizpena Estatuan, hau da, -% 1,4ko jaitsiera izan zuen. Ageriko kontsumoa, berriz, % 5,8 igo zen, 696.383 tonara arte.

Guztiarekin ere, sektoreko fakturazioa % 2,4 areagotu zen, 5.874,9 milioi euroraino. Testuinguru horretan, pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorearen salmenta % 2,7 handitu zen, eta pieza teknikoei dagokiena, % 1,8 (-% 3,7 eta % 2,3 2024an, hurrenez hurren).

Kautxuaren eraldatze-sektore osoari dagokionez, sektoreko ekoizpena -% 1,4 jaitsi zen eta sektoreko enplegua -% 2,9 murriztu zen. Testuinguru horretan, 2025ean, kautxuaren sektore nazionalaren produktibitatea % 1,6 hazi zen, langile bakoitzeko 35,5 tonara arte (2024an 34,9koa izan zen datu hori).

Automobilgintza-sektoreak kautxuaren eraldaketa-industrian duen garrantzi nabarmena kontuan izanik, aipatzekoa da kapitulu honen amaieran (pneumatikoen eta

LABORAL kutxa

birkautxutatuaren azpisektorearen gaineko epigrafean) sektore horren azterketa labur bat egingo dugula.

97. koadroa. Kautxuaren eraldaketa-sektorearen oinarrizko datuak (1) Espainian

(Tm)

Kontzeptua	2024	2025	% Δ 25/24
1. Produkzioa	725.596	715.746	-1,4
2. Ageriko kontsumoa	658.100	696.383	5,8
3. Esportazioa	737.713	738.565	0,1
4. Inportazioa	670.217	719.202	7,3
5. Saldo komertziala	67.496	19.363	-71,3
6. Esportazioaren batez besteko prezioa(2)	6,51	6,52	0,2
7. Inportazioaren batez besteko prezioa(2)	5,60	5,53	-1,1
8. Esportazioa/Ekoizpena (%)	% 101,7	% 103,2	1,5
9. Inportazioa/Ageriko kontsumoa (%)	% 101,8	% 103,3	1,4
10. Enplegua	20.803	20.190	-2,9
11. Produktibitatea (1/10)(3)	34,9	35,5	1,6

(1): Honako hauek barne: EJSN 22.11 (pneumatikoak eta birkautxutatua) eta EJSN 22.19 (kautxuzko beste produktu batzuk: kautxuzko eta latexezko pieza teknikoa).
(2): Euro/kg.
(3): Tm/Enplegatu/urte.
Iturria: Kautxuaren Partzuergoa.

Kanpo-merkataritza aztertuz gero, bolumenari dagokionez, kautxuaren eraldatuen esportazioek % 0,1eko igoera arina izan zuten, 738.565 tonara arte. Inportazioak, berriz, % 7,3 hazi ziren, 719.202 tonara arte. Hala, merkataritza-superabita -% 71,3 jaitsi zen, 19.363 tonara arte.

Azpisektoreen araberako azterketak erakusten du kanpora egindako pneumatikoen eta birkautxutatuaren salmentek ez zutela aldaketarik izan (% 0,0), eta pieza teknikoenek, berriz, % 0,5eko igoera arina izan zutela. Bestalde, kanpoan egindako pneumatikoen eta birkautxutatuaren erosketek % 8,7 egin zuten gora eta pieza teknikoenek, % 3,4.

98. koadroa. Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera

(Tm)

Produktua	Esportazioak			Inportazioa			Saldoa		
	2024	2025	% Δ 25/24	2024	2025	% Δ 25/24	2024	2025	% Δ 25/24
Pneumatikoak eta birkautxutatua	586.310	586.447	0,0	493.191	536.168	8,7	93.119	50.279	-46,0
Pieza teknikoa	151.403	152.118	0,5	177.026	183.034	3,4	-25.623	-30.916	20,7
Guztira	737.713	738.565	0,1	670.217	719.202	7,3	67.496	19.363	-71,3

Iturria: Kautxuaren Partzuergoa.

Nolanahi ere, diruari begira, kautxuaren transformatuen esportazioak % 0,3 areagotu ziren, eta inportazioak, berriz, % 6,1.

99. koadroa. Kautxuaren eraldatuen kanpo-merkataritza, azpisektore handien arabera

(M euro)

Produktua	Esportazioak			Inportazioa			Saldoa		
	2024	2025	% Δ 25/24	2024	2025	% Δ 25/24	2024	2025	% Δ 25/24
Pneumatikoak eta birkautxutatua	3.561,3	3.604,1	1,2	2.340,1	2.479,5	% 6,0	1.221,3	1.124,6	-7,9
Pieza teknikoa	1.239,9	1.210,7	-2,4	1.410,5	1.500,6	% 6,4	-170,6	-289,9	69,9
Guztira	4.801,2	4.814,8	0,3	3.750,6	3.980,1	% 6,1	1.050,7	834,7	-20,6

Iturria: Kautxuaren Partzuergoa.

Euskadin kautxua eraldatzen duen sektoreari erreparatuz eta, lehenik, Eustaten Industria Produkzioaren Indizea (IPI) aintzakotzat hartuta (kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa, eta beste produktu mineral ez-metaliko batzuena), atzera egiteko erritmoa motelagoa izan zen 2025ean, aurreko bi ekitaldietakoaren aldean: zehazki, -% 1,1, eta 2023 eta 2024an, hurrenez hurren, -% 2,6 eta -% 2,7.

Kanpo-elkartrukeei dagokienez, EAEk 2025ean egin zituen kautxuaren eta bere manufakturen esportazioak -% 24,5 jaitsi ziren, 1.022.888 mila eurora arte. Inportazioak, aldiz, -% 5,5 jaitsi ziren, 390.364 mila eurora arte. Hala, -% 32,9 murriztu zen 2025ean balantza komertzialaren superabitaren saldoa.

Zifra horiek Estatuko datuekin alderatuta, ikuspegi monetariotik, Estatuko guztizkoaren gaineko EAEko kanpo-merkataritzaren partaidetza jaitsi egin zen bai esportazioen kasuan (2025ean guztizkoaren % 21,2 eta aurreko ekitaldian, berriz, % 28,2), bai inportazioen kasuan (2025ean guztizkoaren % 9,8 eta aurreko urtean, aldiz, % 11).

8.3 PNEUMATIKOEN ETA BIRKAUTXUTATUAREN AZPISEKTOREA

Azterketa pneumatikoen eta birkautxutatuaren azpisektorera mugatuta, Kautxuaren Partzuergoaren arabera, 2025ean -% 1,7 egin zuen behera sektoreko ekoizpenak, 522.412 tonara arte. Ageriko kontsumoa, berriz, % 7,7 hazi zen eta 472.133 tonatan kokatu zen.

Kanpo-merkataritzaren harira, 2025eko dinamika desberdina izan zen. Hain zuzen ere, esportazioak ez ziren aldatu (aldakuntzarik ez), eta inportazioak % 8,7 igo ziren, 536.168 tonaraino. Hala, esportatzeko joera % 112,3an zenbatu zen, eta inportatzekoa, % 113,6an.

LABORAL kutxa

100. koadroa. Pneumatikoen eta birkautxutatuaren ekoizpena, kontsumoa eta kanpo-merkataritza

(Tm)

Kontzeptua	2024	2025	% Δ 25/24
1. Produkzioa	531.478	522.412	-1,7
2. Esportazioa	586.310	586.447	0,0
3. Inportazioa	493.191	536.168	8,7
4. Ageriko kontsumoa	438.359	472.133	7,7
5. 2/1 x 100	% 110,3	% 112,3	1,8
6. 3/4 x 100	% 112,5	% 113,6	0,9

Iturria: Kautxuaren Partzuergoa.

Kautxuaren sektorearen eta automobilgintza-sektorearen arteko lotura estua kontuan izanda, azken horren bilakaera aztertuko dugu jarraian, labur. Automobilen eta Kamioien Fabrikatzaileen Espainiako Elkartearen (ANFAC) arabera, 2025ean 1.369.095 ibilgailu matrikulatu zituzten, aurreko urtean baino % 12,3 gehiago. Aldiz, ibilgailuen ekoizpena (2.274.026 unitate) -% 4,3 jaitsi zen, eta esportazioak 1.950.103 unitate), -% 8,2.

101. koadroa. Ibilgailuen ekoizpena eta salmenta Espainian

(unitateak)

Kontzeptua	Produkzioa			Esportazioak			Matrikulazioak (*)		
	2024	2025	% Δ 25/24	2024	2025	% Δ 25/24	2024	2025	% Δ 25/24
Turismoak	1.918.831	1.810.331	-5,7	1.708.283	1.539.357	-9,9	1.016.963	1.148.650	12,9
Merkataritza- eta industria-ibilgailuak	458.260	463.695	1,2	415.301	410.746	-1,1	197.943	216.045	9,1
Mikrobusak eta autobusak	0	0	--	0	0	--	4.370	4.400	0,7
Guztira	2.377.091	2.274.026	-4,3	2.123.584	1.950.103	-8,2	1.219.276	1.369.095	12,3

(*): Matrikulazioen kontzeptua barne-salmentena baino zabalagoa da; saldu gabe edo stockean dauden ibilgailuak ere barne hartzen ditu. Turismoen matrikulazioen zifrak lur orotako ibilgailuen matrikulazioak ere aintzat hartzen ditu.

Iturria: ANFAC eta IDEAUTO.

Azkenik, txosten honen aurreko edizioetan egindako lanari jarraipena emateko, Euskal Herrian dauden pneumatikoen fabrikatzaile nagusien inguruko aipamen labur bat egingo dugu: Michelin eta Bridgestone.

Michelinek Gasteizko, Araiako (Araba; zentro logistikoa da egiaz) eta Lasarteko (Gipuzkoa) instalazioetan garatzen du bere jarduera Euskal Herrian. Enpresa-talde osoak 1.664 milioi euroko etekin garbia lortu zuen 2025ean, hau da, urte arteko % 11,9 gutxiago (1.890 milioi euro 2024an). Testuinguru horretan, taldeak diharduen hainbat merkatuk ondorioak jasan dituzte lehia handiagoa izan zelako, aduanetako muga-zerga berriak eta oso egonkorrak finkatu zirelako eta arauei lotutako ingurunea mesedegarria ez zelako. Euskal Herriko esparruan, hauxe aipatu behar da: 2025ean iragarri zuten turismoetarako pneumatikoen sei lineetako bat itxiko zutela, eta inpaktua aurreikusten zutela gaitasun produktiboan

(2026ko lehen seihilekoari begira); Serveo Serviciosek zerbitzu logistikoak ematen ditu Araiako Michelin zentroan, eta langileen hitzarmen kolektiboa 2026ko apirilean argitaratzea aurreikusten zuten (atzeraeraginezko indarraldiarekin, 2025eko urtarrilaren 1etik 2028ko abenduaren 31ra bitarte); Lasarteko instalazioan, motoan espezializatutako zentro gisa jarraitzea da garrantzitsuena, Michelinek motozikletaren negozioaren portaera ona azpimarratu duen garai batean.

Bridgestonek Basaurin eta Usansolon ditu kokaturik Euskal Herriko instalazioak. Japoniako enpresa-talde horrek 1.740 milioi euroko etekin garbia eduki zuen 2025ean, aurreko ekitaldian baino % 11,3 handiagoa. Hala ere, AEBko muga-zergek emaitza gutxitu zuten. Euskal Herrian, aipatzekoa da enplegua erregulatzeko espediente bat iragarri zutela 2025ean. Azkenean, 335etik 232 irteeratara jaitsi da azken inpaktua, eta gehienak borondatezko bajak izango dira. Orobat, lan egindako urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordainak finkatu zituzten, 55 urtetik aurrerako aurretiko erretiroak, eta hurrengo bi urteetan horrelako espedienterik ez aurkezteko konpromisoa. Gainera, ikuspegi industrialetik, Basauriko urteko ekoizpena 700.000tik 800.000 pneumatikotara igotzeko konpromisoa jaso zuten akordioan eta, merkatua suspertuz gero, lehen 150.000 pneumatiko gehigarriak Basaurin egiteko aukera adierazi zuten, ez Polonian.

LABORAL kutxa

9. SEKTORE ELEKTRONIKO-INFORMATIKOA

9.1 JOERA TEKNOLOGIKO BERRIAK[1]

Lehenik eta behin, EAEko sektore elektroniko-informatikoaren eta telekomunikazioen sektorearen bilakaera aztertu aurretik, beharrezkoa da sortzen ari diren joera teknologikoen laburpena egitea, eragina baitute eta izango baitute laster enpresek izango duten eraldaketa digitalean. Horri dagokionez, hauek nabarmendu behar dira:

Adimen artifizial sortzailea eta agentikoa

Adimen artifiziala enpresen eraldaketa digitalaren erdigunean dago oraindik ere. Dena den, azken aldiko bilakaerak adierazten du fase berri bat datorrela. Hala, adimen artifizial sortzailea bizkor hedatu eta gero, arreta-gunea adimen artifizial agentikora igaro da orain. Zehazki, adimen artifizial agentikoaren oinarrian dauden sistemak planifikatu, zereginak gauzatu, enpresa-aplikazioekin interakzioak eduki eta pertsonekin zein beste eragile digital batzuekin elkarlanean aritzeko gai da. Bilakaera horrek aukera berriak dakartza prozesu konplexuak automatizatzeko, produktibitatea hobetzeko eta funtzio osoak birdiseinatzeko erakundeen barruan. Hala ere, gobernantza sendoagoa, datu fidagarriak eta giza gainbegiratze egokia eskatzen ditu.

AAren azpiegitura, *cloud* hibridoa eta *edge computing*a

Adimen artifizialaren enpresa-hedapena nabarmen ari da areagotzen datuak zenbatu, biltegiratu, konektatu eta kudeatzeko premiak. Testuinguru horretan, estrategia digitaletan aldaketak gertatzen ari dira, *cloud*a soilik darabilten ikuspegietatik arkitektura hibridoetarantz; horietan, hodei publikoa, azpiegitura propioak eta *edge* prozesamendua konbinatzen dira. Era horretan, *edge computing*ak garrantzi berezia dauka ingurune industrial, logistiko edo energetikoetan; izan ere latentzia txikia, datuen segurtasuna eta denbora errealean erantzuteko gaitasuna erabakigarriak izan daitezke alor horietan.

Mikroelektronika eta konputazio espezializatua

Adimen artifizialaren, robotikaren, IoTen eta sistema autonomoen garapen bizkorrak gero eta eskari handiagoa sortzen ari dira erdieroale aurreratuen eta konputazio-arkitektura espezializatuen arloan. Alde horretatik, AA entrenatzeko eta inferentziarako txip optimizatuak, azeleragailu espezifikoak eta hardware-belaunaldi berriak giltzarri dira errendimendua hobetzeko, kostuak murrizteko, kontsumo energetikoari eusteko eta gaitasun teknologiko propioak bermatzeko. Ondorioz, mikroelektronika eremu estrategiko gisa sendotu da, ikuspegi industrialetik ez ezik, baita autonomia teknologikoaren eta etorkizuneko lehiakortasunaren ikuspegitik ere.

[1] Geuk egina txosten hauetatik abiatuta: *Deloitte Insights, McKinsey Technology Trends Outlook 2025, Gartner Top Strategic Technology Trends 2026, IDC FutureScape 2026 eta BCG AI Radar 2026*.

Zibersegurtasuna, konfiantza digitala eta AAren segurtasuna

Digitalizazio aurreratuak enpresen eta erakundeen esposizioa areagotzen du, eta, aldi berean, eredu, datu, aplikazio eta eragile autonomoen erabilerari lotutako arrisku berriak dakartza adimen artifizialak. Horregatik, zibersegurtasuna ikuspegi prebentiboagoetara jotzen ari da, alderdi hauek oinarri hartuta: aurretiko detekzioa, erantzunaren automatizazioa, AAko sistemen babesa, sarbideen kontrola, trazabilitatea eta aktibo digitalen jatorria egiaztatzea. Horiek horrela, konfiantza digitala irtenbide teknologiko berriak hedatzeko zeharkako eskakizuna da, batez ere sektore arautuetan, azpiegitura erabakigarrietan eta hornidura-kate konplexuetan.

AA fisikoa, IoT, robotika eta sistema autonomoak

Adimen artifiziala jada ez da ingurune digitaletan soilik jarduten ari; aitzitik, makinetan, gailuetan, sentsoreetan, robotetan, droneetan eta ekipo industrialetan txertatzen ari da pixkanaka. AA, IoT, robotika eta konektagarritasun aurreratua bat eginda daudenez gero, mundu fisikoan hauteman, erabaki eta jarduteko sistemetarantz aurrera egiten ari gara. Hartara, erabilera bereziki garrantzitsuak ditu fabrikazio aurreratuan, mantentze-lan prediktiboetan, logistikan, mugikortasunean, osasungintzan, energian eta azpiegituren kudeaketan. Ildo horretan, irtenbide horiek heldu ahala, espero da eragiketak gero eta automatizatuago egotea, efizientzia produktiboa handiagoa izatea eta elkarlaneko modu berriak sortzea pertsonen, makinen eta sistema adimendunen artean.

Adimen esperientziala, errealitate hedatua eta biki digitalak

Teknologia murgiltzaileek, errealitate areagotuak, errealitate birtualak, simulazio aurreratuak eta biki digitalek pisua hartzen jarraitzen dute enpresa- eta industria-eremuetan. Aisian edo komunikazioan erabiltzeaz harago, irtenbide horiek hainbat aukera ematen dituzte: prozesuak berregitea, hutsak aurreratzea, langileei prestakuntza ematea, eragiketa konplexuetan laguntzea eta pertsonen, datuen eta ingurune fisikoen arteko interakzioa hobetzea. Gainera, garapena adimen artifizialari, sentsorikari eta *edge computing*ari gero eta lotuago dago, eta, horren eraginez, ingurune digitalak interaktiboagoak eta prediktiboagoak dira, eta erakunde bakoitzaren testuinguru operatibora hein handiagoan egokitzen dira.

Teknologia kuantikoak eta *quantum-safe* trantsizioa

Teknologia kuantikoak suspertze-bidean daude oraindik. Hala ere, ahalmen eraldatzaile nabarmena daukate, adibidez, konputazio aurreratuan, materialen simulazioan, optimizazioan, komunikazio seguruetan eta zibersegurtasunean. Nahiz eta konputazio kuantikoak aurrerapauso nabariak behar dituen enpresetan modu orokortuan erabiltzeko, erakundeak hasi dira arreta handiagoa jartzen *quantum-safe* inguruneetaranzko trantsizioan. Trantsizio horren ondorioz, egungo sistema kriptografikoak prestatu behar dira gaitasun kuantikoak etorkizunean ekar ditzakeen arriskuen aurrean, bereziki informazioa epe luzera babestea erabakigarria den jardueretan.

LABORAL kutxa

Burujabetza teknologikoa, datuaren gobernantza eta jasangarritasun digitala

Nazioarteko lehia teknologiko gero eta handiagoak, tentsio geopolitikoek eta azpiegitura, datu eta gaitasun kritikoak kontrolatzeko beharrak eraginda, subiranotasun teknologikoaren garrantzia gero eta handiagoa da. Kontzeptu hori gaitasun propioen garapenari lotuta dago adimen artifizialean, *cloud*ean, mikroelektronikan, zibersegurtasunean, azpiegitura digitaletan eta teknologia kuantikoetan. Aldi berean, jasangarritasun digitalak garrantzi handiagoa behar du kontsumo energetikoaren igoera ikusita, zenbaketa intentsiboari, datu-zentroei eta adimen artifizialari lotuta. Horiek horrela, etorkizuneko lehia teknologikoa konbinazio baten mende egongo da, zehazki, berrikuntza, segurtasuna, efizientzia energetikoa, datuaren gobernantza eta autonomia estrategikoa konbinatzearen mende.

9.2 SEKTOREA EAEN[1]

Txosten honen aurreko edizioetan bezala, epigrafe hau garatu aurretik gogora ekarri behar da bere gaitasunak berrantolatzeari ekin ziola GAIAk 2019an, jarduera-sektoreen araberako ohiko sailkapena gainditzeko eta sektoreko eskaintza ordenatzeko, lehentasunezko teknologia bideratzaileen harira. Hurbilketa horren bilakaeran, zibersegurtasuna, adimen artifiziala, adimen esperientziala eta gauzen Internet ageri dira ondoriozko sailkapenean eta, testuinguru horretan, klusterrak indartu egin du mikroelektronika, teknologia kuantiko eta burujabetza teknologikoranzko norabidea.

Horren haritik, GAIAk kaleratu duen informazioari jarraituz, 306 erakundek osatzen zuten klusterra 2025ean, aurreko ekitaldiaren antzera (305ek, 2024an), ziurgabetasun geopolitikoak, hornigaien garestitzea, merkataritza-tirabirak eta merkatu jakin batzuen uzkurdura nagusi den nazioarteko testuinguruan.

[1] Euskal Herriko Ezagutzaren eta Teknologia Aplikatuen Industrien Elkarteak (GAIA) emandako informazioarekin osatu dugu atal hau. Elkarteko kide diren eta EAEko sektorearen egoera orokorra azaltzen duten enpresei dagokie atal honetako informazioa.

102. koadroa. Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpresen bilakaera EAEn

Urtea	Enpresak (kop.)
2016	254
2016*	279
2017*	258
2018*	254
2019*	267
2020*	311
2021*	300
2022*	315
2023*	313
2024*	305
2025*	306

(*): GAIA+AVIC.
Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektoreko fakturazioa aintzat hartuta, 2025ean % 5 hazi zen, eta 7.371 milioi eurora iritsi zen. Hala, jarraipena eman zitzaion 2021ean, 2020ko etenaldiaren ondoren, hasitako susperraldiari.

103. koadroa. Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko fakturazioaren bilakaera EAEn

Urtea	Fakturazioa (M euro)	% Δ
2016	3.530,0	21,3
2016*	4.742,0	--
2017*	4.958,0	4,6
2018*	5.171,0	4,3
2019*	5.352,0	3,5
2020*	5.350,0	0,0
2021*	5.724,0	7,0
2022*	6.153,3	7,5
2023*	6.560,0	6,6
2024*	7.020,0	7,0
2025*	7.371,0	5,0

(*): GAIA+AVIC.
Iturria: GAIA. Geuk egina.

Sektorekako esportazioei dagokienez, hiru mila milioi eurotik gorakoak izan ziren 2025ean (3.080), baina hazkunde-erritmoa zertxobait moteldu zen aurreko ekitaldiaren aldean (% 4ko hazkundea 2025ean, eta % 7koa 2024an).

LABORAL kutxa

104. koadroa. Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko esportazioen bilakaera EAEn

Urtea	Esportazioak (M euro)	% Δ	Esportazioak / Fakturazioa
2016	1.179,6	5,6	33,4
2016*	1.966,0	--	41,5
2017*	2.045,4	4,0	41,3
2018*	2.164,0	5,8	41,8
2019*	2.350,0	8,6	43,9
2020*	2.223,0	-5,4	41,6
2021*	2.373,0	6,7	41,5
2022*	2.586,6	9,0	42,0
2023*	2.770,0	7,1	42,2
2024*	2.961,0	7,0	42,2
2025*	3.080,0	4,0	41,8

(*): GAIA+AVIC.
Iturria: GAIA. Geuk egina.

Lotuta dagoen sektorerako enpleguari begira, % 4 handitu zen 2025ean, 27.332 lagun lanean egoteraino (1.000 kontratazio berri baino gehiago). Hedatzeko joera duen portaera da hori, eta etorkizunean mantenduko da, azelerazio teknologikoaren aurrean.

105. koadroa. Sektore elektroniko-informatikoko eta telekomunikazioen sektoreko enpleguaren bilakaera EAEn

Urtea	Langileak	% Δ
2016	11.447	4,0
2016*	18.517	--
2017*	19.276	4,1
2018*	20.030	3,9
2019*	20.528	2,5
2020*	20.732	1,0
2021*	22.038	6,3
2022*	23.600	7,1
2023*	24.800	5,1
2024*	26.280	6,0
2025*	27.332	4,0

(*): GAIA+AVIC.
Iturria: GAIA. Geuk egina.

Arreta I+G arloko inbertsioan jarrita, 222 milioi eurora igo zen 2025ean, hots, % 10eko hazkundea gertatu zen. Eta horrek agerian jartzen du nolako apustu irmoa egin duen sektoreak teknologia bideratzaileen alde.

Azkenik, aipatzekoa da sektorearen zer lehentasun estrategiko azpimarratu dituen klusterreko presidenteak berriki: "burujabetza teknologiko eraldatzailea" bultzatzea, "hainbat arlotako gaitasun propioen garapenean oinarrituta, adibidez, adimen artifizialeko, *cloud*eko, teknologia kuantikoko, azpiegitura digitaleko eta mikroelektronikako gaitasunetan".

10. ERAIKUNTZA

10.1 IKUSPEGI OROKORRA

Eraikuntza-sektoreak emaitza positiboekin itxi zuen 2025a adierazle ekonomiko nagusietan. Hala, sektoreko BEGa eta enplegua hazi egin ziren, eta obra publikoak ere gorakada nabarmena izan zuen. Emaitza horiek komunak izan ziren EAEn, Nafarroan eta Estatuan, nahiz eta bilakaeran ñabardura desberdinak izan. Hala ere, etxegintzan[1] izan ziren beheranzko aldaketak, eremu geografikoaren arabera emaitza desberdinekin.

106. koadroa. Eraikuntza-sektoreko adierazleen bilakaera

(ehunekotan)

Kontzeptua	EAE		Nafarroa		Espainia	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Eraikuntza BEGa*	1,6	3,7	2,3	2,3	4,8	5,6
Eraikuntza enplegua*	-0,1	1,9	0,8	2,1	3,7	4,2
Eraikuntza BEGaren % **	5,5	5,6	6,2	6,2	5,7	5,9
Amaitutako etxebizitzak*	26,5	daturik ez	-32,8	7,1	13,1	-9,0
Hasitako etxebizitzak*	-3,3	daturik ez	14,4	-11,3	23,4	0,8
Lizitazio ofiziala*	52,2	11,4	-25,3	14,1	10,3	13,0

(*):Urte arteko aldakuntza-tasa. Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
(**): Eraikuntzaren BEGaren ehunekoa guztizko BEGarekiko.
Iturria: Guk geuk egina, EIN, Eustat, Nastat eta Seopanen datuetatik abiatuta.

Zehazki, eraikuntzako BEGak bilakaera positiboa izan zuen Estatuan (+% 5,6), EAEn (+% 3,7) eta Nafarroan (+% 2,3); testuinguru horretan, Nafarroak 2024ko bilakaera bera izan zuen, eta Espainiak eta EAEk, berriz, dinamismo handiagoa erakutsi zuten.

Enpleguak ere hobera egin zuen, eremu geografikoaren arabera bilakaera-eredu desberdinak erakutsiz. Hala, EAEk aurreko ekitaldian izandako joera negatiboa iraultzea lortu zuen (+% 1,9, 2024ko -% 0,1aren aldean); Nafarroak hazkunde-tasa % 2,1era igo zuen (2024an +% 0,8), eta Estatuan ere hazkundea bizkortu zen (+% 4,2, 2024ko +% 3,7aren aldean). Azken horrek izan zuen hazkunderik handiena.

Etxegintzari dagokionez, amaitutako etxebizitzen kopuruak gora egin zuen Nafarroan (+% 7,1), eta Espainian, berriz, behera (-% 9,0); hasitako etxebizitzen kopurua, bestalde, murriztu egin zen Nafarroan (-% 11,3), eta Estatu osoan ia ez zen hazi (+% 0,8). EAEn, etxebizitza babestuari buruzko daturik ezean, etxebizitza libreen bilakaerak (2025rako datu osoekin) erakusten du amaitutako etxebizitzen kopuruak gora egin zuela (+% 13,0), eta hasitakoenak, berriz, behera (-% 10,2).

[1] Ez dago EAEko etxebizitza babestuari buruzko datu osorik. Eskuragarri dauden datuak 2025eko 3. hiruhilekora artekoak dira; beraz, ezin da urte arteko alderaketarik egin.

LABORAL kutxa

107. koadroa. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EAE).

(Urteko aldakuntza-tasa, %)

Kontzeptua	2023	2024	2025(1)	Hiruhilekoaren bilakaera			
				I.hh.25	II.T.25	III.T.25	IV.T.25
Langile okupatuen indizea	1,7	-2,0	1,4	0,1	1,1	2,5	1,8
Ekoizpen-indizea (2)	8,8	3,4	8,2	5,2	10,4	11,1	6,0
Araba	8,9	3,3	8,5	7,2	11,0	9,4	6,3
Bizkaia	8,5	4,1	7,9	3,5	10,6	12,0	5,8
Gipuzkoa	9,1	2,2	8,5	7,5	9,7	10,3	6,3
Etxegintza	8,9	1,8	9,6	6,7	14,0	12,3	6,2
Ingeniaritza zibila	8,3	6,7	5,1	1,9	2,6	9,0	6,4

(1): Behin-behineko datuak.
(2): Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EUSTAT) 2021=100 oinarria.
Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Indize Koiunturala (EIK) (2015eko oinarria).

Era berean, Eraikuntzaren Koiuntura Indizeak erakusten du sektoreko produkzioa % 8,2 hazi zela 2025ean, 2024an izandako % 3,4ko hazkundearen aldean; landunen indizeak, berriz, % 1,4ko hobekuntza erakusten du, eta aurreko ekitaldian izandako bilakaera negatiboa (-% 2,0) iraultzea lortu zuen.

Hiruhilekoz hiruhileko bilakaeraren xehetasunak erakusten du produkzioak emaitza hobeak izan zituela bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, % 10,4ko eta % 11,1eko hazkundeekin, hurrenez hurren; urtearen hasieran eta amaieran, berriz, bilakaera apalagoa izan zen (+% 5,2 eta +% 6,0, hurrenez hurren). Enpleguak, berriz, goranzko bilakaera izan zuen, eta tasak hiruhilekoz hiruhileko hobetu ziren, azken hiruhilekoan izan ezik; orduan ere gora egin zuen, baina neurri txikiagoan.

Lurraldeka, Arabak eta Gipuzkoak urteko hazkunde bera izan zuten (+% 8,5), eta Bizkaiak emaitza zertxobait apalagoa izan zuen (+% 7,9). Jarduera-adarren arabera, etxegintzak bilakaera hobea izan zuen, % 9,6 egin baitzuen gora, ingeniaritza zibilaren % 5,1eko hazkundearen aldean. Bi jarduerek tasa positiboei eutsi zieten ekitaldi osoan; etxegintzak urteko erdiko hilabeteetan izan zuen bilakaerarik onena, eta ingeniaritza zibilak, berriz, urteko bigarren erdian indartu zuen hazkundea.

108. koadroa. Administrazio zentralaren, autonomikoaren eta tokikoaren arteko lizitazio ofizialaren banaketa (2024-2025)

(M euro)

Eremua	2024				2025			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	7,7	81,3	125,4	214,5	35,3	242,0	205,9	483,2
Bizkaia	184,1	355,7	935,0	1.474,8	53,9	462,4	932,4	1.448,6
Gipuzkoa	47,7	318,0	347,3	712,9	43,6	260,4	440,9	745,0
EAE*	239,5	755,0	1.407,7	2.402,3	132,8	964,7	1.579,2	2.676,8
Nafarroa	64,9	230,6	159,0	454,4	10,6	244,4	263,5	518,5
Euskal Herria	304,4	985,6	1.566,7	2.856,7	143,4	1.209,1	1.842,7	3.195,3
Espainia	8.706,1	8.628,5	12.001,2	29.335,8	9.550,1	10.136,5	13.456,6	33.143,2

(*): EAEri esleitutako guztizkora arteko aldea partida "ez erregionalizagarriei" dagokie.

Iturria: Seopan (behin-behineko datuak).

Lizitazio ofizialaren bilakaera aztertuta, EAEn 2.676,8 milioi eurora iritsi zen 2025ean, 2024an baino % 11,4 gehiago. Lurraldeka, Bizkaiak izan zuen zuzkidurarik handiena (1.448,6 milioi euro); ondoren, Gipuzkoa (745,0 milioi) eta, azkenik, Araba (483,2 milioi) kokatu ziren. Testuinguru horretan, Arabaren dinamismo handia nabarmendu zen (+% 125,3); Gipuzkoako lizitazioak bilakaera apalagoa izan zuen (+% 4,5), eta Bizkaikoak, berriz, zertxobait behera egin zuen (-% 1,8). Nafarroan, berriz, zuzkidura 518,5 milioi eurora iritsi zen, urte arteko % 14,1eko hazkundea izan ondoren. Hala ere, Euskal Herri osoan lizitatutako bolumena 3.195,3 milioi eurora igo zen (+% 11,9); Estatuan ere ekitaldia goranzko joerarekin itxi zen, 33.143,2 milioi euro lizitatu baitziren, 2024an baino % 13 gehiago.

109. koadroa. Lizitazio ofizialaren urtetik urterako aldakuntza eta administrazioen arteko banaketa (2025)

Eremua	%				% Δ 25/24			
	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira	Zentrala	Autonomikoa	Tokikoa	Guztira
Araba	7,3	50,1	42,6	100,0	357,0	197,5	64,1	125,3
Bizkaia	3,7	31,9	64,4	100,0	-70,7	30,0	-0,3	-1,8
Gipuzkoa	5,9	35,0	59,2	100,0	-8,4	-18,1	27,0	4,5
EAE	5,0	36,0	59,0	100,0	-44,5	27,8	12,2	11,4
Nafarroa	2,0	47,1	50,8	100,0	-83,7	6,0	65,7	14,1
Euskal Herria	4,5	37,8	57,7	100,0	-52,9	22,7	17,6	11,9
Espainia	28,8	30,6	40,6	100,0	9,7	17,5	12,1	13,0

Iturria: Seopan (behin-behineko datuak).

Organo lizitatzaile motaren araberako zuzkiduraren banaketak agerian uzten du EAEn Toki Administrazioaren lizitazioa izan zela nagusi, guztizkoaren % 59rekin; ondoren, Administrazio Autonomikoa (% 36,0) eta Administrazio Zentrala (% 5,0) kokatu ziren. Nafarroan, lizitazioaren panorama oso antzekoa izan zen: Toki Administrazioak izan zuen inbertsiorik handiena (% 50,8), oso hurbil Administrazio Autonomikoa zuela (% 47,1), eta Administrazio Zentralaren pisua askoz txikiagoa izan zen (% 2). Estatuan, berriz, Toki

LABORAL kutxa

Administrazioak izan zuen ekarpenik handiena (% 40,6), baina Administrazio Autonomikoaren (% 30,6) eta Zentralaren (% 28,8) partaidetzak nahiko orekatuak izan ziren.

Lizitazioaren bilakaerari erreparatuta, 2025ean portaera nahiko desberdinak izan ziren lurraldeen arabera. Arabak izan zuen dinamismorik handiena (+% 125,3), eta hiru administrazio-mailek lagundu zuten horretan; bereziki handiak izan ziren Administrazio Autonomikoaren (+% 197,5) eta Zentralaren (+% 357,0) gorakadak. Bizkaiak, aldiz, zertxobait murriztu zuen lizitatutako bolumena (-% 1,8), Administrazio Zentralaren lizitazioak izandako uzkurdura handiaren ondorioz (-% 70,7); Administrazio Autonomikoaren lizitazioaren hazkundeak (+% 30,0) ezin izan zuen beherakada hori konpentsatu, Toki Administrazioaren ekarpena ia aldatu ez zen testuinguruan (-% 0,3). Gipuzkoan, berriz, inbertsioak hazkunde apala izan zuen (+% 4,5), Toki Administrazioaren bilakaerari esker (+% 27,0); izan ere, Administrazio Zentralaren (-% 8,4) eta, batez ere, Autonomikoaren (-% 18,1) partidak murriztu egin ziren.

Nafarroari dagokionez, zuzkiduretan aldeko balantzea izanik (+% 14,1), dinamismorik handiena Toki Administrazioak izan zuen, 2024an lizitatutako bolumena bikoiztu baino gehiago egin baitzuen (+% 65,7); ondoren, Administrazio Autonomikoa kokatu zen, hark ere gora egin baitzuen, askoz erritmo apalagoan bada ere (+% 6,0). Administrazio Zentralak, berriz, nabarmen murriztu zuen Nafarroako inbertsioa (-% 83,7).

Hala ere, Estatuan baino ez ziren handitu hiru administrazio-mailetako zuzkidurak. Zehazki, Administrazio Autonomikoaren inbertsioa % 17,5 handitu zen, Toki Administrazioarena % 12,1 eta Administrazio Zentralarena % 9,7; horren ondorioz, lizitazio ofizialak % 13,0ko gorakadarekin itxi zuen 2025a.

110. koadroa. Lizitazio ofiziala obra motaren arabera (2025)

	Etxegintza			Obra zibila		
Obra mota	M euro 2025	% Δ 25/24	Guztizkoarekiko pisua % 2025	M euro 2025	% Δ 25/24	Guztizkoarekiko pisua % 2025
Araba	231,5	67,7	47,9	251,7	229,3	52,1
Bizkaia	313,5	-37,9	21,6	1.135,1	17,0	78,4
Gipuzkoa	307,6	-4,4	41,3	437,4	11,8	58,7
EAE	852,6	-11,6	31,9	1.824,2	26,9	68,1
Nafarroa	219,3	1,7	42,3	299,2	25,3	57,7
Euskal Herria	1.071,9	-9,2	33,5	2.123,4	26,7	66,5
Espainia	14.125,7	14,7	42,6	19.017,5	11,7	57,4


(*): EAEri esleitutako guztizkora arteko aldea partida "ez erregionalizagarriei" dagokie.
Iturria: Seopan (behin-behineko datuak).

Obra motari erreparatuta, 2025ean, aztertutako lurralde guztietan lizitazio ofiziala, neurri handiagoan edo txikiagoan, Obra Zibilera lerratuta zegoen, ekitaldian haren zuzkidurak

kasu guztietan gora egin ondoren. Joera hori bereziki nabarmena zen Bizkaian: Obra Zibilak inbertsioaren zatirik handiena hartu zuen (guztizkoaren % 78,4), eta % 17,0 egin zuen gora; etxegintzaren zuzkidurak, berriz, % 37,9 egin zuen behera. Eredu bera errepikatu zen Gipuzkoan: Obra Zibileko lizitazioak % 11,8 egin zuen gora, eta Etxegintzakoak, berriz, behera (-% 4,4); azken horrek partaidetza txikiagoa izan zuen (% 41,3). Araban, ordea, Etxegintzak hazkunde nabarmena izan zuen (+% 67,7), eta joera hori are handiagoa izan zen Obra Zibilean (+% 229,3); horren ondorioz, zuzkiduraren banaketa orekatuagoa izan zen (% 47,9 eta % 52,1, hurrenez hurren).

Nafarroan, Obra Zibilak ere gora egin zuen (+% 25,3), eta zuzkiduraren % 57,7 hartu zuen; Etxegintzari zegokion zuzkidura, berriz, ia ez zen aldatu (+% 1,7). Estatuan, lizitazioaren banaketa Nafarroakoaren oso antzekoa izan zen: Obra Zibilak % 57,4ko pisu erlatiboa izan zuen, eta Etxegintzak % 42,6koa; gainera, bi partidek bilakaera homogeneoagoa izan zuten (+% 14,7 Etxegintzan eta +% 11,7 Obra Zibilean).

18. grafikoa. Lizitazio ofizialaren bilakaera (2015=100)



Iturria: Seopan

Denbora-ikuspegi zabalago batetik, ikusten da lizitazio ofizialak joera nahiko aldakorra izan zuela; hala ere, aztertutako hiru lurraldeetan inbertsioaren gorakadarekin amaitu zen aldia. Hala, pandemiaren ondoren hasitako susperraldiaren ostean, EAEk eta Estatu osoak inbertsioaren uzkurdura izan zuten 2023an, eta, ondoren, goranzko joera berri bati ekin zioten. Nafarroak ere eredu horri jarraitu zion, baina urtebeteko aldearekin: haren kasuan, 2024ko ekitaldiak eten zuen 2021az geroztik izandako etengabeko hazkunde-bidea.

10.2 ETXEBIZITZA

Etxegintzak sektoreko jardueraren funtsezko elementua izaten jarraitzen du; gainera, azken urteetan ondasun urria bihurtu da, eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka handiaren ondorioz. Hala ere, hainbat faktorek oztopatu dute, eta oztopatzen jarraitzen

LABORAL kutxa

dute, haren garapena; besteak beste, eraikitzeko prest dagoen lurzoruaren eskasia, gehiegizko burokrazia, lehengaien kostua eta eskulanaren falta.

Hori horrela, etxebizitza berrien eraikuntzaren bilakaerari epe luzeko ikuspegitik erreparatuta, argi ikusten da etxebizitzaren krisiak egiturazko izaera duela. Nafarroan, 2024-2025 aldian, hasitako etxebizitzen kopurua 2.538 unitatera iritsi zen, 2005-2007 aldian kudeatutako bolumenetatik oso urrun, orduan 8.000 etxebizitzatik gora izan baitziren. Estatu osoan, azkenaldiko bilakaera hobea izan bazen ere, 2024-2025 aldian 136.759 etxebizitza hasi ziren, 2005-2007 aldian erregistratutako 699.118etatik oso urrun. EAEn ere antzeko emaitza ikusten da: 2005-2007 aldian hasitako etxebizitzen kopurua 2021-2023 aldian erregistratutakoa baino hiru aldiz handiagoa izan zen.

111. koadroa. Eraikitzen hasitako etxebizitzak (libreak eta babestuak); batez bestekoa aldiaren arabera*

(etxebizitza kopurua)

Eremua	2002-2004	2005-2007	2008	2009-2011	2012-2014	2015-2017	2018-2019	2020	2021-2023	2024-2025
EAE	16.791	16.245	11.842	7.689	4.231	4.163	6.560	4.488	5.408	daturik ez
Nafarroa	8.509	8.352	6.029	3.443	1.147	2.039	3.194	2.566	2.662	2.538
Espainia	620.888	699.118	328.490	123.047	41.825	65.804	105.974	87.907	111.552	136.759

Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

2025eko emaitzak aztertuta, eta EAEko datuetatik hasita —etxebizitza libreen segmentua baino ez dute jasotzen—, hasitako etxebizitzen kopuruak behera egin zuen, 3.423tik 3.073ra; Bizkaiak (-% 10,3) eta Gipuzkoak (-% 34,9) lagundu zuten beherakada horretan, baina ez Arabak, han gorakada nabarmena izan baitzen (+% 56,2). Aitzitik, amaitutako etxebizitza libreen kopuruak nabarmen egin zuen gora, 2.701etik 3.053ra, Gipuzkoaren bilakaerari (+% 77,7) eta Bizkaiaren gorakada txikiari (+% 1,2) esker; Araban, berriz, beherakada nabarmena izan zen (-% 33,4).

112. koadroa. Hasitako eta amaitutako etxebizitzak*

(etxebizitza kopurua)

Eremua	Kontzeptua	Hasitako etxebizitzak			Amaitutako etxebizitzak		
		2023	2024	2025	2023	2024	2025
Araba	Babestuak	576	917	daturik ez	292	509	daturik ez
	Libreak	393	363	567	405	521	347
Bizkaia	Babestuak	775	701	daturik ez	398	758	daturik ez
	Libreak	1.891	2.087	1.873	1.014	1.522	1.541
Gipuzkoa	Babestuak	627	492	daturik ez	324	689	daturik ez
	Libreak	1.459	973	633	1.248	658	1.165
EAE	Babestuak	1.978	2.110	daturik ez	1.014	1.956	daturik ez
	Libreak	3.743	3.423	3.073	2.667	2.701	3.053
Nafarroa	Babestuak	728	446	630	446	277	277
	Libreak	1.630	2.235	1.747	2.375	1.610	1.738
	Babestuak	2.706	2.556	daturik ez	1.460	2.233	daturik ez
	Libreak	5.373	5.658	4.820	5.042	4.311	4.791
Espainia	Babestuak	12.304	23.967	15.503	8.847	14.371	11.104
	Libreak	98.040	112.220	121.827	80.473	86.609	80.792

(*): Ez dago EAEko etxebizitza babestuari buruzko datu osorik. Eskuragarri dauden datuak 2025eko 3. hiruhilekora artekoak dira; beraz, ezin da urte arteko alderaketarik egin.

Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua.


Nafarroari dagokionez, 2025ean 2.377 etxebizitza hasi ziren, 2024an baino % 11,3 gutxiago; amaitutako etxebizitzak, berriz, 2.015 izan ziren, % 6,8 gehiago. Nafarroan hasitako etxebizitzen beherakada etxebizitza libreen bilakaeraren ondorio izan zen; 2.235 unitatetik 1.747ra jaitsi ziren (-% 21,8), eta, doikuntza hori gorabehera, segmentu nagusia izaten jarraitu zuten (% 73,5). Aitzitik, etxebizitza babestuek gora egin zuten, 446 unitatetik 630era (+% 41,3), eta haien pisua % 26,5era igo zen. Amaitutako etxebizitzei dagokienez, guztizkoa 2.015 unitatera heldu zen, % 7,1eko hazkundea izan ondoren. Hobekuntza hori segmentu librearen bilakaeraren ondorio izan zen (+% 8,3); segmentu horrek amaitutako etxebizitzen guztizkoaren % 86,3 hartu zuen (1.738), eta etxebizitza babestuek, berriz, ez zuten inolako aldaketarik izan (277).

Emaitza hori ez dator bat Estatu osoan izandakoarekin; izan ere, hasitako etxebizitzen kopurua ia bere horretan mantendu zen (137.330, +% 0,8), eta amaitutako etxebizitzen kopuruak, berriz, behera egin zuen (91.896, -% 9). Hasitako etxebizitzei dagokienez, etxebizitza libreak —jardueraren zatirik handiena hartu zuten (% 88,7)— izan ziren gora egin zuten bakarrak (+% 8,6); etxebizitza babestuek, berriz, nabarmen egin zuten behera (-% 35,3). Amaitutako etxebizitzei dagokienez, bai segmentu babestuak (-% 22,7), bai libreak (-% 6,7) beren balioak murriztu zituzten; hala ere, etxebizitza libreen pisua askoz handiagoa izan zen (% 87,9).

LABORAL kutxa

19. grafikoa. Hasitako etxebizitza kopurua

(2015 oinarria = 100)



(*): 2025eko maiatzeko behin-behineko datuak. Ez dago EAEko etxebizitza babestuari buruzko 2025eko daturik.
Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eusko Jaurlaritza. Sustapen eta Etxebizitza Saila. Nafarroako Gobernua.

Gainera, azken hamarkadan hasitako etxebizitzen bilakaerak erakusten du emaitzak desberdinak izan direla lurraldeen arabera. Hala, Estatuak azken urteetan goranzko joerari eutsi dion bitartean, Nafarroak eta EAEk bilakaera zertxobait apalagoa izan dute. Hala ere, susperraldia pixkanaka sendotzen ari da, nahiz eta etxebizitza berriak merkatuan sartzeko erritmoa aurreko mailetatik urrun egon eta eskariaren beharretatik behera jarraitu.

113. koadroa. Higiezinen transakzioen batez besteko balioa (etxebizitza librea)

(euro)

Eremua	Batez besteko balioa (eurotan)					% Δ 25/24	Oinarria Espainia=100	
	2019	2022	2023	2024	2025		2024	2025
Araba	171.714	192.956	208.340	211.518	226.968	7,3	109	108
Bizkaia	208.577	225.611	219.742	232.280	258.185	11,2	120	123
Gipuzkoa	239.015	263.246	267.648	280.213	297.384	6,1	145	141
EAE	214.032	232.992	234.006	244.518	266.621	9,0	126	127
Nafarroa	155.709	173.579	183.256	186.524	201.279	7,9	96	96
Espainia	158.013	182.417	180.764	193.666	210.630	8,8	100	100

(*): 2025eko maiatzeko behin-behineko datuak. Etxebizitza librea, berria edo bigarren eskukoa.
Iturria: Sustapen Ministerioa. Espainiako Gobernua.

Etxebizitza-merkatuari dagokionez, etxebizitza libreen transakzioen batez besteko balioak berriro egin zuen gora aztertutako eremu geografiko guztietan. EAEn, balio hori 266.621 eurora iritsi zen 2025ean, 2024an baino % 9,0 gehiago eta Estatuko batez bestekoa baino % 27 handiagoa. Gipuzkoak izan zuen baliorik handiena (297.384 euro); Bizkaiak, berriz, urte arteko hazkunderik handiena izan zuen (+% 11,2), eta haren balioa ere Estatuko adierazlearen oso gainetik egon zen (123). Arabak % 7,3 egin zuen gora, eta Estatuko batez bestekoaren zertxobait gainetik mantendu zen (108); Nafarroak, berriz,

antzeko hazkundea izan zuen (+% 7,9), baina Estatu osoko balioaren azpitik kokatu zen (96).

10.3 ENPLEGUA ETA ERAIKUNTZAREN KOSTUAK

Sektorearen azterketa lehengaien kostuen eta enpleguaren bilakaerarekin osatzen da; bi aldagai horiek funtsezkoak dira bai obrak gauzatzeko ahalmenari, bai eraikuntza-jarduerari lotutako marjinei dagokienez. Hala, 2025ean materialen kostuek etengabeko goranzko joerari eutsi zioten, nahiz eta produktu-taldeen arabera alde nabarmenak egon; enpleguak, berriz, susperraldia erakutsi zuen.

114. koadroa. Eraikuntzako kostuen eta lehengaien bilakaera

Indizeak	Guztira	Etxegintza	Obra zibila	Material-multzoak				
				1. taldea	2. taldea	3. taldea	4. taldea	5. taldea
2024	116,0	115,8	117,2	132,5	117,7	114,6	112,1	117,5
2025	118,7	118,5	119,8	135,9	118,7	114,7	113,8	120,1
Ehuneko aldea	2,7	2,7	2,6	3,4	1,0	0,1	1,7	2,6

1. taldea: agregatuak, zementua, karea, hormigoia, morteroa, zeramika, aurrefabrikatuak, igeltsua eta igeltsutik eratorritakoak

2. taldea: altzairua, egurra, sintetikoak, asfaltikoak, kautxua, beira laua, beira barnehutsa, egur-arotzeria, metal-arotzeria, burdineria

3. taldea: balbulak eta txorrotak, erradiadoreak eta galdarak, klimatizazioa eta aireztapena, etxetresna elektrikoak, elektrikoak ez diren etxetresnak, gailu eta osagarri elektrikoak, kable elektrikoak

4. taldea: beira-zuntza, zuntz optikoa, argiztapenerako gailuak, su-itzalgailu eta maukak, detektagailu eta alarmak, igogailuak, atezainak eta antenak, megafonia, elektronika, lehergailuak

5. taldea: pinturak, berniz eta masillak, lauza zeramikoak, harri apaingarria, sukaldeko eta bainugelako altzariak, kobrezko hodiak, plastikozko hodiak, zuntz-zementuzko hodiak, zeramikazko komun-ontziak

Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2021eko urtarrila).

Hala, indize osoa 2,7 puntu igo zen, eta bilakaera ia berdina izan zen Etxegintzan (ehuneko +2,7 puntu) eta Obra Zibilean (ehuneko +2,6 puntu). Material-taldeen arabera, 1. taldeak izan zuen hazkunderik handiena (ehuneko +3,4 puntu); talde horretan agregatuak, zementua, hormigoia eta oinarrizko beste material batzuk sartzen dira. Ondoren, 5. taldea kokatu zen (ehuneko +2,6 puntu), besteak beste pinturak, baldosak, hodiak eta aparatu sanitarioak biltzen dituena.

Goranzko joeran, baina neurri txikiagoan, 4. taldea (ehuneko +1,7 puntu) kokatu zen —argiztapen-aparatuak, beira-zuntza, zuntz optikoa, igogailuak, atezain automatikoak, antenak eta abar biltzen ditu—, baita 2. taldea ere (ehuneko +1,0 puntu), altzairua, zura, kautxua, beira, material asfaltikoak eta sintetikoak, besteak beste, barne hartzen dituena.

Azkenik, 3. taldeak —etxetresna elektrikoak, aparatu eta kable elektrikoak, erradiadoreak, klimatizazioa, balbulak, txorrotak eta abar biltzen ditu— ia ez zuen gora egin (ehuneko +0,1 puntu), eta, beraz, kostuen presioa askoz apalagoa izan zen.

LABORAL kutxa

Informazioa organismo lizitatzailearen arabera banatuz gero, bilakaera-eredu oso desberdinak ikus daitezke.

1. taldean, kostuen gorakada izan zen joera nagusia, hormigoia (+% 5,1), igeltsuaren deribatuak (+% 4,4) eta agregatuak (+% 4,3) buru zirela; zeramika izan zen behera egin zuen partida bakarra (-% 0,8).

2. taldean, beira zapalaren prezioaren gorakada nabarmendu zen (+% 12,1), eta kontraste handia egin zuen beira barnehutsaren eta altzairuaren beherakadarekin (-% 3,1 bi kasuetan). Kautxuaren eta burdineriaren kostuek ere gora egin zuten, baina neurri apalagoan (+% 2 inguru); gainerako materialen bilakaera, berriz, nahiko laua izan zen.

3. taldean, etxetresna elektrikoak izan ziren prezioetan beherakada izan zuten bakarrak; klimatizazioak eta aireztapenak (+% 2,5) eta kable elektrikoek (+% 2,0), berriz, kontrako bilakaera izan zuten, eta gainerakoek 2024koen antzeko balioei eutsi zieten.

4. taldean, lehergailuak nabarmendu ziren, prezioa nabarmen igo baitzen (+% 9,8); ondoren, igogailuak (+% 3,0), zuntz optikoa (+% 2,0) eta elektronika (+% 1,5) kokatu ziren. Detektagailuak eta alarmak izan ziren beherakada argia izan zuten bakarrak (-% 3,8). Gainerako materialen prezioak nahiko egonkor mantendu ziren.

Azkenik, 5. taldean, zeramikazko komun-ontziek izan zuten prezio-igoerarik handiena (+% 8,5); ondoren, alde nabarmenarekin, harri apaingarria (+% 2,9), kobrezko hodiak (+% 2,7), zuntz-zementuzko hodiak (+% 2,3) eta sukaldeko eta bainugelako altzariak (+% 1,4) kokatu ziren. Aitzitik, zeramikazko baldosak izan ziren beherakada izan zuten bakarrak; hori bai, beherakada oso txikia izan zen (-% 0,8).

115. koadroa. Eraikuntzako lehengaien-materialen prezioen urte arteko hazkundea (2025/2024), taldearen arabera

Δ %

1. taldea		2. taldea		3. taldea	
Agregatuak	4,3	Altzairua	-3,1	Balbulak eta txorrotak	0,9
Zementua	1,8	Egurra	0,3	Erradiadoreak eta galdarak	0,0
Karea	1,5	Sintetikoak	0,0	Klimatizazioa eta aireztapena	2,5
Hormigoia	5,1	Asfaltikoak	-0,1	Etxetresna elektrikoak	-1,0
Morteroa	2,8	Kautxua	2,0	Etxetresna ez elektrikoak	-4,0
Zeramika	-0,8	Beira zapala	12,1	Gailu eta osagarri elektrikoak	0,2
Aurrefabrikatuak	2,3	Beira barnehutsa	-3,1	Kable elektrikoak	2,0
Igeltsua	1,5	Egur-arotzeria	0,3		
Igeltsutik eratorritakoak	4,4	Metal-arotzeria	-0,4		
		Burdineria	2,2		

4. taldea		5. taldea	
Beira-zuntza	-0,1	Pinturak, bernizak eta beste batzuk	0,1
Zuntz optikoa	2,0	Lauza zeramikoak	-0,8
Argiztapenerako gailuak	0,8	Harri apaingarria	2,9
Su-itzalgailuak-mahukak	0,0	Sukaldeko eta bainugelako altzariak	1,4
Detektagailuak eta alarmak	-3,8	Kobrezko hodiak	2,7
Atezainak, antenak eta megafonia	0,5	Plastikozko hodiak	0,0
Igogailuak	3,0	Zuntz-zementuzko hodiak	2,3
Elektronika	1,5	Zeramikazko komun-ontziak	8,5
Lehergailuak	9,8		

Iturria: EIN, Eraikuntzako prezioen eta askotariko materialen indizea (oinarria 100=2021eko urtarrila).

Aurrekoarekin lotuta, garrantzitsua da azpimarratzea 2026ko otsailean Ormuzko itsasarteko gatazka hasi ondoren SEOPANek premiazko neurriak eskatu dituela, gatazkaren inflazio-eragin larriak Obra Zibilaren exekuzioan dituen ondorioengatik. Zehazki, energiaren, lehengaien eta eraikuntzako oinarrizko materialen prezioak neurriz kanpo igotzen ari dira, eta, gainera, hori Estatuko kontratazio publikoaren unerik gorenenetako batekin bat dator.

Era berean, 2025ean enpleguak bilakaera positiboa izan zuen: EAEn 59.536 pertsona zeuden eraikuntza-sektorean lanean, 2024an baino % 1,9 gehiago, eta Nafarroan 19.272, % 4,3 gehiago. Estatua tarteko posizioan kokatu zen: 1.448.327 pertsona zeuden eraikuntza-sektorean lanean, eta kopuruak % 3,1 egin zuen gora. Lurralde Historikoen arabera, Bizkaiak izan zuen enplegu-bolumenik handiena (33.414 pertsona), baita hazkunde erlatiborik handiena ere (+% 2,6); ondoren, Gipuzkoa (+% 1,2) eta Araba (+% 1,0) kokatu ziren.

LABORAL kutxa


116. koadroa. Eraikuntzan lanean ari den biztanleria

Eremua	2023	2024	2025	% Δ 25/24
Araba	7.622	7.691	7.770	1,0
Bizkaia	32.304	32.581	33.414	2,6
Gipuzkoa	18.394	18.129	18.353	1,2
EAE	58.320	58.401	59.536	1,9
Nafarroa	18.278	18.471	19.272	4,3
Euskal Herria	76.598	76.872	78.808	2,5
Espainia	1.379.296	1.404.150	1.448.327	3,1

Iturria: Afiliazioa (hileko batezbestekoa) Gizarte Segurantza.

20. grafikoa. Eraikuntzan lanean ari den biztanleria

(2015 oinarria = 100)



Iturria: Abenduaren 31ko afiliazioa. Gizarte Segurantza.

Azken hamarkadako bilakaerak berresten du sektoreko enpleguaren susperraldiak jarraitu egin duela, nahiz eta intentsitatea desberdina izan lurraldeen arabera. Estatuak izan du bilakaerarik dinamikoena; ondoren, Nafarroa kokatu da, eta EAEk, berriz, erritmo zertxobait apalagoan egin du aurrera. Hala, 2025ean hiru eremu geografikoetan enpleguak izandako hobekuntza bat dator sektorearen bilakaerarekin, haren adierazle nagusiek ere hobera egin baitzuten

Azkenik, eraikuntza-kostuen indizeari dagokionez, EAEn urte arteko % 3,3ko hazkundea izan zen, aurreko urteko % 0,9aren aldean; Etxegintzak (+% 3,2) eta Obra Zibilak (+% 3,3) ia hazkunde bera izan zuten. Hala ere, bilakaerarik nabarmenena lehengaiek izan zuten: haien prezioa 2024an % 0,7 jaitsi zen, eta 2025ean, berriz, % 3,8 hazi; bilakaera bera izan zen Etxegintzan zein Obra Zibilean. Eskulanaren kostuak, berriz, hazkundea moteldu zuen (+% 1,7), eta 2024an izandako % 5,4ko gorakadatik urrundu zen.

117. koadroa. Eraikuntzako kostuen indizearen bilakaera (EAE)

	Indizea			% Δ		
	2023ko abe.	2024ko abe.	2025eko abe.	2023ko abe. / 2022ko abe.	2024ko abe. / 2023ko abe.	2025eko abe. / 2024ko abe.
Kostuak, guztira	116,8	117,9	121,7	4,1	0,9	3,3
- Etxegintzako kostuak	116,6	117,7	121,5	3,9	0,9	3,2
- Obra zibileko kostuak	118,0	118,8	122,7	4,8	0,7	3,3
Lehengaien prezioa guztira	119,2	118,4	122,9	3,9	-0,7	3,8
-Etxegintzako lehengaien prezioa	118,9	118,1	122,7	3,7	-0,6	3,8
-Obra zibileko lehengaien prezioa	120,5	119,6	124,1	5,0	-0,8	3,8
Esku-lanaren kostua	110,4	116,4	118,3	4,4	5,4	1,7

Iturria: EUSTAT, Eraikuntzako kostuen indizea (oinarria 100=2015eko urtarrila).

Laburbilduz, eraikuntzak produkzio-jardueraren eta lizitazio ofizialaren hazkundearekin itxi zuen 2025a, eta enpleguak ere hobera egin zuen. Hala ere, sektoreak materialen kostuen presio handia du, eta Ormuzko gatazka presio hori areagotzen hasi da dagoeneko. Era berean, etxebizitza berrien eraikuntzak lurraldeen arabera bilakaera desberdina izan bazuen ere, gaur egungo arazo ekonomiko eta sozial handiak bere horretan jarraitzen du: etxebizitzen eskaintza urria da, eta etxebizitza eskuratzea zaila.

LABORAL kutxa

11. SEKTOREEN ANALISI EKONOMIKOA ETA FINANTZARIOA

11.1 SARRERA

Kapitulu honetan Euskal Herriko industria-sektoreak aztertuko ditugu, analisi finantzariorako erabili ohi diren bi tresnaren bidez: ratio bidezko analisia eta funtsen iturrien eta erabileren egoera. Horretarako, sektore bakoitzeko kontabilitate-egoerari buruzko informazioa –balantzeak eta emaitzen kontuak– bildu dugu.

Sarreraz gain, kapitulu honek hiru atal nagusi ditu. Lehenengo atala metodologikoa da. Oinarri gisa erabilitako informazioa zehazten du, eta analisirako bi tresnak aplikatzeko erabilitako irizpideak azaltzen ditu. Bigarren atalean, ratioen piramidearen aplikazioa azaltzen da, eta, hirugarrenean, funtsen iturrien eta erabileren egoera. Hala, Euskal Herriko industria-sektoreen azterketa ekonomiko-finantzarioa egingo dugu; sektoreen arteko alderaketa egingo dugu, baita Estatuko egoerarekiko alderaketa ere. Horretarako, piramideko ratio nagusiak eta batez besteko inbertsio-diruzaintzak (cash-flow libreak) hartuko ditugu kontuan. Dena den, sektore bakoitzaren ratioen piramideak eta funtsen iturrien eta erabileren egoerak ere gehituko ditugu, bai Euskal Herrikoak, bai Estatu osokoak.

11.2 METODOLOGIA

Datu-bankua

Piramidea egiteko, kontabilitate-egoerari buruzko oinarrizko datuak behar dira: aztertu beharreko sektore bakoitzaren balantzeak eta emaitzen kontuak. Horretarako, Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak galdetegi bidez jasotako informazioa hartu dugu oinarritzat, tratatu beharreko informazioa homogeneoa izan zedin. Galdetegi horiek enpresa kolaboratzaileek erantzun dituzte, bai Euskal Herrikoek (eskaera zehatza egin zaie egoitza soziala EAEn edo Nafarroan duten enpresei), bai Estatu osokoek (Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentralak egindako urteroko txostenetako informazioa erabili dugu).

Kontuan izan behar da Balantzeen Zentralaren azken informazio-basea t-2 urtekoa dela (gainera, datu-base bakoitzak dagokion urteko eta aurreko urteko informazioa izaten du). Ondorioz, oinarritzat hartu dugun informazioak urtebeteko atzerapena du txosten honi dagokion urtearekiko. Zehazki, txosten hau egiteko erabilgarri dagoen azken basea 2024koa da, eta 2023ari eta 2024ari dagokien informazioa eskaintzen du.
Industria-jardueraren sektorekako banaketari dagokionez, Balantzeen Zentralaren CB-52 sailkapen berria erabili dugu industria-sektoreen informazio-eskaera egiteko. Sailkapen hori, bestalde, 2009ko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2009) kontuan

hartuta eguneratu dute. Sailkapen horrek honako sektore hauek bereizten ditu (19 sektore):

- Elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak
- Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza
- Zuraren eta kortxoaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza izan ezik
- Papergintza
- Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa
- Koke-fabrikak eta petrolio-finketa
- Industria kimikoa
- Farmazia-produktuen fabrikazioa
- Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa
- Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa
- Metalurgia; burdinazko eta altzairuzko produktuen eta ferroaleazioen fabrikazioa
- Produktu metalikoen fabrikazioa, makineriarena eta ekipoena izan ezik
- Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
- Material eta ekipo elektrikoen fabrikazioa
- Beste ezein lekutan sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa
- Ibilgailu motordunen, atoien eta erdi-atoien fabrikazioa
- Bestelako garraio-materialen fabrikazioa
- Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura-industria batzuk
- Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa

Euskal Herriari dagokionez, 2024ko datu-basean aipatutako 19 sektore horietatik 17 sektoreren inguruko informazioa dago eskuragarri. Honako sektore hauen inguruko informazioa ez dago eskuragarri: ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; koke-fabrikak eta petrolio-finketa. Sektore horietan 5 enpresa kolaboratzaile baino gutxiago daudenez, datuak ez daude eskuragarri estatistika-sekretua dela-eta. 2023. urtean 16 sektoreri buruzko informazioa zegoen eskuragarri (ez zegoen honakoen gaineko daturik: Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza; Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa; Koke-fabrikak eta petrolio-finketa). Hala, dagokion urtean eskuragarri dauden sektoreak batuta kalkulatzen da industria-sektore osoaren guztizkoa (bai Euskal Herrian, bai Estatuan).

Azkenik, kontuan izan behar da enpresek beren borondatez ematen dituztela sektore bakoitzaren azterketa egiteko erabiltzen diren datuak. Hori dela eta, ezerk ez du bermatzen datu-baseak denboran zehar irautea, ezta egindako azterketak sektorean inferentziaren bat egiteko balio estatistikoa duenik ere.

LABORAL kutxa

Ratioen piramidea[1]

Abiapuntuko datuak: balantzea eta emaitzen kontua

Piramidea egiteko abiapuntuko informazio gisa, oinarrizko kontabilitate-egoerak erabili ditugu: emaitzen kontua eta balantzea. Informazio hori oso modu sinplean azaldu dugu. Izan ere, aztertutako sektoreen inguruko ikuspegi orokorra eskaintzea da helburua. Azterketa sakonagoa egin ahal izateko eta ondorio sakonagoa ateratzeko, gehiago xehatutako informazioa behar da, eta edukietan aberatsagoa.

Emaitzen kontuari dagokionez, honako taula honetan ageri den egitura erabiliko dugu:

+	Ustiapeneko ohiko diru-sarrerak	V
-	Kostu aldakor operatiboak, ordainketarekin	CV
-	Kostu finko operatiboak, ordainketarekin	CF
-	Amortizazioak (eta, oro har, ordainketarik gabeko kostu operatiboak)	AM
-	Interesak	I
±	Ezohiko emaitzak	RE
-	Sozietateen gaineko zerga	IS
=	Mozkin garbia	BN

Balantzearen pasiboari dagokionez, kostu esplizitua duten kanpoko funtsak eta ondare garbia bereiziko ditugu (2007 KPO kontabilitate-plan berriaren arabera). Aktiboari dagokionez, berriz, aktibo finkoa (aktibo ez-korrontea) eta aktibo zirkulatzaile garbia (aktibo korronte garbia) hartuko ditugu kontuan. Aktibo zirkulatzaile garbia kalkulatzeko, aktibo zirkulatzaileari kentzen zaizkio berezko pasiboak (negozioaren jardunak berak sortutako pasiboak, hala nola administrazioarekin amortizatzeko geratzen diren saldoak) eta kostu inplizitua duten pasiboak (hala nola hornitzaileekin amortizatzeko geratzen diren saldoak; saldo horien kostua ordainketa bizkorragatiko deskontu gisa kalkula liteke finantzaketari uko eginez gero). Honako taula honetan ikus daiteke hori guztia:

<table>
<tr><td rowspan="2">AKTIBO ZIRKULATZAILE GARBIA</td><td>EPE LABURREKO KANPOKO FUNTSAK KOSTU ESPLIZITUAREKIN</td></tr>
<tr><td rowspan="2">EPE LUZEKO KANPOKO FUNTSAK</td></tr>
<tr><td rowspan="2">AKTIBO FINKOA</td></tr>
<tr><td>ONDARE GARBIA</td></tr>
</table>

Proposatutako ratioen piramidea aurkeztu aurretik, kontzeptu interesgarri batzuk azalduko ditugu.

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (1999): "Algunas reflexiones y novedades acerca de la pirámide de ratios", *Boletín de Estudios Económicos*, 167. zenbakia, 1999ko abuztua; 329-359 orrialdeak.

Leverage operatiboa

Mozkin operatiboaren (finantza-kostuak eta zergak kontuan hartu gabe) eta "saldutako euro bakoitzeko marjina gordinaren" arteko erlazioa jasotzen du. Erabiliko den formulaziora iristeko, nomenklatura gehigarri batzuk behar dira:

MB = Marjina gordina. Ohiko diru-sarreren eta kostu aldakorren arteko diferentzia (amortizazioa kostu finkotzat hartuko dugu):

$$MB = V - CV$$

MBP = Saldutako euro bakoitzeko marjina gordina. Marjina gordinaren eta salmenten zifraren arteko zatidura. Saldutako euro bakoitzak uzten duen marjina adierazten du, kostu aldakorrak soilik ordaindu ondoren:

$$MBP = \frac{MB}{V}$$

BAII = Interesen eta zergen aurreko mozkina. Ohiko diru-sarreren eta kostu operatiboen (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) diferentzia konparatzearen emaitza da:

$$BAII = V - CV - CF - AM = MB - (CF + AM)$$

VPM = Itopuntuko salmentak. Kostu operatiboak (aldakorrak eta finkoak, ordainketarekin eta ordainketarik gabe) estaltzeko beharrezkoa den salmenta-zifra da, eta bat dator BAII = 0 egiten duen salmenta kantitatearekin. Kostu aldakorrak salmentekiko linealak direla pentsatuz gero (MBP salmenta-mailarekiko independentea izanik), honako hau dugu:

$$BAII = 0 = MB - (CF + AM)$$

$$MB = (CF + AM)$$

$$\frac{MB}{V} \cdot V = MBP \cdot V = (CF + AM)$$

$$V = VPM = \frac{CF + AM}{MBP}$$

Eta, era horretan, leverage operatiboaren formulaziora iritsiko ginateke:

$$BAII = MB - (CF + AM) = \frac{MB}{V} \cdot V - MBP \cdot VPM = MBP \cdot V - MBP \cdot VPM$$

$$BAII = MBP \cdot (V - VPM)$$

Hortaz, saldutako euro bakoitzeko marjina gordina handitzea lortzen bada (kostu finkoak konstante mantenduz), interesen eta zergen aurreko mozkina handitzea lortzen da (apalankamendu-efektua).

LABORAL kutxa

Leverage finantzarioa

Funts Propioetan inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasunaren, aktiboaren errendimenduaren, kanpoko funtsen kostuaren eta zorpetzearen arteko erlazioa neurtzen du. Formulazio matematikoa lortzeko, kontzeptu batzuk definitu behar dira:

t = Zerga-tasa

BAIdI = Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina.

$$BAIdI = BAI \cdot (1-t) = (V - CV - CF - AM) \cdot (1-t)$$

Bestalde, ekitaldian ezohiko emaitzarik ez dagoela aintzat hartuta[1], BAIdI-i zergen interes garbiak kenduz lortzen da mozkin garbia:

$$BN = BAIdI - I \cdot (1-t)$$

Jarraian, leverage finantzarioaren formulazioan agertuko diren hiru ratio definituko ditugu:

r = Errendimendu operatiboa. Aktiboan inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errentagarritasun garbia da, berau nola finantzatzen den kontuan hartu gabe. Kontuan hartu behar da aktiboaren zenbatekoa bat datorrela aktibo zirkulatzaile garbiaren eta aktibo finkoaren baturarekin:

$$r = \frac{BAIdI}{ACN + AF}$$

i = Kanpoko finantzaketaren kostu garbia, kostu esplizituarekin. Kanpoko funtsen hornitzaileek eskatutako errendimendua da, dagozkion interesen ordainketak sozietateen gaineko zergan eragiten duen zerga-aurrezkia kenduta:

$$i = \frac{I(1-t)}{FACP + FALP} = \frac{I(1-t)}{FA}$$ [2]

e = Ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko lortutako errendimendu ekonomikoa.

$$e = \frac{BN}{PN}$$

Aurrekoa abiapuntutzat hartuta, leverage finantzarioaren formulazioa osa daiteke. Hona hemen adierazpena:


$$e = r + (r-i)\frac{FACP + FALP}{PN} = r + (r-i)\frac{FA}{PN}$$

e = Errendimendu operatiboa + Leverage finantzarioa

[1] Aurrerago jorratuko dugu ezohiko emaitzek sorrarazten duten arazoa.

[2] FA izena erabiliko dugu FACP eta FALPen batura laburtzeko. Nolanahi ere, gogoratu FACPk kostu esplizitudun epe laburreko kanpoko funtsei egiten diela erreferentzia, eta ez epe laburreko kanpoko funts guztiei.

Ondorengo taulan, sektore bakoitzerako aplikazio praktikoan erabiliko dugun ratioen oinarrizko piramidea ikus daiteke.



Goi-erpinean, ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errentagarritasuna ageri da, eta aktiboaren errendimenduaren eta leverage finantzarioaren batura gisa deskonposatuta dago. Ondoren, batugai horiek nola osatzen diren azaltzen du adar bakoitzak. Ikus daitekeenez, aktiboa eta pasiboa, hots, inbertsioa eta finantzaketa bereizten ditu piramideak. Azken batean, "r" ratioak aktiboaren errendimendua neurtzen du, finantzatzeko modua edo finantza-egitura kontuan hartu gabe. Eskuineko adarrak, berriz, leverage finantzarioaren bidez finantzaketak ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko errendimenduari egiten dion ekarpena kalkulatzen du.


Beste kontu bat ere aipatu beharra dago: piramidearen analisian ezohiko emaitzak nola tratatuko ditugun. Normalean, emaitza horiek errepikatzen diren ala ez aztertzen da enpresetan aplikatutako analisian. Emaitzak errepikakorrak eta, beraz, aurreikusteko

modukoak badira, piramidearen "r" mailan txerta daitezke, aktiboaren errendimendu bakarra kalkulatuta edo bi kalkulatuta: ohiko errendimendua eta ezohiko errendimendua.

Dena den, emaitzak errepikakorrak diren ala ez zehazteko ezintasunaren aurrean, sektorekako azterketa egiteko garaian, atal honen amaieran jasotako irudian agertzen den soluzioa erabiliko dugu sektore bakoitzerako. Hau da, "e" mailan txertatuko ditugu, eta ondare garbian inbertitutako euro bakoitzeko hiru errentagarritasun mota bereiziko ditugu: ohikoa –e1–, berezko ezohikoa –e2– eta zerga-eraginari lotutako ezohikoa –e3–. Arrazoi sendo bat dugu azken adar hori erabiltzeko: zerga sektorialen (T) zifren agregatuak e1 ratioa distortsiona dezake. Sektorearen berezko negozioari lotutako errentagarritasuna jasotzen du e1 ratioak. Horregatik, % 28,5eko batez besteko zerga-tasa komuna ezarri diegu sektore guztiei, eta tasa horrekiko diferentziak e3 adarrera eraman ditugu.

Kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako ratioen piramideak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2023. eta 2024. urteei dagozkienak. Dena den, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, piramideko ratiorik garrantzitsuenak baino ez ditugu aukeratu hurrengo atalean azalduko dugun ekonomia- eta finantza-azterketa sektoriala egiteko.

Zehazki, ondare garbiaren errentagarritasun-ratioak (e) hautatu ditugu Euskal Herriko industria-sektoreen analisirako, ohikoak (e1) zein ezohikoak (e2 eta e3). Ondoren, ondare garbiaren ohiko errentagarritasunaren osagaien azterketa xehea egin dugu, hau da, aktibo garbiaren errentagarritasunarena (r, eta haren osagaiak: BAIdI/V eta V/(AF+ACN)) eta leverage finantzarioarena ((r-i) x (FA/PN) eta haren osagaiena: (r-i) eta FA/PN). Azkenik, Euskal Herriko eta Estatuko industria-sektoreen arteko alderaketa egiteko, ondare garbiaren ohiko errentagarritasuna (e1) eta horren osagaiak hartu ditugu kontuan: aktibo garbiaren errentagarritasuna (r) eta leverage finantzarioa ((r-i) x (FA/PN)).


e
e3
+
e1
+
e2
T(t=0,285)-T(t efektiboa)
÷
PN
REdI
÷
PN
RE
x
(1-t)
r
+
$(r-i)\frac{FA}{PN}$
$\frac{BAIdI}{V}$
x
$\frac{V}{AF+ACN}$
(r-i)
x
$\frac{FA}{PN}$
BAIdI
÷
V
÷
AF+ACN
r
-
i
FA
÷
PN
(I-t)
x
BAII
I(I-t)
÷
FA
V-VPM
x
MBP
I
x
(1-t)
V
-
VPM
CF+AM
÷
MBP
MB
÷
V
V
-
CV

Funtsen iturrien eta erabileren egoera[1]

Analisirako bigarren tresna alderdi finantzarioan oinarritzen da. Hau da, funtsen kutxa edo fluxuak hartzen ditu kontuan, ratioen piramideak ez bezala. Ratioen piramideak mozkinean oinarritutako azterketa ekonomikoa egiten du. Ondorengo taulan, funtsen iturri eta erabileren egoeraren aurkezpen orokorra ageri da. Ikus daitekeenez, funtsen iturri eta erabileren egoera hiru kontzepturen kalkuluan oinarrituta dago:

- TINV: t urteko Inbertsio Diruzaintza, sektoreko aktiboak liberatzen duen euro kopuruarekin bat datorrena –haren premiei erantzun ondoren, eta nola finantzatzen den kontuan hartu gabe–. "Free cash-flow" izen anglosaxoiaz ezagunagoa da. Erraz kalkulatzen da: ohiko eragiketetan (GFO) sortutako euroei ezohiko eragiketetan (GFE) sortutakoak gehitu behar zaizkie, eta, ondoren, aktibo zirkulatzaile garbian eta ibilgetuan egindako inbertsioak kendu.
- TFA: t urteko Kanpoko Funtsen Diruzaintza, sektorearen eta kanpoko funtsen hornitzaileen arteko erlazioaren ondorioz sortzen diren funtsen sarrera eta irteeren arteko diferentzia adierazten duena.
- TPN: t urteko Ondare Garbiaren Diruzaintza; aurrekoaren kontzeptu berdina da, baina ondare garbiari aplikatua.

Hiru kontzeptuen baturak –urte jakin baterako– zero izan behar du. Azken batean, aktiboak euroak liberatzen baditu (TINV>0), kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek eraman dutelako da. Aktiboak bere kabuz bere premiei erantzuterik izan ez badu, kanpoko funtsen eta/edo ondare garbiaren hornitzaileek dagokien diru kopurua jarri beharko dute. Laburtuz, balioa zero izateak finantza-egoera orekatua dela esan nahi du, baina inola ere ez du esan nahi sektorea osasuntsu dagoenik.

Jarduera-sektoreetarako proposatutako eskema orokorra aplikatzeko garaian, kontuan hartu behar da ratioen piramidean zerga agregatuen zifrak nola tratatu diren. Hala, % 28,5eko tasa orokorra ezarriko dugu, eta jasandakoarekiko diferentziak aldi horretan izandako funtsen ezohiko sorkuntzara (GFE) eramango ditugu. Aipatzekoa da, halaber, TPNa diferentziaren bidez kalkulatzen dela, abiapuntuko informazioak ez baitu aukerarik ematen beste era batera egiteko.

[1] Gómez-Bezares, F., J. A. Madariaga eta Javier Santibáñez (2002): "El estado de fuentes y empleos de fondos: una herramienta imprescindible en el análisis financiero", *Harvard – Deusto Finanzas & Contabilidad*, 49. zk., iraila-urria, 2002, 18-28 or.

		+ V_t	Ohiko salmentak
		- C_t	Kostu operatiboak, ordainketarekin
		- AM_t	Amortizazioa
		= $BAII_t$	Interesen eta zergen aurreko mozkina
		* (1-t)	Zerga-eragina (t = zerga-tasa = 0,285)
		= $BAIdI_t$	Interesen aurreko eta zergen ondorengo mozkina
		+ AM_t	Amortizazioa
		- IF_t	Alegiazko diru-sarrerak (ustiapenen + ibilget. lanen dirulaguntzak)
	+ GFO_t		Funts operatiboak sortzea
		+ RE_t	Ezohiko emaitzak
		* (1-t)	Zerga-eragina (t = 0,285)
		= $REdI_t$	Ezohiko emaitzak, zergen ondoren
		+EF_t	Zerga-ondorioa: (0,285 − t efektiboa) * Zergen aurreko mozkina
	+ GFE_t		Ezohiko funtsak sortzea
		+ ACN_{t-1}	Hasierako aktibo zirkulatzaile garbia
		- ACN_t	Amaierako aktibo zirkulatzaile garbia
	- ΔACN_t		Aktibo zirkulatzaile garbia areagotzea
	- INV_t		Aktibo finkoan inbertitzea (△ AF garbia +AM - Ibilget. lanak)
+ $TINV_t$			Diruzaintzaren fluxua, inbertsio-erabakiak
	+ EFA_t - AFA_t		Jaulkipena den kanpoko funtsen amortizazioa, kostuarekin
		+ I_t	Kanpoko funtsen interesak
		* (1-t)	Zerga-eragina (t = 0,285)
	- (1-t) * I_t		Funtsak kentzea, interesengatik
+ TFA_t			Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak kanpoko funtsekin
+ TPN_t			Diruzaintzaren fluxua, finantzaketa-erabakiak ondare garbiarekin (△ PN −BN + ustiap. dirulaguntzak)
= 0			= 0

Bestalde, aurrez aipatu dugun moduan, sektore baten inguruko informazioa ematen duen enpresen laginak ez du zertan denboran zehar berbera izan behar. Hortaz, urte ezberdinetarako multzo homogeneo bat eratze aldera, sektore bakoitzeko funtsen iturrien eta erabileren batez besteko egoera azalduko dugu. Batezbestekoa kalkulatzeko, kontzeptu bakoitzaren eta lagina osatzen duten enpresa kopuruaren arteko zatiketa egin dugu

Kasu honetan ere, kapituluaren amaieran, aztertutako industria-sektore guztietako funtsen iturrien eta erabileren egoerak erantsi ditugu, Euskal Herrikoak zein Estatu osokoak, 2023. eta 2024. urteei dagozkienak. Dena den, funtsen iturrien eta erabileren egoeraren analisi sektorialari eskainitako azken atalean, eraginkortasun-arrazoiengatik, baliorik esanguratsuenak baino ez ditugu kontuan hartu: TINV, TFA eta TPN.

LABORAL kutxa

118. koadroa. Espainiako Bankuko Balantzeen Zentraleko enpresa laguntzaileen kopurua

SEKTOREA	Euskal Herria 2024	Estatua 2024
Nekazaritzako elikagaiak, edariak eta tabakoa	48	485
Zura eta kortxoa	5	60
Papera	12	85
Arte grafikoak eta euskarri grabatuen erreprodukzioa	6	80
Kimika	19	187
Farmaziako produktuak	5	70
Kautxua eta plastikoa	14	142
Beste produktu mineral ez-metaliko batzuk	13	102
Metalurgia	27	87
Produktu metalikoak	71	352
Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak	7	48
	+ EFAt - AFAt		1,11	0,58	0,47	-0,04
		+ It	0,26	0,09	0,11	0,19
		* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
	- (1-t) * It		0,19	0,07	0,08	0,14
+ TFAt			0,92	0,52	0,39	-0,18
+ TPNt			-0,03	-0,05	-0,52	-0,38
= 0			0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

LABORAL kutxa

159. koadroa. Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioaren sektoreko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua		Euskal Herria		Estatua	
		2023	2024	2023	2024
	+ Vt	23,04	15,54	19,22	19,93
	- Ct	20,41	14,09	17,19	17,55
	- AMt	1,19	0,26	0,74	0,74
	= BAIIt	1,44	1,19	1,29	1,65
	* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
	= BAIdIt	1,03	0,85	0,92	1,18
	+ AMt	1,19	0,26	0,74	0,74
	- IFt	0,25	0,18	0,04	0,13
+ GFOt		1,97	0,93	1,62	1,79
	+ REt	-0,09	-0,04	-0,14	0,09
	* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
	= REdIt	-0,06	-0,03	-0,10	0,06
	+EFt	0,24	0,23	0,06	0,11
+ GFEt		0,18	0,20	-0,04	0,17
	+ ACNt-1	11,59	7,66	4,84	4,75
	- ACNt	11,90	7,40	5,38	5,02
- ΔACNt		0,31	-0,26	0,54	0,28
- INVt		1,27	0,36	1,09	1,93
+ TINVt		0,57	1,03	-0,06	-0,24
+ EFAt - AFAt		-0,44	-0,77	0,34	0,52
	+ It	0,24	0,18	0,16	0,23
	* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
- (1-t) * It		0,17	0,13	0,12	0,17
+ TFAt		-0,62	-0,90	0,22	0,35
+ TPNt		0,05	-0,13	-0,17	-0,11
= 0		0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

160. koadroa. Industria-sektore osoko iturrien eta erabileren egoera

(M euro - Batez besteko balioak)

Kontzeptua			Euskal Herria		Estatua	
			2023	2024	2023	2024
		+ Vt	100,56	90,17	119,74	112,96
		- Ct	89,98	80,63	108,75	101,88
		- AMt	3,67	2,80	3,49	3,47
		= BAIIt	6,91	6,74	7,49	7,60
		* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
		= BAIdIt	4,94	4,82	5,36	5,44
		+ AMt	3,67	2,80	3,49	3,47
		- IFt	0,69	0,51	0,87	0,92
	+ GFOt		7,92	7,11	7,98	7,98
		+ REt	-3,49	-5,37	-1,63	-1,12
		* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
		= REdIt	-2,49	-3,84	-1,17	-0,80
		+EFt	-0,30	-0,87	0,28	0,36
	+ GFEt		-2,79	-4,71	-0,89	-0,44
		+ ACNt-1	33,81	31,92	25,41	24,77
		- ACNt	33,72	31,44	26,02	25,31
	- ΔACNt		-0,09	-0,48	0,61	0,54
	- INVt		5,15	2,74	4,24	4,06
+ TINVt			0,07	0,14	2,24	2,95
	+ EFAt - AFAt		0,06	-6,13	0,92	-0,06
		+ It	1,74	1,63	1,14	1,36
		* (1-t)	0,715	0,715	0,715	0,715
	- (1-t) * It		1,24	1,16	0,81	0,97
+ TFAt			-1,18	-7,29	0,10	-1,03
+ TPNt			1,11	7,15	-2,34	-1,92
= 0			0,00	0,00	0,00	0,00

Iturria: Espainiako Bankuaren Balantzeen Zentrala Geuk egina.

LABORAL kutxa

12. EUSKAL ENPRESA-SAREAREN AZTERKETA

12.1 SARRERA


Kapitulu honetan 2025eko enpresa-ehunaren egitura aztertuko dugu EAEn, Nafarroan eta Estatu osoan. Horretarako, sektore ekonomikoak eta soldatapekoen estratuak hartuko ditugu aintzat. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da EINeko Enpresen Direktorio Nagusia (DIRCE) hartu dela informazio-iturri bakartzat, azterketa homogeneoagoa izateko. Ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1eko informazioa eskaintzen da bertan.

OHAR METODOLOGIKOA: iturri horri dagokionez, aurten ere gogoratu behar da DIRCEren ustiapen estatistikoak aldaketa metodologiko batzuk izan dituela 2019/2152 EBS Erregelamendua eta haren 2020/1197 inplementazio-egintza indarrean sartu zirenetik. Izan ere, ekonomikoki aktibo dagoen enpresaren definizio berriak, 2022an ezarri zenak, enpresa aktiboen kopuru osoari eragiten dio. Hortaz, 2023tik aurrerako datuak ezin dira alderatu aurreko ekitaldietako datuekin. Hori dela eta, jarraian egingo dugun analisia 2025ari eta aurreko ekitaldiarekin egindako urte arteko alderaketari bakarrik dagokio.

12.2 ENPRESEN KOPURUA

Egungo definizioaren arabera, 2025ean ekonomikoki aktibo zeuden enpresen kopurua 134.953koa zen EAEn, 42.375ekoa Nafarroan eta 3.310.824koa Estatuan. Bolumen horiek urte arteko aldaketak dakartzate: -% 0,5, +% 3,5 eta +% 1,7, hurrenez hurren.

25. grafikoa. Enpresa kopurua




Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Estatuko guztizkoari egiten dion ekarpena aintzat hartuta, 2025ean EAEn ekonomikoki aktibo zeuden enpresak Estatuko guztizkoaren % 4,08 ziren, eta, Foru Erkidegoan ekonomikoki aktibo zeuden enpresak, % 1,28. Parte-hartzeak aurreko ekitaldiaren antzekoak izan ziren.

LABORAL kutxa

26. grafikoa. Estatuko guztizkoaren gaineko pisua (%) (Estatua=100) 2024-2025



Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

12.3 SEKTORE EKONOMIKOAK

Sektore ekonomikoen araberako azterketa egiteko, honela multzokatuko ditugu: industria, eraikuntza, merkataritza eta gainerako zerbitzuak. Hala, 2025ean, aztertutako hiru eremu geografikoetan, ekonomikoki aktibo zeuden enpresen % 60 inguru zegozkien gainerako zerbitzuei: EAEn % 60,8, Nafarroan % 59,6 eta Estatuan % 64,1.

161. koadroa. Enpresak, sektore ekonomikoaren arabera. 2024-2025

Kontzeptua	EAE			Nafarroa			Estatua		
	2024	2025	Δ % 25/24	2024	2025	Δ % 25/24	2024	2025	Δ % 25/24
Guztira	135.658	134.953	-0,5	40.934	42.375	3,5	3.255.276	3.310.824	1,7
Industria	9.741	9.495	-2,5	3.694	3.713	0,5	175.806	172.765	-1,7
Eraikuntza	18.158	17.938	-1,2	5.317	5.510	3,6	383.622	389.146	1,4
Merkataritza	26.323	25.489	-3,2	7.872	7.881	0,1	635.234	625.664	-1,5
Gainerako zerbitzuak	81.436	82.031	0,7	24.051	25.271	5,1	2.060.614	2.123.249	3,0

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Oro har, merkataritza izan zen hurrengoa. % 20 inguruko partaidetza izan zuen ekonomikoki aktiboak diren enpresen guztizkoaren gainean: EAEn % 18,9, Foru Erkidegoan % 18,6 eta Estatuan % 18,9. Hiru kasuetan, eraikuntza zegoen hurrengoa, tarte pixka batekin, % 13 inguruko kuotekin lehenengo bi kasuetan: EAEn % 13,3, Nafarroan % 13 eta Estatuan % 11,8. Azkenik, eta distantzia nabarmenera, industria-sektoreak pisu erlatibo txikiagoa izan zuen 3 kasuetan: % 7 EAEn, % 8,8 Foru Erkidegoan eta % 5,2 Estatuan.

Modu horretan, Estatuarekin alderatuta, EAEn eta Nafarroan handiagoa zen industria-sektoreko eta eraikuntzako enpresa ekonomikoki aktiboen pisu erlatiboa. Aldiz, gainerako zerbitzuen pisu erlatiboa txikiagoa zen.

Urte arteko datuei begiratuta, kuota horiek guztiak aurreko ekitaldian erregistratutakoen nahiko antzekoak dira.

Jarduerak gehiago banakatuta (EJSN-2009ren sailkapena), 2025ean, handizkako eta txikizkako merkataritzak eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketak eskuratu zituzten pisu erlatibo handienak hiru eremu geografikoetan, enpresa kopuruari dagokionez. Zehazki, 2025ean jarduera horri zegozkion EAEko 25.489 enpresak erkidegoko guztizkoaren % 18,9 ziren. Jarduera horrek antzeko partaidetza izan zuen Nafarroan zein Estatuan (% 18,6 eta % 18,9 hurrenez hurren).

162. koadroa. Enpresak, atal ekonomikoaren arabera. 2024-2025

Kontzeptua	EAE			Nafarroa			Estatua		
	2024	2025	Δ % 25/24	2024	2025	Δ % 25/24	2024	2025	Δ % 25/24
Guztira	135.658	134.953	-0,5	40.934	42.375	3,5	3.255.276	3.310.824	1,7
Erauzketa-industriak	24	22	-8,3	20	18	-10,0	1.525	1.499	-1,7
Manufaktura-industria	9.078	8.825	-2,8	2.660	2.636	-0,9	156.267	153.167	-2,0
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura.	396	403	1,8	866	909	5,0	11.050	11.145	0,9
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen eta deskontaminazioaren kudeaketa	243	245	0,8	148	150	1,4	6.964	6.954	-0,1
Eraikuntza	18.158	17.938	-1,2	5.317	5.510	3,6	383.622	389.146	1,4
Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motoen konponketa	26.323	25.489	-3,2	7.872	7.881	0,1	635.234	625.664	-1,5
Garraioa eta biltegiratzea	9.123	9.101	-0,2	3.101	3.245	4,6	205.574	212.294	3,3
Ostalaritza	12.399	12.380	-0,2	3.049	3.111	2,0	264.006	266.476	0,9
Informazioa eta komunikazioak	3.067	3.179	3,7	720	796	10,6	71.979	77.747	8,0
Finantza- eta aseguru-jarduerak	2.651	2.661	0,4	788	812	3,0	76.243	79.365	4,1
Higiezinekin lotutako jarduerak	4.227	4.362	3,2	1.383	1.523	10,1	206.219	215.591	4,5
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	18.190	18.129	-0,3	5.268	5.309	0,8	410.020	416.544	1,6
Administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak	4.737	4.737	0,0	2.265	2.389	5,5	198.940	205.276	3,2
Hezkuntza	4.853	4.934	1,7	1.487	1.631	9,7	112.522	116.702	3,7
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetakoak	8.762	8.937	2,0	1.600	1.930	20,6	172.354	177.690	3,1
Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak	4.064	4.136	1,8	1.427	1.466	2,7	112.435	118.151	5,1
Beste zerbitzu batzuk	9.363	9.475	1,2	2.963	3.059	3,2	230.322	237.413	3,1

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Handizkako eta txikizkako merkataritzaren eta ibilgailu motordunen eta motoen konponketaren ondoren, EAEn eta Estatuan, honako hauek nabarmendu behar dira

LABORAL kutxa

hurrenez hurren: jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, eta eraikuntza. Hala, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen arloko 18.129 enpresa zeuden 2025ean EAEn; hau da, erkidegoko enpresen % 13,4 ziren arlo horretakoak. Estatuan, berriz, 416.544 enpresa zeuden, guztizkoaren % 12,6. Eraikuntzari dagokionez, 2025ean 17.938 enpresa zeuden EAEn, hots, autonomia-erkidegoko guztizkoaren % 13,3. Eta Estatuan, 389.146 enpresa, guztizkoaren % 11,8.

Nafarroaren kasuan, eraikuntzaren eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoen posizio erlatiboak alderantzizkoak ziren. Horiek 5.510 eta 5.309 enpresa zituzten, hurrenez hurren, Foru Erkidegoko guztizkoaren % 13 eta % 12,5.

Era berean, aurreko ekitalditik izandako eboluzioari dagokionez, banaketa horiek 2024an hautemandakoen oso antzekoak izan ziren.

12.4 SOLDATAPEKOEN ESTRATUAK

Soldatapekoen estratuen analisiari dagokionez, eta horiek gehiago banakatuta, 2025ean, aztertutako hiru eremu geografikoetan, soldatapekorik gabeko enpresak ziren enpresa ekonomikoki aktiboen erdiak baino gehixeago, gutxi gorabehera: % 51 EAEn, % 54,3 Nafarroan eta % 54,4 Estatuan (68.880, 23.022 eta 1.800.443 enpresa, hurrenez hurren).

Oro har, 1 edo 2 soldatapeko pertsona zituzten enpresak izan ziren hurrengoak, % 30ekoa baino partaidetza baxuxeagoarekin: % 28,4 EAEn, % 26,4 Foru Erkidegoan eta % 27,2 Estatuan. Eta, hurrengoak, 3 eta 5 soldatapeko artean zituzten enpresak, % 10 inguruko pisuarekin: EAEn % 10,1, Nafarroan % 9,3 eta Estatuan % 9,5.

Hortaz, soldatapeko langilerik gabeko eta soldatapeko 5 langile arteko enpresak ziren guztizkoaren % 90 inguru bai EAEn, bai Nafarroan, bai Estatuan.

163. koadroa. Enpresak, soldatapekoen tarteen arabera. 2024-2025

Kontzeptua	EAE			Nafarroa			Estatua		
	2024	2025	Δ % 25/24	2024	2025	Δ % 25/24	2024	2025	Δ % 25/24
Guztira	135.658	134.953	-0,5	40.934	42.375	3,5	3.255.276	3.310.824	1,7
Soldatapekorik gabe	68.935	68.880	-0,1	21.516	23.022	7,0	1.692.479	1.800.443	6,4
1-2 soldatapeko	39.164	38.310	-2,2	11.274	11.195	-0,7	955.079	901.955	-5,6
3-5 soldatapeko	13.522	13.640	0,9	3.911	3.929	0,5	316.419	314.941	-0,5
6-9 soldatapeko	5.837	5.839	0,0	1.741	1.687	-3,1	131.903	132.013	0,1
10-19 soldatapeko	4.142	4.160	0,4	1.266	1.263	-0,2	84.907	85.467	0,7
20 soldatapeko edo gehiago	4.058	4.124	1,6	1.226	1.279	4,3	74.489	76.005	2,0

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

Soldatapekoen estratuak are gehiago banakatuz gero, enpresen tamaina "txikiari" buruz aurrez esandakoa baieztatzen da. Izan ere, EAEn 43 enpresak baino ez zituzten 1.000 eta 4.999 soldatapeko artean, eta 7k bakarrik zituzten 5.000 soldatapeko edo gehiago. Foru Erkidegoaren kasuan, neurri horietako 14 eta 4 enpresa zeuden, hurrenez hurren; eta Estatu osoan, 1.086 eta 206 enpresa, hurrenez hurren.

Azkenik, esan beharra dago soldatapekoen estratuaren araberako enpresen banaketa aurreko ekitaldian hautemandakoaren oso antzekoa izan zela orokorrean, nahiz eta multzo nagusiak (hau da, soldatapekorik gabekoenak) asko handitu zuen bere pisu erlatiboa aztertutako hiru eremu geografikoetan.


.

164. koadroa. Enpresak, soldatapekoen estratuen arabera. 2024-2025

	EAE			Nafarroa			Estatua		
	2024	2025	Δ % 25/24	2024	2025	Δ % 25/24	2024	2025	Δ % 25/24
Guztira	135.658	134.953	-0,5	40.934	42.375	3,5	3.255.276	3.310.824	1,7
Soldatapekorik gabe	68.935	68.880	-0,1	21.516	23.022	7,0	1.692.479	1.800.443	6,4
1-2 soldatapeko	39.164	38.310	-2,2	11.274	11.195	-0,7	955.079	901.955	-5,6
3-5 soldatapeko	13.522	13.640	0,9	3.911	3.929	0,5	316.419	314.941	-0,5
6-9 soldatapeko	5.837	5.839	0,0	1.741	1.687	-3,1	131.903	132.013	0,1
10-19 soldatapeko	4.142	4.160	0,4	1.266	1.263	-0,2	84.907	85.467	0,7
20-49 soldatapeko	2.564	2.643	3,1	751	780	3,9	48.362	49.359	2,1
50-99 soldatapeko	778	752	-3,3	202	211	4,5	13.079	13.130	0,4
100-199 soldatapeko	372	363	-2,4	152	163	7,2	6.615	6.758	2,2
200-249 soldatapeko	78	90	15,4	24	27	12,5	1.367	1.419	3,8
250-999 soldatapeko	216	226	4,6	80	80	0,0	3.856	4.047	5,0
1.000-4.999 soldatapeko	42	43	2,4	14	14	0,0	1.012	1.086	7,3
5.000 soldatapeko edo gehiago	8	7	-12,5	3	4	33,3	198	206	4,0

Iturria: Enpresen Direktorio Nagusia (EIN).

LABORAL kutxa



4.LEHEN SEKTOREA

LABORAL kutxa

1. IKUSPEGI OROKORRA

1.1 BILAKAERA ESTATU MAILAN

Estatuko nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak eraldaketa-prozesu batean murgilduta jarraitu zuen 2025ean. Prozesu horretan, errentagarritasuna, jasangarritasuna eta elikagaien segurtasuna uztartzeko premia gailendu zen. Aurreko urtean, mobilizazioak gertatu ziren eta Nekazaritza Politika Bateratua zalantzan jarri zuten nabarmenki. Horren ostean, eztabaidaren zati bat Europako erakundeen erantzunera lekualdatu zen. Erakunde horiek nekazaritza eta elikadurarako ikuspegi berria aurkeztu zuten, errentak hobetzeko eta ekoizleek kateak daukaten posizioa indartzeko zereginean ardaztua. Halaber, laguntzak sinplifikatzeko aukera mahai gainean dago, administrazio-betebeharrak murrizte aldera. Nolanahi ere, 2027az geroztiko finantzazioa, ingurumen-exijentziak eta Europako ekoizleen babesa eztabaidatzen jarraitu zuten, eskakizun laxoagoen mende dauden kanpoko lehiakideen aldean.

Balantze agregatua aurreikusitakoa baino hobea izan zen, ziurgabetasun-giroa kontuan hartuta. Landare- eta animalia-ekoizpenaren balioak hazkunde sendoa eduki zuen. Alabaina, ez zen uniformea izan lurralde eta ekoizpen guztietan, eta ez zuen eragin kostuei lotutako tentsioak desagertzea: bitarteko kontsumoak igo ziren bereziki, animalien elikadurarako gastua garestitu zenez gero. Klimaren portaera konplexuagoa izan zen lehortea nagusitu zen ekitaldietan baino. Udaberrian euri asko egin zuenez, oso errendimendu handiak lortu ziren zerealetan eta bazka-laboreetan, eskualde ugaritan. Eta mesedegarria izan zen landare-ekoizpena suspertzeko. Haatik, segida historikoko hirugarren urterik beroena izan zen 2025a. Euriaren denbora- eta lurralde-banaketa oso irregularra izan zen, eta arazoek iraun egin zuten: beroa, uraren eskuragarritasuna, ekaitz biziak eta nekazaritza-egutegien aldaketak. Era berean, abereentzako edota etxeko hegaztientzako osasun-arriskuek gorantz jarraitu zuten. Horrenbestez, txertaketa, biosegurtasuna eta animalien mugimenduaren gaineko zaintza indartu behar izan ziren. Krisi horiek jada ez dira salbuespenak, baizik eta abere-ustiategien plangintzaren eta kostuen baldintzatzaile errepikakor bat.

Horri guztiari gero eta ziurgabetasun komertzial handiagoa gehitu zitzaion. EBren eta Mercosuren arteko akordioak hainbat produktu esportatzeko aukerak eskaintzen ditu. Hala eta guztiz ere, Europako merkatua Hego Amerikako inportazioetara irekiago egotea ere badakar. Tirabira geopolitiko eta politika protekzionisten aurrerapenarekin batera, egoera horrek eragin zuen bai babesa, bai produktu inportatuetarako lehia-baldintza baliokideak eskatzea. Egiturazko arazoak ere ez ziren arindu: belaunaldi-txandaketa, langileen eskasia, ustiategi askoren negoziatzeko gaitasun txikia, eta modernizazioan, digitalizazioan eta klima-egokitzapenean inbertitzeko premia. Nekazaritzako errenta hobetzeak ez ditu arazo horiek konponduko, eta ez du bermatzen marjinak positiboak

LABORAL kutxa

izango direnik azpisektore guztietan. Halaber, familientzako presioak bere horretan jarraitu zuen: 2025aren amaieran, elikagaiek eta edariek gorantz jarraitzen zuten argi eta garbi. Hala, erronka zera da oraindik, kontsumitzaileentzako arrazoizko prezioak eta elikagaiak egiten dituztenentzako nahikoa ordaina bateratzea.

Panorama orokor hori ikusita, egiaztatu behar da nola islatu diren nekazaritzako 2025eko makromagnitudeak Estatuaren egoeran. Azken hamarkadetan, baliteke kostuen etengabeko igoerek sektorearen eraldaketaren zati bat ezkutatu izana. Igoera horien ondorioz, nekazaritza- eta abeltzaintza-kategoria gehienen guztizko zenbaketa produktiboak modu bizian azeleratu izan dira. Dena den, Ministerioaren zifrek prezioen eta kantitateen aldakuntza zenbatetsiak ere eskaintzen dituzte, baita oinarrizko ekoizleentzat geratzen joaten den nekazaritzako errentaren bilakaera ere.

Sektorearen epe luzerako segidei jarraituz, bilakaera irregularragoa izan zen mendeko lehen hamarkadan; igoeren erritmoa sostengatuagoa izan zen bigarrenean; eta hirugarrenean azelerazioa gertatzen ari da. 2021ean eta 2022an handiagoa izan zen, COVID-19ak eta Ukrainako gerrak (inpaktua zereal edota olioen nazioarteko merkataritzan) ekarritako asalduren ostean. Erritmoa neurritsuagoa izan zen 2023 eta 2024an, eta berriz biziagotu zen 2025ean, nahiz eta kostuen igoera handiko urte horietakoa bezainbestekoa ez izan. Patroi nahiko orokorra da eta ekoizpen dezenteri eragiten die: lehenik, igoerak landare-adarretan eduki zuen inpaktua, argi eta garbi; eta joera izan da oszilazioen erreberberazioa ekitaldi bat geroago antzematea animalia-adarrean, pentsuen edo bazkaren prezioek asko baldintzatzen dute eta.

165. koadroa. Espainiako nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(Milioi €)

Kontzeptua	2024*	2025	% Δ 2025/2024		
	Balioa	Balioa	Balioa	Kopurua	Prezioa
A.- Nekazaritza-adarreko ekoizpena	68.747,2	73.912,9	7,5	6,7	0,8
– Landare-ekoizpena	39.006,7	42.023,6	7,7	9,5	-1,6
– Animalia-ekoizpena	28.005,6	29.933,9	6,9	2,6	4,2
– Zerbitzu-ekoizpena	1.734,9	1.955,4	15,1	12,8	2,0
– Bigarren mailako jarduerak, ez-nekazaritzakoak, ez-bereizgarriak	647,2	703,6	8,7	-0,1	8,8
B.- Bitarteko kontsumoak	30.889,7	32.370,4	4,8	1,7	3,1
C.- (A-B) Balio erantsi gordina	37.857,5	41.542,5	9,7	10,7	-0,9
D.- Amortizazioak	6.802,8	7.057,1	3,7	0,4	3,3
E.- Beste dirulaguntza batzuk	5.987,8	5.801,4	-3,1	-	-
F.- Beste zerga batzuk	482,0	488,2	1,3	-	-
G.- (C-D+E-F) Nekazaritza-errenta	36.560,5	39.798,6	8,9	-	-

(*): 2025eko urtarrileko "2. estimazioa". Ekoizleak jasotako oinarrizko prezioen araberakoa. Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa.

Espainiako nekazaritzako elikagaien agregatuan, balio osoaren % 36 baino gehiago fruta eta ortuariei egokitu zitzaien. Izan ere, kategoria garrantzitsuenaren gisara txandakatu

ohi dira, eta oso hazkunde handiak izan dituzte azken 15 urteotan. laz, frutak gailendu ziren (balio ekonomikorik handiena urte horretan), igoera handi batekin. 2000tik aurrera, frutek 4 puntu irabazi dituzte kuota ekonomikoan, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektore osoaren gainean. Animalia-ekoizpenaren esparruan, txerriak nabarmendu ziren, 5 puntuko aurrerapenarekin, % 15 gainditzeraino. Halaber, gorakada azken 15 urteetan kontzentratu da. Nahiz eta aurreko biurtekoan igoera handiak moteldu ziren, berriz ekin zioten noranzko berari 2025ean.

Hamarkada honen hasierako krisialdiak eta gero, beste animalia-produktu batzuk indartu dira: behiak (okela), behi-esnea, arrautzak eta, hein txikiagoan, hegazti-okela. Pentsuen kostuek inpaktu handia daukate produktu horietan, eta oso garestitze fase ezohikoa eduki dute.

Kantitateei erreparatuta, esnea edo behi-okela ia-ia geldirik daude hainbat bosturtekotatik hona. Bestalde, txerrien, frutaren edo ortuarien igoera produktiboaren kantitatea txikiagoa da, argi eta garbi, balio osoa baino. Aitzitik, epe luzerako segidari jarraituz, arrautzen kopurua igo egin da, baita bazkarena ere, azken boladan (aukera partzial gisa balio izan dute, agian, pentsu garestien ordez). Olioaren kasuan, 2025eko goranzko oszilazioak oso biziak izan ziren, baina prezioak erori ziren, ordea. Azken hamarkadetan, beste produktu batzuek behera egin dute nola balioan hala kantitateetan; esate baterako, ardi- eta ahuntz-okela, eta ardo-ekoizpena. Nahiz eta zerealek ere pisu erlatiboa galdu duten, hein batean igo ziren 2025ean.

Kopuru absolututan, fruten kategoriak eman zituen aurrerapausorik handienak 2025ean. Urruti geratu ziren ortuariak, bigarren; eta hirugarren, zerealak, bazka eta behi-okela. Arrautzek eta txerrikiak hazkunde garbi txikixeagoa lortu zuten. Kantitateak azterturik, olioaren % 81,9ko igoera nabarmendu behar da, baita zerealena ere (ia % 20). Eta txerrikiak bost urtetako hazkunderik nabariena izan zuen (% 6,5). Prezioei begira, beherakada nagusia olioarena izan zen (-% 49,1), eta igoera handiena, bazkarena (% 13), landareen artean. Animalietan, arrautzak berriro garestitu ziren (% 22,6ko igoera), eta behi-okelak azeleratzen jarraitu zuen, % 17,8 sendoarekin. Balioei buruz, aipagarriena igoera hauek dira: % 26,6, bazkan; % 20,6, arrautzetan; eta % 16, behi-okelean.

Hartara, nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenak % 7,5 egin zuen gora: landare-adarrak, % 7,7; animalia-adarrak, % 6,9; balio erantsi gordinak, % 9,7; eta nekazaritzako amaierako errentak, % 8,9, kostuak kendu ondoren, nahiz eta kontsumo giltzarri diren pentsuek errebotea izan zuten, balio osoak % 7,1 handiturik. Sektorearen kostu osoak nabarmen igo ziren 2021 eta 2022ean, eta egonkorragoak izan ziren gerora. Dena den, ekoizpen gehienek balioa hartzen jarraitu dute erritmo onean eta, hortaz, panorama orokorra positiboa izan da sektore osoarentzat, zifra handiak ikusirik behintzat.

LABORAL kutxa

1.2 BILAKAERA EUSKAL HERRIAN

Sektorearen makromagnitudeak[1]

Aipatu diren makromagnitudeei begira, eskura dagoen informazioaren egoera desberdina da EAEn eta Nafarroan. EAEn, Ministerioak estatuko guztizkorako ematen dituen kontuen egitura errepikatzen dute Hazi nekazaritza-institutuaren zenbatespenek, eta horiek Ministerioari ematen dizkiote behin betikoak direnean, denbora-dekalaje handiagoarekin argitaratzeko, azkenean. Nafarroan ere hori gertatzen da. Badago desberdintasun bat, dena den: ez da bideragarria ekarpen hori egitea edo zenbatespenak aurreratzea, 2025ekoak kasu honetan.

EAEn, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea ez da Estatuan bezainbeste hazi azken hamarkadetan, eta hango bilakaera ez da Nafarroakoa bezain dinamikoa izan, zeina erdiko posizio batean dagoen. Jakina, EAEk bestelako habitata eta klima ditu, baita lurraldeak eragiten dituen mugak ere. Mende honetan zehar, agregatu ekonomikoaren balio osoa bikoiztu egin da Estatuan (beraz, +% 100etik gertu), lehenago aipatu diren produktuen bulkadarekin. EAEn, aldiz, aurrerapena % 45 inguru izan da aldi horretan bertan, eta aldiaren bigarren zatian gertatu da erabat; gainera, baso-ekoizpenaren igoera izan zaio mesedegarri, eta hori ez da estatuko zenbaketetan eransten. Igoera horren lehen jauzi handia 2015ean gertatu zen, eta bigarrena 2022tik aurrera ikusi da. Lehen jauzian, mahastiaren fase positibo batek zerikusi handia eduki zuen; azken laurtekoan, beheranzko fasean dabil, eta beste ekoizpen batzuk ari dira multzo osotik tira egiten: behi-esnea (prezioak dinamikoagoak izaten ari dira urte hauetan), oilo-arrautzak (prezioa asko igo da), aipatu den basogintzaren zura eta, hein batean, zerealak ere bai. Beste kategoria batzuk nahikoa geldirik daudela esan daiteke, atzera egin dute-eta ekoitziriko kantitateetan; halaber, balioak mantendu dira oro har, eta prezioen igoerak soilik sostengatzen ditu.

[1] EAEko nekazaritzako makromagnitudeen aurrerapena. Nafarroari buruzko informazio ofiziala beste denbora-eredu baten arabera argitaratzen da.

166. koadroa. EAEko nekazaritza-sektorearen makromagnitudeak

(Milioi €)

Kontzeptua	2023	2024*	2025
Amaierako nekazaritza-ekoizpena	638,5	636,4	654,9
Nekazaritza	310,7	271,5	276,9
Abeltzaintza	218,0	236,9	254,8
Basozaintza-sektorea	81,9	99,8	95,1
Norbere konturako beste ekoizpen eta hobekuntza batzuk	27,9	28,2	28,2
- Sektoretik kanpoko gastuak	257,3	237,8	252,4
= Merkatuko prezioei erantsitako balio gordina	381,2	398,6	402,5
+ Saldoa: dirulaguntzak - zergak.	76,0	73,0	73,1
= faktoreen kostuari erantsitako balio gordina	457,2	471,6	475,6
- Amortizazioak	93,7	105,4	105,8
= Balio erantsi garbia (f.k.)= Nekazaritza Errenta	363,5	366,1	369,7

(*): Aurrerapen-datuak; baliteke gerora aldatzea. Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako estatistikak. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

2025eko aldaketa aipagarriena ortuarien aurrerabide handia izan zen: sektore sendoa eta egonkorra zen berez, baina ohiko hazkundea ez zen iazkoa bezainbestekoa izaten. Orobat, jauzi ezohiko samarra gertatu zen frutetan, zeina azpisektore txikia den EAEn. Horrez gain, nekazaritza- eta abeltzaintza-agregatuaren aurrerapauso txikiek bulkada bakar batzuk izan zituzten: behi-, ardi- eta ahuntz-okela. Era berean, *insignis* pinua ez diren zuren hazkundea sendotu zen. Balio txikiagoa egokitu zitzaien aipatu pinuari, zerealei eta mahastiari, eta besteak beste horiexek eduki zituzten inpaktu handienak multzo osoan.

Haziren zenbatespenen arabera, ehuneko egitura honelakoa izan zen iaz: ortuariak, azken balioaren % 15,4rekin; behi-esnearen % 12,8a gainditu zuten beraz; mahastia suertatu zen hirugarren, pisua galdu baitzuen % 10,2raino (% 25 gainditu zuen 2018an); eta ondoren kokatu ziren arrautzak (% 9,8), *insignis* pinuaren zura (% 9), behi-okela (% 7,3), zerealak (% 6,4) eta beste zur batzuk (% 5,5era heldu ziren iaz). Fruten edota ardi-esnearen pisua ahulagoa izan zen (% 3,7 biek).


Horrenbestez, ekoizpen txikiz osaturiko oso panorama banatua da, eta ekoizpen horiek ez dute hazkunde handirik izaten urterik urtera, ez kantitateena ez balioarena. Askotariko panorama horretan, esan bezala, batzuk geldirik daude eta beste batzuk gorantz doaz nolabait, etengabe baina apalki. Kategoriek erakutsitako kontrako joeren aldakuntza txiki horien eraginez, Hazik nekazaritza-ekoizpen osoaren % 2,9ko igoera aintzatetsi zuen iaz: landare-adarrean, % 2, eta animalia-adarrean, % 7,6. Basogintzak atzera egin zuen (-% 4,8), gorabeheratsuena izan ohi baita, hain zuzen ere. Erdiko kontsumoek (sektoreko gastuak) % 6,2 egin zuten gora, baita balio erantsi gordinak ere (% 1 soilik), merkatuko prezioetan (faktoreen kostuarekin, +% 0,8). Azkenik, BEGd gordina edo nekazaritzako errenta % 1 hazi zen. Hazkunde motel hori EAEren bereizgarria izan da azken hamarkadan. Nafarroaren egoera antzekoa da, baina zertxobait dinamikoagoa. Grafikoan ikusten den moduan, bi eremuen bidea uniformea da igotzeko erritmo motelari dagokionez.

LABORAL kutxa

Salbuespen batzuk gertatu ziren EAEn, hala ere: urte batean, mahastiaren uzta bereziki txarra izan zen, eta beste urte batean, *insignis* pinuaren mozketa bikaina izan zen. Gertaera horien ondorioz, noizik behingo aldakuntzak gertatu ziren, bilakaera estatuko ildotik bereizi zutenak. Azken laurtekoan lehen sektoreko prezioetan izandako igoerak eragina izan du EAEn ere, baina zenbait jardueraren gelditasunak arindu zuen (kontuan hartzekoa da beheranzko zuzenketa dezente egin zirela 2024an, baina iaz igoerak gertatu ziren batik bat). Nafarroako egoera EAEren eta Estatuaren arteko bidearen erdian dago.

27. grafikoa. Balio erantsi gordinaren bilakaera, nekazaritza-sektoreko faktoreen kostura

(Milioi €)



Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila. (Eusko Jaurlaritza).

Bilakaera Nafarroan

Estatuko sektorerako aztertu den informazioaren baliokidea, Nafarroarako, 2023koa da, Ministerioarena. Haatik, baliozko ariketa bat da Foru Erkidegoko nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueraren egitura Estatukoarekin alderatzeko. Landareen artean, garrantzi erlatibo handiena zerealek izan zuten Nafarroan (% 12, eta Estatuan, % 4,4), eta arrakala nabariak antzeman dira bazkan eta ortuarietan. Fruta-arbolen pisua askoz txikiagoa izan zen (% 4,8%, eta % 18), ordea, eta zitrikoei eta olibondoei egokitu zitzaien bereziki. Horrez gain, arrakala suertatu zen olibondoen olioari dagokionez. Abeltzaintzan, proportzioak antzekoagoak izan ziren. Behi-esnearen harira, Nafarroak 3 puntuko egiturazko arrakala erakutsi zuen Estatuaren aldean, eta arrakala txikixeagoa hegaztietan.

Beste alde batzuk ere azpimarratu behar dira; adibidez, nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenen egitura-aldaketak epe luzera, eremu batean zein bestean. Produktu nagusien 2000ko eta 2023ko emaitza ekonomikoak alderatu dira, eta ikusten da honako azpisektore hauek gainerakoek baino garrantzi handiagoa hartu dutela bi lurralde-esparruetan: bazka, ortuariak, frutak, txerrikia, hegazti-okela eta esnea. Aldeak ere

ikusten dira; esate baterako, ortuarien, esnearen eta olioaren azpisektoreak dezente gehiago handitu dira, baina askoz gutxiago, ordea, oilo-arrautzak (hegaztikia ere gutxixeago). Ardoa, bestalde, bi eremuetan jatsi da, baina Nafarroan indar handiagoz.

Halaber, zerealen, industria-instalazioen, ardien eta ahuntzen azpisektoreak egonkorragoak izan dira Nafarroan, argi eta garbi, eta Estatuan nahikoa hustu dira hamarkada hauetan. Landare- eta animalia-agregatuen igoera —eta beraz, nekazaritza eta abeltzaintza osoa— oso antzekoak dira. Dena den, aipatu bi ekitaldiak alderatzean ikusten da nekazaritzako amaierako errenta dezente gehiago hobetu dela Nafarroan: 2000n baino % 91 handiagoa 2023an. Estatuan % 60 izan da, ordea. Alde hori aztertzean antzematen da dirulaguntzek askoz saldo hobea izan zutela Nafarroarako 2000ko lehen hamarkadan, eta aldi horretan, gainera, kostuek balantze nabarmen okerragoa eduki zuten Espainian.

Hala ere, Estatuan gorakada gertatu denean, sektorea egonkorragoa izan da Nafarroan, eta ez hain dinamikoa; adibidez, horrela gertatu zen aurreko hamarkadaren erdialdean, edo hamarkada honetan bertan. Orobat, 2021-22 biurtekoko kostuen igoerak eragindako astindua antzeman zuen Nafarroak; haatik, ez da sartzen ari Estatuan ikusten den halako hazkundearen egiturazko azelerazioan, itxura batean. 2013-2016 hirurtekoan, Estatuko balio erantsi gordina ia % 26 areagotu zen, eta Nafarroan % 8 besterik ez. 2022-25 hirurtekoan, estatuko BEGd-ak % 41,4 egin zuen gora, eta Nafarroakoak, berriz, % 20,4. Zehazki, 2025ean, estatukoa % 9,7 handitu zen, eta Nafarroakoa, % 5,5, BPGaren % 5,1eko igoera baino gehiago.

Abeltzaintza eta nekazaritzari buruzko ataletan, datu mikroekonomikoenak berrikusi ahal izango dira produktu bakoitzeko, Nafarroarako eskuragarri baitaude 2025ekoak jada. Nolanahi ere, azpisektoreen datu agregatu batzuk alderatu daitezke. Nafarroan, Nafarroako nekazaritzaren egoera hilero aztertzen da Coyuntura Agraria aldizkarian. Zehatz-mehatz, azpisektoreen araberako prezioen indizeak dakartza taula batean, ekitaldi bakoitzaren hasieratik amaierara bitarteko aldakuntzarekin. Aldizkariari jarraikiz, 2025ean, nekazaritzako prezioen indizeak % 5,4 egin zuen aurrera, eta abeltzaintzako prezioenak, % 6,2 (-% 18,6 aipatzen du baso-produktuetarako). Horrenbestez, indize orokorra % 5,7 izan zen, estatuko zenbaketan sartzen ez diren baso-adarraren inpaktua barne. Estatuan, prezioen balantzeak garestitze txikia erakutsi zuen, % 0,8koa zehatz-mehatz. Izan ere, landare-adarraren indizea -% 1,6 txikiagotu zen, eta animalia-adarra % 4,2 garestitu zen. Alde hori azaltzen duten kategorietan sakonduz ikusten da ardoa askoz gehiago garestitu zela Nafarroan Espainian baino. Bestalde, oliba-olioaren eta patataren beherakada handiek inpaktua eduki zuten Estatuan, baina Nafarroan ez zen halakorik gertatu. Era berean, bazkak eta frutek ez zuten igoera handirik izan Estatuan; nolanahi ere, baliteke horrela izatea fruitu lehorrak bereizita agertzen direlako Nafarroako estatistikan, eta horietan bai, igoera bizia zenbatu zen.

LABORAL kutxa

Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza

167. koadroa. Nekazaritzako elikagaien kanpo-merkataritza. Euskal Herria

(Milioi €)

Muga-zergen atala	Eremua	Esportazioak		Inportazioak	
		2024	2025	2024	2025
Animalia biziak eta animalia-erreinuko produktuak	EAE	339,6	393,7	591,9	740,5
	Nafarroa	350,7	411,7	237,0	295,0
	Euskal Herria	690,3	805,3	828,9	1.035,5
Landare-erreinuko produktuak, gantzak eta olioak	EAE	316,4	444,0	910,1	870,4
	Nafarroa	720,7	730,5	390,0	426,0
	Euskal Herria	1.037,1	1.174,5	1.300,1	1.296,4
Elikagaien industrietako produktuak	EAE	991,7	1.014,0	642,9	703,6
	Nafarroa	762,9	822,6	207,8	265,6
	Euskal Herria	1.754,6	1.836,6	850,7	969,2
Nekazaritzako elikagaien sektorea	EAE	1.647,7	1.851,7	2.144,9	2.314,5
	Nafarroa	1.834,4	1.964,7	834,8	986,6
	Euskal Herria	3.482,0	3.816,4	2.979,7	3.301,1
Nekazaritzako elikagaien sektoreak esportazio-inportazioen guztizkoan duen partaidetzaren %	EAE	5,3	6,2	8,0	8,5
	Nafarroa	18,1	20,6	12,9	16,2
	Euskal Herria	8,4	9,7	8,9	9,9

Iturria: Eustat eta Nafarroako Estatistika Institutua, Aduanen Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea irudikatzen duten beste adierazle batzuk ere prest daude 2025eko datuekin: kanpo-merkataritzarenak. Zehazki, landare-adarraren, animalia-adarraren eta bi horien produktu eratorrien inportazioak eta esportazioak bereizten dira. Ekitaldi horren harira, Nafarroako datuetan ez dago gertaera berezirik, landare-adarraren 2023ko inportazioen gorakada handiaren tankerakoa. Egoera hori ezohikoa izan zen, aurreko urtean hasitako Ukrainako gerraren eraginez mundu-mailako merkatuak asaldatu baitziren. Horren ostean, aldagaien hazkunde-erritmoa normaldu egin zen, eta aipatzekoa da gorantz doazela mailaz maila duela zenbait bosturtekotatik hona. Igoerarik izatekotan, abeltzaintza-adarraren esportazioena eta inportazioena izan da, azelerazioa adierazten duen igoera txiki bat. Iazko bi zenbaketetan ikusten da hori, baina zehaztu behar da inportazioen igoera epe luzeagokoa dela eta azken bost urteak hartzen dituela, abeltzaintzaren atzerriko intsumoak ia bikoiztu baitira denbora horretan zehar. Esportazioetan ez da hori gertatu; gainerako zenbaketetan bezala, hazkundearen bidea lineala da funtsean. Nekazaritzako elikagaien industrian ere igo ziren inportazioak, aldagai horrek izan dituen oszilazio txikiak baino modu nabarmenagoan. Etorkizunean aztertu beharko da ea bi adarren inportazioaren azelerazio horiek horrela jarraitzen duten.

EAEn, egiturazko aldeak daude oraindik Nafarroarekin erkatuta. Horrez gain, aldagaiek bestelako erreakzioak izan zituzten aipatu asalduren fasean zehar. Animalia-adarraren esportazioak soilik izan ziren antzekoak EAEn eta Nafarroan, bai zenbatekoak, bai igoera lineal eta mailaz mailakoaren bilakaera. Landare-esportazioak txikiagoak izan ziren. Dena den, Nafarroan ez bezala, oszilazio handia jasan dute azken urteetan: gorakada bizien hirurteko bat, gutxi gorabehera, eta geldialdi bortitza ondoren. 2025ean, igotzeari ekin

zioten berriro. Nafarroako elikagaien industriako esportazioak handiagoak izan ziren, ezbairik gabe, eta igoera handi samarra gertatu zen 2022aren inguruan, halaber. Alabaina, ia egonkorturik geratu dira maila altu horretan orduz geroztik. Inportazioetan, hiru azpisektoreen maila askoz handiagoa izan zen EAEn Nafarroan baino, eta hazkundea azeleratuagoa izan da azken urteotan. 2022ko gailurra eta geroko zuzenketa Nafarroakoa baino handiagoa izan zen oszilazio baten parte izan dira. Kasu honetan, landare-adarrak bestelako portaera bat izan zuen, beheranzko zuzenketarekin jarraitu baitzuen iaz. Industria- eta animalia-adarrek, aldiz, igoera azeleratuaren erritmoan jarraitu zuten, azken laurtekoan horrela egon dira eta.

Horiek horrela, ondoriozko merkataritza-balantza hobetu eta modu linealean hazi zen Nafarroako hiru adarretan. EAEn, berriz, okerrera egin zuen defizitera bidean, baina oszilazio ugarirekin. Landare-adarraren ondorio izan zen batez ere (iaz defizita arindu zen), baina balantzea negatiboa izan zen animalia-adarrean ere, eta azken biurtekoan sakondu egin zen, gainera. Industria-adarrean superabita izan zen, aitzitik, mailaz mailako hobekuntza gelditu eta murrizten ari da 2022tik aurrera.

Biztanleria okupatua

168. koadroa. Enplegua lehen sektorean*

(mila pertsona)

Urtea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE	Nafarroa	Euskal Herria	Espainia
2015	1,8	6,2	2,5	10,5	9,4	19,9	740,4
2016	3,7	5,4	1,9	11,0	9,8	20,8	760,2
2017	3,8	7,7	3,8	11,5	10,1	21,6	832,6
2018	3,2	2,9	2,8	8,9	14,2	23,1	822,5
2019	3,4	4,2	3,4	11,0	12,5	23,5	809,3
2020	3,6	2,2	2,6	8,4	9,6	18,0	763,4
2021	1,3	6,7	1,4	9,4	9,2	18,6	811,1
2022	2,0	6,2	2,0	10,2	6,9	17,1	789,3
2023	2,7	2,8	3,8	9,3	10,6	19,9	776,3
2024	1,2	1,6	5,1	7,9	9,6	17,5	772,0
2025	1,1	1,4	4,3	6,8	11,2	18,0	764,7

(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

Jarraipena egin zaion beste adierazle bat da nekazaritza eta abeltzaintzan dihardutela dioten pertsonena. Zehazki, Biztanleria Aktiboa Inkestan neurtzen da, urte bakoitzeko bigarren seihilekoan. Laginketa-kontuen eraginez, oszilazioak sarri gerta daitezkeela onartu behar da. Epe luzera, Estaturako eta Nafarroarako zenbaketak tarte nahikoa egonkorren artean dabiltza. Moneta-agregatuetan ikusten diren hazkunde-erritmoak ezin dira hemen ikusi, ezta urrutitik ere. Nafarroan edo Estatuan ekoitzitako kantitateek ez zituzten igoera ikusgarriak izan, kategoria eta fase jakin batzuetan izan ezik. Eta


LABORAL kutxa

dagozkion uztetan giza lana bitarteko mekanikoekin ordezten jarraitzen dute, gainera. Beraz, halako egonkortasuna antzematea ulergarria da.

Nahiz eta horrelako laginketetan zuhurtzia handia behar den, beheranzko nolabaiteko joera ikusten da EAEn, eta hiru lurraldeetako zenbaketa txikiagoek areagotu egin zuten hori lehengo urtean. Gipuzkoa ere horren barnean dago, nahiz eta salbuespena izaten zen ondoz ondoko hainbat igoerak orekaturik.

28. grafikoa. Enpleguaren bilakaera lehen sektorean*

(mila pertsona)



(*): Urte bakoitzeko ekaineko datuak eskaini ditugu, sektoreko enpleguaren urtarokako bilakaera aztertzeko adierazgarriagoak direla uste dugulako.

Iturria: EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

2. NEKAZARITZA-AZPISEKTOREA

2025ean, nekazaritzak ziurgabetasun handiko testuinguruan jardun zuen berriro, nahiz eta balantze meteorologikoa lehorteak gehien markatutako urteetakoa baino hobea izan. Neguko eta udaberriko euriek ur-erreserbak hobetu zituzten, eta bereziki mesede egin zieten zerealei, bazka-laboreei eta lehorreko beste labore batzuei. Hala ere, susperraldi horrekin batera tenperatura oso altuak, ekaitzak, kazkabarra eta prezipitazioen banaketa irregularra izan ziren; horrenbestez, kanpainak planifikatzeko eta etekinak aurreikusteko zailtasunak bere horretan jarraitu zuen.

Labore askoren ekoizpen-hobekuntzak ez zuen automatikoki errentagarritasunaren neurri bereko susperraldia ekarri. Ongarrien, energiaren, makineriaren, produktu fitosanitarioen eta eskulanaren kostuak apaldu egin ziren Ukrainaren inbasioaren ondoren lortutako maximoekin alderatuta, baina azken krisien aurreko mailen gainetik jarraitu zuten. Horri produktu batzuen prezioen gaineko beheranzko presioa gehitu zitzaion uzta onek eskaintza handitu zutenean, bereziki nazioarteko kotizazioekiko esposizio handia duten nekazaritza-merkatuetan. Merkataritza-inguruneak beste baldintzatzaile garrantzitsu bat izaten jarraitu zuen. Kostu edo arau-eskakizun txikiagoak dituzten herrialdeetatik datozen ekoizpenen lehiak ispilu-klausulei eta Europako merkatua babesteko mekanismoei buruzko eztabaida sustatu zuen. Aldi berean, tentsio geopolitikoek, merkataritza-protekzionismoak eta munduko uzten gorabeherek zerealak, olioa, ardoa edo fruta eta barazki jakin batzuk bezalako produktuei eragiten jarraitu zuten.

Arazo espezifikoen artean, mahastizaintzarenak garrantzi berezia hartu zuen. Ardoaren kontsumoaren beherakadak, izakinen metaketak eta prezioen ahuleziak dagoeneko egiturazko ezaugarriak dituen krisia luzatu zuten. Egoera hori bereziki garrantzitsua da Nafarroarentzat eta Arabako Errioxarentzat, laboreak pisu ekonomiko, industrial eta lurralde-pisu askoz handiagoa baitu azalerari edo ekoizpenari buruzko zifrek soilik adierazten dutena baino.

EAEren eta Nafarroaren esparruan, joera horiek nekazaritza-eredu desberdinei eragiten diete: batetik, isurialde atlantiko zatikatuagoari, larre, bazka-labore, baratzezaintza eta fruta-arbolekin lotura handiagoa duenari; eta, bestetik, Nafarroako nekazaritza zabalago, dibertsifikatuago eta nekazaritzako elikagaien industriarekin lotura handiagoa duenari. Ureztatzearen hedapenak, kontserba- eta izozte-industriaren eskariak eta azalerak tomatea, brokolia, piperra, proteaginosoak edo erremolatxa bezalako laboreetara egokitzeak erantzuteko gaitasun nabarmena erakusten dute. Aurtengoan gertatu den bezala, horren barruan sartzen da Nafarroan azken labore hori lantzeari uko egin izana, errentagarritasunik ezagatik. Hala ere, egokitzapen horrek urarekiko, energiarekiko, eskulanaren kontratazioarekiko eta merkatuen egonkortasunarekiko mendekotasuna ere handitzen du. Tokiko merkatuak oso garrantzitsuak dira nekazarientzat; tokiko

LABORAL kutxa

produktuarekiko estimua ezinbesteko sostengua da, eskaintza globalarekin ez ezik, nekazaritzak askoz indar dinamikoagoa duen Estatu-mailako esparruarekin ere lehiatu behar duen testuinguru batean, nahiz eta azken horrek ere ez dien ihes egiten azpisektoreak lurralde guztietan dituen ziurgabetasun eta arazo handiei.

2.1 EKOIZPENAK, AZALERAK ETA ERRENDIMENDUAK

169. koadroa. Euskal Herriko nekazaritza-ekoizpen adierazgarrienak*

(m Tm)

Kategoria	Produktua	2024	2025	% Δ 25/24	% Euskal Herria / Espainia 2025
Zerealak	Garia	571,0	527,2	-7,7	6,3
	Garagarra	451,4	404,4	-10,4	4,4
	Oloa	83,6	85,1	1,7	6,5
	Arroza	10,7	8,4	-21,5	1,1
	Artoa	133,9	154,2	15,2	3,9
	Zekalea	1,9	1,8	-5,3	0,7
	Tritikalea	8,2	9,3	13,5	1,1
Bazkak	Bazka-artoa	247,8	242,6	-2,1	4,9
	Alpapa	228,7	241,0	5,4	3,1
	Zalkea (bazka)	226,0	192,7	-14,7	6,2
Lekaleak	Babarrun lehorra	1,0	1,6	57,6	6,2
	Baba lehorra	6,6	6,1	-7,9	15,6
	Ilar lehorra	24,4	19,6	-19,6	7,5
	Zalkea aleetan	0,4	0,3	-27,3	0,3
Barazkiak	Alberjinia	2,4	1,3	-46,8	0,4
	Zainzuria	5,9	5,0	-15,5	9,0
	Letxuga	20,6	20,7	0,2	2,1
	Espinaka	20,4	17,6	-13,6	19,3
	Endibia	7,3	7,4	1,4	43,9
	Kuia	11,7	12,5	6,9	7,3
	Kuiatxoa	15,9	15,6	-1,6	2,5
	Tomatea	203,7	172,6	-15,3	4,3
	Piperra	43,0	45,2	5,0	3,0
	Orburua	7,5	6,8	-8,9	3,5
	Azalorea	29,9	39,8	33,1	22,8
	Brokolia	83,4	99,0	18,6	19,8
	Porrua	5,4	7,4	36,2	9,6
	Tipula	28,2	19,4	-31,1	1,6
	Leka	15,2	15,3	0,9	16,4
	Ilar berdea	23,2	18,0	-22,3	18,0
	Baba berdea	6,5	6,5	0,0	22,9
Industrialak	Ekilorea	15,8	16,1	1,9	1,7
	Koltza	22,9	22,9	0,0	9,4
	Azukre-erremolatxa	195,3	195,3	0,0	2,3
Tuberkuluak	Patata	63,6	60,3	-5,2	3,1
Fruta-arbolak	Sagardo-sagarra	3,5	3,5	0,0	11,8
	Mahai-sagarra	13,4	13,4	0,0	3,1
	Udarea	10,4	10,4	0,0	3,7
	Gerezia eta ginga	1,6	1,9	18,8	1,7
	Arana	0,7	0,7	0,0	0,5
	Mertxika	6,9	6,4	-7,2	1,0
	Arbendola	7,0	7,0	0,0	1,0
Mahastia	Ardoa eta muztioa (m Hl)	983,3	778,8	-20,8	2,5

(*): Balioespenak. Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

LABORAL kutxa

Nafarroako Gobernuak hilero egiten du laboreen bilakaeraren jarraipena Nekazaritza Koiunturaren Buletinaren bidez. Lehen seihilekoaren amaiera aldera, aurreko ekitaldiari dagozkion behin betiko azalera- eta ekoizpen-zifrak eskuragarri egon ohi dira, eta Nekazaritza Ministerioari ere igortzen zaizkio labore bakoitzaren informazioa osatu ahala. Buletinean aztertutako produktuen zerrenda ia ez da aldatzen urte batetik bestera, eta horrek denbora-serie zabalak eraikitzea errazten du. Ekoizpen minoritario guztiak eta aldaera espezifiko jakin batzuk jasotzen ez baditu ere, landutako azaleraren eta uzten zatirik handiena biltzen du; beraz, Nafarroako nekazaritzaren irudi behar bezain adierazgarria eskaintzen du. Ministerioaren datuek erakusten dute, hala ere, Buletinak berak «aipatutako laboreak» deitzen dituenez gain, badirela beste batzuk ere, horietako batzuk nahiko berriak eta ez hain tradizionalak, Nafarroako nekazaritzan agertzen hasi direnak.

EAEn, kantitateei eta azalerei dagokienez zuzenean argitaratutako jarraipen estatistikoa askoz mugatuagoa da, baina datuak Ministerioaren iturriari ere ematen zaizkio. Hor ikus daitekeenez, oro har zifrak Nafarroakoak baino askoz apalagoak badira ere (eta EAEn Nafarroan baino askoz produktu gutxiagok dute presentzia), produktu batzuen ekoizpena handiagoa da EAEn Foru Erkidegoan baino (zekalea, babarrun edo baba lehorra, porrua, sagardotarako sagarra edo patata); are gehiago, Nafarroako Koiuntura Buletinak jasotzen ez dituen baina Ministerioak jasotzen dituen aipatutako produktuen artean, zenbaitetan jarduera gehiago garatu da EAEn Nafarroan bertan baino: kiwia, ahuakatea, mugurdia, ahabia, hurra, baratxuria edo azenarioa.

Estatuko nekazaritza osoan, 2025ean ekoitzitako kantitatea % 9,5 handitu zen, prezioek –% 1,6 egin zuten behera eta balioak % 7,7 egin zuen gora. Nafarroako egoera kontrakoa da: kantitateek behera egin zuten eta prezioek % 5,4 egin zuten gora, Buletinaren adierazle agregatuaren arabera. EAEn, kantitatea –% 2,6 jaitsi zen, prezioak % 4,7 igo ziren eta balioa +% 2 handitu zen.

Zerealetan, Estatuan kantitateak % 19,9ko hazkunde handia izan zuen (nolanahi ere, aurreko urteko +% 77,2 baino askoz txikiagoa), prezioek –% 4,3 egin zuten behera eta guztizko balioak % 14,7 egin zuen gora. Nafarroan, zereal-ekoizpen nagusiak, garia eta garagarra, moteldu egin ziren aurreko urteko igoera handiaren ondoren; hurrengo biek, oloak eta artoak, beste urte bat gehitu zieten goranzko zikloei, egonkortasunerako joera orokorraren barruan. EAEn, kantitateek –% 16,8 egin zuten behera, prezioek –% 7,7 eta balioak –% 23,2. Lekadunen artean, Nafarroako bilakaera ere laua izan zen, ilar lehorraren kasuan izan ezik. Produktu horrek gorakada izugarria izan zuen 2023an eta 2024an, eta hainbat iturrik lurzoruei ematen dien balio proteaginosoarekin eta ongarri-balioarekin lotzen dute gorakada hori. 2025ean moteltzea gertatu zen, baina maila altuetan mantendu zen. Bazka-labore gisa sailkatutako produktuetako hiru barazkien kategoriara igarotzen dira bestelako erabilera ematen zaienean; laugarrena, zalkea, berriz, erabilera bikoitzarekin ere agertzen da, bazka gisa erabiltzen baita. Nafarroan, kategoria horretako

prezioen adierazleak prezioen beherakada adierazten du (–% 3,2). EAEn, kantitateek % 46,9 egin zuten gora, prezioek % 15 eta balioak % 68,9.

170. koadroa. Euskal Herriko produktu esanguratsuenekin landatutako azalera *

(ha)

Kategoria	Produktua	2024	2025	% Δ 25/24	% Euskal Herria / Espainia 2025
Zerealak	Garia	97.536	99.117	1,6	0,7
	Garagarra	84.551	83.697	-1,0	4,4
	Oloa	16.101	16.995	5,6	6,5
	Arroza	1.874	1.438	-23,3	1,1
	Artoa	12.490	14.210	13,8	3,9
	Zekalea	463	506	9,3	0,7
	Tritikalea	2.559	2.636	3,0	1,1
Bazkak	Bazka-artoa	6.013	5.712	-5,0	4,9
	Alpapa	5.997	6.258	4,4	3,1
	Zalkea (bazka)	12.361	10.002	-19,1	6,2
Lekaleak	Babarrun lehorra	919	1.241	35,0	6,2
	Baba lehorra	3.006	2.939	-2,2	15,6
	Ilar lehorra	8.860	23.004	159,6	7,5
	Zalkea aleetan	529	458	-13,4	0,3
Barazkiak	Alberjinia	59	39	-33,9	0,4
	Zainzuria	1.617	1.487	-8,0	9,0
	Letxuga	978	973	-0,5	2,1
	Espinaka	942	834	-11,5	19,3
	Endibia	77	82	6,5	43,9
	Kuia	331	425	28,4	7,3
	Kuiatxoa	194	225	16,0	2,5
	Tomatea	3.050	2.649	-13,1	4,3
	Piperra	1.386	1.441	4,0	3,0
	Orburua	593	591	-0,3	3,5
	Azalorea	1.352	1.573	16,3	22,8
	Brokolia	6.375	6.337	-0,6	19,8
	Porrua	323	363	12,4	9,6
	Tipula	452	487	7,7	1,6
	Leka	1.289	1.189	-7,8	16,4
	Ilar berdea	3.306	3.071	-7,1	18,0
	Baba berdea	1.207	1.217	0,8	22,9
Industrialak	Ekilorea	10.177	8.349	-18,0	1,7
	Koltza	8.086	7.715	-4,6	9,4
	Azukre-erremolatxa	2.278	761	-66,6	2,3
Tuberkuluak	Patata	1.807	1.774	-1,8	3,1

(*): Balioespenak. Oharra: Ez ditugu sartu mahastizaintzaren eta fruta-arbolen azalerei buruzko datuak, horien argitalpenaren nahitaezko maiztasun mugatuagatik (bost urtetik behin). Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

Nafarroako patata-ekoizpena, bestalde, ez da azken aldiko geldialditik ateratzen; gorabeherak gorabehera, pixkanakako beheranzko joera izan du, nabarmenagoa erabilitako azaleran, baina baita tona-kopuruari dagokionez ere. EAEn, patataren tona-kopuruak –% 1,5 egin zuen behera, prezioek –% 16,1 eta balioak –% 17,4. Nafarroan, aldiz,

LABORAL kutxa

prezioaren datua positiboa da (+% 9,4); Estatuan, berriz, kantitateek –% 1,2 egin zuten behera, prezioek –% 15,2 eta guztizko balioak –% 16,2.

Industria-landareei dagokienez, Estatuan kantitateek –% 3,2 egin zuten behera, prezioek –% 2,1 eta balioak –% 5,2. Nafarroan, aldiz, prezioak gora egin zuen (+% 7,3), eta kantitateek hemen ere behera egin zuten, ez bakarrik lehen aipatutako azukre-laborearen errentagarritasunik ezak Foru Komunitateko ekoizleak 2025ean hura baztertzera eraman zituelako, baita olioa ateratzeko produktuek (koltza edo ekilorea) berriro ere tona-kopuruan behera egin zutelako ere, jaitsierak beste behin arinak izan baziren ere. EAEn, «beste industria-landare» batzuen kantitatea % 7 jaitsi zen, eta erremolatxarena bere horretan mantendu zen; azken horren prezioa –% 15,5 jaitsi zen (balioaren beherakadaren tasa bera), eta gainerakoena % 6,2 garestitu zen, balioak –% 1,3 egin bazuen ere.

Bazka-laboreen artean, Nafarroako azalerak eta tona-kopuruak aurreko urtekoen antzekoak dira. 2025ean, prezioek % 5,2 egin zuten gora Nafarroan eta +% 13 Estatuan; azken esparru horretan kantitateak ere +% 12 egin zuen gora, eta horrek guztizko balioa % 26,6 handitzea eragin zuen, nahiz eta aurreko urteko beherakada handi batetik abiatu. Nafarroan, guztizkoari 52.000 tona inguru festuka —gramineoen beste bazka mota bat—, bazka-zerealen ia 30.000 tona eta astorkiaren beste 4.700 tona inguru gehitu ahal izango litzaizkioke; azken hori beste bazka-lekadun bat da. Hala ere, testuinguru honetan Nafarroako Nekazaritza Buletinak erabiltzen duen produktuen zenbaketa berari jarraitzea erabaki da.

Barazkien kategoria da, halaber, produktu-aniztasun handiena duena. Nafarroan, prezioak % 5 igo ziren 2025ean; horrek 2023an izandako gorakada handia sendotu zuen. Estatuan, kantitateak –% 1,3 egin zuen behera, prezioak % 8 garestitu ziren eta guztizko balioak % 6,5 egin zuen gora. Tona kopuruei dagokienez, aipagarriena da ekoizpen nagusiak, tomateak, iaz izandako igoeraren zati handi bat beherantz zuzendu zela; kantitateari dagokionez bigarrenak, brokoliak, berriz, hazkunde bizkorrarekin jarraitu zuen. Ekoizpen handieneko beste produktuen artean, azaloreak eta piperrak gorakadak sendotu zituzten; arto gozoak ere bere joera berretsi zuen, kasu honetan geldialdikoa. Badira ekoizpen txikiagoko zenbait produktu taula honetan edo Nafarroako Buletinean bertan sartzea azter litekeenak, hala nola azenarioa (391 tona; EAEn, berriz, 1.000 tona baino gehiago), pepinoa (400) edo arbi-garak (525). EAEn, barazkiek % 9,5 egin zuten gora kantitatean, % 14,3 prezioetan eta % 25,1 balioan.

Fruta-arbolei dagokienez, Estatuko datu aipagarrienak honako hauek dira: kantitateak –% 0,8 egin zuen behera, prezioek % 13 egin zuten gora eta balioak % 12,1; Nafarroan, prezioen indizeak % 8,6ko igoera adierazten du. EAEn, kantitateak % 23,3 egin zuen gora, prezioek % 11,1 eta balioak % 36,9. Azalerei eta tona kopuruei dagokienez, badira Nafarroan nolabaiteko presentzia duten beste fruta asko, baina horietako batek ere ez du oraindik taulan jasotakoek adina hektarea edo tona. EAEn, ordea, badira hainbat, lehen adierazi den bezala. Nafarroako tona kopuruen artean, sagarraren susperraldia berretsi

zen; madariondoaren edo mertxikondoaren epe oso luzeko beherakada handiak, berriz, sendotu egin ziren, nahiz eta azken kasu horretan zertxobait apaldu. Aurreko urtean almendrondoak izandako gorakada handia beherantz zuzendu zen.

Mahastietan, Estatuan ekoitzitako kantitateak % 11 egin zuen behera, prezioek % 6,9 egin zuten gora eta guztizko diru-balioak % 4,9 egin zuen behera; Nafarroan, berriz, prezioak % 64,5 egin zuen gora. EAEn, kantitateak –% 15,2 egin zuen behera, prezioak % 5,3 egin zuen gora eta balioak –% 10,7 egin zuen behera. Mahastiaren tona kopuruaren beherakadak hainbat denboraldi daramatza jarraian.

171. koadroa. Nekazaritza-produktu esanguratsuenek lortutako errendimenduak*

(Tm/ha)

Kategoria	Produktua	Euskal Herria		Espainia	
		2024	2025	2024	2025
Zerealak	Garia	5,9	5,3	3,7	4,2
	Garagarra	5,3	4,8	3,3	4,0
	Oloa	5,2	5,0	2,3	2,6
	Arroza	5,7	5,9	7,1	7,6
	Artoa	10,7	10,9	12,3	12,3
	Zekalea	4,1	3,6	2,3	2,6
	Tritikalea	3,2	3,5	2,5	3,0
Bazkak	Bazka-artoa	41,1	42,5	35,9	36,7
	Alpapa	38,1	38,5	39,6	36,7
	Zalkea (bazka)	18,3	19,3	17,0	17,7
Lekaleak	Babarrun lehorra	1,0	1,3	1,7	2,2
	Baba lehorra	2,2	2,1	1,6	1,2
	Ilar lehorra	2,8	0,9	1,4	1,4
	Zalkea aleetan	0,7	0,6	1,1	1,2
Barazkiak	Alberjinia	41,4	33,3	82,9	80,1
	Zainzuria	3,6	3,3	4,4	4,3
	Letxuga	21,1	21,2	28,0	28,2
	Espinaka	21,6	43,9	18,5	17,8
	Endibia	94,2	21,1	57,8	54,4
	Kuia	35,4	29,5	25,6	23,5
	Kuiatxoa	81,9	69,5	54,1	55,5
	Tomatea	66,8	65,2	82,7	80,7
	Piperra	31,1	31,4	65,2	65,6
	Orburua	12,6	11,5	14,8	14,9
	Azalorea	22,1	25,3	23,0	22,7
	Brokolia	13,1	15,6	14,9	15,3
	Porrua	16,8	20,3	26,2	27,0
	Tipula	62,4	39,9	55,0	51,8
	Leka	11,8	12,9	19,5	17,4
	Ilar berdea	7,0	5,9	7,2	7,0
	Baba berdea	5,4	5,3	8,0	7,6
Industrialak	Ekilorea	1,6	1,6	1,1	1,2
	Koltza	0,8	0,9	2,3	2,6
	Azukre-erremolatxa	85,7	65,7	77,1	85,4
Tuberkuluak	Patata	35,2	34,0	32,3	29,2

(*): Balioespenak. Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

LABORAL kutxa

Estatuko olibadian, ekoizpenak % 81,9 egin zuen gora —azpisektore horretan oso aldakorra da, urtebetetik gorako ziklo biologikoak direla eta—, prezioak % 49,1 egin zuen behera —bereziki 2023an izugarri igo ondoren—, eta guztizko balioak −% 7,4 egin zuen behera aurreko urtearekin alderatuta. Olibadian izandako jaitsiera ohiko atzerakada izan da haren gorabehera-zikloaren barruan; epe luzera, ordea, goranzko joera orokorra izatea ez du eragozten. Tona kopuruei dagokienez, Nafarroan bereziki aipagarria da pisu handieneko hiru kategorietan —zerealak, bazka-laboreak eta barazkiak— aurreko urteko igoerak bat-batean eten izana; industria-laboreen ekoizpena ere nabarmen zuzendu zen, aurreko urtean izugarri igo eta orain behera egin duen produktuaren, erremolatxaren, ondorioz. Fruta-arbolek edo tuberkuluek beherantz jarraitzen dute epe luzeko joeraren barruan; olibadiaren beherakada ohiko gorabeherak eragiten dituzten ziklo biologikoen barruan koka daiteke; lekadunek gorakada moteldu zuten, eta mahastizaintzaren krisia areagotu egin zen. Eskuragarri dagoen 15 urteko seriean, lehen aldia da Buletinak aztertutako paneleko kategoria guztiek behera egiten dutena.

Nafarroan, azalerari dagokionez, zerealek % 63,7 hartzen dute; oso urrun daude bazka-laboreak (% 9,7), barazkiak (% 8,3), mahastiak (% 5,3), industria-laboreak (% 4), lekadunak (% 3,6), olibadia (% 3), fruta-arbolak (% 2,3) eta tuberkuluak (% 0,1). Aitzitik, ekoitzitako tona kopuruari dagokionez, zerealak kategoria nagusia badira ere, bazka-laboreek eta barazkiek agregatuaren erdia baino gehiago osatzen dute. Azaleren zenbaketan, 2025ean lehen aipatutako joeren iraulketa ikusten da: zerealek azalera irabazi zuten oraingoan —batez ere nagusiak, gariak—; azken urteetan azalera irabazten ari ziren barazkiek, berriz, 2025ean atzera egin zuten —batez ere tomateak, zainzuriak, arto gozoak eta ilar berdeak eraginda—, industria-laboreek bezala, azukre-erremolatxaren erabateko geldialdiaren ondorioz. Lekadunek azken hirurtekoan izandako gorakada handiari eutsi zioten. Nekazaritza-azalera osoa egonkorra da, duela hamarkada batekoaren ia berdina. Denbora-tarte horretan, lagineko lekadunen azalera % 20 handitu zen; tuberkuluena % 39 jaitsi zen; industria-laboreena % 1 handitu zen; bazka-laboreena % 3; barazkiena % 15; fruta-arbolena % 5; mahastien azalera % 13 jaitsi zen; olibadiarena % 44 handitu zen; eta guztizkoa % 6. Foru Erkidegoan, fruta-arboletara bideratutako azalera oso egonkorra izan zen hamarkada bat baino gehiagoz; 2023ko zenbaketan nabarmen egin zuen behera, hurrengo urtean suspertu zen, eta 2025ean itxuraz goranzko fase batean sartzen ari dela berretsi zuen. Mahastietan, aldiz, kontrakoa gertatu zen: urte horretan, azaleraren murrizketa bizkortu egin zen, batez ere Errioxa Jatorri Deiturari atxikitako azalera, ordura arte pixka bat hazten ari zena, Nafarroa Jatorri Deituraren beheranzko joerarekin bat egin zuelako. Olibadiak, bitartean, pixkanaka hazten jarraitu zuen.

EAEn, kategorien araberako kantitateen epe luzeko azterketan, horietako askoren irregulartasuna ikusten da; bereziki zerealena edo patatarena, nahiz eta nahiko egonkorra den tarte baten inguruan gorabeherak izan. Lekadunak goranzko fase batean sartzen ari direla dirudi; barazkiak eta frutak beherakada handien ondoren suspertzen ari direla dirudi; eta industria-landare oleaginosoek edo mahastiek beheranzko joera dute. Nafarroan ere

zerealek eta bazka-laboreek nahiko egonkorra den tarte baten inguruan egiten dute gora eta behera; barazkiek goranzko joera argiagoa dute; frutek ez dute beheranzko joera uzten; mahastiak ere gainbehera erakusten du, azkenaldian bizkortua; eta lekadunek gorakada handia izan dute.

Ministerioaren datuekin EAEren eta Nafarroaren multzoko datuak Estatuko nekazaritzaren egoerarekin alderatu daitezke; hala ere, zuhurtziaz erabili behar dira, argitaratutako Estatuko guztizkoak batzuetan behin-behineko aurrerapenak baitira, eta urtearen arabera autonomia-erkidego guztiek edo batzuek beren zenbaketak jakinarazita izan ditzakete edo ez. Batez ere barazki batzuetan ikusten da gure lurraldeek kuota handiak eta, are, etekin hobeak lortzen dituztela; beste batzuetan, ordea, Estatuko nekazaritza-sektore indartsua alde handiz nagusitzen da.

LABORAL kutxa

2.2 NEKAZARITZAKO PREZIOAK

172. koadroa. Nekazaritza-produktu esanguratsuenen prezioak(*)

Kategoria	Produktua	Nekazariek jasotako prezioak (euro/100 kg)		
		2024	2025	% Δ 25/24
Zerealak	Garia	21,98	21,37	-2,8
	Garagarra	20,39	19,30	-5,3
	Oloa	20,30	17,10	-15,8
	Arroza	52,05	46,90	-9,9
	Artoa	22,35	22,22	-0,6
Bazkak	Alpapa	15,56	16,09	3,4
	Zalkea (bazka)	11,50	12,65	10,0
Lekaleak	Zalkea aleetan	41,28	43,50	5,4
	Babarrun lehorra	455,00	467,00	2,6
	Baba lehorra	27,70	25,60	-7,6
Barazkiak	Zainzuria	260,83	279,83	7,3
	Aza (Brusela)	90,00	121,67	35,2
	Aza (burua)	38,75	33,75	-12,9
	Eskarola	142,00	126,00	-11,3
	Zerba	68,34	72,03	5,4
	Kuiatxoa	64,00	48,00	-25,0
	Letxuga	83,27	84,71	1,7
	Espinaka	81,80	119,88	46,6
	Tomatea	17,47	17,33	-0,8
	Piperra	94,17	99,86	6,0
	Orburua	122,59	115,50	-5,8
	Azalorea	69,90	60,50	-13,4
	Brokolia	71,55	86,45	20,8
	Porrua	70,00	65,25	-6,8
	Tipula	20,00	23,45	17,3
	Leka	40,41	43,81	8,4
	Ilar berdea	26,39	30,80	16,7
	Baba berdea	88,20	67,00	-24,0
Industrialak	Ekilorea	46,00	44,29	-3,7
Tuberkuluak	Patata (sasoi erdikoa)	49,62	53,57	8,0
	Patata (berantiarra)	46,01	52,15	13,3
Fruta-arbolak	Mahai-sagarra	56,24	59,58	5,9
	Sagardo-sagarra	10,75	11,05	2,8
	Mahaiko udarea	79,00	82,48	4,4
	Udarea (industria)	12,75	11,50	-9,8
	Mahaiko mertxika	84,09	114,05	35,6
	Mertxika (industria)	35,41	43,22	22,1
	Nektarina	74,49	86,50	16,1
	Gerezia eta ginga	312,60	307,60	-1,6
	Arana	213,02	208,99	-1,9
	Arbendola	83,42	121,88	46,1
Mahastia	Ardo gorri berria	80,41	76,86	-4,4
	Ardo beltz berria	51,80	52,81	1,9

(*): Balioespenak. Iturria: Coyuntura Agraria-ren buletina. Nafarroako Gobernua. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

EAEko prezioen kateatutako azterketan, zerealek, patatak eta «beste industria-landareek» beheranzko zuzenketa handiak izan dituzte azkenaldian, aurretik izandako igoera bizkorren ondoren. Mahastiaren prezioek beheranzko joera dute; lekadunek egonkortasun handiagoa erakusten dute; barazkien prezioek, berriz, izugarri egin dute gora azken bosturtekoan, eta frutek ere antzeko erritmoan jarraitu diete.

Nafarroako Buletineko kategorien araberako prezio-indizeetatik ondorioztatzen den kateatutako azterketak —atal honetako taularako erabilitakoak— askoz egonkortasun handiagoa erakusten du. Azken hirurtekoan igoera esanguratsuak ikusten dira barazkietan eta frutetan, baina ez EAEkoak bezain nabarmenak. Hemen, azkenaldian beherantz apaldu den gorabehera bazka-laboreena da; lekadunak ere beherantz zuzentzen ari direla dirudi, eta patata da azken biurtekoan izugarri garestitu dena. Industria-laboreak eta mahastia geldialdi handiagoan daudela dirudi prezioen epe luzeko bilakaerari erreparatuta.

Beraz, alde handiak ikusten dira EAEko kateatutako balantzearekin alderatuta; interesgarria da horiek aztertzea, baina zuhurtziaz hartu behar dira, bi erkidegoetan arlo horien ardura duten erakundeen zenbatespenetan oinarritzen baitira. Zifra horiek sarritan zenbatetsiak edo aurrerapenekoak dira, aldatu egin daitezke eta metodo oso desberdinen bidez kalkulatuta egon daitezke. Hala ere, zalantzarik ez dago bi erkidegoen artean alde handiak daudela kategoria bakoitzeko produktu-panelaren osaerari eta labore motei dagokienez.

Prezioei dagokienez, gorabeherak oso ohikoak dira, eta, epe luzera, ia produktu guztien prezioak tarte nahiko egonkor batean ibiltzen dira azkenean; gainera, badira arlo horretan dinamismo nahiko txikia duten kategoria osoak, hala nola lekadunak edo patata, baita zerealak edo bazka-laboreak ere (unean uneko krisialdietatik kanpo); hala ere, badira salbuespenak, goranzko joera oso nabarmen eta jarraituak erakusten dituztenak. Hori gertatzen da piperra edo mahaiko sagarra bezalako produktu garrantzitsuekin; beste fruta batzuek ere gorakada handiak izan dituzte, hala nola udareak edo mertxikak, baita almendrak, aranak edo gereziak ere; beste kasu batzuetan, hazkundea oso bizia izan da, esaterako, orburuaren kasuan edo, berriki, espinakaren kasuan.

LABORAL kutxa

3. ABELTZAINTZA-AZPISEKTOREA

Abeltzaintzak tradizio luzea eta pisu handia izaten jarraitzen du Euskadiko eta Nafarroako eremuan eta Estatuan, bai ekonomiari eta lurraldeari egiten dien ekarpenagatik, bai elikadurarekin eta gastronomiarekin duen loturagatik. Hala ere, testuinguru konplexuan jarduten jarraitzen du. Ustiategi askoren errentagarritasun estuari belaunaldi-erreleborik eza, kanpo-lehia, gero eta arau-karga handiagoa eta animalien ongizateari, haragi-kontsumoari eta ingurumen-eraginei buruzko eztabaidak gehitzen zaizkio. Sektoreak bere egoera Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako politiketan hobeto aintzat hartzea eskatzen jarraitzen du. Isurialde atlantikoan, behi-esnea eta behi-haragia, ardi-aziendarekin batera, ekoizpen nagusiak izan dira. Ustiategiek modernizatu eta osasun-, ingurumen- eta trazabilitate-eskakizun handiagoetara egokitu behar izan dute. Esnearen negozioan, urte luzez zaila izan zen kostuak prezioetara eramatea; haragiaren negozioan, behi- eta ardi-aziendek pisu erlatiboa galdu dute txerri- eta hegazti-azienden aldean. Ustiategi eta abelburu kopuruaren murrizketak, gainera, lurralderako eta paisaiarako funtsezkoa den abeltzaintza estentsiboaren jarraipena arriskuan jartzen du.

Badira, halaber, aldeko faktoreak. Txerri-aziendak —bereziki garrantzitsua Nafarroan— eta hegazti-hazkuntzak posizio nabarmenak mantentzen dituzte; arrautzek balioa irabazi dute; eta esneki bereiziek, ardi- eta ahuntz-esnekoek barne, kalitatearekin eta jatorriarekin duten loturaren onura jasotzen dute. Berrikuntzak, digitalizazioak, laguntza publikoak, esportazioak eta hurbiltasun-zigiluek ere aldeko eragina dute.

Osasun-arriskuek ikusgarritasun berezia hartu zuten 2025ean mihi urdinaren ondorioz EAEko eta Nafarroako lurraldeetan, eta zaintza, txertaketa eta biosegurtasuna indartzeko beharra nabarmendu zen. Horrez gain, hegazti-gripearen mehatxuak, kanpoko gaixotasunekiko esposizioak eta fauna harrapariarekin izandako gatazkek bere horretan jarraitu zuten. 2022an hasitako energiaren eta pentsuen ezohiko garestitzeak indarra galdu bazuen ere, ez zen erabateko normalizaziorik gertatu: kostuek altu jarraitu zuten eta animalien elikadurarako gastua berriro handitu zen. 2025eko balantzea, beraz, oro har aldekoa izan zen prezioei eta balioari dagokienez, baina kostuek, osasun-arriskuek eta egiturazko ahuleziek baldintzatuta jarraitu zuen.

Estatu osoan, animalia-ekoizpenaren balioa % 6,9 handitu zen, behi-haragiaren eta arrautzen prezioek eta txerri- eta hegazti-ekoizpen bolumen handiagoek bultzatuta; behi-esnea, berriz, urtearen bigarren erdian suspertu zen. Hala ere, ardi- eta behi-jatorriko produktu guztien tona kopuruek behera egin zuten. Kantitateen agregatuak % 2,6 egin zuen gora Estatuan, eta prezioek % 4,2. Kantitateetan egonkortasun orokorra izan zen, eta igoerarik handieneko biurtekoan (2021-2022) lortutako prezio askori eutsi zitzaien; ondorioz, azken mailak, gehienetan, ordutik mantentzen ari dira.

Kantitateetan, txerri-ekoizpena % 6,5 handitu zen eta hegaztiena % 5,4; gainerako tona kopuru nagusiek, ordea, % 1 eta % 2 arteko beherakadak izan zituzten (behi-, ardi- eta ahuntz-haragia, esnea eta arrautzak). Prezioetan, Estatu-mailako kategoria nagusiarenak, txerriarenak, soilik egin zuen behera (–% 2,6); igoerak arrautzek (% 22,6) eta behiak (% 17,8) gidatu zituzten, eta gainerako produktuek hazkunde apalagoak izan zituzten.

Kostuen artean, pentsuek % 4,3 egin zuten gora. Balio ekonomikoari dagokionez, txerri-ekoizpena izan zen, alde handiz, produktu nagusia (% 15,8); haren atzetik, tarte handira, behi-haragia (% 6,8) eta esnea (% 6,6) zeuden, eta, are tarte handiagora, hegazti-haragia, arrautzak eta ardi- eta ahuntz-haragia. Azken biurtekoan txerriaren eta esnearen gorakada handiaren nolabaiteko moteltzea gertatzen ari da; behi- eta hegazti-haragiek, berriz, azkar hazten jarraitzen dute.

Aipatutako Estatu-mailako egiturarekin berehala alderatu daitekeen erkidegoa EAE da; Nafarroan ez dago desagregazio baliokiderik maiztasun berarekin, baina prezioei eta, batez ere, ustiategien laginketari buruzko informazio zehatzagoa ikusiko da. EAEn, abeltzaintza-ekoizpenak 254,8 milioi euroko balioa lortu zuen 2025ean, aurreko urtean baino % 7,6 gehiago, eta 2022ko kostu-krisiaren ondoren hasitako susperraldia sendotu zen. Ekoizpen-egituraren buruan behi-esnea zegoen oraindik, eta, haren atzetik, arrautzak, behi-haragia eta ardi-esnea; txerri-ekoizpenak, berriz, oso pisu txikia zuen Estatu osoarekin alderatuta. Espezializazio horren ondorioz, euskal sektorearen bilakaera gehiago dago esne-ekoizpenaren eta behi-aziendaren portaeraren mende, beste abeltzaintza-orientazio batzuen mende baino.

2025eko hazkundea batez ere behi-haragian oinarritu zen, haren balioa % 20,5 handitu baitzen, eta, bereziki, ardi- eta ahuntz-haragian, % 42,1eko igoerarekin. Arrautzek (+% 5,1), ardi-esneak (+% 2,8), behi-esneak (+% 0,2) eta beste abeltzaintza-produktuen multzoak (+% 7,9) ere gora egin zuten; txerriak, berriz, bere ekarpena murriztu zuen berriro (–% 18,8). Kantitateei dagokienez, bilakaera askoz apalagoa izan zen: abeltzaintza-ekoizpen osoa % 0,7 handitu zen, eta nabarmentzekoak izan ziren ardi- eta ahuntz-ekoizpenaren (+% 5,3), arrautzen (+% 5,1) eta behi-ekoizpenaren (+% 1,2) hazkundeak; aitzitik, behi-esnearen ekoizpenak behera egin zuen (-% 3,2), eta, bereziki, txerri-ekoizpenak (-% 15,2). Hala, ekoizpenaren balioaren hobekuntza batez ere prezioek maila altuetan jarraitu izanaren ondorio izan zen.

Izan ere, ekoizleek jasotako prezioek funtsezko zeregina izan zuten berriro. Ardi- eta ahuntz-haragiaren (+% 35) eta behi-haragiaren (+% 19) igoera handiak nabarmendu ziren; behi-esneak, berriz, goranzko joera apur bat berreskuratu zuen (+% 3,5), eta ardi-esnearen kotizazioak ia egonkortu egin ziren (+% 0,6). Arrautzek 2024an lortutako maila altuei eutsi zieten, aldaketa berririk gabe; txerri-ekoizpenak, berriz, zuzenketa handia izan zuen (-% 34,3), eta, horrela, 2023an erregistratutako ezohiko maximoen ondoren hasitako doikuntzak jarraipena izan zuen.

LABORAL kutxa

Epe luzeko ikuspegiak ere euskal abeltzaintzaren berezitasuna berresten du. Espainia osoan txerri-aziendak nagusitasun handia zuen; EAEn, aldiz, behi- eta ardi-aziendara eta esne-ekoizpenera bideratutako espezializazio argia zegoen. 2022ko inflazio-krisiak eragindako balio-handitze orokor eta handiaren ondoren, 2025eko ekitaldian espezieen arteko alde nabarmenagoak zituen merkatua ikusi zen: behi-aziendak maximo historikoak lortzen jarraitu zuen, ardi-aziendak oso bilakaera ona izan zuen eta esnekiek azken urteetan lortutako prezio-mailei eutsi zieten; txerri-aziendak, berriz, bere normalizazio-prozesuarekin jarraitu zuen.

3.1 ABELTZAINTZA-ERROLDA

173. koadroa. Abeltzaintza-errolda (urte bakoitzeko azaroan)

(unitateak)

Eremua	Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda
EAE	2021	133.917	213.788	27.351	36.965
	2022	127.739	210.041	27.841	34.697
	2023	123.919	201.831	26.906	30.135
	2024	121.226	197.810	27.689	26.212
	2025	121.617	222.088	32.708	24.243
Nafarroa	2021	123.384	460.620	14.270	828.608
	2022	120.404	419.842	15.354	841.662
	2023	118.760	409.599	15.195	826.141
	2024	120.107	397.799	14.979	769.890
	2025	119.844	405.632	15.246	775.753
Euskal Herria	2021	257.301	674.408	41.621	865.573
	2022	248.143	629.883	43.195	876.359
	2023	242.679	611.430	42.101	856.276
	2024	241.333	595.609	42.668	796.102
	2025	241.461	627.720	47.954	799.996
Espainia	2021	6.922.951	15.081.347	2.589.761	34.454.090
	2022	6.455.125	14.452.585	2.463.451	34.073.380
	2023	6.294.640	13.596.561	2.293.470	33.803.040
	2024	6.173.955	13.476.030	2.360.952	34.565.283
	2025	6.299.916	12.810.323	2.209.304	33.645.692
Euskal Herria/Espainia %	2025	3,8	4,9	2,2	2,4

Iturria: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

EAEko eta Nafarroako eremuan, 2025eko berritasun nagusia ardi- eta ahuntz-azienden gorakada izan zen, % 5,4 eta % 12,4 hazi baitziren, hurrenez hurren; behi-azienda ia egonkor mantendu zen, eta txerri-azienda % 0,5 baino ez zen suspertu. Bilakaera batez ere EAEk markatu zuen; bertan, ardi-azienda % 12,3 hazi zen, 222.000 abelburuak berriro gainditua, eta ahuntz-azienda % 18,1, aztertutako serieko maximoa lortuta. Euskal behi-azienda % 0,3 baino ez zen hazi, lau urtez jarraian behera egin ondoren; txerri-aziendak,

berriz, behera egin zuen berriro, % 7,5 oraingoan, eta 2021etik aziendaren errolda ia heren bat murriztu zen.

EAEn ardi-aziendak izandako hazkundeak hamabost urteko beherakada jarraitua eten zuen, eta Espainian izandako % 4,9ko beherakadarekin kontrastatzen du. Aldaketa hori animalien birjartze handiagoaren ondorio izan daiteke, baina baita sektorearen koiuntura ekonomiko hobearen ondorio ere: azken ekitaldietan, haragiaren eta ardi-esnekien balio-handitzeak kostuen igoera prezioetara hobeto eramatea ahalbidetu du. Latxa ardiaren pisuak, kalitate-bereizgarriak dituzten gazten ekoizpenak eta abeltzaintza estentsiboari emandako laguntzek ere lagundu ahal izan dute. Hala ere, ekitaldi bakarreko datua denez eta hazkundea bereziki handia izan zenez, hurrengo errolden zain egon beharko da egiturazko susperraldi baten hasiera den edo osagai estatistiko edo koiunturazkoren bat dagoen zehazteko.

Espainian, joerak ia alderantzizkoak dira. 2025ean, lau espezie nagusien artean behi-azienda baino ez zen hazi, % 2. Aldiz, ardi-aziendak (-% 4,9), ahuntz-aziendak (-% 6,4) eta txerri-aziendak (-% 2,7) behera egin zuten. Epe luzeko ikuspegitik, ardi-aziendak pisua galtzen jarraitu zuen txerri-aziendaren aldean; hala ere, EAEko eta Nafarroako eremuan izandako gorakadaren ondorioz, bi lurraldeek Estatuko ardi-aziendan zuten partaidetza % 4,9ra igo zen, 2014tik izandako proportziorik handienera. Haien kuota % 3,8koa da, halaber, behi-aziendan, % 2,2koa ahuntz-aziendan eta % 2,4koa txerri-aziendan.

Nafarroan, txerri-aziendak gora egin zuen azken hamarkadetan, bereziki azken hamarkadan; hala ere, azken bi urteetan joera hori zertxobait irauli zen, batez ere 2024an. 2025ean, goranzko bideari ekin zion berriro. Baina, 2025ean, abeltzaintza-aziendei dagokienez, berritasun nagusia ardi-buruen kopuruak berriro gora egin izana da, 2010etik lehen aldiz. Garai batean gehiengoa zen azienda horrek, beraz, beherakada eten zuen, joera-aldaketa berresten den ikusteko zain. Bitxia bada ere, 2025ean joerak alderantzizkoak izan ziren Nafarroan eta Estatuan. Azken eremu horretan, espezie nagusien artean behi-azienda baino ez zen hazi; Nafarroan, berriz, behi-aziendak —oro har, nahiko egonkorra— -% 0,2 egin zuen behera, eta aldiz, ardi-aziendak (% 2), ahuntz-aziendak (% 1,8) eta txerri-aziendak (% 0,8) gora egin zuten. Lau azienda horien arteko proportzioak nahiko antzekoak dira Nafarroako eta Estatuko eremuetan.

LABORAL kutxa

3.2 ABERE-EKOIZPENA ETA EMAITZA EKONOMIKOAK

Esne-ekoizpena eta emaitza ekonomikoak

174. koadroa. Esne-ekoizpena

(m litro)

Urtea	Eremua	Behia	Ardia	Ahuntza	Guztira
2023	Araba	51.402	2.819	409	54.630
	Bizkaia	49.612	1.494	581	51.687
	Gipuzkoa	62.540	4.915	202	67.657
	EAE	163.554	9.228	1.192	173.974
	Nafarroa	253.579	16.530	322	270.430
	Euskal Herria	417.133	25.757	1.514	444.404
2024	Araba	47.528	2.522	492	50.542
	Bizkaia	46.959	1.464	617	49.040
	Gipuzkoa	69.065	5.077	265	74.408
	EAE	163.552	9.063	1.374	173.990
	Nafarroa	272.109	18.459	434	291.002
	Euskal Herria	435.661	27.522	1.808	464.992
2025	Araba	53.151	2.480	377	56.008
	Bizkaia	44.160	1.517	628	46.305
	Gipuzkoa	61.054	5.292	289	66.635
	EAE	158.364	9.289	1.295	168.948
	Nafarroa	275.443	17.567	475	293.485
	Euskal Herria	433.807	26.856	1.770	462.433

Iturria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Eusko Jaurlaritza. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Nafarroako Gobernua

Esne-ekoizpenak etapa bereziki zailak igaro ditu, banaketaren negoziazio-presioak, ekoizpen-eraginkortasunean aurreratuago dauden Europako eskualdeen lehiak eta kostuak salmenta-prezioetara eramateko zailtasun historikoak baldintzatuta. Egoera hori 2021 eta 2022 artean hasi zen zuzentzen, kotizazioek igoera esanguratsua izan zutenean. Ondorengo nolabaiteko moderazioaren ondoren, 2025ean prezioak nahiko maila sendoetan mantendu ziren, eta horrek egonkortasun handiagoa eman zien ustiategiei; hala ere, egiturazko arazoak ez ziren desagertu, hala nola inputen garestitzea, ekoizleen kopuruaren murrizketa eta jarduerako belaunaldi-erreleborako zailtasunak.

2025ean, EAEko eta Nafarroako esne-ekoizpen bateratuak zertxobait egin zuen behera, % 0,6, 462,4 milioi litrora arte, aurreko ekitaldiko hazkunde handia etenda. Lurraldeen bilakaerak berriro ere desberdinak izan ziren: Nafarroak ekoizpena % 0,9 handitu zuen, 293,5 milioi litrora arte; EAEk, berriz, % 2,9ko beherakada izan zuen, 168,9 milioi litrora arte. EAEko lurraldean, behi-esnea % 3,2 jaitsi zen eta ahuntz-esnea % 5,8; ardi-esneak, berriz, % 2,5 egin zuen gora. Barne-bilakaera ere desberdina izan zen: Arabak guztizko ekoizpena % 10,8 handitu zuen; Bizkaiak, berriz, % 5,6 murriztu zuen eta Gipuzkoak % 10,4.

175. koadroa. Euskal Herrian ekoitzitako esnearen helmuga

(m litro)

Erabilera	2024	2025	% Δ 25/24
Behi-azienda	435.661	433.807	-0,4
– Zekor-hazkuntza	5.665	3.867	-31,7
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	1.499	930	-38,0
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	3.969	4.029	1,5
– Salmenta esne-zentralei	424.528	424.982	0,1
Ardi-azienda	27.522	26.856	-2,4
– Gazta	5.800	6.030	4,0
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	31	32	2,5
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	442	460	4,1
– Salmenta esne-zentralei	21.249	20.335	-4,3
Ahuntz-azienda	1.808	1.770	-2,1
– Esnekiak	1.152	1.182	2,6
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	46	11	-76,2
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	87	0	-100,0
– Salmenta esne-zentralei	523	577	10,4
Guztira	464.992	462.433	-0,6
– Zekor-hazkuntza	5.665	3.867	-31,7
– Esnekiak	6.952	7.211	3,7
– Pertsonen kontsumoa ustiategian	1.577	973	-38,3
– Zuzeneko salmenta kontsumitzaileei	4.498	4.488	-0,2
– Salmenta esne-zentralei	446.300	445.894	-0,1

Iturria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza). Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Nafarroako Gobernua

Nafarroan, esne-ekoizpenak bilakaera positiboa mantendu zuen, nahiz eta aurreko ekitaldikoa baino askoz apalagoa izan, guztira % 0,9 handituta, 293,5 milioi litrora arte.

Hazkunde hori behi-esnean oinarritu zen, % 1,2 handitu baitzen, eta, bereziki, ahuntz-esnean, % 9,4 hazi baitzen; ardi-esnearen ekoizpenak, berriz, % 4,8 egin zuen behera, 2024an izandako hazkunde handiaren ondoren. Behi-esnea ia osorik esne-zentraletara bideratzen jarraitu zen —guztizkoaren % 99,7—. Ardi-esnearen kasuan, 1,47 milioi litro, ekoizpenaren % 8,4ren baliokideak, esnekiak egiteko erabili ziren, batez ere gazta egiteko. Ahuntz-esnearen kasuan ere aldaketa esanguratsua izan zen helmugan: % 20 inguru esnekiak egiteko erabili zen eta gainerako % 80 esne-zentraletara entregatu zen; ez da kontsumitzaileei zuzenean egindako salmentarik jasotzen.

LABORAL kutxa

176. koadroa. Esnea ekoizten duten eliteko behi-ustiategi batzuek osatutako lagin baten emaitzak

Kontzeptua	Lurgintza (Gipuzkoa)		Lursail-Lorra (Bizkaia)		Lursail-Abere (Araba)		INTIA-ITG (Nafarroa)	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025
DATU TEKNIKOAK								
– Lagineko ustiategi kopurua	20	22	41	37	30	28	35	28
– Behi kopurua	1.246	1.334	3.284	3.257	3.788	3.841	5.062	4.222
– Ha. NAE/ustiategi	33,3	32,5	36,5	38,8	76,1	81,4	59,2	69,3
– Behi/ustiategi	62	61	80	88	126	137	145	151
– Behi/ha.	1,9	1,9	2,2	2,1	1,7	1,7	2,4	2,2
– Ekoizpen- eta bazka-gastuak (€/ha)	542,98	475,83	391,05	378,10	866,00	864,00	905,60	924,00
PREZIOAK ETA ETEKINAK								
– Esnearen prezioa (€/1.000 litro)	523,40	542,20	525,87	592,57	522,00	543,00	559,86	525,94
– Esne-ekoizpena litro/behi	9.207	9.156	8.535	7.935	10.885	11.052	10.741	11.290

Iturria: EAEko lurralde bakoitzeko nekazaritzako eta abeltzaintzako zentro kooperatiboek eta Nafarroako Teknologien eta Nekazaritzako Elikagaien Azpiegituren Institutua Elkarte Anonimoak (INTIA, ITG dibisioa) eskainitako estatistikak.

Esnetarako behi-ustiategien laginketek lurraldeen arteko alde garrantzitsuak erakusten dituzte dimentsioan, ekoizpen-intentsitatean eta errendimenduan. 2025ean, Nafarroan eta Araban aztertutako ustiategiek batez besteko tamaina handiena mantendu zuten, ustiategiko 151 eta 137 behirekin, hurrenez hurren; Bizkaian 88 ziren eta Gipuzkoan 61. Araba nekazaritza-azalera erabilgarri handienagatik nabarmendu zen, ustiategiko 81,4 hektarearekin; Nafarroak, berriz, abere-dentsitaterik handiena izan zuen, hektareako 2,2 behirekin. 2025eko ekitaldiak bilakaera desberdina erakusten du. Behi bakoitzeko ekoizpenak maximo berriak lortu zituen Nafarroan eta Araban, 11.290 eta 11.052 litro, hurrenez hurren; Gipuzkoan, berriz, zertxobait jaitsi zen eta Bizkaian intentsitate handiagoz. Esnearen prezioek gora egin zuten EAEko hiru lurraldeetan, bereziki Bizkaian, non % 12,7 handitu ziren eta lau laginetako baliorik handiena lortu zuten; Nafarroan, aldiz, % 6,1 jaitsi ziren. Ekoizpen- eta bazka-gastuak hektareako jaitsi egin ziren Gipuzkoan eta Bizkaian, egonkor mantendu ziren Araban eta zertxobait handitu ziren Nafarroan. Oro har, datuek ekoizpen-estrategia desberdinak erakusten dituzte: eskala eta errendimendu handiagoak Araban eta Nafarroan, eta tamaina txikiagoko ustiategiak Gipuzkoan eta Bizkaian; azken bi lurralde horietan, 2025eko bilakaera gehiago oinarritu zen prezioen hobekuntzan produktibitatearen hazkundean baino. Epe luzeko ikuspegiak kontzentrazio-prozesu orokorra berresten du, bereziki nabarmena Nafarroan, Bizkaian eta Araban, non ustiategiko batez besteko behi-kopurua argi eta garbi handitu den 2011tik.

Produktibitateak ere gora egin zuen, baina intentsitate desberdinez: aurrerapen handienak Nafarroan eta Araban izan ziren; Gipuzkoan, berriz, bilakaera mailakatuagoa izan zen, eta Bizkaian gorabehera handiagoak izan ziren. 2021 eta 2023 artean kotizazioek igoera handia izan ondoren, prezioek 2024an zuzenketa izan zuten, baina 2025ean EAEn berriro gora egin zuten; Nafarroan, berriz, moderazioak jarraitu zuen.

Koiunturazko alde horiek gorabehera, lau lurraldeetan prezioak aurreko hamarkadako ohiko mailen oso gainetik mantentzen dira.

177. koadroa. LURSAIL-ABEREk (ARABA) eta INTIA-ITGk kudeatutako ardi-esne ustiategien batez besteko emaitza ekonomikoak

Kontzeptua	LURSAIL-ABERE (ARABA)		INTIA-ITG (NAFARROA)	
	2024	2025	2024	2025
DATU TEKNIKO-EKONOMIKOAK				
– Lagineko ustiategi kopurua	18	20	27	25
– Eskulana (GLU) ustiategiko	2,0	2,1	1,9	2,1
– Ardi kopurua ustiategiko	365	347	373	378
– Azalera (Ha.)	78,0	82,1	25,3	27,3
– Esne-ekoizpena (litro/ardi)	--	--	152	169
– Esnearen prezioa (euro/1.000 litro)	--	--	2.306,00	1.961,00
EKOIZPENA ETA EMAITZAK (euro)				
Produktu gordina	143.312	145.029	123.248	145.096
- Elikadura-gastuak	35.161	33.688	35.389	37.265
- Gastu aldakorrak	13.905	13.069	10.364	13.460
= Marjina gordina	95.780	103.079	85.140	104.403
+ Diru-laguntzak	26.566	25.903	7.645	10.032
+ Beste diru-sarrera batzuk	4.665	3.974	--	--
- Gastu finkoak eta langileenak	66.993	64.893	47.169	--
= Marjina garbia	58.715	67.369	37.970	--
EMAITZA UNITARIOAK (euro)				
– Marjina garbia / ardia	160,86	194,15	101,74	--
– Marjina garbia / GLU	29.804,57	32.703,40	20.524,32	--

Iturria: Lursail-Abere (Araba) eta INTIA-ITG, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTG Departamendua (Berrikuntza, Teknologia eta Gestioa). Azken horrek ez ditu marjina garbiak argitaratzen, konfidentzialtasun-politikagatik.

Nafarroako esnetarako ardi-aziendan batez besteko tamainak ere gora egin zuen, nahiz eta apalago, ustiategiko 378 ardira eta 27,3 hektareara arte. Datu tekniko aipagarriena errendimenduaren hazkundea da: ardi bakoitzeko 152 litrotik 169 litrora igaro zen, % 11,2 gehiago. Aurrerapen horrekin batera, hala ere, esnearen batez besteko prezioa % 15 jaitsi zen, mila litroko 1.961 eurora arte. Hala eta guztiz ere, produktu gordina % 17,7 handitu zen, eta dirulaguntzek nabarmen egin zuten gora. Elikadura-gastuek % 5,3ko igoera apala izan zuten; gainerako gastu aldakorrak, berriz, ia % 30 handitu ziren. Azken balantzeak positiboa izaten jarraitzen du: marjina gordina % 22,6 handitu zen, ustiategiko 104.403 eurora arte, animalia bakoitzeko ekoizpen handiagoak eta laguntzen igoerak bultzatuta. Tamaina eta, bereziki, produktibitatea ere handitu ziren, eta ardi bakoitzeko errendimendua duela hamarkada batekoa baino argi eta garbi handiagoa da. 2025ean prezioak aurreko igoera handien zati bat zuzendu bazuen ere, maila altuan mantendu zen, eta, ekoizpen handiagoarekin eta laguntzekin batera, serieko marjina gordinik handiena lortzea ahalbidetu zuen.

Lursail-Abereko esnetarako ardi-aziendaren laginean, Arabako ustiategiek Nafarroakoetatik bereizten jarraitzen dute lurralde-oinarri handiagoa dutelako, batez

LABORAL kutxa

beste 82,1 hektarearekin, Nafarroako 27,3 hektareen aldean; hala ere, 2025ean ustiategiko ardi kopurua zertxobait txikiagoa izan zen. Produktu gordina zertxobait handitu zen, 145.029 eurora arte, Nafarroakoaren ia maila berean kokatuz. Gainera, kostuen bilakaera aldekoa izan zen: bai elikadura-gastuak (-% 4,2), bai gainerako gastu aldakorrak (-% 6) murriztu ziren; dirulaguntzak, berriz, ia egonkor mantendu ziren. Horren ondorioz, marjina gordinak serieko maximo berria lortu zuen, ustiategiko 103.079 eurorekin; marjina garbia, berriz, 67.369 eurora hobetu zen, erregistroak daudenetik izandako baliorik handiena. Epe luzeko ikuspegiak Arabako ustiategiek 2019 eta 2020 artean izandako zailtasunen ondoren izandako susperraldia berresten du; izan ere, aldi hartan marjinak oso maila baxuetara iritsi ziren. Ordutik, diru-sarreren hobekuntzak, kotizazioen susperraldian eta 2025ean gastu aldakorren kontrolean oinarrituta, emaitza ekonomikoen goranzko ibilbide argia sendotzea ahalbidetu du, eta marjina gordina zein marjina garbia aztertutako serieko maximo historikoetan kokatu dira.

Haragi-ekoizpena: emaitza ekonomikoak

178. koadroa. Lursail-Abere (Araba) eta INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden haragitarako behi- eta ardi-ustiategien emaitzak

Kontzeptua	LURSAIL-ABERE (ARABA)		INTIA-ITG (NAFARROA)			
	Haragitarako behiak		Haragitarako behiak		Haragitarako ardiak	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
DATU TEKNIKO-EKONOMIKOAK						
– Lagineko ustiategi kopurua	39	39	19	20	23	20
– Eskulana (GLU)	0,9	0,9	1,0	1,2	1,2	1,3
– Behi/Ardi kopurua ustiategiko	69	67	60	78	715	780
– Azalera (Ha.)	98,7	98,5	30,2	34,2	39,4	44,3
– Txahal/arkume ekoizpena, kg. behi/ardiko(*)	--	--	194,9	183,6	17,4	19,3
– Txahal/arkume salneurria €/kiloko	--	--	4,77	6,76	5,55	6,47
Ekoizpena eta emaitzak (euro)						
– Produktu gordina	63.836	75.230	88.273	128.128	86.725	104.544
- Elikadura-gastuak	26.829	27.318	42.490	49.208	43.824	48.316
- Gastu aldakorrak	8.036	11.638	17.259	20.488	13.813	16.269
= Marjina gordina	23.704	37.221	38.235	71.472	46.518	22.554
+ Diru-laguntzak	34.580	34.732	9.711	13.039	17.430	22.554
- Gastu finkoak eta langileenak	29.100	33.285	36.040	--	31.191	--
= Marjina garbia	33.355	42.795	2.194	--	15.326	--
Emaitza unitarioak (euro)						
– Marjina garbia behia/ardia	479,93	637,30	36,44	--	21,42	--
– Marjina garbia GLU	35.866	46.516	2.236	--	14.214	--

(*): *Haragi kiloak: Behi-haragi kiloak, kanalean. Ardi-aziendaren kasuan, kiloak bizirik.*

Iturria: Lursail-Abere (Araba) eta INTIA-ITG, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTG Departamendua (Berrikuntza, Teknologia eta Gestioa). Azken horrek ez ditu marjina garbiak argitaratzen, konfidentzialtasun-politikagatik.

Arabako haragitarako behi-aziendaren laginean, batez besteko tamaina nahiko egonkor mantendu zen 2025ean, ustiategiko 67 behirekin eta 98,5 hektarearekin. Produktu gordina % 17,8 handitu zen, 75.230 eurora arte; elikadura-gastuak, berriz, % 1,8 baino ez ziren handitu. Gainerako gastu aldakorrek, aldiz, nabarmen egin zuten gora, % 44,8. Hala ere, marjina gordina % 57 handitu zen, 37.221 eurora arte, eta serieko baliorik handiena lortu zuen. Dirulaguntzak ia egonkor mantendu ziren, eta marjina garbia % 28,3 handitu zen, ustiategiko 42.795 eurora arte, hau da, behi bakoitzeko 637 euro. Epe luzeko bilakaerak hobekuntza bereziki esanguratsua erakusten du: 2011tik lehen aldiz, batez besteko ustiategiaren marjina garbia positiboa da dirulaguntzak kendu ondoren ere, 8.100 euro ingurukoa. Emaitza hori, batez ere, diru-sarreren hazkunde handiaren ondorio izan zen, behi-aziendaren balioa nabarmen handitu zen testuinguru batean; elikadura-gastuak, berriz, neurrizko mailetan mantendu ziren. Laguntzek funtsezkoak izaten jarraitzen badute ere lurralde-oinarri zabala duten ustiategi estentsibo horien azken errentagarritasunerako, 2025ean jada ez ziren emaitza ekonomikoa positibo mantentzea ahalbidetzen zuen elementu bakarra.

Nafarroako haragitarako ustiategietan, 2025ean prezioen bilakaera argi eta garbi aldekoa izan zen, aurreko urteko zuzenketaren ondoren. Horren ondorioz, ekoizpenaren balioa nabarmen handitu zen, kostuek berriro gora egin bazuten ere. Txahalaren batez besteko prezioa % 16,2 igo zen, kanaleko kilogramoko 6,76 eurora iritsi arte. Haragitarako behi-aziendan, aztertutako batez besteko ustiategiaren tamaina nabarmen handitu zen: 60 behitik 78ra eta 30,2 hektareatik 34,2ra igaro zen, eta eskulan gehiago ere erabili zuen. Behi bakoitzeko saldutako kilogramoak % 5,8 jaitsi baziren ere, prezioaren igoera handiak eta ustiategien tamaina handiagoak produktu gordina % 45,1 handitu zuten, 128.128 eurora arte. Elikadura-gastuak % 15,8 handitu ziren eta gainerako gastu aldakorrak % 18,7, baina diru-sarrerak baino askoz gutxiago; horrenbestez, marjina gordina % 86,9 handitu zen, ustiategiko 71.472 eurora arte. Epe luzeko bilakaerak urteko aldakortasun handia erakusten du haragitarako behi-aziendan, laginaren tamainarekin eta osaerarekin lotuta; hala ere, prezioen azken hobekuntza ere erakusten du: 2025ean 2011tik izandako maximoa lortu zuten, eta urte hartakoak baino ia % 80 handiagoak izan ziren. Azken ekitaldietan behi bakoitzeko produktibitatea jaitsi bada ere, ustiategien tamaina handiagoak eta haragiaren balio-handitzeak serieko marjina gordinik handiena lortzea ahalbidetu zuten.

Nafarroako haragitarako ardi-aziendan ere batez besteko tamaina handitu zen, ustiategiko 780 ardira eta 44,3 hektareara arte. Behi-aziendan ez bezala, errendimendua ere hobetu zen: ardi bakoitzeko saldutako arkume-kilogramoak % 11 handitu ziren. Arkume-prezioa % 16,6 igo zen, pisu biziko kilogramoko 6,47 eurora arte. Ekoizpen handiagoaren eta prezioaren igoeraren konbinazioak produktu gordina % 20,5 handitu zuen; elikadura-gastuak, berriz, % 10,3 handitu ziren eta gainerako gastu aldakorrak % 17,8. Hala, marjina gordina % 34,4 handitu zen, 62.513 eurora arte, dirulaguntzen igoerak ere lagunduta. Ardi-aziendan, arkumearen prezioa ia geldirik egon zen aurreko hamarkadaren zati handi

LABORAL kutxa

batean, baina 2021etik indartsu egin du gora. 2025eko produktibitatearen susperraldiak, kotizazioen igoerarekin batera, marjina gordina maximo historikoan kokatu zuen, elikaduraren eta beste input batzuen metatutako garestitzea gorabehera.

179. koadroa. INTIA-ITGren kudeaketa tekniko-ekonomikoaren kontrolpean dauden txerri-ustiategien emaitzak

Kontzeptua	Txerrikumeen ekoizpena(1)		Ziklo itxia(2)	
	2024	2025	2024	2025
EZAUGARRI TEKNIKO-EKONOMIKOAK				
– Aztertutako ustiategi kopurua	4	4	9	9
– Urdanga kopurua ustiategiko	103	108	575	547
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerrikumeak	22	24	1,1	1,6
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerri gizenduak	0,10	0,15	21,4	20,1
– Urdanga bakoitzeko saldutako txerriak, guztira	22	24	23	22
– Saldutako txerrikumeen batezbesteko pisua (kg)	7,0	7,0	6,8	6,8
– Saldutako txerri gizenduen batezbesteko pisua (kg)	125,5	120,0	114,3	117,2
– Saldutako txerrikume + txerri gizendu kopurua	2.269	2.611	12.949	11.887
– Txerrikumearen batezbesteko salneurria (€)	51,46	50,89	47,57	46,46
– Txerri-kiloaren batezbesteko salneurria (euro)	1,69	1,55	1,70	1,58
– GLU (Gizakiaren Lan Unitateak), guztira	0,6	0,6	4,3	4,0
EMAITZA EKONOMIKOAK (€)				
– Produktu gordina	127.778	147.736	2.410.412	2.243.664
• Gastu aldakorrak	64.315	70.884	1.533.162	1.471.294
– Marjina gordina	63.464	76.852	877.249	772.370

(1): Titia kendu osteko salmentan diharduten ustiategiak, 7,04 kg/txerrikume.

(2): Ustiategi horiek saltzen duten % 80 baino gehiago txerri gizendua da.

Iturria: INTIA-ITG, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologia eta Azpiegituren Institutua, BTG Departamendua (Berrikuntza, Teknologia eta Gestioa). Azken horrek ez ditu marjina garbiak argitaratzen, konfidentzialtasun-politikagatik.

Nafarroako txerri-ustiategien emaitzek portaera desberdinak erakutsi zituzten 2025ean. Txerrikumeen salmentan espezializatutako ustiategiek jarduera eta ekoizpenaren balioa handitu zituzten; ziklo itxiko ustiategiek, berriz, txerri-aziendaren prezioen moteltzea nabaritu zuten, aurreko ekitaldietako maila altuen ondoren. Bi kasuetan, laginak egonkor mantendu ziren: txerrikumeak ekoizten dituzten 4 ustiategi eta ziklo itxiko 9. Txerrikumeen ustiategietan, batez besteko urdanga kopurua 103tik 108ra handitu zen eta produktibitatea hobetu zen, urdanga bakoitzeko 24 txerrikume salduta, 2024ko 22en aldean. Horren ondorioz, merkaturatutako animalien guztizko kopurua % 15,1 handitu zen, 2.611ra arte, eta horrek txerrikume bakoitzeko batez besteko prezioaren % 1,1eko beherakada txikia aise konpentsatu zuen.

Hala, produktu gordina % 15,6 handitu zen, ustiategiko 147.736 eurora arte; gastu aldakorrak, berriz, % 10,2 handitu ziren. Ikuspegi historikoan, produktibitateak serieko maximoetatik hurbil dauden mailak berreskuratu zituen 2025ean, nahiz eta lagin txikiak urteko aldaketak zuhurtziaz interpretatzea gomendatzen duen. Ziklo itxiko ustiategietan, batez besteko tamaina 575 urdangatik 547ra jaitsi zen, eta saldutako animalien guztizko

kopurua % 8,2 murriztu zen. Produktibitatea ere jaitsi zen, nahiz eta gizentzeko animalien batez besteko salmenta-pisua zertxobait handitu. Jarduera txikiago horri txerri-kilogramoko prezioaren % 7,1eko beherakada eta txerrikumearen prezioaren % 2,3koa gehitu zitzaizkion; horren ondorioz, produktu gordina % 6,9 jaitsi zen, 2,24 milioi eurora arte. Gastu aldakorrak intentsitate txikiagoz jaitsi ziren, % 4. Zuzenketa hori gorabehera, prezioak aurreko hamarkadaren zati handi batean ohikoak izandako mailen oso gainetik mantendu ziren, eta, horrela, txerri-aziendak 2022tik izandako balio-handitzearen zati bat sendotu zen.

Abereen hilketa

180. koadroa. Euskal Herrian hildako aziendaren kanaleko pisua

(Tm)

Urtea	Behi-azienda	Ardi-azienda	Ahuntz-azienda	Txerri-azienda	Zaldi-azienda	Hegaztiak	Untxiak	Guztira
2016	18.029	4.071	42	23.379	3.532	116.739	4.440	170.233
2017	17.808	3.741	63	3.318	3.765	112.612	4.105	145.412
2018	18.117	3.825	60	3.551	3.328	125.866	4.282	159.028
2019	19.438	3.575	54	3.291	3.775	118.535	3.681	152.349
2020	22.152	3.428	50	3.305	3.828	111.515	4.477	148.755
2021	25.802	3.008	55	3.556	3.362	110.253	4.618	150.652
2022	28.155	2.885	46	3.619	3.607	119.568	3.850	161.729
2023	27.799	2.693	59	3.565	3.897	122.155	3.947	164.115
2024	29.853	2.592	57	3.509	3.533	122.968	3.806	166.316
2025	29.098	2.441	54	3.608	3.774	156.564	3.458	198.998
% Euskal Herria/Espainia 2025	4,1	2,5	0,7	0,1	47,4	8,3	10,7	2,5

Iturria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Eusko Jaurlaritza. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Nafarroako Gobernua.

Hilketaren adierazleek aukera ematen dute abeltzaintza-erroldetan beti behar bezala islatuta geratzen ez diren ekoizpenetara zabaltzeko azterketa, hala nola hegazti-haragiaren, zaldi-aziendaren edo untxiaren ekoizpenera. Hala ere, kontuan hartu behar da datu horiek animaliak hiltzen diren tokiari dagozkiola, eta ez nahitaez hazi diren lurraldeari. Egoera hori bereziki esanguratsua da txerri-aziendaren kasuan: azienda horrek Nafarroan garrantzi handia izan arren, gaur egun oso presentzia txikia du EAEko eta Nafarroako eremuko hiltegietan, jarduera horrek 2017an izandako beherakada handiaren ondoren.

2025ean, EAEn eta Nafarroan lortutako kanaleko pisua % 19,6 handitu zen, 199.000 tonatik gertu, ia osorik hegaztien hazkunde apartak bultzatuta. Hegaztien bolumena % 27,3 handitu zen, 156.564 tonara arte; serieko maximoa izan zen, eta EAEko eta Nafarroako eremuko hilketa guztien ia lau bostenen baliokidea. Hazkunde hori Nafarroan kontzentratu zen bereziki; bertan, hegazti-ekoizpena % 31,7 handitu zen, 126.322 tonara arte; EAEn ere % 11,7 egin zuen gora. Bilakaera horrek adierazten du Ebroko ardatzari lotutako hegazti-konplexuen jarduera nabarmen areagotu zela.


LABORAL kutxa

Gainerako espezieetan portaera apalagoak edo beheranzkoak nagusitu ziren. EAEko eta Nafarroako eremuan, behi-aziendak % 2,5 egin zuen behera, Nafarroan maximo berri bat lortu arren (+% 1,5), igoera hori ez baitzen nahikoa izan EAEn izandako beherakada (-% 10,3) konpentsatzeko. Ardi-aziendak beheranzko joerarekin jarraitu zuen eta % 5,8 egin zuen behera, bi lurraldeetan jaitsierak izan baitziren; ahuntz-aziendak, berriz, % 4,4 egin zuen behera. Aitzitik, txerri-aziendak % 2,8 egin zuen gora, oso maila baxuetatik abiatuta bazen ere; zaldi-aziendak, berriz, % 6,8 egin zuen gora, eta Nafarroak espezie horretan duen espezializazio nabarmena sendotu zen. Untxiaren % 9,1eko beherakada EAEko jardueraren hondoratzeak azaltzen du, Nafarroako hazkundeak neurri batean konpentsatuta.

Epe luzeko ikuspegiak agerian uzten du EAEko eta Nafarroako eremuko abere-hilketaren egiturak eraldaketa sakona izan duela. Aurreko hamarkadaren erdialdetik, hegaztiek nabarmen sendotu dute beren nagusitasuna; txerri-aziendak, berriz, ia garrantzi guztia galdu zuen 2016tik aurrera, eta ardi-aziendak etengabeko beherakadari eutsi zion. Behi-aziendak azken urteetan Nafarroaren dinamismoari esker pisua berreskuratu bazuen ere, 2025ean zertxobait zuzendu zen EAEren bilakaeraren ondorioz. Zaldi-aziendak, bestalde, jarduera berezia izaten jarraitu zuen Estatuaren testuinguruan: EAEko eta Nafarroako eremuak Espainian hildako animalien kanaleko pisuaren % 47,4 bildu zuen, eta jarduera horren ia guztia Nafarroari zegokion. Untxien kasuan ere nabarmena izan zen Estatuan izandako partaidetza, % 10,7koa, bai eta hegaztien kasuan ere, % 8,3koa.

29. grafikoa. Euskal Herriko abere-ekoizpena,, (kanaleko pisua)

(Indizea 1990=100)



Iturria: Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila, Eusko Jaurlaritza. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua, Nafarroako Gobernua.

4. BASOGINTZAREN AZPISEKTOREA

Euskal Autonomia Erkidegoko eta, hein txikiagoan, Nafarroako lehen sektorearen zati handi bat basogintzak osatzen du. Horren barruan dago basoak kudeatzea zura lortzeko eta sailkatzeko, geroago hainbat industriari saltzen zaiena. Horrekin batera, jardueraren tamaina ez da baztergarria, Euskadiko ekonomia osoaren % 1,5 dela kalkulatu baita, hots, 845 milioi euro inguru. Kontuan izanik basogintzako bertako enpleguak, bestelako industriak (zura, papera, altzariak, biltegiratzeko materiala), eraikuntza-erabilerak edota erabilera energetikoak (biomasa-galdarak), 19.000 enplegu inguru zenbatu ziren 2022an. Halaber, manufakturako enpleguaren ia hamarren bati lotuta zegoen, hots, dagokion bolumen ekonomikoaren % 5,6 izan zen, gutxi gorabehera, Euskadiko Egurraren Behatokiaren arabera. Nafarroan, 2.000 inguru dira lotuta dauden enpleguak. Dena den, ekonomiaren gaineko ratioa EAEn baino ia 10 bider txikiagoa da: % 1etik hurbil dago, eta 300 enpresari eragiten die, gutxi gorabehera, Foru Erkidegoko Gobernuko iturriei jarraikiz. Hortaz, nolabaiteko garrantzi estrategikoa ere badauka. Handiagoa ere izan liteke; izan ere, Gobernuaren arabera, langileen eskaria dago, ase gabe, eta belaunaldi-txandaketa egiteko arazoak daude.

Gainera, iturri beraren arabera, sektore horietako EAEko ia enpresa guztiak txikiak dira, % 92tik gora, eta korrelazio handia dago industria horien eta bertako produktuaren artean. Han zuzen, erabiltzen duten zuraren ia % 70 EAEko basoetatik datorrela jo da. EAEn, sektoreari bolumen berezia ematen dion elementu nagusia *insignis* edo *radiata* pinua da. Kanpotik ekarritako espezie bat da, duela hainbat hamarkada modu masiboan ezarri zena. Bizkaiko mendi pribatuen azalera handiak estaltzen ditu oraindik (batez ere hegoaldean eta ekialdean), baita Gipuzkoako hego-mendebaldean ere. Haatik, espezie hori atzera egiten ari da duela hamarkada asko, eta basoberritze-tasa nabarmen jaitsi da duela bi hamarkadatik hona, gutxi gorabehera. Pinu hori beste espezie batzuekin ordezteko lana azeleratu da, batez ere bertakoekin eta hostotsuen kategoriako ordezteko, bai bide naturaletatik, bai, zenbaitetan, landatuz edo modu aktiboan kudeatuz. Hostotsuen hainbat espeziek kalitate handiko zura ematen dute eta haien erabilera areagotzen ari da, nahiz eta ustiapena motelagoa eta zailagoa izan.

Foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoetako administrazioek oso aktibo jardun dute, batez ere azken hamarkadan, sektorea sustatze aldera. Zehazki, zirkularizazio-efektuak eta biomasaren zein baliabideen kudeaketa egozten dizkiote, eta interes orokor handikoa da hori. Era berean, inpaktua dauka lurralde- edo landa-antolamenduan, edota ingurumen-kudeaketan. Nafarroa Baso Baliabideen Zentroa egiten ari da, eta EAEko aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ikerketa eta berrikuntzako proiektu aurreratuak sustatzen dituzte, baita koordinazio-proiektuak ere. Izan ere, sektoreak gero eta dinamizazio publiko handiagoa behar duela nabari dute, mendi pribatuen jabeak ordezteko

LABORAL kutxa

zailtasuna ikusita, esan bezala. Eta oso modu aktiboan bideratzen dituzte mendi publikoetako zuraren enkanteak.

Bestalde, kudeaketa jasangarria izateaz eta berez hazten dena baino gutxiago mozteaz arduratzen dira. Halaber, mozteko eremuak modu estrategikoan hautatu behar dira, zuhaitzen adina kontuan hartuta edo, zenbaitetan, gaixotasunak hedatzeko arriskuak kontuan hartuta —banda marroia kasurako—, habitaten azken konfigurazioari erreparatuta.

181. koadroa. EAEn egurra mozteko lizentziak

(m3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)

Urtea	Eremua	Koniferoak	Hostotsuak	Guztira
2023	Araba	121.371	8.534	129.905
	Bizkaia	518.677	120.150	638.827
	Gipuzkoa	589.002	13.032	602.034
	EAE	1.229.050	141.716	1.370.766
2024	Araba	168.507	45.820	214.328
	Bizkaia	827.507	182.726	1.010.234
	Gipuzkoa	688.928	20.473	709.401
	EAE	1.684.943	249.020	1.933.962
2025	Araba	188.402	28.100	216.502
	Bizkaia	838.298	164.295	1.002.593
	Gipuzkoa	722.829	24.364	747.194
	EAE	1.749.529	216.760	1.966.289

Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Bizkaian eta Gipuzkoan, *radiata* pinuaren mozketa izugarri handitu zen 2009tik 2018ra bitarte. Bi ekitaldi horietan, pinu hori mozteko lizentziak oso bolumen urrirako eta handirako eman ziren, hurrenez hurren, ezohiko arrazoiengatik: lehen kasuan, meteorologiak merkatuan eragindako aldaketa bat; eta bigarrenean, basoen bestelako kudeaketa bat, aipatu den gaixotasunaren eraginez. Geroago, nahiz eta oszilazioak gertatu diren bi urtez behin-edo, espezie horren mozketaren erritmoa neurri batean moteltzeko joera nagusitu da. Izan ere, *radiata* pinua da, alde handiz, sektorearen tamaina eta jarduera-maila zehazten dituena. Hiru lurraldeetan, koniferoen kategoriaren hazkundea neurritsua izan zen 2025ean, aipatu oszilazioen testuinguruan, nahiz eta espezie nagusiaren jaitsiera arina geratu oro har, aipatu bezala. Azpimarratzekoa da, antza denez, mozketa hazi egin dela Araban azken urteotan; dena den, beste bi lurraldeetakoa baino askoz bolumen txikiagoan (Araban, pinu horren masa handiak ipar-mendebaldean daude soilik).

Hostotsuen mozketa askoz txikiagoa da. Azken hamarkadatan, eukaliptoaren baliabideak baldintzatu du gainera. Bizkor hazten den zuhaitz bat da, eta gora egin zuen Bizkaian batez ere; alabaina, mugatu egin da azken urteotan, oso espezie inbaditzailea delako.

Esan den bezala, aitzitik, hein txikiagoko beste hostotsu batzuen aprobetxamendua hazten ari da. Dena den, urte arteko datua Gipuzkoan soilik igo zen kategoria horren multzoan. Edonola ere, Araban egiaztatu da horrelako zuhaitzetarako jarduera-nitxoak 2024ra bitarte zeukan tarte eskas-eskasa neurri handian areagotu zela.

Radiata pinuaren pisua nahiko egoera berezia da, penintsulako beste lurralde batzuen aldean. Nafarroan bertan, askoz garrantzi txikiagoa dauka, eta, Baso Behatokiari jarraituz, munta antzekoa daukate pagoak, pinu gorriak, larizioak eta gainerakoek. Pinu gorria habitat mediterraneoko konifero bat da, eta arraroa da Kantauriko isurialdean egotea. Hala ere, EAEko 2025eko Baso Mapan adierazten den moduan, gero eta hein handiagoan dago han, autonomia-erkidegoko mendebaldean. Hain zuzen ere, oso ezohikoa izan arren, mozketa areagotu egin zen 2025ean, Araban eta Bizkaian. Orain arte, espezie horren zifrak ahulak ziren, *radiata*rekin berarekin konparatuz, baina baita "beste konifero batzuen" atalarekin konparatuz ere. Duela bost urte inguru, gora egin zuen eta horrela jarraitzen du, eta, garai horretan, eragina izan zuen larizio pinuan ere. 2025ean, hain zuzen ere, larizio pinuari igoera handi samarra gertatu zitzaion, baina ez zen izan pinu gorriarena bezain handia. Horregatik guztiagatik, bitxia izan arren, *radiata* pinuak behera egin zuen hiru lurraldeetan, eta koniferoen agregatuak gora egin zuen, ordea.

Ikusirik zeinen kudeaketa eta hobespen aktiboa bideratu duten Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, besteak beste, eta ikusirik zeinen aktiboak diren lehen adierazitako balio-kateko azpisektoreetako elkarteak, *radiata* pinuaren ustiapen-eredu modernizatu berriak epe luzera gauzatzea aurreikusten da, basoberritze gaztetuetan oinarrituta, nahiz eta *radiata*ren kontingenteak gutxiagotu diren eta zuhaitzen batez besteko adina handia den. Halaber, estrategikotzat jo diren hostotsuen kalitate handiko zura baliatuko da; adibidez, pagoarena edo hainbat haritz-motarena. Aurreikus daiteke sektorearen estrategia kalitatea izango dela, kopuruaren aldean. Orobat, modu bizkorrean eta oso planifikatuan egokituko da, epe luzerako jasangarritasun-interesei dagokienez; gero eta finkatuago egongo dira lurraldeetan, gainera, askotariko jabe pribatuen artean sakabanatuta egon beharrean. Bestalde, joerak ikusita, baliteke sektore publikoak orain pribatuak diren lursailak erostea azkenean, eta balio-katearen hainbat maila bateratuz tamaina lortzen duten enpresei esleitzea sustatzea.

LABORAL kutxa

182. koadroa. EAEn egurra mozteko lizentziak

(m^3 a.g. = metro kubiko, azal eta guzti)

Espeziea	2024	2025	% Δ 25/24
– Pinu gorria	7.056	58.058	722,8
– Larizio pinua	92.905	138.152	48,7
– Pinaster pinua	35.535	36.152	1,7
– Halepensis pinua	17	10	-39,4
– Radiata pinua (insignis)	1.402.157	1.364.052	-2,7
– Beste konifero batzuk	147.273	153.105	4,0
Koniferoak, guztira	1.684.943	1.749.529	3,8
– Makala	2.262	995	-56,0
– Eukaliptoa	211.252	173.431	-17,9
– *Quercus*	13.714	16.057	17,1
– Beste hostotsu batzuk	21.792	26.277	20,6
Hostotsuak, guztira	249.020	216.760	-13,0
GUZTIRA	1.933.962	1.966.289	1,7

Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Eskuragarri dauden beste datu batzuk EAEko makromagnitudeei buruzkoak edo Nafarroako prezioei buruzkoak dira. EAEn, HAZI institutuaren kalkuluen arabera, basogintza osoaren balioaren urtetik urterako beherakada % 4,8koa izan da, - % 15,1 intsinis pinuan, +% 19,2 beste egur batzuetan, % 7ko beherakada guztizko ekoiztutako kopuru fisikoan, -% 18 intsinis -arenean, +% 18,5 beste espezie batzuenean, % 2,4ko garestitzea agregatu orokorrean, % 3,5eko prezio-igoera intsignis pinuan, eta +% 0,6 beste egur batzuen garestitzean. Joera horiek berresten dute intsinis pinuaren azpisektorea pixkanaka-pixkanaka beheraka ari dela (nahiz eta azken aldian jarduera-gailur bat izan), eta beste egur batzuen agregatuak goranzko bide sendo bat berresten duela, dagoeneko urtebete asko pilatzen dituena.

Nafarroan, baso-prezioen atzerakada % -18,6koa izan dela kalkulatu da (bi urtez merkatu da, bi urtez garestitu ondoren, aurreko bosturtekoaren egonkortasun-panoramarekin kontraste eginez); kontu handiz hartu beharreko zifra da, intsignis zura % 11,6 garestitzen baita; Nafarroako zur nagusiak ez dira indize horrek dioen bezainbeste merkatzen, baizik eta, % -9,1 basoko pinuan eta % -15,4 pagoan; gainera, gehien erabiltzen den hirugarrena, larizio pinuarena, % 54,3 garestitzen da; makala, aldiz, asko merkatzen da, % -47,8rekin.

5. ARRANTZA-SEKTOREA

5.1 IKUSPEGI OROKORRA

Arrantza-sektoreak estrategikoa izaten jarraitzen du, ñabardura bereizgarri batzuekin nola Euskadin hala Europar Batasunean. Zehazki, EBko esparruak baldintzatzen du nagusiki euskal jarduera. Kasu bietan, arrantzaren jarduera ekonomia urdinaren testuinguruan kokatuta dago. Horren baitan, hainbat balio uztartu nahi dira; esate baterako, biztanleriak kostaldeko habitatak nahiago izatea gero eta hein handiagoan, jasangarritasun ekologikoa, bizi-kalitate ona osasunean zein elikaduran oinarrituta batez ere, eta ozeanoetako baliabideak modu efizienteagoan aprobetxatzea, garapen ekonomikoaren palanka gisa. Elikadurari dagokionez, arraina uko egin ezin zaion eta sustatu beharreko osagai bat da, beraz; izan ere, 2025eko datuei jarraituz, Euskadi izan zen kontsumo handieneko autonomia-erkidegoa.

Hala ere, testuinguru horretan, lehiakide estrategiko baten presentzia gorantz doa: akuikultura, edo arraina faktorietan haztea. Bada denbora Europar Batasunaren jomugan dagoela akuikultura, arrantza ordezteko aukera gisa, edo neurri batean behintzat, agian. Eta Euskadin ere hasi dira proiektuak agertzen azpisektore hasiberri horretan. Horri nolabait lotuta aipatu behar da ezen, EBrentzat, nabigazioaren propultsioak elektrifikazioa beharko duela epe luzera, erregai fosilen kalterako. Nolanahi ere, gaur egun ez dago inondik ere argi jasangarria izango litzatekeenik, arrantzak gaur egun dituen errentagarritasun prekarioei dagokienez.


Bolumen ekonomikoa kontuan hartuta, Euskadiko jarduera nagusia ur handitako arrantza da, ezbairik gabe, Bermeoko portuari lotuta dauden atunketari izoztaileen bidez. Ontzi horiek oso urrutiko helmugak bilatu behar dituzte, Indiako Ozeanoa kasurako, batez ere lehia gero eta handiagoa delako eta Asiako produktuak erronka dakarkiolako Atlantikoko europar negozioari. Haatik, eskala handiagoko inpaktu sozialari begira, eta jardueraren datuen etengabeko jarraipena azterturik, baxurako lonja nagusiak nabarmentzen dira. Aipatu udalerriaz gain, Hondarribian, Getarian, Pasaian eta Ondarroan ere badaude, hantxe kontzentratzen baita sektorearen gehiengoa. Gainerako portuek bigarren mailako funtzioak dituzte, garrantzi txikikoak edo osagarriak.

Duela ez asko arte, goraldi jarraituak izan dituzte Hondarribian eta Getarian, batik bat baxurako hegaluzean eta atunzurian. Pasaian, berriz, legatza da nagusi, baita gutxiengo diren beste espezie batzuk eta Euskaditik kanpoko floten arrantzaren harrera ere. Halaber, alturako bakailao-ontzi bakarrak han daude. Ondarroan, bestalde, baxuraz gain, freskoko alturan izoztu gabe diharduen euskal flota osoa hangoa da. Azpisektore horrek atzemandako espezieak oso sakabanatuta egon dira, eta horiexek ahuldu dira gehien azken bosturtekoetan. Alturakoa Bizkaian kontzentratzen da batez ere, eta baxurako ontzien tamaina, aldiz, handiagoa da Gipuzkoako portuetan, Bizkaikoen aldean.

LABORAL kutxa

Estatistika ofizialek altura handiko azpisektorearen diru-sarrerei buruzko datuak eskaintzen dituzte bi urteko dekalajearekin (atunketari izoztaileak, gehi bi bakailao-ontziak). Eta bolumen ekonomikoa enpresa handi bakar batzuen baitan dago. Zehazki, baxurako eta freskoko alturako diru-sarrera osoak baino zenbait bider handiagoa da, baina baita gorabeheratsuagoa ere, oso modu selektiboan antolatutako bidaia multzo bati lotutako jarduera batean dagokion moduan. Izan ere, merkatuaren egoerak baldintzatzen dituen interes komertzialen arabera jokatu behar da, eta ontzi kopuru mugatu batekin. Hurbileko arrantzaren egoera zertxobait desberdina da. Jarduera dibertsifikatuagoa da, eta egutegian espezie nagusiak txandakatzen dituzte urtean zehar. Negutik udaberrira bitarte, antxoaren kostaldeko arrantza hasten da, eta hegaluzeari loturiko jarduna uda inguruan kontzentratzen da. Kapitulu honetan azterturiko beste espezie batzuk espezie nagusien osagarri gisa darabiltzate sarri, eta ordeztu ere egiten dituzte agintari eskudunek ezarririko kuota eskasen ondoriozko arazoak daudenean, dagozkion geldialdi biologikoekin. Azken espezie horien artean, berdelaren pisua aipatu behar da. Antxoarekin eta hegaluzearekin batera, hirurek biltzen dute Euskadiko arrantzaleen ahaleginaren zati handi bat, kopuruei dagokienez. Berdela ez da hain estimatua eta neurri txikiagoan hobesten da, baina estatusa hobetzen joan da azken hamarkadan. Hegaluzea eta antxoa txandakatzen joan dira produktibitatea txikia izan denean kuoten eraginez, eta goraldiak ere gertatu dira. 2025ean, hegaluzeak leku handiagoa berreskuratu zuen, eta Euskadiri egokitu zitzaizkion, berriz ere, estatuko harrapaketen erdia baino gehiago. Antxoak lekua galdu zuen, aitzitik, baina epe ertainera hori aldatzea espero da, datu biologiko onak daude eta.

30. grafikoa. Diru-sarrera osoak azpisektorearen arabera, 2020-2024




Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Urtez urte, hasiera ziurgabetasun handikoa da: klima-aldaketa arrain-sarden portaerak eta ziklo biologikoak aldatzen ari da; ez da erraza izaten asmatzea noiz den garairik onena arrainek nahi diren tamaina eta kalitatea edukitzeko; eta lehia handia dago estatuetako floten artean, arrantza-kuotak eta -eremuak direla eta.

Ziurgabetasuna gero eta handiagoa da, eta badira beste faktore batzuk ere; adibidez, belaunaldi-txandaketa zaila, itsasoan denbora luzea egotea baitakar sektoreak —batzuetan, baita hilabeteak ere—. Horrek guztiak kontserbadurismora jotzea ekarri du flota berritzeko inbertsioak egiteko garaian eta, maiz, zaharkitutzat jotako itsasontziak ez dira ordezten, eta langileen ordez bitarteko teknikoak hobetzen dira. Tripulazioen kopuruak beheranzkoak dira argi eta garbi, eta salbuespen gutxi gertatzen dira. Prezioen elastikotasunak salbatu ohi du sektorea. Hobekuntza ugari eta ahalegin handiak bideratu dira produktuari irteera bat eman eta kalitateari eusteko, kontsumitzaileak prest egon daitezen produktu horien truke gero eta gehiago ordaintzera. Oraindik balio positiboa egozten diete kontsumitzaileek, nahiz eta kuota galtzen ari diren elikagaien eskaintza gero eta dibertsifikatuagoaren aurrean. Sarri, euskal flotak ohiko eremuetatik urrutixeago arrantza egitera jo du, eta produktua kanpoko lonjetan lehorreratu izan du azkenean, batik bat Kantauriko erkidegoetan. Aldi berean, estatutik kanpoko konpainiek euskal lonjetan deskargatu ohi dute. Horiek horrela, kilogramoko prezioek nahiko lehia dinamikoa konfiguratzen dute. Hala izanik ere, nahiz eta kotizazioak oso gorabeheratsuak izan —eta prezioek erortzeko joera duten arren, oro har, atzemandakoaren eskaintza handitzen denean—, albiste onak jaso ditu sektoreak, zorionez, kostuak jasanarazteari begira, dela zuzeneko kontsumitzaileek onartutako prezioetan, dela produktua lonjan erosten duten enpresen prezioetan, freskoaren zein izoztuaren salmentan.

31. grafikoa. Salmenta kofradietan, azpisektorearen eta lonja zein floten lurraldearen arabera, 2021-2025



Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Esan bezala, Euskadiko estatistika ofizialak baxuraren jarraipen xeheagoa egiten du, baita lonjetan lehorreratutako alturako arrantzarena ere, nahiz eta baxurakoan espezializatuta egon. Hain zuzen ere, antzeko balio ekonomikoa daukate euskal flotaren baxurako lehorreratzeak euskal lonjetan, horietan bertan egiten den alturako lehorreratzeak —nahiz eta, kasu honetan, EAEkoak ez diren itsasontzien ekarpen handia barnean dagoen— eta kanpokoek lonja berberetan egiten duten salmenta osoak (baxura gehi altura). Euskal itsasontzien salmenta Kantauriko lonjetan txikiagoa izan ohi da, eta hutsala ere bai, zenbaitetan. Baxurako negozioen diru-sarrera osoak lonjako salmentarena baino dezente handiagoak dira, beste banaketa-kanal batzuk ere badaudelako. EAEko lonjetako baxurako arrantzaren guztizkoa igo egin zen 2025ean. Gainerakoek balioa galdu zuten, ordea, nolabaiteko egonkortasun-tarte baten barruan.

5.2 ARRANTZAKO ONTZIDIA

183. koadroa. Euskadiko alturako eta baxurako floten adierazleak

Sektorea	Urtea	Unitate kopurua	Potentzia (ZP)	EGT*	Tripulatzaile kopurua
Altura	2021	44	147.340	55.066	947
	2022	41	138.059	51.457	905
	2023	41	138.959	49.968	885
	2024	41	136.759	50.785	852
	2025	39	132.335	42.459	851
Baxura	2021	149	48.257	10.014	1.135
	2022	145	45.878	9.490	1.041
	2023	145	45.621	9.507	1.000
	2024	142	43.089	8.883	983
	2025	137	42.459	8.773	974
Guztira	2021	193	195.597	65.080	2.082
	2022	186	183.937	60.947	1.946
	2023	186	184.580	59.475	1.885
	2024	183	179.848	59.668	1.835
	2025	176	174.794	57.717	1.825

(*): Erregistro Gordineko Tonak.
Iturria: EUSTAT.

Jada adierazi denarekin bat, flotari buruzko adierazle guztiek beheranzko joera daukate duela zenbait hamarkadatik hona: itsasontzi kopurua, itsasontzien edukiera, motorren potentzia agregatua edota tripulazioak berak. Salbuespenak ezohikoak dira, bai igoerei, bai urte arteko bat-bateko jaitsierei dagokienez. Salbuespen horietako bat Bizkaiko tripulazioen agregatua da. Zehazki, 2025ean, 10 enplegu irabazi ziren baxuran, 318 izateraino; baina Gipuzkoako 19 enpleguren galerak orekatu zuen irabazi hori; 656 izan ziren lurralde horretan. Alturako eta baxurako zazpi itsasontzi galdu ziren, 176 izanik; hamarkada batean gertatu den beherapenik handiena da. Denbora-tarte berean, baxurako enplegua % 13,2 jaitsi zen Euskadin; baxurako itsasontziak, % 9,3; potentzia, % 10,3; eta edukiera, % 11,2. Alturan, aitzitik, pisua irabazi zen tarte horretan, batik bat atunketari

handien eta tamaina handiagoaren eraginez; zehatz-mehatz, potentzia % 22,5 igo zen; edukiera, % 24,3; eta enplegua, % 10,8. Itsasontzi-kopurua % 7,1 jaitsi zen, ostera. 2015az geroztik, 83 enplegu irabazi dira alturan, baina ez dituzte orekatu baxuran galdutako 148 enpleguak.

Baxuran, azpimarratu beharreko hiru portuak Hondarribikoa, Getariakoa eta Bermeokoa dira. Azken portu horretan daude itsasontzi gehien, nahiz eta, batez beste, besteetakoak baino askoz txikiagoak diren. Gainera, azken hamarkadetan beheranzko joera argiena izan duen portua da, baxurako adierazleei erreparatuta, eta gainerako portu nagusietan nahiko egoera egonkorra eduki dute. Bada salbuespen bat, ordea, bat-bateko jaitsiera gertatu baita Hondarribian azken ekitaldietan. Hartara, iaz Getaria baxurako potentzia nagusi suertatu zen, eta aurten lehena izan da tonatan. Alabaina, baxurako unitate kopurua ikusirik, Bermeok azken urteetako beheranzko joera hautsi zuen, eta Getariari, bestalde, goranzko joera amaitu zitzaion, bi itsasontzi galdu zituenez gero.

Tripulazioen jarraipena zailagoa da. Nahiz eta bakarra ez izan, sekretu estatistikoa egokitu ohi zaio datu horri zenbaketa ofizialetan zeren, zenbait udalerritan, portu bakoitzeko kopuru jakin batzuk digitu txikietaraino jaisteak datuak agregatzea ekartzen du berez, eta trazabilitatea galtzen da. Lurralde historiko bakoitzeko zenbaketei ere eragin izan die horrek, Pasaiako bakailao-ontzien datuak Bizkaiko altura handiko guztizkoari gehitu ohi baitzaizkio, eta Bermeoko atunketariekin parekatu izan dira. Edo, antzera, Mutrikuko itsasontziei buruzko datuak Ondarroakoei gehitu zaizkie, portu txikia izanik, baina nolabaiteko jarduera edukita. Horren guztiaren zati bat —ez dena— Haziren eta Eustat zerbitzu estatistikoaren datuekin gurutzatuz konpontzen da.

LABORAL kutxa

184. koadroa. Euskadiko ontzidiaren adierazleak portuaren arabera (2025)


Portua	Unitate kopurua	Potentzia (ZP)	EGT	Tripulatzaile kopurua
– Hondarribia (baxura)	26	11.043	2.492	267
– Getaria (b.)	26	11.541	2.495	-
– Orio (b.)	4	2.614	434	-
– *Getaria + Orio (b.)*				291
– Donostia (b.)	3	240	29	-
– Mutriku (b.)	2	260	29	-
– Pasaia (b.)	13	3.272	633	-
– Pasaia (alt.,bakailao-ontziak)	2	5.084	1.650	-
GIPUZKOA, GUZTIRA (baxura)	74	28.970	6.112	656
GIPUZKOA, GUZTIRA	76			-
– *Bermeo + Pasaia (altura)*				665
– Bermeo (b.)	30	7.640	1.588	-
– Bermeo (alt., iz. atunketariak)	22	118.159	44.320	-
– Ondarroa (freskoko altura)	15	9.092	2.986	186
– Ondarroa (b.)	8	1.939	397	-
– Bilbo (b.)	1	37	3	--
– Zierbena (b.)	4	799	162	28
– Armintza-Lemoiz (b.)	6	499	70	16
– Lekeitio (b.)	4	1.256	187	24
– Plentzia (b.)	3	131	17	-
– Santurtzi (b.)	7	1.188	236	-
– *Santurtzi + Plentzia + Bilbo (b.)*				47
BIZKAIA, GUZTIRA (baxura)	318	13.489	2.661	318
BIZKAIA, GUZTIRA	100			-
EAE, guztira	176	174.794	57.717	1.825

(b.): Baxura. Iturriak: EUSTAT eta HAZI. Tripulazioei buruzko datu batzuk ez dira desagregaturik argitaratzen, sekretu estatistikoagatik.

5.3 ARRANTZA-JARDUERA

Antxoa 2023an eta 2024an suspertu zen, zenbait urtetan jarduera eskasa izan ostean. Aitzitik, berriz egin zuen behera 2025ean, eta hegaluzea indarberritu egin zen, ordea. Halaber, berdelak ere balioa irabazi zuen. Egoera orokorra da hori portuz portu. Haatik, konposizioak edo produktukako salmentaren mixa oso desberdin suertatu zen lonja nagusien artean, eta hori da ondoen ikusten dena lehen barra-grafikoan. Irudian, salmentaren agregatua ageri da (mila euro), hala alturako nola baxurako itsasontzietarako, izan EAEkoak edo kanpokoak, Euskadiko lonja nagusietan.

32. grafikoa. **EAEko lonjetan porturatutako arrainen balioa (mila €), azpi**-sektorearen eta espezie nagusien arabera, lonjaka agregatua 2025



Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Kontrastea handiagoa izan zen iaz zeren, 2024an, alturako arrantzako salmentaren proportzio nabariak egotzi zitzaizkien Bermeo, Getaria eta Hondarribiari, batez ere hegaluzearenak. Baxurako hegaluzearen kontingente nabariari gehitu zitzaion (urdinez). Ondarroan eta Pasaian alturako askoz salmenta handiagoa dago. Lehenean, espezieak askotarikoagoak dira, eta bigarrenean, legatzarenak dira batez ere.

Gogora ekarri behar da alturako arrantzak lonjetako salmentari soilik eragiten diola, baina ez dira kanal bakarra. Jakina, Bermeoko atunketari izoztaileen bolumen handietarako ez da hori erabiltzen. Beraz, portu horretako arrantza oso txiki geratzen da zenbaketa horretan, proportzioan. Beheko taulan, tona kopuruari buruzko datuak salmenta eta logika horiei dagozkie, portu, azpisektore eta espezieen arabera. Berriz ere, Ondarroako eta Pasaiako ehunekoak azpimarratu behar dira, beraz. Baxurako segida historikoen azterketan argi ikusten da arrainaren tona kopurua txikiagoa izan zela iaz, eta diru-sarrerek gora egin zutela Hondarribian, Getarian edo Bermeon, hegaluzearen aldeko

apustuari esker, nahiz eta antxoaren tona kopurua gutxitu. Hala ere, hegaluzearen igoera ez zen oso handia izan Ondarroan edo Pasaian, eta berdelera jo izanak eta kotizazioa areagotu izanak orekatu zuen, hein handiagoan, antxoaren egoera. Guztiarekin ere, balantze orokorra nahiko positiboa izan zen.

185. koadroa. EAEko lonjetan enkantean saldutako baxurako eta alturako arrainen tonak, espezie nagusien arabera, 2025

(Tm)


Kontzeptua	Guztira	%/guztira EAE	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza(1)	Sardina	Berdela (2)	Beste batzuk(3)
– Hondarribia	4.583,5	10,2	626,6	2.240,5	1,2	6,0	16,2	1.408,0	284,9
Altura	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Baxura	4.583,5	10,2	626,6	2.240,5	1,2	6,0	16,2	1.408,0	284,9
– Pasaia	13.186,5	29,3	69,9	425,9	213,0	5.638,3	649,5	3.913,9	2.276,0
Altura	8.726,7	19,4	0,0	0,1	177,4	5.341,0	0,0	2.015,4	1.192,7
Baxura	4.459,9	9,9	69,9	425,8	35,5	297,3	649,5	1.898,5	1.083,3
– Getaria	6.551,4	14,6	1.086,8	3.373,2	38,4	1,2	326,0	1.582,5	143,2
Altura	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Baxura	6.551,4	14,6	1.086,8	3.373,2	38,4	1,2	326,0	1.582,5	143,2
– Ondarroa	18.352,2	40,8	1.943,0	3.435,2	961,5	1.980,2	1.678,1	3.893,2	4.461,1
Altura	9.426,1	20,9	0,0	2.582,4	695,9	1.949,0	0,0	629,9	3.568,7
Baxura	8.926,1	19,8	1.943,0	852,7	265,5	31,1	1.678,1	3.263,3	892,4
– Bermeo	2.255,5	5,0	573,6	1.097,4	6,5	62,1	18,2	377,8	119,9
Altura	0,5	0,0	0,0	0,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Baxura	2.255,0	5,0	573,6	1.096,9	6,5	62,1	18,2	377,8	119,9
– Bizkaiko beste batzuk	70,8	0,2	0,0	0,2	1,7	15,4	0,0	10,8	42,7
Altura	30,7	0,1	0,0	0,2	0,6	10,2	0,0	4,8	14,9
Baxura	40,1	0,1	0,0	0,0	1,2	5,2	0,0	5,9	27,8
GIPUZKOA, GUZTIRA	24.321,4	54,0	1.783,4	6.039,6	252,6	5.645,5	991,8	6.904,4	2.704,2
Altura	8.726,7	19,4	0,0	0,1	177,4	5.341,0	0,0	2.015,4	1.192,7
Baxura	15.595	34,7	1.783	6.039	75	304	992	4.889	1.512
BIZKAIA, GUZTIRA	20.678,4	46,0	2.516,6	4.532,7	969,6	2.057,7	1.696,3	4.281,7	4.623,7
Altura	9.457,2	21,0	0,0	2.583,1	696,5	1.959,3	0,0	634,7	3.583,6
Baxura	11.221	24,9	2.517	1.950	273	98	1.696	3.647	1.040
EAE, GUZTIRA	44.999,8	100,0	4.300,0	10.572,3	1.222,3	7.703,2	2.688,1	11.186,1	7.327,9
Altura	18.183,9	40,4	0,0	2.583,2	873,9	7.300,3	0,0	2.650,1	4.776,3
Baxura	26.815,9	59,6	4.300,0	7.989,1	348,3	402,9	2.688,0	8.536,0	2.551,6
%/guztira EAE			9,6	23,5	2,7	17,1	6,0	24,9	16,3

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.
(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.
(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.
Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Bigarren grafikoan, EAEtik kanpoko itsasontziek lonjetan egindako salmenta irudikatu da kolore argiagoetan; baliokide ilunagoak euskal flotaren salmenta irudikatzeko erabili dira. Berriz ere, altura eta baxura batu dira, eta, oraingoan, Kantauriko lonjetan egindako salmenta gehitu da eskuinean. Kanpokoen inpaktua Pasaian kontzentratu zen, eta Ondarroan askoz neurri txikiagoan (2024an baino dezente gutxiago). Ondarroako portuari

dagokio aniztasun handiena. Hango aldaketa nagusia zera izan zen, kanpokoen antxoa-salmenta murriztu izana eta "beste espezie batzuen" atala areagotu izana, euskal itsasontzien aldetik. Pasaian, kanpokoen ekarpena legatzean asko jaitsi zen, eta "beste espezie batzuetan" egindako ekarpena igo zen, aitzitik, baita berdelari egokitu zitzaiona ere. Orobat, hein handian egin zuen behera hegaluzearen salmentak Kantauriko lonjetan, euskal itsasontzien aldetik. Sardinaren balio osoaren gorakada portu gehienetan nabaritu zen, aurreko urte batzuetan bezala. Horietan, antxoa edo bokartaren balioak behera egin zuen, espezie hori bigarren mailako ordezko suertatu izan baita neurri batean.

33. grafikoa. **Enkantean ateratako arrainen balioa (mila €), azpi**-sektorearen eta espezie nagusien arabera, lonjaka agregatua, 2025



Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Aurreko urtearen aldean, aldaketa handiak gertatu ziren tona kopuruan: 2024an, altura eta baxurako enkanteen agregatu oso horren pisuaren % 30,1 euskal itsasontziena izan zen, EAEko lonjetan; % 28,2, kanpoko itsasontziena, lonja berberetan; eta % 41,8, euskal itsasontzien lehorreratzeena, Kantauriko beste autonomia-erkidego batzuetan. laz, proportzioak % 42,8, % 37,2 eta % 20 izan ziren, hurrenez hurren. Beste autonomia-

erkidego batzuetan lehorreratutakoa 2024koaren laurdena baino gutxiago izan zen guztira. Agregatu osoa ia erdia izan zen (-% 48,5), batez ere hegaluzearen tona kopurua 2024koaren herena besterik izan ez zelako; batik bat, Kantauriko portuetako enkantea murriztu zen. Eta antxoak antzeko proportzioan egin zuen behera (kasu honetan, antzekoa izan zen aipatu diren hiru ataletan). Gainerako espezieak ere nabarmen jaitsi ziren; aitzitik, berdelak bere horretan jarraitu zuen ia-ia, eta txitxarroa areagotu zen, 2024ko kopuruekin konparatuta. Agregatu horren % 38,8 egokitu zitzaien Ondarroa eta Pasaiari, eta % 58,8ra igaro ziren iaz. Dena den, Pasaiako agregatu osoa antzekoa izan zen, eta Ondarroakoa ia % 40 erori zen.

186. koadroa. Enkantean saldutako arrain-tonak, espezie nagusien eta ontzien jatorriaren arabera, 2025

(Tm)


Kontzeptua	Guztira	%, guztizko-arekiko	Espezie nagusiak						
			Antxoa	Hegaluzea	Txitxarroa	Legatza(1)	Sardina	Berdela(2	Beste batzuk(3
– Hondarribia	4.583,5	8,1	626,6	2.240,5	1,2	6,0	16,2	1.408,0	284,9
EAEkoak	4.507,3	8,0	550,4	2.240,5	1,2	6,0	16,2	1.408,0	284,9
Kanpokoak	76,2	0,1	76,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
– Pasaia	13.186,5	23,4	69,9	425,9	213,0	5.638,3	649,5	3.913,9	2.276,0
EAEkoak	727,3	1,3	13,8	60,1	6,6	164,5	91,7	129,5	261,0
Kanpokoak	12.459,3	22,1	56,2	365,7	206,3	5.473,8	557,8	3.784,4	2.015,0
– Getaria	6.551,4	11,6	1.086,8	3.373,2	38,4	1,2	326,0	1.582,5	143,2
EAEkoak	6.353,9	11,3	961,6	3.373,2	34,3	1,2	269,2	1.571,9	142,5
Kanpokoak	197,5	0,4	125,2	0,0	4,1	0,0	56,9	10,6	0,7
– Ondarroa	18.352,2	32,6	1.943,0	3.435,2	961,5	1.980,2	1.678,1	3.893,2	4.461,1
EAEkoak	10.375,0	18,4	870,8	852,7	875,4	1.865,3	303,3	2.225,9	3.381,6
Kanpokoak	7.977,2	14,2	1.072,2	2.582,4	86,0	114,9	1.374,8	1.667,3	1.079,5
– Bermeo	2.255,5	4,0	573,6	1.097,4	6,5	62,1	18,2	377,8	119,9
EAEkoak	2.036,6	3,6	451,6	1.073,2	2,5	29,8	7,6	367,3	104,5
Kanpokoak	218,9	0,4	122,0	24,1	4,0	32,3	10,6	10,5	15,4
– Bizkaiko beste batzuk	70,8	0,1	0,0	0,2	1,7	15,4	0,0	10,8	42,7
EAEkoak	70,8	0,1	0,0	0,2	1,7	15,4	0,0	10,8	42,7
Kanpokoak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Lonjak GUZTIRA, EAE	44.999,8	80,0	4.300,0	10.572,3	1.222,3	7.703,2	2.688,1	11.186,1	7.327,9
EAEkoak	24.070,8	42,8	2.848,1	7.600,0	921,8	2.082,2	688,0	5.713,3	4.217,3
Kanpokoak	20.929,0	37,2	1.451,9	2.972,3	300,4	5.621,0	2.000,1	5.472,8	3.110,6
Beste autonomia-erkidego batzuk Kantaurikoak	11.272,1	20,0	5.547,2	3.148,3	1.002,1	476,5	145,1	574,0	378,9
GUZTIRA	56.271,9	100,0	9.847,2	13.720,6	2.224,3	8.179,7	2.833,2	11.760,1	7.706,8

(1): Legatza, merlenka eta tarteko legatza sartzen dira hemen.
(2): Berdela eta betaundia sartzen dira hemen.
(3): Barne hartzen ditu hegalaburra eta gainerako espezieak.
Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Hirugarren grafikoak beste ikuspegi bat ematen du enkanteengatiko diru-sarreren datuak gurutzaturik. Zutabeetan espezie bakoitzaren salmenta agertzen da, eta zenbateko pisua

daukaten horietan lonja bakoitzak eta itsasontzien jatorri bakoitzak. Oro har, kopuruak aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren, "beste espezie batzuetan" izan ezik. Tona kopuruaren jaitsiera txikiagoa izan zen, argi eta garbi, eta 2024ko banaketa proportzionalaren antzekoa da, zenbait salbuespenekin. Bolumenari erreparaturik, kanpoko itsasontziek Pasaian egindako ekarpenaren kontrastea gailendu zen berriro. Zehazki, legatzean aritu ziren modu masiboan 2024an, baina iaz berdelera eta "beste espezie batzuetara" jo zuten. Izan ere, berriz handituriko ekarpen hori giltzarri izan zen berdelari dagokion atalaren balio osoa areagotzeko. Adibidez, 2024an, antxoaren erdia baino txikiagoa izan zen, eta iaz, ordea, handiagoa. Getaria eta Hondarribiko portuak hegaluzean espezializatuta daude hein handian, eta euskal itsasontziek arrantzatutako hegaluzeak portu horiekin daukan korrelazioa bistakoa da. Antxoaren harira, kanpoko itsasontziek Ondarroan saldutakoa murriztu zen gehien; eta hegaluzeari buruz, euskal itsasontziek Kantauriko autonomia-erkidegoetan saldutakoak egin zuen behera batik bat.

34. grafikoa. **Enkantean ateratako arrainen balioa (mila €), lonjaren eta itsasontzien jatorriaren arabera, espezieka agregatua, 2025**



Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

LABORAL kutxa

187. koadroa. Antxoaren kosteraren tonak, prezioak eta balioa, 2021-2025

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Baxura					
– Lehorreratzeak (Tm)	3.540,00	5.350,00	10.734,40	11.369,41	4.300,01
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	0,94	1,19	1,61	1,50	2,05
– Balioa (mila euro)	3.318,00	6.391,97	17.270,97	17.026,20	8.800,12
Altura					
– Lehorreratzeak (Tm)	0,00	0,00	0,00	3.398,54	0,00
– Batez besteko prezioa (euro/kg)				1,45	
– Balioa (mila euro)	0,00	0,00	0,00	4.935,98	0,00
EAEko ontziak EAEko lonjetan					
– Lehorreratzeak (Tm)	2.789,59	3.177,71	6.432,90	6.710,63	2.848,15
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	0,92	1,15	1,61	1,60	2,00
– Balioa (mila euro)	2.553,89	3.650,76	10.335,70	10.703,81	5.707,86
EAEko ontziak Kantauriko lonjetan					
– Lehorreratzeak (Tm)	5.322,25	3.780,55	2.525,88	7.335,83	5.547,17
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	1,88	1,96	2,06	1,72	1,92
– Balioa (mila euro)	10.030,61	7.408,52	5.206,00	12.640,18	10.664,58
Kanpokoak ontziak EAEko lonjetan					
– Lehorreratzeak (Tm)	750,41	2.172,29	4.301,50	8.057,32	1.451,86
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	1,02	1,26	1,61	1,40	2,13
– Balioa (mila euro)	764,11	2.741,21	6.935,27	11.258,37	3.092,25

Oharra: Kofradietako salmentak.
Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

Oro har, baxuran, antxoaren eta hegaluzearen arrantza —kostaldeko nagusiak— oso gorabeheratsuak izan dira azken hamarkadetan, tona kopurua, prezioak eta balioa kontuan hartuta. Azterketen emaitzak oso desberdinak izan dira kokapenaren arabera —lonjak eta itsasontzien jatorria—. Berdela balioa hartzen joan da epe luzera, eta ez da beharrezkoa izan kontingente handiak atzematea (edonola ere, kuoten mende daude, espezie guztietan bezala). Jorratu diren segidak baxurako datuekin eraiki dira, eta, ikusten denez, balio ekonomiko agregatu txikieneko espezie guztien (sardina eta txitxarroa) balioak beheranzko joera izan du. Legatzarena, "gainerakoak" atalaren batezbesteko gisa, nahiko egonkorra izan da.

Bi multzo horiek (legatza eta gainerakoak) eta hegaluzeak dituzte kilogramoko prezio handienak, argi eta garbi. Hala, gainerako espezieek askoz kotizazio txikiagoa daukate kilo bakoitzeko. Nabarmendu behar da antxoaren prezioak beheranzko joera eduki zuela 2013tik 2021era arte, eta igotzen joan da orduz geroztik. Berdelaren, sardinaren eta txitxarroaren prezioak mailaz maila igo dira, neurritsu (azken hamarkadan, hiruren tona kopurua jaistea izan da joera, eta horri lotuta egongo da, ezbairik gabe). Eskura dagoen segida ikusirik (2011tik aurrera), 2025ean lortu zituzten inoizko kotizaziorik handienak legatzak, berdelak, sardinak eta hegaluzeak. Orokortu izana ez da harritzekoa, batik bat

inflazioaren eta kostuen —soldatak, erregaiak…— ondorioak kontuan izanik, eta prezioetan oro har daukaten eragin elastikoa.

Antxoa eta hegaluzearen kostaldeko arrantzaren bilakaerari buruzko datuak alderatuta, alturako antxoaren enkantea azken bosturtekoko urte bakar batean zenbatu da euskal lonjetan. Hegaluzearen kasuan errepikakorra da, ordea. Antxoaren prezioak aurreko urtekoen oso antzekoak eta handiagoak izan ziren 2025ean, kalkuluz kalkulu: baxura, altura, euskal itsasontzien ekarpenak, kanpokoenak edo Kantauriko lonjetako salmenta. Beste ekitaldi batzuetan aldeak handiagoak izan ziren, eta hegaluzearen kasuan ere bai. Logikoa denez, bi kasuetan antzematen da ezen, EAEtik kanpoko lonjetan saltzeko hautua egiten denean, aztertzen diren gainerako merkataritza-egoeretan baino prezio handiagoetan bideratzen direlako erabakitzen dela hori. Halaber, kostaldeko bi arrantza mota horietan ikusten da korrelazioa ez dela sistematikoa epe laburrera, datuak ikusirik eta tona kopuruaren igoera zein prezioaren beherakada aintzakotzat hartuta. Kontuan hartu behar da, orobat, arrantza-konpainien erreakzioa ere, prezioa handia den uneetan produktuaren kantitate gehigarriak arrantzatu, deskargatu eta enkantean ateratzeko aukera baliatzen baitute. Bestalde, bereizketa horiek ez dituzte enkante bereiziak islatzen; aitzitik, baliteke hainbat jatorri enkantean batera ateratzea lonja berberetan.

188. koadroa. Hegaluzearen kosteraren tonak, prezioak eta balioa, 2021-2025

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Baxura					
– Lehorreratzeak (Tm)	8.142,41	7.802,43	8.544,67	4.783,11	7.989,07
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	3,57	4,18	3,26	4,15	3,83
– Balioa (mila euro)	29.070,34	32.580,23	27.847,89	19.831,01	30.636,50
Altura					
– Lehorreratzeak (Tm)	1.106,54	667,53	1.588,56	7.916,35	2.583,21
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	2,67	2,87	1,81	3,14	2,92
– Balioa (mila euro)	2.957,51	1.918,72	2.880,09	24.895,00	7.536,84
EAEko ontziak EAEko lonjetan					
– Lehorreratzeak (Tm)	8.034,99	7.561,17	8.243,74	8.550,59	7.600,00
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	3,57	4,21	3,31	3,99	3,86
– Balioa (mila euro)	28.709,31	31.845,94	27.289,41	34.130,74	29.303,53
EAEko ontziak Kantauriko lonjetan					
– Lehorreratzeak (Tm)	1.761,01	2.372,02	2.864,74	4.939,94	3.148,30
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	4,02	4,57	3,92	4,82	4,34
– Balioa (mila euro)	7.085,24	10.841,69	11.236,62	23.796,52	13.667,66
Kanpokoak ontziak EAEko lonjetan					
– Lehorreratzeak (Tm)	1.213,96	908,79	1.889,50	4.148,87	2.972,28
– Batez besteko prezioa (euro/kg)	2,73	2,92	1,82	2,55	2,98
– Balioa (mila euro)	3.318,54	2.653,02	3.438,57	10.595,28	8.869,81

Oharra: Kofradietako salmentak.
Iturria: HAZI. Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila (Eusko Jaurlaritza).

LABORAL kutxa



5.ZERBITZUAK

LABORAL kutxa

1. IKUSPEGI OROKORRA

Estatuko BPGaren hazkunde-erritmoa % 2,8era jaitsi zen 2025ean (aurreko ekitaldian % 3,5eko igoera izan zuen); bai Euskal Herrian, bai Foru Erkidegoan, % 2,3ra jaitsi zen (2024an % 2,5eko eta % 2,7ko hazkundeak izan ziren, hurrenez hurren).

Bestalde, zerbitzu-sektoreak, oro har, aurreko ekitaldian baino dinamismo txikiagoa erakutsi zuen EAEn eta Estatu osoan. Izan ere, 2025ean % 2,8ko eta % 3,2ko hazkundeak izan zituen, hurrenez hurren, aurreko urteko % 2,9aren eta % 4aren aldean. Nafarroak, aldiz, hazkunde-erritmoa apur bat sendotu zuen, % 3ra iritsita (2024an % 2,9 izan zen).

Dena den, berriz ere gogoratu behar da hirugarren sektorearen heterogeneotasunak zaildu egiten duela sektorea bere osotasunean aztertzea. Halere, langile kopurua izan zen adierazlerik egonkorrenetako bat. Horrekin lotuta, aipatzekoa da 2025ean zerbitzuen sektoreko okupazioak % 2,2ko igoera izan zuela Estatu mailan, eta aldiz, EAEn -% 0,1eko eta Nafarroan -% 1,6ko jaitsierak izan zituela (-% 0,4 Euskal Herrian).

LABORAL kutxa

2. HEZKUNTZA

2.1 UNIBERTSITATEKOAK EZ DIREN IKASLEEN BILAKAERA

Haur Hezkuntza

2025/2026 ikasturtea jorratzen hasteko, Haur Hezkuntzako matrikulazioa (2. zikloa) aztertuko dugu, eta urtez urte azaldu izan den moduan, jaiotza-tasaren pixkanakako jaitsiera ezinbestean ikusten da ikasgeletan. Euskal Herri osoan, hezkuntza-maila horretako 59.718 ikasle egon ziren iazko ikasturtean, hots, aurrekoan baino % 3,4 gutxiago. Sare publikoak (-% 4,2) eta pribatuak (-% 2,5) egin diote ekarpena emaitza horri, ikastetxe publikoek partaidetza zertxobait handiagoa izan duten testuinguru batean (% 55,2).

189. koadroa. Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Haur Hezkuntza*

Eremua	2024/2025 ikasturtea			2025/2026 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	4.529	3.034	7.563	4.307	2.948	7.255
Bizkaia	11.622	10.905	22.527	11.130	10.719	21.849
Gipuzkoa	7.933	7.510	15.443	7.643	7.141	14.784
EAE	24.084	21.449	45.533	23.080	20.808	43.888
Nafarroa	10.320	5.989	16.309	9.888	5.942	15.830
Euskal Herria	34.404	27.438	61.842	32.968	26.750	59.718

(*): Haur Hezkuntzako 2. zikloko matrikulazioa soilik hartzen da kontuan.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lurralde bakoitzari begira, matrikulazioaren beherakada aztertu diren eremu geografiko guztietara hedatzen dela ikusten da, neurri handiagoan edo txikiagoan. 2025/26 ikasturtean, 21.849 ikasle egon ziren Bizkaiko Haur Hezkuntzan, matrikulazioa % 3 murriztu eta gero. Joera hori bera eduki zuten Gipuzkoak eta Arabak, 14.784 eta 7.255 ikaslerekin, hurrenez hurren, hau da, % 4,3 eta % 4,1eko jaitsierarekin. Nafarroan, 15.830 ikasle egon ziren, eta portaera antzekoa izan zen (-% 2,9), beraz. Hala, Haur Hezkuntzako ikasleak (2. zikloa) galtzeko joera berretsi da.

Sare mota bakoitzaren bilakaera aztertu da. Nafarroan eta Araban, ikastetxe publikoek irismen handiagoa eduki zuten (% 62,5 eta % 59,4, hurrenez hurren), eta matrikulazioa horietan txikiagotu zen gehien (-% 4,2 eta -% 4,9). Titulartasun pribatuko ikastetxeen joera ez zen hain nabarmena izan (-% 0,8 eta -% -2,8), baina negatiboa bai, orobat. Bizkaian eta Gipuzkoan, ikasleak banatuago daude (matrikulazio publikoa % 51 inguru izan zen). Bizkaian, ikasleen galera nabarmenagoa izan zen sare publikoan (-% 4,2 eta -% 1,7, publikoa eta pribatua), eta Gipuzkoan kontrakoa gertatu zen (-% 3,7 eta -% 4,9, publikoa eta pribatua). Guztiarekin ere, sare publikoa gailentzen da Haur Hezkuntzako EAEko

mapan, hein txikian izanik ere: % 52,6. Eta sare berean antzeman zen matrikulazioaren jaitsiera handiena (-% 4,2 eta -% 3,0, publikoa eta pribatua).

190. koadroa. Euskalduntze maila Haur Hezkuntza

(%)

Eremua	2024/2025 ikasturtea					2025/2026 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	3,2	27,1	69,6	0,1	100,0	3,2	27,6	69,1	0,0	100,0
Bizkaia	0,6	18,3	79,9	1,2	100,0	0,5	17,7	80,7	1,1	100,0
Gipuzkoa	2,1	2,8	95,1	0,0	100,0	2,1	2,6	95,3	0,0	100,0
EAE	1,6	14,5	83,3	0,6	100,0	1,5	14,2	83,7	0,6	100,0
Nafarroa*	18,7	0,2	28,1	53,0	100,0	18,1	0,2	28,3	53,4	100,0
Euskal Herria	6,1	10,7	68,8	14,4	100,0	5,9	10,5	69,0	14,6	100,0
Pribatua	4,5	23,5	55,8	16,2	100,0	4,6	23,0	56,0	16,5	100,0
Publikoa	7,3	0,6	79,1	13,0	100,0	7,0	0,4	79,6	13,1	100,0

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.
A: Hezkuntza gaztelaniaz; euskara beste irakasgai bat baino ez da.
B: Irakaskuntza elebiduna.
D: Hezkuntza euskaraz; gaztelania beste irakasgai bat baino ez da.
X: Euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza.
(*): Nafarroaren kasuan, euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntzari ofizialki G deitzen zaio.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Ikasleen banaketa hizkuntza-ereduaren arabera ere aztertu da. Iaz, D ereduak (hezkuntza euskaraz, gaztelania irakasgai bat da) erreferentziazko eredu izaten jarraitu zuen EAEn; presentzia bereziki handia izan zuen Gipuzkoan (% 95,3), eta Bizkaian (% 80,7) eta Araban (% 69,1) ere nagusitu zen. B ereduak (irakaskuntza elebiduna) Arabako (% 27,6) eta Bizkaiko (% 17,7) ia matrikulazio osoa osatu zuen, eta Gipuzkoan oso presentzia txikia eduki zuen (% 2,6). Nafarroako hizkuntza-mapa oso desberdina da, ordea. X eredua (euskararekin inolako harremanik ez duen hezkuntza) gailendu zen (% 53,4), D eredua bigarren geratu zen (% 28,3), eta A eredua, hirugarren (% 18,1).

Horren guztiaren ondorioz, euskalduntze-tasa, hau da, B eta D ereduen batura, % 97,9 izan zen EAEn, eta % 28,5 Nafarroan. Hortaz, Euskal Herri osorako emaitza ia % 80 izan zen.

Lehen Hezkuntza

Jorratuko den hurrengo hezkuntza-maila Lehen Hezkuntza da. Haur Hezkuntzan bezala, matrikulazioak behera egin zuen 2025/26 ikasturtean, baina hein txikiagoan. Hala, 154.124 ikasle matrikulatu ziren Euskal Herrian Lehen Hezkuntzan, aurreko ikasturtean baino % 2,5 gutxiago. Matrikulazioa antzera jaitsi zen sare publikoan (-% 2,3) eta pribatuan (-% 2,9), partaidetza handiena sare publikoari dagokion testuinguru batean (guztizkoaren % 55,9).

LABORAL kutxa

191. koadroa. Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Lehen Hezkuntza

Eremua	2024/2025 ikasturtea			2025/2026 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	11.745	7.981	19.726	11.540	7.689	19.229
Bizkaia	29.757	29.228	58.985	29.106	28.143	57.249
Gipuzkoa	19.745	18.784	38.529	19.172	18.280	37.452
EAE	61.247	55.993	117.240	59.818	54.112	113.930
Nafarroa	26.914	13.999	40.913	26.333	13.861	40.194
Euskal Herria	88.161	69.992	158.153	86.151	67.973	154.124

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Haur Hezkuntzan ikusiriko norabidea Lehen Hezkuntzara ere hedatu zen: matrikulazioa gutxiagotu zen azterturiko lurralde guztietan, eta bi sareetan, halaber. Zehatz-mehatz, 113.930 ikasle aritu ziren EAEko Lehen Hezkuntzan, matrikulazioa % 2,8 uzkurtuta, eta 40.194 ikasle Nafarroakoan, hots, % 1,8 gutxiago.

Lurraldeei erreparatuta, 57.249, 19.229 eta 37.452 ikasle zeuden Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan, hurrenez hurren, eta beheranzko joera bera antzeman zaie, matrikulazioak % 2,9, % 2,5 eta % 2,8 egin zuen-eta behera.

Sarearen titulartasuna kontuan harturik, sare publikoak Nafarroan izandako pisu espezifikoa nabarmendu behar da (% 65,5), baita Araban izandakoa ere (% 60,0). Bizkaian eta Gipuzkoan, bestalde, ikasleen banaketa orekatuagoa izan zen (sare publikoari % 51 inguru egokitu zitzaion). Bilakaeraren harira, sare pribatua gehixeago doitu zen Araban eta Bizkaian (-% 3,7 bietan), publikoaren aldean (-% 1,7 eta -% 2,2, hurrenez hurren). Gipuzkoan, portaera antzekoa izan zen, % 3 inguruko jaitsierekin. Nafarroa salbuespena izan zen, publikoa hein handiagoan okertu baitzen (-% 2,2) pribatua baino (-% 1,0).

192. koadroa. Euskalduntze maila Lehen Hezkuntza

(%)

Eremua	2024/2025 ikasturtea					2025/2026 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	3,4	30,6	66,0	0,1	100,0	3,3	29,6	67,1	0,0	100,0
Bizkaia	2,4	20,3	75,9	1,4	100,0	2,1	19,7	76,8	1,4	100,0
Gipuzkoa	2,3	3,5	94,1	0,0	100,0	2,4	3,6	94,0	0,0	100,0
EAE	2,6	16,5	80,2	0,7	100,0	2,4	16,1	80,8	0,7	100,0
Nafarroa	18,1	0,2	26,2	55,5	100,0	17,8	0,2	26,1	55,9	100,0
Euskal Herria	6,6	12,3	66,2	14,9	100,0	6,4	11,9	66,5	15,1	100,0
Pribatua	6,0	26,3	53,0	14,7	100,0	5,7	25,8	53,6	15,0	100,0
Publikoa	7,1	1,2	76,7	15,0	100,0	7,0	1,0	76,8	15,2	100,0

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herriari dagokio.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-eredua azterturik ikusi da D eredua sendotu zela EAEn; zehazki, % 94,0ko irismena izan zuen Gipuzkoan, % 76,8koa Bizkaian eta % 67,1ekoa Araban. B ereduak, bestalde, nolabaiteko presentzia eduki zuen Araban (% 29,6) eta Bizkaian (% 19,7), baina Gipuzkoan ia hutsala izan zen (% 3,6).

Nafarroan, ostera, ikasleen erdia baino gehiago (% 55,9) X ereduan zeuden iaz. Ondoren, D eredua dago, % 26,1eko irismenarekin, eta A eredua azkenik, % 17,8ko pisu erlatiboarekin.

Horren guztiaren eraginez, euskalduntze-tasa % 96,9 izan zen EAEn, eta % 26,3koa Nafarroan; alegia, % 78,4 Euskal Herri osorako.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH)

Azterketarekin jarraitzeko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) matrikulazioaren bilakaerari erreparatuko diogu. Datuen aurreneko hurbilketa eginda, matrikulazioa txikiagotu egin zen iaz, baina ñabardura nabarmenekin. Zehazki, guztira 120.113 ikasle egon ziren matrikulatuta Euskal Herriko DBHn, hots, aurreko ikasturtean baino gutxixeago (-% 0,5). Hala ere, beheranzko desbideratze horren jatorria sare pribatua da (-% 1,1), matrikulazio publikoa pixka bat igo zen eta (+% 0,1). Nolanahi ere, ez da inondik ere nahikoa izan irakaskuntza pribatuaren jaitsiera orekatzeko, matrikulazioak sare publikora jotzen baitu, nahiz eta aldea txikia izan (guztizkoaren % 52).

193. koadroa. Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. DBH

Eremua	2024/2025 ikasturtea			2025/2026 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	7.594	7.227	14.821	7.684	7.259	14.943
Bizkaia	20.456	24.093	44.549	20.636	23.709	44.345
Gipuzkoa	14.763	15.736	30.499	14.533	15.376	29.909
EAE	42.813	47.056	89.869	42.853	46.344	89.197
Nafarroa	19.540	11.276	30.816	19.559	11.357	30.916
Euskal Herria	62.353	58.332	120.685	62.412	57.701	120.113

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lurraldeen araberako xehetasunak ikusita, portaera desberdina izan zen aurreko hezkuntza-mailen aldean: izan ere, DBHko ikasle kopurua pixka bat handitu zen Araban eta Nafarroan. Araban, zehazki, 14.943 ikasle izan ziren, eta errolda zertxobait hazi zen, hortaz (+% 0,8), bi sareetan (+% 1,2 eta +% 0,4, publikoa eta pribatua). Presentzia handiena sare publikoari egokitu zitzaion (% 51,4). Nafarroako patroia antzekoa izan zen. Hazkundea txikia izan zuen ikasle kopuruak (+% 0,3), 30.916 izateraino, eta bi sareen portaerari esker (+% 0,1 eta +% 0,7, publikoa eta pribatua). Alabaina, matrikulazio publikoa gailentzen da testuinguru horretan (% 63,3), argi eta garbi. Bizkaian 44.345 ikasle ibili ziren

LABORAL kutxa

DBHn. Ikasturtearen saldoa negatiboa izan zen, ordea, sare publikoak (+% 0,9) ezin izan baitzuen pribatuaren jaitsiera (-% 1,6) orekatu. Gainera, sare pribatuak dauka irismenik handiena Bizkaian (% 53,5). Azkenik, 29.909 ikasle egon ziren Gipuzkoan. Matrikulazioak behera egin zuen bi sareetan (-% 1,6 eta -% 2,3, publikoa eta pribatua), kontuan izanik eskola-mapak irakaskuntza pribatura jotzen duela gehien, aldea txikia bada ere (% 51,4).

194. koadroa. Euskalduntze maila DBH

(%)

Eremua	2024/2025 ikasturtea					2025/2026 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	10,2	33,9	55,9	0,0	100,0	10,2	33,1	56,7	0,0	100,0
Bizkaia	5,3	25,4	67,7	1,7	100,0	5,0	24,4	69,0	1,6	100,0
Gipuzkoa	2,7	5,2	92,1	0,0	100,0	2,6	4,9	92,5	0,0	100,0
EAE	5,2	20,0	74,0	0,8	100,0	5,1	19,3	74,8	0,8	100,0
Nafarroa	7,3	0,0	23,5	69,2	100,0	7,2	0,0	23,1	69,7	100,0
Euskal Herria	5,7	14,9	61,1	18,2	100,0	5,6	14,4	61,5	18,5	100,0
Pribatua	7,2	28,2	48,4	16,2	100,0	7,0	27,7	48,8	16,6	100,0
Publikoa	4,4	2,4	73,1	20,1	100,0	4,4	2,0	73,3	20,3	100,0

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herriari dagokio.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-ereduen irismenari erreparatuko diogu orain. D ereduak protagonista izaten jarraitu zuen hiru lurralde historikoetan: Gipuzkoa nagusitu zen (% 92,5), eta nolabaiteko distantziara datoz Bizkaia (% 69,0) eta Araba (% 56,7). Era berean, B ereduak kuota handi samarra mantendu zuen Araban (% 33,1) eta Bizkaian (% 24,4); Gipuzkoan ez, ordea, pisua txiki-txikia da eta (% 4,9). Horrez gain, A ereduan eskolatu ziren Arabako ikasleen % 10,2, Bizkaiko % 5 eta Gipuzkoako % 2,6.

Nafarroan, aldiz, agertokia oso desberdina izan zen. Hamar ikasletik zazpik X eredua hautatu zuten (% 69,7), D ereduaren irismena % 23,1ekoa izan zen, eta hizkuntza-mapa A ereduarekin ixten da, % 7,2ko pisu erlatiboarekin.

Hartan, euskalduntze-tasa % 94,1 izan zen EAEn, eta % 23,1 Nafarroan. Horrenbestez, Euskal Herrirako emaitza osoa % 75,9ko tasa izan zen.

Erdi-mailako irakaskuntza

Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa.

Orain, Lanbide Heziketako ikasleen bilakaera jorratuko dugu, hots, Oinarrizko, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasleena. Aurreko ikasturteetan bezala, iazko portaera ere ona izan zen. Zehazki, 63.234 ikasle aritu ziren Euskal Herriko Lanbide Heziketan, aurreko ikasturtean baino % 1,8 gehiago. Igoera hori sare publikoan

kontzentratu zen bereziki, eta pisu erlatiboa indartu zuen hartara (% 62,4). Sare pribatuko matrikulazioa, bestalde, ia egonkor mantendu zen.

195. koadroa. Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa*

Eremua	2024/2025 ikasturtea			2025/2026 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	4.409	2.879	7.288	4.590	2.845	7.435
Bizkaia	11.820	11.704	23.524	12.098	11.794	23.892
Gipuzkoa	12.418	6.406	18.824	12.860	6.234	19.094
EAE	28.647	20.989	49.636	29.548	20.873	50.421
Nafarroa	9.637	2.817	12.454	9.909	2.904	12.813
Euskal Herria	38.284	23.806	62.090	39.457	23.777	63.234

(*): Oinarrizko, erdi-mailako, goi-mailako eta espezializazioko Lanbide Heziketari buruzko datuak.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lurralde bakoitzaren portaera ikusirik, matrikulazioa handitu egin zen aztertu diren eremu geografiko guztietan. Lehenik eta behin, 23.892 ikasle ibili ziren guztira Bizkaiko Lanbide Heziketan, hots, aurreko ikasturtean baino % 1,6 gehiago. Sare publikoak (+% 2,4) zein pribatuak (+% 0,8) egin zuten ekarpena igoera horretan, kontuan izanik eskola-mapa modu uniformean banatuta dagoen testuinguru bat dela (% 50,6 eta % 49,4, publikoa eta pribatua). Nafarroan, 12.813 ikasle egon ziren Lanbide Heziketan. Matrikulazioa % 2,9 hazi zen, matrikulazio pribatuaren (+% 3,1) eta publikoaren (+% 2,8) portaera onak eraginda. Halaber, ikasle gehienek sare pribatuan ikasi zuten iaz (% 77,3). Matrikulazioak hazi egin ziren Araban eta Gipuzkoan ere (+% 2,0 eta +% 1,4), 7.435 eta 19.094 ikasle izateraino, hurrenez hurren. Bi lurralde horietan, matrikulazio publikoaren portaera onak soilik ekarri zuen aldeko bilakaera hori (+% 4,1 eta +% 3,6), sare pribatuak atzera egin zuen eta (-% 1,2 eta -% 2,7). Beraz, bilakaera horrek ikastetxe publikoen posizioa indartu zuen (% 61,7 eta % 67,4, Araba eta Gipuzkoa).

LABORAL kutxa

196. koadroa. Euskalduntze maila
Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi Mailakoa eta Goi Mailakoa

(%)

Eremua	2024/2025 ikasturtea					2025/2026 ikasturtea				
	A	B(*)	D	X	Guztira	A	B(*)	D	X	Guztira
Araba	67,2	13,1	19,8	0,0	100,0	67,5	10,1	22,4	0,0	100,0
Bizkaia	62,5	16,3	21,1	0,0	100,0	61,3	15,1	23,6	0,0	100,0
Gipuzkoa	41,3	14,2	44,5	0,0	100,0	40,9	11,9	47,2	0,0	100,0
EAE	55,2	15,0	29,8	0,0	100,0	54,5	13,1	32,4	0,0	100,0
Nafarroa	0,0	0,0	8,2	91,8	100,0	0,0	0,0	8,5	91,5	100,0
Euskal Herria	44,1	12,0	25,5	18,4	100,0	43,5	10,5	27,5	18,5	100,0
Pribatua	55,7	17,8	14,6	11,8	100,0	54,6	18,0	15,2	12,2	100,0
Publikoa	36,9	8,4	32,2	22,5	100,0	36,8	5,9	34,9	22,4	100,0

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.

(*): Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako, A eta D ereduak baino ez daude legez, baina A ereduko talde batzuek irakasgai batzuk euskaraz ematen dituzte, eta modalitate hori, A eredu indartu gisa ezagutzen dena, B eredura hurbil daiteke.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Hizkuntza-ereduaren harira, A eredua nagusitu zen Arabako (% 67,5) eta Bizkaiko ikasleen artean (% 61,3), eta D eredua bigarren aukera izan zen (% 22,4 eta % 23,6). Gipuzkoan alderantziz gertatu zen: D eredua izan zen nagusi (% 47,2), eta A eredua datorkio atzetik (% 40,9). Orobat, B ereduak osatzen du hizkuntza-mapa hiru lurralde historikoetan, % 10etik % 15era arteko pisu erlatiboekin. Nafarroan, X ereduak gailurra jo zuen (% 91,5), eta D ereduak oso presentzia txikia izan zuen (% 8,5).

Ondorioz, Lanbide Heziketako euskalduntze-tasa % 8,5 izan zen Nafarroan, % 50etik beherakoa EAEn (% 45,5), eta % 40 baino txikiagoa (% 38,0) Euskal Herri osoan.

Batxilergoa

Unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako matrikulazioarekin amaitzeko, Batxilergoko matrikulen portaera aztertuko da. 2025/26 ikasturtean, 42.174 ikasle aritu ziren irakaskuntza-maila horretan, Euskal Herrian. Hala, matrikulazioa pixka bat txikiagotu zen (-% 0,2). Eskola-mapa oso banatuta geratu zen (% 50,6 sare publikoan eta % 49,4 sare pribatuan) eta, lurraldea eta sare mota konbinaturik, matrikulen bilakaeraren azterketak ñabardura interesgarriak dakartza.

197. koadroa. Ikasleen bilakaera, zentro motaren arabera. Batxilergoa

Eremua	2024/2025 ikasturtea			2025/2026 ikasturtea		
	Publikoa	Pribatua	Guztira	Publikoa	Pribatua	Guztira
Araba	2.700	2.484	5.184	2.798	2.539	5.337
Bizkaia	7.853	8.828	16.681	7.656	8.850	16.506
Gipuzkoa	5.541	5.837	11.378	5.443	5.772	11.215
EAE	16.094	17.149	33.243	15.897	17.161	33.058
Nafarroa	5.341	3.655	8.996	5.456	3.660	9.116
Euskal Herria	21.435	20.804	42.239	21.353	20.821	42.174

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Lurraldeen araberako azterketa Arabarekin hasiko dugu. 2025/26 ikasturtean, 5.337 ikasleraino heldu zen (+% 3,0) bi sareen bulkadari esker (+% 3,6 eta +% 2,2, publikoa eta pribatua), eta publikoaren pisua zertxobait handiagoa izan zen (% 52,4). Era berean, Nafarroako matrikulak ere 9.116 izateraino hazi ziren (+% 1,3), sare publikoaren hobekuntzari esker batez ere (+% 2,2). Pribatuaren portaera lauagoa izan zen (+% 0,1), eta irakaskuntza publikoa argi eta garbi gailentzen den testuinguru bat da (% 59,9). Bizkaian, ostera, matrikulak pixka bat jaitsi ziren (-% 1,0), 16.506 ikasleraino. Ikastetxe publikoetan bat-batean gertatutako murrizketak (-% 2,5) baldintzatu zuen beherakada hori, bai eta osagai pribatuaren dinamismo txikiak ere (+% 0,2). Haatik, ikasle kopururik handiena sare pribatuan egon zen (% 53,6). Azkenik, ikasleen errolda txikiagotu egin zen Gipuzkoan (-% 1,4), bi sareetan beherakadak gertatu zirelako (-% 1,8 eta -% 1,1, publikoa eta pribatua). Hala, ikasleen banaketa nahikoa homogeneoa izan zen (% 48,5 eta % 51,5, publikoa eta pribatua).

198. koadroa. Euskalduntze maila Batxilergoa

(%)

Eremua	2024/2025 ikasturtea					2025/2026 ikasturtea				
	A	B	D	X	Guztira	A	B	D	X	Guztira
Araba	30,4	12,5	57,1	0,0	100,0	31,8	13,8	54,4	0,0	100,0
Bizkaia	28,3	6,8	63,2	1,7	100,0	27,7	6,9	63,5	2,0	100,0
Gipuzkoa	12,0	5,8	82,3	0,0	100,0	12,2	5,4	82,4	0,0	100,0
EAE	23,0	7,3	68,8	0,8	100,0	23,1	7,5	68,4	1,0	100,0
Nafarroa	3,2	0,0	23,5	73,3	100,0	2,9	0,0	24,6	72,6	100,0
Euskal Herria	18,8	5,8	59,1	16,3	100,0	18,7	5,9	59,0	16,5	100,0
Pribatua	28,0	11,1	44,2	16,6	100,0	27,7	11,4	43,9	17,0	100,0
Publikoa	9,9	0,6	73,6	15,9	100,0	9,9	0,5	73,6	16,0	100,0

Oharra: Hezkuntza-ereduen eta zentro motaren araberako ikasleen banaketa Euskal Herri osoari dagokio.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

Euskalduntze-tasari erreparatuta, D ereduak nagusi izaten jarraitu zuen Batxilergoan, Gipuzkoa (% 82,4), Bizkaia (% 63,5%) eta Arabako ikasleentzat (% 54,4). A ereduak bigarren aukera izaten jarraitu zuen Araban (% 31,8), Bizkaian (% 27,7) eta Gipuzkoan (% 12,2). Hizkuntza-mapa B ereduak osatu zuen, askoz presentzia txikiagoarekin.


LABORAL kutxa

Bestalde, Nafarroako patroia bestelakoa da. X eredua gainerako guztien artean gailendu zen (% 72,6), eta distantzia handira geratu zen D eredua (% 24,6).

Egoera horretan, Batxilergoko euskalduntze-tasa % 24,6 izan zen Nafarroan; % 75,9, EAEn; eta % 64,9, Euskal Herri osoan.

Azkenik, grafikoan ikusten den bezala, denboraren ikuspegia zabalduz gero ikusten da matrikulazioak beherantz doitzeko joera argia dagoela, oinarrian hasita eta, mailaz maila, azken hezkuntza-etapetaraino. Hortaz, bilakaera demografikoa bere arrastoa uzten ari da ikasgeletan.

35. grafikoa. Unibertsitatekoak ez diren ikasleen matrikulazioen bilakaera Euskal Herrian



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua.

2.2 UNIBERTSITATEKO IKASLEEN BILAKAERA

2025/26 ikasturtean, 73.268 ikasle aritu ziren guztira Euskal Herriko unibertsitateetan. Horrenbestez, aurreko ikasturtean baino % 2,1 gehiago izan ziren, hots, 1.485 ikaslek osaturiko irabazi garbia.

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) lehena izaten jarraitu zuen 36.495 ikaslerekin; unibertsitateko euskal ikasleen ia erdia (% 49,8), alegia. Jarraian datoz Deustuko Unibertsitatea, 11.167 ikaslerekin (% 15,2), Nafarroako Unibertsitatea, 10.028 ikaslerekin (% 13,7), Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 9.240 ikaslerekin (% 12,6) eta, azkenik, Mondragon Unibertsitatea, 6.338 ikaslerekin (% 8,7). 2025/26 ikasturteko matrikulazioaren portaerari dagokionez, emaitzarik onena Deustuko Unibertsitateak eta Mondragon Unibertsitateak lortu zuten (+% 4,6 biek); ondoren, UPNA (+% 3,6) eta Nafarroako Unibertsitatea (+% +2,2) kokatu ziren; eta EHUren bilakaera lauagoa izan zen (+% 0,5).

Lurraldeen datuetara jaitsiz gero ikusten da Bizkaian zeudela unibertsitateko ikasle gehien (28.483), guztizkoaren % 38,9rekin. Bigarrenik, Gipuzkoan 19.317 ikasle izan ziren, % 26,4ko pisu erlatiboarekin. Hurrengoa Nafarroa izan zen, 18.141 ikaslez osaturiko erroldarekin (% 24,8), eta azkenik, Araba, 7.327 ikaslerekin (% 10,0). Nabarmentzekoa da matrikulazioa lurralde guztietan areagotu zela azken ikasturtean, eta portaerarik onena Nafarroako (+% 2,9) eta Gipuzkoako campusetan gertatu zela (+% 2,6). Testuinguru horretan, Bizkaiko unibertsitateko ikasleen kopurua ere igo zen (+% 1,6), eta Arabari egokitu zitzaion bilakaerarik lauena (+% 0,5).

LABORAL kutxa

199. koadroa. Ikasleen eta irakasleen bilakaera Euskal Herriko unibertsitateetan

Unibertsitatea eta lurraldeak	Ikasleak		Irakasleak	
	24/25 ikasturtea	25/26 ikasturtea(1)	24/25 ikasturtea	25/26 ikasturtea(1)
Euskal Herriko Unibertsitatea	36.315	36.495	6.000	6.005
Araba	7.291	7.327	1.065	1.076
Bizkaia	19.721	19.859	3.451	3.454
Gipuzkoa	9.303	9.309	1.484	1.475
Nafarroako Unibertsitatea	9.811	10.028	1.156	1.213
Nafarroa	8.705	8.901	997	1.047
Gipuzkoa	1.106	1.127	159	166
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	8.918	9.240	1.245	1.289
Nafarroa	8.918	9.240	1.245	1.289
Deustuko Unibertsitatea	10.681	11.167	2.886(2)	3.092(2)
Bizkaia	8.313	8.624	2.451	2.636
Gipuzkoa	2.368	2.543	435	456
Mondragon Unibertsitatea	6.058	6.338	780	793
Gipuzkoa	6.058	6.338	780	793
Guztira	71.783	73.268	12.067	12.392
Araba	7.291	7.327	1.065	1.076
Bizkaia	28.034	28.483	5.902	6.090
Gipuzkoa	18.835	19.317	2.858	2.890
EAE	54.160	55.127	9.825	10.056
Nafarroa	17.623	18.141	2.242	2.336

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Irakasleak eta bisitariak.

Iturria: EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta irakaskuntzaren estatistika.

Aurrekoari jarraikiz, unibertsitateko irakasleen kopurua ere hazi egin zen, 12.392 irakasle izateraino. Horrenbestez, lehengo ikasturtean 325 irakasle gehiago egon ziren, hots, urte arteko % 2,7ko igoera gertatu zen.

Langile kopuru handiena EHUrena izan zen berriz ere, 6.005 irakaslerekin. Dena den, aurreko ikasturtearen aldean, bolumena ez zen ia aldatu (+5 irakasle, +% 0,1). Nafarroako Unibertsitatean 57 irakasle gehiago egon ziren (+% 4,9), eta UPNAn, 44 gehiago (+% 3,5). Hortaz, guztira, 1.213 eta 1.289 irakasle aritu ziren, hurrenez hurren. Bestalde, 13 irakasle gehiagok jardun zuten Mondragon Unibertsitatean, 793 irakasle izateraino (+% 1,7). Azkenik, 206 irakasle gehitu zituen Deustuko Unibertsitateak (irakasleak eta bisitariak); hortaz, 3.092 izan zituen (+% 7,1) 2025/26 ikasturtean, guztira.

Jarraian, unibertsitate bakoitzean matrikulatutako ikasle kopuruaren bilakaera xehe jorratuko da.

200. koadroa. Ikasleen banaketa EHUn

Lurralde historikoa	24/25 ikasturtea	25/26 ikasturtea(1)	%	% Δ aurreko urtearekiko
Araba	7.291	7.327	100,0	0,5
Filologia, Geografia eta Historia Fakultatea	2.157	2.132	29,1	-1,2
Farmazia Fakultatea	1.294	1.306	17,8	0,9
Irakasleen UE	1.116	1.096	15,0	-1,8
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	894	955	13,0	6,8
Gizarte Laneko UE	526	536	7,3	1,9
Jarduera Fiskoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea	482	489	6,7	1,5
Enpresa Zientzien UE	482	475	6,5	-1,5
Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola (2)	340	338	4,6	-0,6
Bizkaia	19.721	19.859	100,0	0,7
Zientziak eta Teknologia Fakultatea	2.629	2.673	13,5	1,7
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	2.564	2.520	12,7	-1,7
Medikuntza, Odontologia eta Fisioterapia Fakultatea (3)	2.446	2.506	12,6	2,5
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	2.339	2.318	11,7	-0,9
Irakasleen UE	1.999	1.968	9,9	-1,6
Ingeniaritza Eskola	1.858	1.902	9,6	2,4
Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	1.584	1.633	8,2	3,1
Arte Ederren Fakultatea	1.170	1.138	5,7	-2,7
Enpresa Ikasketen UE	825	858	4,3	4,0
Erizaintzako UE (Leioa)	681	669	3,4	-1,8
Lan Harremanen E.	549	553	2,8	0,7
Zuzenbide Fakultatea. Bizkaiko atala	507	502	2,5	-1,0
Meatze Ingeniaritza Teknikoko UE	295	321	1,6	8,8
Nautikako GET	275	298	1,5	8,4
Gipuzkoa	9.303	9.309	100,0	0,1
Donostiako Unibertsitate Politeknikoa	1.414	1.486	16,0	5,1
Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	1.114	1.120	12,0	0,5
Psikologia Fakultatea	1.039	1.079	11,6	3,8
Enpresa Ikasketen UE	951	930	10,0	-2,2
Irakasleen UE	988	903	9,7	-8,6
Zuzenbide Fakultatea	894	864	9,3	-3,4
Arkitekturako GET	794	818	8,8	3,0
Informatika Fakultatea	783	750	8,1	-4,2
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	478	484	5,2	1,3
Zientzia Kimikoen Fakultatea	349	367	3,9	5,2
Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE	329	317	3,4	-3,6
Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskola (atxikitako zentroa)	170	191	2,1	12,4
Guztira	36.315	36.495	100,0	0,5

(1): Behin-behineko datuak.
(2): EHUko atxikitako zentroak.
(3): Bizkaian gehitu dira Araba eta Gipuzkoako medikuntza-ikasleak.
Iturria: EHU.

Azterketa Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) hasiko dugu. 2025/2026 ikasturtean, 36.495 ikasle aritu ziren ikasgeletan; hala, igoera txikia gertatu zen aurreko ikasturtearen aldean (+% 0,5, +180 ikasle). Hiru campusek bilakaera berdina izan zuten, % 1etik beherakoa; zehazki, 138 ikasle gehiago izan ziren Bizkaian, 36 gehiago Araban, eta 6 gehiago Gipuzkoan.

LABORAL kutxa

Bizkaiko campusean EHUko matrikulen % 54,4 kontzentratu zen, 19.859 ikaslerekin 2025/26 ikasturtean, aurrekoan baino % 0,7 gehiago.

Matrikulazioaren bilakaera positiboa izan zen Bizkaiko campuseko prestakuntza-eskaintza osatzen duten 14 fakultateetatik zortzitan. Zehatz-mehatz, Zientziak eta Teknologia Fakultateko matrikulazioa areagotu zen (+% 1,7), baita Medikuntza, Odontologia eta Fisioterapia Fakultatekoa ere (+% 2,5). Gainera, pisu erlatibo handiena dutenen artean daude (% 13,5 eta % 12,6). Joera bera eduki zuten Ingeniaritza Eskolak eta Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskolak, % 2,4 eta % 3,1eko igoerekin, eta % 9,6 eta % 8,2ko partaidetzarekin, hurrenez hurren. Honako hauek ere bilakaera positiboarekin itxi zuten ikasturtea: Enpresa Zientzien UE (+% 4,0 eta % 4,3ko pisu erlatiboa), Lan-harremanen UE (+% 0,7 eta % 2,8ko partaidetza), Meatze Ingeniaritza Teknikoko UE (+% 8,8) eta Nautika eta Itsasontzi Makinen Goi Eskola Teknikoa (+% 8,4). Azken biek dinamismo handiagoa eduki zuten, baina askoz pisu espezifiko txikiagoa (% 1,6 eta % 1,5).

Ostera, ikasle gutxiagok jardun zuten Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean (-% 1,7), ikasle gehien dituen bigarren fakultatean (% 12,7). Berdina gertatu zen Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean (-% 0,9), zeinak pisu espezifiko handi samarra daukan (% 11,7). Aitzitik, partaidetzaren ia % 10 dagokion Irakasleen UEk % 1,6ko beherakada izan zuen matrikulazioan. Halaber, beheranzko joera hori eduki zuten Arte Ederren Fakultateak (-% 2,7 eta % 5,7ko kuota), Erizaintzako UEk (-% 1,8 eta % 3,4ko pisu erlatiboa) eta Zuzenbide Fakultateak (-% 1,0 eta % 2,5eko ekarpena guztizkoari).

Gipuzkoako campusean EHUko ikasleen % 25,5 aritu ziren lehengo ikasturtean. Matrikulazioa 9.309 ikaslera heldu zen, eta ez zen ia aldaketarik gertatu aurreko ikasturteko datuen aldean (+% 0,1), nahiz eta matrikula gehiago eduki campuseko 12 prestakuntza-proposamenetako zazpitan.

Hortaz, ikasturtea amaitu zenerako, bilakaera positiboa eduki zuten ekarpen handiena egiten duten hiru fakultateek: aurrena, Donostiako Unibertsitate Politeknikoa, % 16,0ko pisu erlatiboa eta % 5,1eko hazkundea izan zituena; bigarren, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea, unibertsitateko ikasleen % 12,0rekin, matrikulazioa zertxobait handitu zitzaiona (+% 0,5); ondoren, Psikologia Fakultatea, Gipuzkoako ikasleen erroldari % 11,6ko ekarpena egin ziona, eta matrikulazioaren % 3,8ko igoerarekin. Areagotu egin ziren, orobat, Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko (guztizkoaren % 8,8), Medikuntza eta Erizaintzako (% 5,2), Kimika Zientzietako (% 3,9) eta Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskolako (% 2,1) ikasle kopuruak, askotariko intentsitatearekin: +% 3,0, +% 1,3, +% 5,2 eta +% 12,4, hurrenez hurren.

Aitzitik, pisu espezifiko handi samarrak dituzten (% 9-10 inguru) batzuek matrikulazio txikiagoa eduki zuten: Enpresa Zientzien UE (-% 2,2), Zuzenbide Fakultatea (-% 3,4) eta

Irasleen UE, campuseko jaitsierarik handienarekin (-% 8,6). Joera berbera eduki zuten Informatika Fakultateak (-% 4,2) eta Eibarreko Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskolak (-% 3,6), zeinek ikasleen % 8,1 eta % 3,4ko ekarpena egin zioten guztizko ikasle kopuruari, hurrenez hurren.

Azkenik, 7.327 ikasle egon ziren Arabako campusean matrikulatuta 2025/26 ikasturtean, aurreko ikasturteko bolumenaren oso antzekoa (+% 0,5). Zehazki, % 20,1eko ekarpena egin zion EHUko ikasle kopuruari.

Lehengo ikasturtean, campuseko matrikulazioaren % 29,1 eduki zuen Filologia, Geografia eta Historia Fakultateak, baina ikasleak galdu zituen (-% 1,2). Antzeko zerbait gertatu zen Irakasleen UEn, zeina rankingeko hirugarrena izan zen (partaidetzaren % 15,0) baina % 1,8 ikasle gutxiago izan zituen. Haatik, bigarrena zen (% 17,8) Farmazia Fakultatearen matrikulazioak gora egin zuen pixka bat (+% 0,9). Industria Ingeniaritza Teknikoko UE laugarren suertatu zen (% 13,0), eta taldeko hazkunderik handiena erdietsi zuen (+% 6,8).

Gainera, Gizarte Laneko UEko matrikulazioak (+% 1,9 eta partaidetzaren % 7,3) eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Fakultatekoak (+% 1,5 eta % 6,7ko kuota) ekarpen ona egin zioten emaitza osoari, Enpresa Zientzien UEko (-% 1,5 eta % 6,5) eta Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako (-% 0,6 eta % 4,6) ikasleek ez bezala.

Azterketa bera Nafarroako Unibertsitatean eginez gero ikusten da 10.028 ikaslerekin amaitu zuela 2025/26 ikasturtea, hots, aurrekoan baino 217 gehiagorekin (+% 2,2). Nafarroako campusean 8.901 ikaslek jardun zuten; han kontzentratu zen matrikulazioaren gehiena (% 88,8), eta % 2,3 hazi zen, izan ere. Gipuzkoako campusean, aldiz, 1.127 ikasle aritu ziren, aurreko ikasturtean baino % 1,9 gehiago.

LABORAL kutxa

201. koadroa. Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitatean

Lurralde historikoa	24/25 ikasturtea	25/26 ikasturtea(1)	%	% Δ aurreko urtearekiko
Nafarroa	8.705	8.901	100,0	2,3
Ekonomia eta Enpresa Zientziak	1.338	1.315	14,8	-1,7
Medikuntza	1.184	1.196	13,4	1,0
Zuzenbidea	892	933	10,5	4,6
Zientziak	806	844	9,5	4,7
Komunikazioa	844	810	9,1	-4,0
Farmazia eta Nutrizioa	786	772	8,7	-1,8
Hezkuntza eta Psikologia	656	718	8,1	9,5
Arkitektura	674	713	8,0	5,8
Filosofia eta Letrak	574	595	6,7	3,7
Erizaintza	533	549	6,2	3,0
Idazkaritza eta Administrazioa	289	327	3,7	13,1
Teologia	129	129	1,4	0,0
Gipuzkoa	1.106	1.127	100,0	1,9
Industria Ingeniaritza	1.106	1.127	100,0	1,9
Guztira (2)	9.811	10.028	100,0	2,2

(1): Behin-behineko datuak.
(2): Horiez gain, doktoregoko 1.180 ikasle eta masterreko 599 ikasle daude Nafarroan eta Gipuzkoan.
Iturria: Nafarroako Unibertsitatea.

Hasteko, erreferentziazko campusari erreparatuko diogu: Nafarroakoari. Joera nagusia matrikulazioa handitzea izan zela ikusi da. Matrikulazioa hiruk soilik galdu zuten. Lehenik, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak (-% 1,7), aitzitik pisu erlatibo handiena eduki zuena (guztizkoaren % 14,8); bigarrenik, Komunikazio Fakultateak (-% 4,0 eta % 9,1eko kuota), eta Farmazia eta Nutrizio Fakultateak (-% 1,8 eta % 8,7).

Horrenbestez, ikasle kopurua handitu edo mantendu zen Nafarroako campuseko prestakuntza-eskaintzaren gainerakoan. Zehazki, bigarren posizioan geratu zen Medikuntza Fakultateak (% 13,4) ikasle gehixeago lortu zituen (+% 1,0). Bestalde, Zuzenbide Fakultateak eta Zientzien Fakultateak oso ekarpen antzekoa eduki zuten (% 10,5 eta % 9,5), eta haien bilakaera ere parekoa izan zen (+% 4,6 eta +% 4,7).

Ildo beretik, Hezkuntza eta Psikologia Fakultateak eta Arkitektura Fakultateak, pisu erlatibo ia berdinekin (% 8,1 eta % 8,0), hazkundea lortu zuten matrikulazioan: % 9,5 eta % 5,8, hurrenez hurren. Orobat, antzeko pisu espezifikoa (% 6,7 eta % 6,2) eta bilakaera (+% 3,7 eta +% 3,0) izan zituzten Filosofia eta Letrak Fakultateak eta Erizaintzakoak. Azkenik, azpimarratu behar da ISSA Kudeaketa Aplikatuko Eskolak izan zuela bilakaerarik onena (+% 13,1 eta partaidetzaren % 3,7), Teologia Fakultateak bere matrikulazioa berdin-berdin mantendu zuen testuinguru batean.

Era berean, azpimarratu behar da 1.127 ikasle egon zirela Nafarroako Unibertsitateak Gipuzkoan duen campusean, Industria Ingeniaritza egiten; lehengo ikasturtean, ikasle horien kopurua % 1,9 handitu zen.

Nafarroako Unibertsitate Publikoari (UPNA) dagokionez, matrikulak % 3,6 hazi ziren 2025/26 ikasturtean. Hala, aurreko ikasturtean baino 322 ikasle gehiago izan ziren; guztira, 9.240. Emaitza horri ekarpena egin zion ikasle gehien ibili ziren fakultate eta eskolen portaera onak. Dena den, matrikula gutxiago eduki zituzten Zientzia Juridikoen Fakultatean (-% 0,1), Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean / Zientzia Juridikoetan (-% 3,4) eta Ingeniaritza Agronomoan, Biozientzietan / Ekonomia eta Enpresan (-% 4,2); horietan, ikasleen % 7,5, % 2,5 eta % 0,5ek ikasi zuten.

202. koadroa. Ikasleen banaketa Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA)

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	24/25 ikasturtea	25/26 ikasturtea[1]	%	% Δ aurreko urtearekiko
Industria ingeniari, Informatika eta Telekomunikazioen GET	2.319	2.397	25,9	3,4
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea	2.207	2.260	24,5	2,4
Osasun Zientzien Fakultatea	1.396	1.495	16,2	7,1
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	1.146	1.180	12,8	3,0
Nekazaritza Ingeniaritzen GET	873	942	10,2	7,9
Zientzia Juridikoen Fakultatea	692	691	7,5	-0,1
Ekonomia eta Enpresa Zientzien/Zientzia Juridikoen Fakultatea [2]	237	229	2,5	-3,4
Nekazaritza ingeniaritzen, Biozientzien/Ekonomia eta Enpresa zientzien GET[3]	48	46	0,5	-4,2
Guztira [4]	8.918	9.240	100,0	3,6

(1): Behin-behineko datuak.

(2): Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren eta Zuzenbidearen Gradu Bikoitzean matrikulatutako ikasleak jasotzen ditu.

(3): Datuen Zientzien eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren Gradu Bikoitzeko ikasleak jasotzen ditu.

(4): Horiez gain, masterreko 1270 ikasle eta doktoregoko 639 ikasle daude Nafarroan.

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Hortaz, matrikulazio hobea erdietsi zuten (+% 3,4 eta +% 2,4) Industria Ingeniaritzako Goi Eskola Teknikoak, Informatikak eta Telekomunikazioek (partaidetzaren % 25,9) eta Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateak (% 24,5). Horietan zihartduten ikasleak, guztira, UPNAko ikasle guztien erdia ziren. Ildo beretik, Osasun Zientzien Fakultatea, % 16,2rekin, ikasle kopuruaren igoeragatik nabarmendu zen (+% 7,1). Eta antzeko joera izan zuen Ingeniaritza Agronomoko Goi Eskola Teknikoak ere (+% 7,9), nahiz eta partaidetza txikiagoa izan zuen (% 10,2). Amaitzeko, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak ere matrikula gehiago eduki zituen (+% 3,0), eta % 12,8ko ekarpena egin zion zenbaketa orokorrari.

Deustuko Unibertsitatean, berriz, 11.167 ikasle aritu ziren 2025/26 ikasturtean, aurreko ikasturtean baino % 4,6 ikasle gehiago. Matrikulazioaren portaera ona izan zen bi campusetan. Hamar ikasletik ia zortzik Bizkaian ikasi zuten, baina hango bilakaera neurritsuagoa izan zen (+% 3,7) Gipuzkoako campusarena baino (+% 7,4).

LABORAL kutxa

203. koadroa. Ikasleen banaketa Deustuko Unibertsitatean

Lurralde historikoa	24/25 ikasturtea	25/26 ikasturtea(1)	%	% Δ aurreko urtearekiko
Bizkaia	8.313	8.624	100,0	3,7
Ingeniaritza Fakultatea	1.651	1.778	20,6	7,7
Osasun Zientzien Fakultatea	1.539	1.689	19,6	9,7
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	1.365	1.321	15,3	-3,2
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	1.001	1.042	12,1	4,1
Zuzenbide Fakultatea	971	1.035	12,0	6,6
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	883	852	9,9	-3,5
EUMBAM (DUri atxikitako zentroa)	739	670	7,8	-9,3
Voxel School (DUri atxikitako zentroa)	97	161	1,9	66,0
Teologia Fakultatea	67	76	0,9	13,4
Gipuzkoa	2.368	2.543	100,0	7,4
Osasun Zientzien Fakultatea	719	817	32,1	13,6
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	716	683	26,9	-4,6
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	400	399	15,7	-0,2
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	279	355	14,0	27,2
Zuzenbide Fakultatea	147	159	6,3	8,2
Ingeniaritza Fakultatea	107	130	5,1	21,5
Guztira (2)	10.681	11.167	100,0	4,6

(1): Behin-behineko datuak.
(2): Horiez gain, doktoregoko 376 ikasle eta masterreko 1.117 ikasle daude.
Iturria: Deustuko Unibertsitatea

Zehazki, Bizkaiko irismen handieneko bi fakultateak Ingeniaritza Fakultatea (guztizkoaren % 20,6) eta Osasun Zientziena (% 19,6) izan ziren, eta horien matrikulazioa nabarmenki hobetu zen (+% 7,7 eta % 9,7). Horiei batu behar zaizkie Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (% 12,1) eta Zuzenbide Fakultatea (% 12), % 4,1 eta % 6,6ko hazkundearekin, hurrenez hurren. Itxiera positiboa egin zuten, halaber, Voxel School atxikitako zentroak (+% 66,0) eta Teologia Fakultateak (+% 13,4), baina askoz ekarpen txikiagoa egin zioten campuseko guztizkoari (Bizkaiko campuseko ikasleen % 1,9 eta % 0,9).

Bestalde, matrikulazio txikiagoa eduki zuten Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateak (% 15,3ko kuota), Hezkuntza eta Kirol Fakultateak (% 9,9ko pisu erlatiboa) eta EUMBAM atxikitako zentroak (% 7,8), % 3,2, % 3,5 eta % 9,3ko beherakadekin, hurrenez hurren.

Gipuzkoako campusean ikasle gutxiago aritu ziren (Deustuko Unibertsitateko ikasleen % 22,8). Nolanahi ere, matrikulazioa nabarmen areagotu zen (+% 7,4), Osasun Zientzien Fakultatearen portaera onari esker (+% 13,6), hein handian, campuseko ikasleen ia herenarekin (% 32,1). Gainera, matrikulazioa dezente igo zen Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (+% 27,2) eta Ingeniaritza Fakultatean (+% 21,5), baina nahikoa ekarpen desberdina egin zioten guztizkoari (% 14 eta % 5,1, hurrenez hurren). Orobat, Zuzenbide Fakultateak ere lagundu zuen ikasleen errolda handitzen: matrikulazioa % 8,2 handitu zen, eta % 6,3ko partaidetza eduki zuen.

Azkenik, Mondragon Unibertsitatearen datuak aurkeztuko dira jarraian. Lehengo ikasturtean 6.338 ikasle izan ziren han, % 4,6ko igoerarekin.

204. koadroa. Ikasleen banaketa Mondragon Unibertsitatean

Fakultateak eta Unibertsitate Eskolak	24/25 ikasturtea	25/26 ikasturtea(*)	%	% Δ aurreko urtearekiko
Goi Eskola Politeknikoa	2.029	2.154	100,0	6,2
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	397	406	18,8	2,3
Ingeniaritza Mekatronikoa	288	333	15,5	15,6
Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Gradua	282	287	13,3	1,8
Industria Antolaketako Ingeniaritza Gradua	248	256	11,9	3,2
Informatikako Ingeniaritza Gradua	180	182	8,4	1,1
Industria Elektronikoko Ingeniaritza Gradua	168	178	8,3	6,0
Ingeniaritza Biomedikoa	155	163	7,6	5,2
Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa	113	150	7,0	32,7
Energiaren Ingeniaritza	124	144	6,7	16,1
Prozesu Industrialetako Ekoteknologien Ingeniaritza	74	55	2,6	-25,7
Giza eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	1.482	1.541	100,0	4,0
Lehen Hezkuntza Gradua	890	954	61,9	7,2
Haur Hezkuntza Gradua	338	325	21,1	-3,8
Ikus-entzunezko Komunikazio Gradua	179	181	11,7	1,1
Humanitate Digital Globalak (HDG)	75	72	4,7	-4,0
Kultura eta Sormen Industriak	0	9	0,6	--
Enpresa Zientzien Fakultatea	2.122	2.217	100,0	4,5
Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua	1.242	1.260	56,8	1,4
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua	691	761	34,3	10,1
Business Data Analytics Gradua	189	196	8,8	3,7
Gastronomia Zientzien Fakultatea	425	426	100,0	0,2
Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak	425	426	100,0	0,2
Guztira	6.058	6.338	100,0	4,6

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: Mondragon Unibertsitatea

Enpresa Zientzien Fakultateak % 35,0ko ekarpena egin zion guztizkoari; Goi Eskola Politeknikoak, % 34,0koa; Humanitateen eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, % 24,3koa; eta Zientzia Gastronomikoen Fakultateak, % 6,7koa. Eta, taulan ikusten den moduan, matrikula gehiago lortu zituzten 2025/26 ikasturtean, hein handiagoan edo txikiagoan.

Lehenik, Goi Eskola Politeknikoa aztertuko da. Matrikulazioa % 6,2 handitu zen, eskaintza osatzen duten ia gradu guztien portaerak bultzatuta. Salbuespen bakarra egon zen: Industria Prozesuetako Ekoteknologien Ingeniaritza Fakultatea. Matrikulazioa % 25,7 txikiagotu zen, eta, edonola ere, pisu erlatibo txikienekoa da (% 2,6). Aitzitik, ikasle gehienak gradu hauetan metatu ziren: Ingeniaritza Mekanikoa (% 18,8), Ingeniaritza Mekatronikoa (% 15,5), Industria Diseinuko eta Produktuen Garapeneko Ingeniaritza (% 13,3) eta Industria Antolaketako Ingeniaritza (% 11,9). Matrikulazioa igo zen haietan guztietan. Agertoki horretan, igoerak % 1,8tik % 3,2ra artekoak izan ziren. Alabaina, Mekatronikako graduak bi digituko hazkundea izan zuen: +% 15,6. Hein handi batean,

LABORAL kutxa

duela gutxi Galarretan ere ematen hasi direlako gertatu da hori, Arrasate eta Bilbon emateaz gain.

Eskaintzaren gainerakoari erreparaturik, pisu espezifikoak % 8,4 eta % 7,6 artean ibili ziren. Hor kokatu ziren Ingeniaritza Informatikoko gradua, Industria Ingeniaritza Elektronikoko gradua eta Ingeniaritza Biomedikoko gradua, % 1,1, % 6,0 eta % 5,2ko igoerekin, hurrenez hurren. Gainera, dinamismo handiko portaera eduki zuten Energiaren Ingeniaritzako graduak (% 6,7ko kuota eta % 16,1eko igoera) eta Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoko graduak (% 7,0ko pisu erlatiboa eta % 32,7ko igoera handia).

Azterketa bera egin da Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin. Zehazki, Mondragon Unibertsitateko matrikulazio osoaren % 24,3 egokitu zitzaion lehengo ikasturtean. Dena den, portaerak askotarikoak izan ziren gradu batetik bestera, nahiz eta guztizko emaitza ona izan zen (+% 4,0). Alde horretatik, ikasturteari itxiera positiboa eman zioten Lehen Hezkuntzako graduak, ikasleen % 61,9rekin eta matrikulazioaren % 7,2ko igoerarekin, eta Ikus-entzunezko Komunikazioko graduak, zeinak hazkunde txikiagoa eduki zuen (+% 1,1), baita pisu erlatibo txikiagoa ere (% 11,7). Berritasun gisa, Kultura eta Sormen Industrien graduko bederatzi ikasle sartu ziren Fakultatera.

Haatik, Haur Hezkuntzako graduak amaiera negatiboa eduki zuen: ikasleen kopurua % 3,8 jaitsi zen, baina partaidetza handi samarra mantendu zuen (% 21,1). Antzeko joera izan zuen Humanitate Digital Globalen graduak (-% 4,0), baina askoz partaidetza txikiagoarekin (% 4,7).

Orain, Enpresa Zientzien Fakultateak izandako portaera aztertuko dugu, kontuan izanik Mondragon Unibertsitateko ikasleen % 35,0k han ikasten dutela. Lehengo ikasturtean, ikasleen kopurua % 4,5 handitu zen, eta emaitza horri ekarpena egin zioten eskainitako hiru graduek, bakoitzak bere neurrian. Zehazki, Fakultateko ikasleen % 34,3 Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduan metatu zen, eta horrexek eduki zuen bilakaerarik onena (+% 10,1). Bestalde, Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza irismen handieneko gradu gisa sendotu zen, ia % 60rekin, eta matrikulak % 1,4 areagotuta. Bukatzeko, Business Data Analytics graduak osatzen du Fakultatearen eskaintza, % 8,8ko pisu espezifikoarekin eta % 3,7ko hazkundearekin.

Azkenik, Zientzia Gastronomikoen Fakultatea ere badauka Mondragon Unibertsitateak. Lehengo ikasturtean, matrikulazioa aurrekoaren berdina izan zen ia-ia, guztira 426 ikaslek jardun baitzuten ikasgeletan.

3. GARRAIOA

3.1 TRENBIDE BIDEZKO GARRAIOA

Garraioaren kapitulua trenbidearekin hasita, eta Euskadiko erreferentziazko operadore multimodalaren, EuskoTrenen, jarduerari dagokionez, 2025ean bidaiari kopuruak gora egin zuen erakundeak kudeatutako zerbitzu guztietan. Oro har, EuskoTrenek 57 milioi bidaiari inguru izan zituen, 2024an baino % 5,4 gehiago; hala, aurreko bi ekitaldietan ikusitako hobekuntzari eutsi zion.

205. koadroa. EuskoTreneko bidaiarien bilakaera

Kontzeptua	2023	2024	2025	%Δ 25/24
Bidaiariak (milioiak)	47,9	54,0	56,9	5,4
• Trena	29,4	32,5	34,2	5,2
• Tranbia	12,3	14,7	15,6	6,1
• Autobusa	6,3	6,8	7,1	4,4

Iturria: EuskoTren.

Zehazki, trenbide-zerbitzuak, 34,2 milioi bidaiarirekin, jardueraren zatirik handiena biltzen jarraitu zuen (bidaiarien % 60,1), eta urte arteko % 5,2ko hazkundea izan zuen. Tranbiak, bigarren postuan, % 6,1eko hazkundea izan zuen eta 15,6 milioi erabiltzaile izatera iritsi zen; hala, eskariari egiten zion ekarpena % 27,4ra igo zen. Autobus-zerbitzuak ere joera nagusiarekin bat egin zuen, eta erabiltzaile kopurua erritmo zertxobait txikiagoan handitu zen (+% 4,4); gainera, partaidetzarik txikiena zuen zerbitzua izan zen (% 12,5).

Bilboko Metroa

2025ean, Bilboko Metroak berriro egin zuen gora, 104,5 milioi bidaiari izatera iritsi arte, aurreko urtean baino % 4,1 gehiago, eta bigarren urtez jarraian 100 milioi erabiltzaile baino gehiago izan zituen. Emaitza horrek beste maximo historiko bat ezarri zuen metroaren jardueran. Horretan lagundu zuen 42 geltokietatik 41etan bidaiari kopuruak izandako bilakaera positiboak; Lutxana izan zen beherakada izan zuen geltoki bakarra (-% 2,5), eta beherakada hori 2025ean Lutxana eta Erandio arteko tartea berritzeko egindako lanekin lotuta egon zitekeen.

LABORAL kutxa

206. koadroa. Bidaiarien mugimendua Bilboko Metroan

Urtea	Bidaiariak (m)	%Δ
2015	87.536	0,2
2016	87.105	-0,5
2017	88.172	1,2
2018	89.919	2,0
2019	91.570	1,8
2020	55.987	-38,9
2021	66.780	19,3
2022	80.377	20,4
2023	92.381	14,9
2024	100.364	8,6
2025	104.508	4,1

Iturria: Bilboko Metroa.

Aurreko ekitaldietan bezala, enbor komunean Zazpikaleak izan zen balidazio gehien izan zituen geltokia, ia 8,4 milioi erabiltzailerekin, eta, ondoren, Santimami, 7,8 milioirekin. Haien atzetik Moyua eta Abando zeuden, 7,1 milioi inguruko bolumenekin. Ezkerraldean, Barakaldo izan zen joan-etorri gehien izan zituen geltokia, 4 milioi erabiltzaile baino gehiagorekin; Gurutzeta geltokiak, berriz, ia 3,8 milioi balidazio izan zituen 2025ean. Eskuinaldean, Areeta izan zen erabiltzaile gehien izan zituen geltokia, 2025ean ia 3,7 milioi erabiltzaile izan baitzituen.

Halaber, 2025ean balidazio gehien izan zituen eguna abenduaren 10a izan zen, San Mamesen Athletic Clubek eta Paris Saint-Germainek UEFA Champions Leagueko partida jokatu zuten egunarekin bat etorriz.

3.2 ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOA

Errepideko garraioaren azterketara mugatuta, 2025ean ibilgailu-parkeak berriro egin zuen gora, eta aztertutako eremu geografiko guztietan handitu zen. Euskal Herri osoan, ibilgailu-parkea 1.939.139 ibilgailuk osatu zuten, 2024an baino 29.582 gehiagok; hau da, % 1,5eko hazkundea izan zen. Estatuko ibilgailu-parkeak ere gora egin zuen (+% 2,2), eta 37 milioi ibilgailu baino gehiago izan zituen 2025ean, 2024an baino 805.057 gehiago.

Lurraldekako xehetasunetara jaitsita, Nafarroak izan zuen hazkunde erlatiborik handiena (+% 1,9), eta 502.641 ibilgailu izatera iritsi zen; ondoren, Araba (+% 1,5), Bizkaia (+% 1,5) eta Gipuzkoa (+% 1,2) egon ziren, antzeko bilakaera izan bazuten ere, oso tamaina desberdineko ibilgailu-parkeekin (225.575, 717.137 eta 493.786 ibilgailu, hurrenez hurren). Horrenbestez, Bizkaiak euskal ibilgailu-parkearen % 37 hartu zuen; ondoren, Nafarroa eta Gipuzkoa izan ziren, antzeko pisu erlatiboekin, % 26 ingurukoak bi kasuetan; eta, azkenik, Arabak gainerako % 11,6a hartu zuen.

Ibilgailu motaren arabera, turismoek euskal ibilgailu-parkearen zatirik handiena hartu zuten, % 70,9ko kuotarekin eta urte arteko % 1,5eko hazkundearekin; ondoren, kamioiak egon ziren, % 13,1eko pisu erlatiboarekin eta urte arteko aldakuntza oso txikiarekin (+% 0,1). Hala ere, motozikletek izan zuten dinamismorik handiena, % 3,5eko hazkundearekin, eta guztizkoaren % 11,1 hartu zuten. Autobusek, industria-traktoreek eta beste ibilgailu batzuek osatu zuten euskal ibilgailu-parkearen gainerakoa, askoz partaidetza txikiagoekin, nahiz eta guztiek goranzko bilakaera izan zuten.

207. koadroa. Ibilgailuen parkea*

(unitateak)

Eremua	Kamioiak (1)		Autobusak		Turismoak		Motozikletak		Traktore industrialak		Beste batzuk (2)		Guztira	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Araba	29.183	29.230	506	486	161.542	163.651	19.523	20.253	1.616	1.670	9.783	10.285	222.153	225.575
Bizkaia	85.492	85.655	2.182	2.295	519.672	526.741	72.663	75.425	3.424	3.417	22.874	23.604	706.307	717.137
Gipuzkoa	60.898	60.574	1.020	1.021	330.068	333.603	71.496	73.661	3.850	4.056	20.585	20.871	487.917	493.786
EAE	175.573	175.459	3.708	3.802	1.011.282	1.023.995	163.682	169.339	8.890	9.143	53.242	54.760	1.416.377	1.436.498
Nafarroa	78.047	78.340	831	837	343.061	350.007	43.972	45.519	4.943	4.944	22.326	22.994	493.180	502.641
Euskal Herria	253.620	253.799	4.539	4.639	1.354.343	1.374.002	207.654	214.858	13.833	14.087	75.568	77.754	1.909.557	1.939.139
Espainia	5.203.435	5.241.901	67.432	68.332	25.244.531	25.788.487	4.338.881	4.510.222	259.417	266.187	1.128.088	1.170.712	36.241.784	37.045.841
Euskal Herria/ Espainia %	4,9	4,8	6,7	6,8	5,4	5,3	4,8	4,8	5,3	5,3	6,7	6,6	5,3	5,2

(*): Behin-behineko datuak.
(1): Kamioiak eta furgonetak barne hartzen ditu.
(2): Beste ibilgailu batzuk, atoiak eta erdi-atoiak barne hartzen ditu.
Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT)

Lurraldeen arteko alderaketan, nabarmentzekoak izan ziren kamioiek Nafarroan izan zuten pisu erlatiboa (% 15,6), turismoek Bizkaian izan zuten pisu espezifikoa (% 73,6) eta motozikletek Gipuzkoan izan zuten partaidetza (% 14,5); hirurak Euskal Herriko batez besteko balioen oso gainetik egon ziren.

Estatu-mailan, ibilgailu-parkearen banaketa eta bilakaera Euskal Herrirako azaldutakoaren oso antzekoak izan ziren; horrenbestez, Euskal Herriak Estatuko ibilgailu-parkean izan zuen pisua ia ez zen aldatu 2024arekin alderatuta (% 5,3tik % 5,2ra).

Azterketarekin jarraituz, motorizazio-indizeek ere goranzko bilakaera izan zuten. Euskal Herrian, 1.000 biztanleko 663 ibilgailura iritsi zen kopurua, 2024an baino 6 gehiago; hala ere, Estatuko balioaren oso azpitik geratu zen, Estatuan 1.000 biztanleko 754 ibilgailu izan baitziren, aurreko ekitaldian baino 9 gehiago. Nafarroan, berriz, ratioa tarteko mailan kokatu zen, 1.000 biztanleko 735 ibilgailurekin, 2024an baino 8 gehiago. Lurralde Historikoen artean, tasarik handiena Gipuzkoak izan zuen (674); ondoren, Arabak (660) eta, azkenik, Bizkaiak (614).

LABORAL kutxa

208. koadroa. Motorizazio-indizeak

Eremua	Ibilgailuak/1.000 biztanle		Biztanleak/Turismoa	
	2024	2025	2024	2025
Araba	656	660	2,1	2,1
Bizkaia	609	614	2,2	2,2
Gipuzkoa	669	674	2,2	2,2
EAE	636	641	2,2	2,2
Nafarroa	727	735	2,0	2,0
Euskal Herria	657	663	2,1	2,1
Espainia	745	754	1,9	1,9

Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta guk geuk egina.

Turismo bakoitzeko biztanleen ratioari dagokionez, ez zen alderik antzeman 2024ko datuekin alderatuta, eta aurreko urteetako eredu bera errepikatu zen. Hala, Estatuan turismo bakoitzeko 1,9 biztanleko tasa izan zen; Euskal Herrikoa baino txikiagoa, azken horretan turismo bakoitzeko 2,1 biztanleko tasa izan baitzen. Lurraldeka, Nafarroak izan zuen baliorik txikiena (2,0); ondoren, Arabak (2,1), eta Gipuzkoak eta Bizkaiak emaitza bera izan zuten (2,2).

Errepideko salgaien garraioaren bilakaera aztertuta, Euskal Herriak 149.783 mila tona garraiatuta itxi zuen 2025a, 2024an baino % 3,1 gehiago. Hobekuntza hori EAEn gertatu zen, trafikoa % 5,9 handitu baitzen, 102.021 mila tonara iritsi arte; Nafarroan, aldiz, jarduera % 2,4 murriztu zen, eta 47.762 mila tona garraiatuta itxi zuen 2025a.

Halaber, nabarmendu behar da EAEn eskualde barruko garraioaren hazkunde handiak (+% 14,2) eskualdeen arteko garraioaren beherakada (-% 1,3) konpentsatu zuela; horren ondorioz, nolabaiteko oreka izan zen bi segmentuen pisuan (% 50,2 eta % 49,8, hurrenez hurren). Nafarroan, aldiz, eskualde barruko trafikoak (-% 2,2) zein eskualdeen arteko trafikoak (-% 2,5) behera egin zuten; azken horrek jardueraren zatirik handiena hartu zuen (% 61,7).

Estatu osoan, guztizko trafikoa 1.311.371 mila tonakoa izan zen, urte arteko % 1,4ko hazkundea izan ondoren; bi segmentuek lagundu zuten hazkunde horretan, eta, testuinguru horretan, eskualde barruko trafikoak (% 69,3 eta +% 1,4) eskualdeen arteko trafikoa (% 30,7 eta +% 1,2) bikoiztu baino gehiago egin zuen.

209. koadroa. Garraiatutako merkantziak, autonomia-erkidegoaren arabera. Eskualde barruko garraioa eta eskualde arteko garraioa, jatorri eta/edo helmugako autonomia-erkidegoaren arabera.

(m Tm)

Eremua	EAE		Nafarroa		Euskal Herria		Estatua	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Eskualde barruko garraioa	44.871	51.256	18.707	18.295	63.578	69.551	895.803	908.731
Eskualde arteko garraioa	51.428	50.765	30.231	29.467	81.659	80.232	397.858	402.640
Guztira	96.299	102.021	48.938	47.762	145.237	149.783	1.293.661	1.311.371

Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren Estatistika Buletina.

Errepideko garraioaren azterketa amaitzeko, eta hiri-garraioari dagokionez, 2025ean bidaiari kopuruak oro har gora egin zuen, eta balantze bateratua oso positiboa izan zen, maximo historikoetara iritsiz.

Zehazki, Bilbobusetik hasita, ekitaldia bidaiari kopuruaren gorakada nabarmenarekin itxi zen (+% 35,7)[1], 30 milioi bidaiariko kopurura hurbildu baitzen; konpainiak 1996az geroztik izandako emaitzarik onena izan zen. Dbusek, berriz, maximo historikoa lortu zuen, 33 milioi erabiltzaileak nabarmen gaindituta, urte arteko % 5,3ko hazkundea izan ondoren. Era berean, Tuvisak aurrerapen nabarmena izan zuen bidaiari kopuruan (+% 8,9), 19 milioi bidaiari baino gehiago izan baitzituen; konpainiarentzat inoizko daturik onena izan zen.

210. koadroa. Hiri-garraioa. Sektorearen oinarrizko datuak.

Kontzeptua	Bilbobus (Bilbo)		Dbus (Donostia)		Tuvisa (Gasteiz)	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Sareko lineak (*)	45	45	42	42	15	15
Garraiatutako bidaiariak (m)	21.770	29.549	32.026	33.735	17.807	19.384
Autobusen parkea	141	141	139	144	--	92
Plantilla	630	--	594	596	418	418

(*): Eguneko eta gaueko lineak barne hartzen ditu.
(--): Txosten hau egitean datuak ez zeuden eskuragarri.
Iturria: Bilbobus, DBUS eta TUVISA

3.3 ITSASO BIDEZKO GARRAIOA

2025ean, gerrek eta tentsio geopolitikoek nazioarteko itsas trafikoa geografikoki berrantolatzera behartu zuten. Ibilbide «tradizional» asko aldatu behar izan ziren, eta horrek egindako distantziak handitu zituen eta, ezinbestean, zerbitzuaren kostuan eragina izan zuen.

[1] Hazkunde handi hori, besteak beste, 2024ko datuen gainean kalkulatu izanaren ondorio izan zen, urte hartan zerbitzuak greben ondorioak jasan baitzituen.

LABORAL kutxa

Hala ere, eta jarduera oso testuinguru zailean garatu behar izan bazuen ere, azken urteetan izandako goranzko joera apala sendotu zen 2025ean. Zehazki, 2025ean, 13.005 milioi tona garraiatu ziren, aurreko ekitaldian baino % 1,9 gehiago.

Segmentuka, edukiontzietako kargek izan zuten dinamismorik handiena (+% 4,8); ondoren, solteko beste gai solidoek (+% 4,2), solteko beste gai likidoek (+% 3,6) eta ohiko karga orokorrak (+% 3,2). Guztien artean, trafikoaren ia % 50 hartu zuten.

Hala ere, trafiko handieneko bi partidetan uzkurdura gertatu zen, nahiz eta oso txikia izan. Hala, solteko gai solido nagusiek, munduko itsas merkataritzaren % 27,2 hartzen zutenek, % 0,1 egin zuten behera; petrolio gordinak eta petrolio-produktuek, berriz, % 23,1eko kuotarekin, % 0,4ko beherakada izan zuten.

212. koadroa. Itsaso bidezko munduko merkataritza

(M Tm)

Merkantziak	2023	2024	2025	% Δ 25/24
Solteko salgai solido nagusiak (1)	3.408	3.534	3.531	-0,1
Petrolio gordina eta produktuak	3.035	3.014	3.002	-0,4
Beste solteko salgai solido batzuk	2.236	2.327	2.425	4,2
Edukiontzietako kargak	1.853	1.957	2.050	4,8
Karga orokor konbentzionala	952	967	998	3,2
Beste solteko salgai likido batzuk (2)	944	964	999	3,6
Guztira	12.428	12.763	13.005	1,9

(1): Ikatza, burdin-mea eta alea.
(2): Gas likidotuak eta produktu kimikoak.
Iturria: Anave, Clarksons.

Azterketa Estatura eramanda, 2025ean Espainiako itsas merkataritza 357 milioi tona ingurukoa izan zen; hau da, 2024ko datuekin alderatuta, oso hazkunde txikia izan zuen (+% 0,2).

Jardueraren % 58,1 hartzen zuten inportazioak % 0,7 handitu ziren, 207,6 milioi tonara iritsi arte; kabotajeak, berriz, % 1,5 egin zuen gora, eta 50 milioi tona baino gehiago izan zituen. Esportazioek, aldiz, izan zuten bilakaera negatibo bakarra (-% 1,6), eta berriro kokatu ziren 100 milioi tonatik behera.

Hala ere, Estatuko itsas merkataritzak nolabaiteko egonkortasuna izan zuen garraiatutako bolumenetan; izan ere, ekitaldi honetan inportazioen eta kabotajearen hazkunde txikiek esportazioek izandako beherakada konpentsatu ahal izan zuten.

213. koadroa. Espainiako itsas merkataritza

(m Tm)

Kontzeptua	2023	2024	2025	% Δ 25/24
Esportazioak	98.898	100.279	98.709	-1,6
Inportazioak	204.310	206.135	207.547	0,7
Kabotajea	47.988	49.961	50.729	1,5
Guztira	351.196	356.375	356.985	0,2

Iturria: Anave, Estatuko Portuak.

Euskal bi portuen bilakaerari dagokionez, 2025eko ekitaldian emaitzak desberdinak izan ziren portuaren arabera. Hala, Pasaiako Portuak jardueraren hazkunde txikiarekin itxi zuen ekitaldia; Bilboko Portuak, aldiz, dinamismoa galdu zuen, neurri handi batean Petronorrek maiatzetik uztailera bitartean egindako geldialdi teknikoaren ondorioz, eta horrek, logikoa denez, eragina izan zuen portuko petrolio gordinaren eta produktu finduen mugimenduetan.

Horrenbestez, Bilboko Portuak 32.121,5 mila tona garraiatu zituen guztira, eta jarduera % 7,1 murriztu zen 2025ean. Urte arteko uzkurdura hori deskargek izandako beherakadak (-% 3,8) —trafikoaren % 70,3 hartu zuten— zein kargek izandako uzkurdurak (-% 13,1) —% 29,7ko ekarpena izan zuten— eragin zuten; bien artean, portuko jarduera ia osoa hartu zuten.

Pasaiako Portuko trafikoa, berriz, ia ez zen aldatu 2025ean: jarduera 3.420 mila tona inguruan mantendu zen, 2024an baino % 0,3 gehiago. Igoera txiki hori, batez ere, kargen hazkundean (+% 0,6) oinarritu zen; kargek portuko jardueraren herena hartu zuten (% 33,9). Deskargek, berriz, % 64,7ko pisu espezifikoa izan zuten, eta beherakada oso txikia izan zuten (-% 0,1). Testuinguru horretan, hornikuntzak zein arrantzak gora egin zuten (+% 15,5 eta +% 7,3), nahiz eta haien ekarpena ez zen % 1era iritsi kasu batean ere.

214. koadroa. Euskal Herriko portu nagusietako trafikoa

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Deskargak	22.385,0	23.467,7	22.566,0	2.250,8	2.218,60	2.217,3
Kargak	10.417,5	10.973,8	9.531,6	1.197,7	1.155,70	1.162,5
Zuzkidura	130,3	149,9	23,8	26,6	26,5	30,6
Arrantza	0,0	0,0	0,0	18,7	16,5	17,7
Guztira	32.932,7	34.591,4	32.121,5	3.493,8	3.417,3	3.428,1

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.

Jardueraren xehetasunetara jaitsita, eta Bilboko Portuko trafikoaren osaerari dagokionez, lehen aipatu bezala, Petronorren aldi baterako geldialdiak petrolio-produktuen trafikoa murriztea eragin zuen (-% 14); gainera, produktu horiek portuko partida nagusia izan ziren (% 41,0). Karga orokorrak ere behera egin zuen (-% 4,2), % 25,5eko pisu erlatiboarekin;

LABORAL kutxa

solteko gai solidoek (+% 1,3 eta % 13,6ko partaidetza) eta beste solteko gai likidoek (+% 1,6 eta % 19,7ko kuota), berriz, bilakaera positiboagoa izan zuten, baina ez zen nahikoa izan gainerako beherakadak konpentsatzeko.

Pasaiako Portuan, trafikoaren hobekuntza txikia solteko gai solidoen gorakadari (+% 6,8) esker gertatu zen, eta haien kuota % 29,2ra igo zen; karga orokorraren trafikoa, berriz, % 2,4 murriztu zen, nahiz eta jardueraren zatirik handiena hartu zuen (% 69,4). Gainerako trafikoek gora egin zuten (+% 12,1), baina haien ekarpena oso txikia izan zen (% 1,4), eta, beraz, ez zen nahikoa izan emaitza bateratua aldatzeko.

215. koadroa. Merkantzien guztizko trafikoaren osaera

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Petrolio-produktuak	14.334,9	15.330,5	13.184,6	0	0	0
Merkantzia orokorra	8.239,2	8.555,9	8.199,2	2.384,3	2.436,0	2.377,9
Solteko salgai solidoak	3.918,8	4.315,5	4.372,7	1.064,3	938,3	1.001,9
Beste solteko salgai likido batzuk (*)	6.309,5	6.239,7	6.341,2	0	0	0
Gainerakoak	130,3	149,9	23,8	45,2	43,0	48,2
Guztira	32.932,7	34.591,4	32.121,5	3.493,8	3.417,3	3.428,1

(*): Datua gas naturalaren eta beste solteko salgai batzuen baturari dagokio.
Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.

Era berean, kanpo-trafikoaren eta kabotajearen bilakaerak Bilboko Portuaren dinamismo-galera berretsi zuen, % 6,8 murriztu baitzen, 32.097,7 mila tonara arte. Horretan lagundu zuten, neurri handiagoan edo txikiagoan, bai inportazioen (-% 4,7) eta esportazioen (-% 12,1) bilakaerek, bai kabotajearenak (-% 6,1). Hala ere, kanpo-trafikoaren eta kabotajearen osaera aurreko ekitaldiko proportzio ia berberetan mantendu zen: inportazioak izan ziren nagusi (guztizkoaren % 68,5), eta, ondoren, esportazioak (% 25,8) eta kabotajea (% 5,7) egon ziren.

Pasaiako Portuan, kanpo-trafikoa eta kabotajea egonkor mantendu ziren (+% 0,2), 3.380 mila tona inguruan. Inportazioek, % 65eko ekarpenarekin, hazkunde txikia izan zuten (+% 0,6); esportazioek, berriz, % 34ko pisu erlatiboarekin, kontrako bilakaera izan zuten (-% 0,4), kabotajeak bezala, ekitaldia emaitza negatiboarekin itxi baitzuen (-% 8,5), nahiz eta haren partaidetza oso txikia izan (% 0,9).

216. koadroa. Kanpoko trafikoa eta kabotajea

(m Tm)

Kontzeptua	Bilbo			Pasaia		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Inportazioa	21.913,6	23.084,7	22.000,5	2.224,6	2.185,2	2.198,5
Esportazioa	8.955,8	9.406,7	8.265,2	1.197,6	1.155,1	1.150,2
Kabotajea	1.933,2	1.950,1	1.832,0	26,3	34,0	31,1
Guztira	32.802,7	34.441,5	32.097,7	3.448,5	3.374,3	3.379,8

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Pasaiako Portuko Agintaritza.

Kanpo-jardueraren xehetasunari dagokionez, Bilboko Portuan beste mineral ez-metalikoak eta produktu kimikoak izan ziren esportazioen buru, bi kasuetan % 15 inguruko kuotekin. Ondoren, gasolina, produktu siderurgikoak eta beste petrolio-produktu batzuk kokatu ziren, % 9,1eko, % 6,4ko eta % 5,5eko pisu espezifikoekin, hurrenez hurren; gasolioak/diesel-olioak, berriz, ekarpen zertxobait txikiagoa izan zuen (% 3,8). Inportazioetan, petrolio gordina egon zen rankingaren lehen postuan (guztizkoaren % 38,6); ondoren, gas naturala (% 16,3), gasolio/diesel-oila (% 9,9) eta produktu siderurgikoak (% 8,5). Soja-babek eta produktu kimikoek osatu zuten inportatutako produktu nagusien multzoa, biek % 4ko partaidetzarekin.

217. koadroa. Bilboko Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2025

(m Tm)

Esportazioak		Inportazioak	
Beste mineral ez-metaliko batzuk	1.265,15	Petrolio gordina	8.494,49
Produktu kimikoak	1.236,05	Gas naturala	3.582,43
Gasolina	750,33	Gasolioa/Diesela	2.172,27
Produktu siderurgikoak	529,00	Produktu siderurgikoak	1.863,02
Beste petrolio-produktu batzuk	450,76	Soja-babak	873,60
Gasolioa/Diesela	316,31	Produktu kimikoak	871,09
Gainerakoak	3.717,62	Gainerakoak	4.143,56
Guztira	8.265,22	Guztira	22.000,46

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Pasaian, kanpo-trafikoaren egiturak oso bestelako dinamika izan zuen, eta produktu siderurgikoek pisu oso nabarmena izan zuten bai inportazioetan (guztizkoaren % 49,8), bai eta, bereziki, esportazioetan ere (% 57). Esportatutako bolumen handieneko bigarren partida ibilgailuak eta haien piezak izan ziren, guztizkoaren % 27,7rekin; tarte handiagora egon ziren beste mineral ez-metaliko batzuk (% 5,2), eraikuntzarako produktu landuak (% 3,7) eta fosfatoak (% 2,4). Inportazioei dagokienez, produktu siderurgikoen ondoren, papera eta pasta (% 9,5), ongarriak (% 6,6), pentsuak eta bazka-laboreak eta zerealak eta haien irinak kokatu ziren (azken biak % 5,2rekin).

LABORAL kutxa

218. koadroa. Pasaiako Portuaren kanpoko trafikoaren osaera. 2025

(m Tm)

Esportazioak		Inportazioak	
Produktu siderurgikoak	655,6	Produktu siderurgikoak	1.094,6
Ibilgailuak eta horien piezak	318,7	Papera eta orea	208,9
Beste mineral ez-metaliko batzuk	60,2	Ongarri naturalak eta artifizialak	145,5
Eraikuntza-material landuak	43,0	Pentsua eta bazkak	115,4
Fosfatoak	27,5	Zerealak eta horien irinak	113,8
Gainerakoak	45,2	Gainerakoak	520,3
Guztira	1.150,2	Guztira	2.198,5

Iturria: Pasaiako Portuko Agintaritza. Geuk egina.

Herrialdekako azterketak portu bakoitzaren jardueraren ikuspegia osatzen du. Hala, Bilboko Portuaren azterketatik hasita, 2025eko sailkapenean Estatu Batuak izan ziren lehen merkataritza-bazkidea (guztizkoaren % 14,6) —bereziki nabarmena deskargen atalean (% 18,7)—; ondoren, Brasil (% 10) eta Mexiko (% 7,3) kokatu ziren, biak ere postu nabarmenetan deskargei dagokienez. Horiez gain, % 6,4 eta % 6,8 arteko pisu erlatiboekin, Errusia —trafiko ia osoa deskargei zegokion—, Herbehereak eta Erresuma Batua kokatu ziren. Oro har, lehen sei herrialde horiek Bizkaiko portuko trafiko osoaren erdia baino gehiago hartu zuten (% 51,6).

219. koadroa. Bilboko Portua. Herrialdeen araberako trafikoa, 2025

(m Tm)

Herrialdea	Deskargak	Kargak	Guztira
Estatu Batuak	4.229,3	458,1	4.687,4
Brasil	2.775,7	428,3	3.204,0
Mexiko	2.240,1	117,9	2.358,0
Errusia	2.177,8	2,2	2.180,1
Herbehereak	768,9	1.318,1	2.087,0
Erresuma Batua	678,8	1.377,5	2.056,3
Espainia	565,6	1.266,4	1.832,0
Belgika	613,7	1.057,6	1.671,3
Txina	670,2	217,2	887,4
Irlanda	253,7	419,1	672,9
Frantzia	161,4	487,8	649,1
Libia	518,7	1,2	519,9
Beste batzuk	6.912,1	2.380,2	9.292,3
Guztira	22.566,0	9.531,6	32.097,7

Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.

Pasaiako Portuari buruzko azterketa berak erakusten du merkataritza-harremanak herrialde kopuru txikiago batean kontzentratu zirela. Hala, 2025ean, Herbehereak izan ziren Gipuzkoako portuko trafikoaren buru, guztizkoaren % 22,2rekin; oso gertu kokatu zen Erresuma Batua, % 19,0rekin, eta, ondoren, Belgika, % 11,7rekin. Horrenbestez, portuko jardueraren erdia baino gehiago hiru herrialde horiekin lotuta egon zen. Gainera, Suediak eta Alemaniak osatu zuten lehen bost merkatuen zerrenda, % 8,7ko eta % 5,9ko partaidetzekin, hurrenez hurren. Era berean, kargen artean Kanada eta Txile nabarmendu

behar dira; biak esparru horretan baino ez ziren egon presente, eta % 12,1eko eta % 7,1eko pisu erlatiboak izan zituzten.

220. koadroa. Pasaiako Portua. Herrialdeen araberako trafikoa, 2025

(m Tm)

Herrialdea	Deskargak	Kargak	Guztira
Herbehereak	741,5	9,1	750,6
Erresuma Batua	272,2	369	641,2
Belgika	205,3	189,5	394,7
Suedia	271,8	20,8	292,6
Alemania	128,2	70,5	198,7
Kanada	0	139,5	139,5
AEB	45,2	55,5	100,7
Finlandia	92,1	8,2	100,3
Txile	0	82,5	82,5
Frantzia	76,6	0	76,6
Irlanda	24,5	47,8	72,3
Espainia	37,4	12,4	49,8
Turkia	6,1	43	49,0
Egipto	31,9	0	31,9
Beste batzuk	284,5	114,9	399,4
Guztira	2.217,3	1.162,5	3.379,8

Iturria: Pasaiako Portuko Agintaritza.

Azkenik, erantsitako grafikoak Bilboko Portuaren bilakaera erakusten du denbora-ikuspegi zabalago batetik. Hala, argi ikusten da pandemiak portuko jardueran izan zuen eragina; ondoren, Portuak susperraldi bati ekin zion, 2025ean zertxobait eten zena eta, ezusteko berririk edo programatutako geldialdirik ezean, ziurrenik 2026an zuzenduko dena.

LABORAL kutxa

38. grafikoa Merkantzien eta itsasontzien trafikoa Bilboko Portuan



Iturria: Bilboko Portuko Agintaritza.

3.4 AIRE BIDEZKO GARRAIOA

Kapitulua amaitzeko, jarraian Euskal Herriko aire-garraioaren bilakaera aztertzen da. Hala, 2025eko balantzea neurri batean positiboa izan zen: aireontzien trafikoak eta bidaiari kopuruak berriro gora egin zuten; garraiatutako salgaiek, berriz, beste beherakada bat izan zuten.

221. koadroa. Euskal Herriko aire bidezko garraioa*

Urtea	Aireontziak			Bidaiariak (m)			Merkantziak (m)		
	Guztira	% Δ	Euskal Herria/Espainia %	Guztira	% Δ	Euskal Herria/Espainia %	Guztira	% Δ	Euskal Herria/Espainia %
2018	72.563	6,7	3,2	6.105,3	10,9	2,3	63.396,9	1,5	6,3
2019	74.998	3,4	3,2	6.643,8	8,8	2,4	65.473,1	3,3	6,1
2020	36.672	-51,1	3,3	1.901,7	-71,4	2,5	64.719,1	-1,2	8,2
2021	47.473	29,5	3,1	2.977,3	56,6	2,5	73.003,8	12,8	7,3
2022	69.706	46,8	3,1	5.920,9	98,9	2,4	74.311,6	1,8	7,4
2023	77.140	10,7	3,2	7.311,0	23,5	2,6	72.448,5	-2,5	6,7
2024	78.245	1,4	3,0	7.732,7	5,8	2,5	71.433,6	-1,4	5,6
2025	82.267	5,1	3,1	8.060,5	4,2	2,6	70.176,1	-1,8	5,1

(*): 2025eko behin-behineko datuak.
Iturria: AENA.

Hala, 2025ean zehar 82.267 aire-eragiketa egin ziren Euskal Herrian, 2024an baino % 5,1 gehiago, eta 8 milioi bidaiari zenbatu ziren, % 4,2 gehiago. Garraiatutako salgaiek, aldiz, hirugarren urtez jarraian egin zuten behera (-% 1,8); beraz, aurreko urteetako eredua errepikatu zen: pertsonen mugimenduarekin lotutako jarduerak goranzko joerari eutsi zion, eta salgaien garraioak beheranzko joeran jarraitu zuen.

Aireportu bakoitzaren jardueraren xehetasunetara jaitsita, eta Loiutik hasita, 2025ean 54.468 aire-eragiketa egin ziren (+% 3,7), batez ere nazioarteko trafikoaren bultzadari esker (+% 8,2); barne-trafikoa, berriz, egonkor mantendu zen (+% 0,4), eta azken horrek pisu zertxobait handiagoa izan zuen (guztizkoaren % 56,8). Gasteizek, berriz, 14.208 aire-eragiketa izan zituen, % 2,5eko gorakada izan ondoren, barne-trafikoaren dinamismoari esker (+% 9,1); izan ere, horrek nazioarteko trafikoaren beherakada (-% 4,0) konpentsatu zuen. Nazioarteko trafikoak barne-trafikoak baino pisu txikiagoa izan zuen (% 47 eta % 53, hurrenez hurren). 2025ean, Iruñeak izan zuen dinamismorik handiena termino erlatiboetan: aire-eragiketa kopurua % 21,8 handitu zen, 7.109ra iritsi arte, barne-trafikoaren gorakada nabarmenari esker (+% 23,4)[1]. Barne-trafikoa izan zen haren jardueraren oinarria (% 92,9), eta nazioarteko trafikoak ere hobera egin zuen (+% 4,8). Azkenik, Donostiako aireportuak ere hobetu egin zituen bere emaitzak (+% 7,8), barne-trafikoak (+% 6,2) eta, batez ere, nazioarteko trafikoak (+% 14,6) gora egin baitzuten; azken horrek eragiketen ia % 20 hartu zuen.

Oro har, Euskal Herrian barne-trafikoa % 4,8 handitu zen eta nazioartekoa % 5,6; banaketari dagokionez, barne-eragiketek aireportuetako jardueraren zatirik handiena hartzen jarraitu zuten (% 61,1).

[1] 2025ean, Tenerife Iparraldearekin lotzen duen ibilbide berri bat gehitu zen; horrenbestez, Noaingo aireportuak 3 ibilbide kudeatu zituen guztira.

LABORAL kutxa

222. koadroa. Aireontzien trafikoa, guztira, aireportuen arabera*

(unitateak)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/Espainia %	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Trafikoa, guztira	52.538	54.468	5.835	7.109	6.015	6.482	13.857	14.208	78.245	82.267	3,0	3,1
Barnekoa	30.785	30.921	5.351	6.602	4.912	5.218	6.905	7.534	47.953	50.275	3,9	4,0
Nazioartekoa	21.753	23.547	484	507	1.103	1.264	6.952	6.674	30.292	31.992	2,2	2,2

(*): 2025eko behin-behineko datuak.
Iturria: AENA.

Salgaien trafikoari dagokionez, Forondako Aireportuak euskal salgaien trafiko ia osoa hartu zuen (% 98,4), eta 2025ean 69.035 tona kudeatu zituen, urte arteko % 2,1eko beherakada izan ondoren. Horretan lagundu zuten bai barne-trafikoaren (-% 2,8) bai nazioarteko trafikoaren (-% 1,9) beherakadek; azken horrek jardueraren hiru laurdenak hartu zituen (% 75,4). Logikoa denez, Euskal Herriko guztizkoan duen pisua kontuan hartuta, Forondaren bilakaerak Euskal Herriko emaitza negatiboa baldintzatu zuen.

Gainerako aireportuei dagokienez, Loiuk, askoz bolumen txikiagoarekin bada ere, karga handitu zuen 2025ean, 1.141 tonara arte (+% 23,0); Noainek ez zuen salgairik garraiatu 2025ean, eta Donostiako aireportuak bolumen ia hutsalari eutsi zion.

223. koadroa. Merkantzien trafikoa, guztira, aireportuen arabera*

(Tm)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/Espainia %	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Trafikoa, guztira	928	1.141	1,5	0	0	0,1	70.504	69.035	71.432	70.176	5,6	5,1
Barnekoa	121	146	0	0	0	0,1	17.465	16.981	17.586	17.127	15,5	15,2
Nazioartekoa	807	995	1,5	0	0	0	53.039	52.054	53.846	53.049	4,6	4,2

(*): 2025eko behin-behineko datuak.
Iturria: AENA.

Bidaiariei dagokienez, lau aireportuen emaitza bateratuak erakutsi zuen erabiltzaile kopurua % 4,2 handitu zela, eta 8 milioi erabiltzaile baino gehiago izan zirela. Nazioarteko segmentuak dinamismo nabarmena izan zuen 2025ean (+% 10,6); Estatuko segmentuak, berriz, bilakaera lauagoa izan zuen (+% 0,3), baina pisurik handiena izaten jarraitu zuen (% 59,3).

Loiuk, 7 milioi bidaiari baino gehiagorekin, euskal bidaiarien trafikoaren ia % 88 hartu zuen; horrenbestez, Euskal Herri osorako azaldutako bilakaera-eredu bera errepikatu zen,

ñabardura batzuekin bada ere. Hala, bidaiarien trafikoa % 4,2 hazi eta nazioarteko segmentua % 10,6 handitu baziren ere, barne-trafikoak zertxobait behera egin zuen 2025ean (-% 0,5); hala ere, haren pisu erlatiboak handiagoa izaten jarraitu zuen (% 55,3, nazioarteko segmentuaren % 44,7aren aldean).

Iruñeak, berriz, oso ekitaldi positiboa itxi zuen (+% 5,9), 233 mila bidaiarirekin. Emaitza hori barne-trafikoaren bilakaera onaren ondorio izan zen (+% 6,6); izan ere, nazioarteko bidaiarien kopurua murriztu egin zen (-% 14,3), nahiz eta haien pisua oso txikia izan (guztizkoaren % 2,6).

Forondako aireportuari dagokionez, 2025ean bidaiarien mugimenduak gorakada handia izan zuen (+% 16,3), eta berriro 300.000 bidaiari baino gehiago izatea lortu zuen; hala, 2024ko ekitaldian izandako beherakada nabarmenetik suspertu zen. Bi segmentuek lagundu zuten horretan; hala ere, barnekoak izan zuen pisurik handiena (% 67), eta bilakaerarik onena ere hark izan zuen (+% 19,9, nazioartekoaren +% 9,8aren aldean).

Testuinguru horretan, Donostiako Aireportuaren emaitza izan zen salbuespena: 2025ean dinamismoa galdu zuen (-% 2,9), eta bidaiari kopurua 471 milakoa izan zen, nahiz eta aire-eragiketa kopuruak gora egin zuen. Desbideratze horren jatorria Estatuko bidaiarien bilakaeran egon zen, haien kopurua murriztu egin baitzen (-% 3,2), nahiz eta trafikoaren % 96,4 hartu.

224. koadroa. Bidaiari komertzialen trafikoa, aireportuen arabera*

(m)

Kontzeptua	Bilbo		Iruñea		Donostia		Gasteiz		Euskal Herria		Euskal Herria/Espainia %	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Trafikoa, guztira	6.766	7.051	220	233	485	471	263	306	7.733	8.060	2,5	2,6
Barnekoa	3.915	3.897	213	227	469	454	171	205	4.768	4.782	4,9	4,9
Nazioartekoa	2.851	3.154	7	6	16	17	92	101	2.965	3.278	1,4	1,5

(*): 2025eko behin-behineko datuak.
Iturria: AENA.

Kapituluarekin amaitzeko, Euskal Herriko aireportuetako 2025eko berritasun nagusiak azalduko ditugu jarraian. Loiutik hasita, 2025eko ekitaldiak mugarri historikoa ezarri zuen aireportuaren ibilbidean. Haren eskaintzari gehitu zitzaizkion 10 ibilbide berrien artean, New York/Newarkekin zuzeneko lotura dago, astean hiru hegaldiko maiztasunarekin; hala, Loiuko aireportuaren lehen konexio transatlantiko erregularra izan zen. Gainera, urtearen amaieran Bilboko Aireportuaren Gida Plan berria onartu zen, 2001ean onartutako aurrekoa ordezteko.

Noainen, Iruñea-Tenerife Iparraldea ibilbide berria gehitu zen, Binter konpainiak kudeatua, astean bi hegaldiko maiztasunekin. Berrikuntza horrekin batera, Nafarroako Gobernuak

LABORAL kutxa

Aire Konektibitatearen Mahaia aurkeztu zuen jendaurrean. Mahai hori lankidetza publiko-pribaturako gune gisa eratu zen, Iruñeko aireportuaren konexioak sustatzeko helburuarekin. Ekimen horren helburua ez da soilik aireportuaren jarduera sustatzea, baita, horren bidez, lurraldearen garapen ekonomikoa eta turistikoa bultzatzea ere.

Donostian ere, Binterrek eskaintza zabaldu zuen Tenerife Iparralderako zuzeneko ibilbide batekin, astean bi hegaldiko maiztasunekin. Gainera, irailean, Aenak hainbat jarduketa iragarri zituen aireportuan, 2027-2031 aldirako plangintzaren barruan; horien artean, nabarmentzekoak ziren ontziratze-gelako hobekuntzak, segurtasun-ekipamendu berriak, harri-lubeta indartzea eta pista goratu eta ildaskatzea.

Azkenik, Forondak bidaiarientzako eskaintza indartu zuen Volotea gehituta, Madrilekin eta Bartzelonarekin zuzeneko loturak eskainiz, helmuga bakoitzerako astean lau hegaldiko maiztasunekin. Zerbitzu berri horrekin, Volotea euskal hiru aireportuetan hegaldi erregularrak dituen airelinea bakarra bihurtu zen.

4. TURISMOA

4.1 NAZIOARTEKO EGOERA

2025eko ekitaldian nazioarteko turismoaren susperraldiak jarraitu zuen, eta mundu osoko etorrera kopurua 1.546 milioi pertsonara iritsi zen (+% 5,0 urte arteko tasan). Gainera, zifra horrek berresten du turismo-jarduerak pandemiaren aurreko erreferentzia aise gainditu zuela (+% 5,2, 2019arekin alderatuta), nahiz eta hazkunde-erritmoak desberdinak izan. Europak nagusitasun argia mantendu zuen, 800 milioi etorrera baino gehiago eta munduko guztizkoaren % 52,4ko kuota izanik; Asia eta Pazifikoko blokeak, berriz, urte arteko hazkunde nabarmena izan zuen (+% 7,6), nahiz eta jarduera-bolumena 2019an erregistratutakoa baino txikiagoa izan oraindik (–% 7,2). Bestalde, Amerikak urte arteko emaitza apalagoa izan zuen (+% 1,4), 2019koen antzeko maileta n (+% 0,2). Azkenik, Ekialde Hurbila eta Afrika metatutako hobekuntzagatik nabarmendu ziren, 2019arekin alderatuta % 39,8ko eta % 14,4ko hazkundeak izan baitzituzten, hurrenez hurren.

205. koadroa. Nazioarteko turistak

Turistak, milioitan

Eremua	2019	2024	2025*	Kuota 2025 (%)	% Δ 25/24	% Δ 25/19
Guztira	1.469	1.472	1.546	100,0	5,0	5,2
-Europa	746,0	772,1	809,6	52,4	4,9	8,5
-Asia eta Pazifikoa	362,5	312,7	336,5	21,8	7,6	-7,2
-Amerika	219,2	216,6	219,7	14,2	1,4	0,2
-Ekialde Ertaina	71,6	96,6	100,1	6,5	3,6	39,8
-Afrika	69,6	74,3	79,6	5,1	7,1	14,4
Europa*	746,0	772,1	809,6	100,0	4,9	8,5
-Hego Europa/Mediterraneoa	304,2	330,5	344,1	42,5	4,1	13,1
-Mendebaldeko Europa	205,2	216,2	227,4	28,1	5,2	10,9
-Erdialdeko/Ekialdeko Europa	152,8	140,3	152,4	18,8	8,7	-0,3
-Ipar Europa	83,9	85,2	85,6	10,6	0,5	2,0
-Horietatik EB-27koak	*541,1*	*569,1*	*598,5*	*73,9*	*5,2*	*10,6*

(*): Behin-behineko datuak.
Iturria: Turismoaren Mundu Erakundea

Europako merkatuaren barruan, Hegoaldeko/Mediterraneoko Europak bildu zuen etorreren kuotarik handiena (% 42,5; 344,1 milioi turista), eta haren atzetik Mendebaldeko Europa zegoen (% 28,1; 227,4 milioi turista); bi helmuga horiek bi digituko hazkunde metatua izan zuten 2019arekin alderatuta. Erdialdeko eta Ekialdeko Europak hazkunde nabarmena izan zuen 2025ean (+% 8,7), eta horri esker 2019an lortutako jarduera-bolumenetara hurbildu zen (–% 0,3). Beraz, Europako bilakaeran azpimarratu behar da jardueraren hazkundea, batez ere, EB-27 turismo kontinentalaren helmuga gisa sendotzean oinarritu zela (% 73,9), 598,5 milioi iritsierarekin eta 2024arekin (+% 5,2) eta 2019arekin (+% 10,6) alderatuta hobera eginda.

LABORAL kutxa

4.2 TURISMOA ESPAINIAN

Eskari turistikoa

Espainia nazioarteko turismo-fluxuaren funtsezko helmuga da; bidaiarien etorrerak urtez urte egiten du gora eta pixkanaka 100 milioiko mugara hurbiltzen ari da: 2025ean 96,8 milioi zenbatu ziren (+% 3,2 aurreko ekitaldiarekiko). Emaitza horrek azken urteetan ikusitako goranzko joerari eusten dio eta, gainera, Erresuma Batuko merkatua jasotako bisitarien jatorri nagusi gisa sendotzen du.

206. koadroa. Espainiara datozen bidaiariak[1], jatorriaren arabera

Eremua	2019	2024	2025*	%	% Δ 25/24	% Δ 25/19
Erresuma Batua	18.012.484	18.382.262	19.084.422	19,7	3,8	6,0
Frantzia	11.147.397	12.923.000	12.767.489	13,2	-1,2	14,5
Alemania	11.158.022	11.939.029	12.050.835	12,4	0,9	8,0
Italia	4.534.515	5.497.603	5.704.989	5,9	3,8	25,8
Herrialde eskandinaviarrak	5.530.112	5.126.212	5.123.954	5,3	0,0	-7,3
Herbehereak	3.684.260	4.785.045	5.007.643	5,2	4,7	35,9
AEB	3.324.870	4.266.937	4.456.665	4,6	4,4	34,0
Belgika	2.525.887	3.060.121	3.082.337	3,2	0,7	22,0
Portugal	2.428.790	2.983.889	3.383.482	3,5	13,4	39,3
Irlanda	2.177.592	2.768.496	3.051.009	3,2	10,2	40,1
Suitza	1.811.865	2.123.050	2.253.751	2,3	6,2	24,4
Europako gainerakoak	7.755.501	9.126.271	9.711.785	10,0	6,4	25,2
Amerikako gainerakoak	3.767.277	5.162.033	5.325.709	5,5	3,2	41,4
Munduko gainerakoak	5.650.583	5.615.354	5.799.828	6,0	3,3	2,6
Guztira	83.509.155	93.759.302	96.803.898	100,0	3,2	15,9

(*): 2025eko datuak behin-behinekoak dira.
Iturria: EIN. Herrialdeen arteko bidaiarien mugimenduaren estatistika (Frontur).

Merkatuen araberako urteko bilakaerak igorle nagusien ekarpenaren egonkortasuna erakusten du; hazkunderik handienak, berriz, bolumen erlatibo txikiagoko jatorri-merkatuetan izan ziren. Horrenbestez, jatorriaren araberako turista-kuotak oso pixkanaka orekatzeko joera erakusten ari dira, dibertsifikazio handiagoaren adierazgarri.

Zehazkiago, 2025eko emaitzek hiru merkatu handien bilakaera desberdina erakusten dute: Erresuma Batuak hazten jarraitu zuen (+% 3,8), Alemania egonkortu egin zen (+% 0,9) eta Frantziak atzera egin zuen (–% 1,2). Hala ere, multzoan duten garrantziari eutsi zioten, nazioarteko turismoaren % 45,3 ekarri baitzuten; herrialde bakoitzaren kuotak jasotako nazioarteko turismoaren % 10 aise gainditu zuen (% 19,7, % 13,2 eta % 12,4 Erresuma Batuarentzat, Frantziarentzat eta Alemaniarentzat, hurrenez hurren).

[1] Frontur-ek (Atzerritarren mugimendu turistikoaren estatistika), garraiobideen eta bidaiatzeko motibazioaren arabera, Espainian bizi ez diren eta ostatu mota guztiak erabiltzen dituzten bidaiarien fluxua jasotzen du, honako hauek barne: bigarren etxebizitzak, etxebizitza partikularrak, eta horiez gain, hotel-sareak, landa-ostatuak, apartamentu turistikoak edota campingak.

Tamaina ertaineko merkatuen taldean (5 milioi turista inguru eta % 4tik % 6ra bitarteko banakako kuota), Italiaren (+% 3,8), Herbehereen (+% 4,7) eta AEBren (+% 4,4) dinamismoa nabarmendu zen, herrialde nordikoen egonkortasunaren (% 0,0) aldean; azken horiek izan ziren 2019ko datuen azpitik geratu zen merkatu bakarra (-% 7,3). Bestalde, Portugalek (+% 13,4), Irlandak (+% 10,2) eta Suitzak (+% 6,2) izan zituzten urte arteko hazkunderik handienak; hala ere, bolumen txikiagoko merkatuak ziren (3 milioi turista inguru eta banakako % 3tik beherako kuota). Talde horretan zegoen Belgika ere, urte arteko hazkunde askoz apalagoarekin (+% 0,7). Azkenik, lehen aipatutako herrialdekako xehetasunaz gain, nabarmentzekoa da Europako gainerako herrialdeek (+% 6,4), Munduko gainerako herrialdeek (+% 3,3) eta Amerikako gainerako herrialdeek (+% 3,2) osatutako multzoek izandako urte arteko dinamismoa; logikoa denez, jatorri-oinarri (herrialde) zabalagoa hartzen dute barne.

207. koadroa. Eskari turistikoaren bilakaera Espainian

Eremua	2019	2024	2025*	2025 (%)	% Δ 25/24	% Δ 25/19
Bidaiariak (mila)	135.008	149.667	152.984	100,0	2,2	13,3
-Hotelak	108.716	116.166	118.420	77,4	1,9	8,9
-Landa-turismoa	4.421	4.808	4.778	3,1	-0,6	8,1
-Apartamentu turistikoak	12.479	14.152	15.178	9,9	7,2	21,6
-Kanpinak	8.304	10.199	10.529	6,9	3,2	26,8
-Aterpetxeak	1.087	4.343	4.078	2,7	-6,1	--
Gaualdiak (mila)	469.813	505.169	512.872	100,0	1,5	9,2
-Hotelak	342.996	363.065	366.640	71,5	1,0	6,9
-Landa-turismoa	11.726	12.720	12.840	2,5	0,9	9,5
-Apartamentu turistikoak	71.383	72.066	76.224	14,9	5,8	6,8
-Kanpinak	40.721	49.092	49.717	9,7	1,3	22,1
-Aterpetxeak	2.988	8.226	7.451	1,5	-9,4	--
Batez besteko egonaldia					*Ehuneko aldea*	
-Hotelak	3,2	3,1	3,1	--	0,0	-0,1
-Landa-turismoa	2,7	2,6	2,7	--	0,1	0,0
-Apartamentu turistikoak	5,7	5,1	5,0	--	-0,1	-0,7
-Kanpinak	4,9	4,8	4,7	--	-0,1	-0,2
-Aterpetxeak	2,7	1,9	1,8	--	-0,1	-0,9

(*): Behin-behineko datuak.
Oharra: Aterpetxeen serie estatistikoa ez da homogeneoa; 2020tik aurrera beste metodologia bat erabiltzen da..

Iturria: EIN.

Araututako establezimenduetan ostatu hartutako turismo-eskariak 2025 oso positiboa osatu zuen, guztira 152,9 milioi bidaiarirekin (+% 2,2) eta 512,8 milioi gaualdirekin (+% 1,5). Zifra horiek garrantzi berezia hartzen dute 2019koekin alderatzean: dagoeneko % 13,3 eta % 9,2 handiagoak dira, hurrenez hurren, eta azken urteetan turismoak Espainian izandako dinamismo handia berresten dute.


Hotel-sareak, jardueraren ardatz nagusiak, bidaiarien % 77,4 eta gaualdien % 71,5 bildu zituen 2025ean, nahiz eta urte arteko hazkundea nahiko laua izan zen (+% 1,9 eta +% 1,0).

LABORAL kutxa

Apartamentu turistikoek izan zuten urte arteko hazkunderik handiena bidaiarien (+% 7,2) eta gaualdien (+% 5,8) kopuruan, eta ondoren kanpinak kokatu ziren (+% 3,2 eta +% 1,3); testuinguru horretan, landa-turismoak nolabaiteko geldialdia izan zuen bidaiarien kopuruan (-% 0,6), eta aterpetxeek bidaiariak (-% 6,1) eta gaualdiak (-% 9,4) galdu zituzten.


Batez besteko egonaldia, bestalde, egonkor mantendu zen hoteletan (3,1 egun) eta 2,7 egunera hobetu zen landa-turismoan; apartamentu turistikoetan (5,0 egun), kanpinetan (4,7 egun) eta aterpetxeetan (1,8 egun), berriz, zertxobait egin zuen behera. Hala ere, apartamentu turistikoek eta kanpinek egonaldi luzeenak zituzten ostatu-modalitateak izaten jarraitu zuten, aisialdiko bidaiei eta, batez ere, udako bidaiei lotuago zegoen ostatu-ereduarekin bat etorriz.

36. grafikoa. Bidaiari kopuruaren bilakaera, hilabeteka (Espainia, 2023-2025)
Hotel-establezimenduak



Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia

37. grafikoa. Hoteletan egondako bidaiarien hiruhilekoko egitura (Espainia, 2023-2025)



Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia

Hotel-establezimenduetan ostatu hartutako bidaiarien hileko bilakaerak eskariaren urtarokotasun handia berretsi zuen. 2025ean, abuztuan bildu ziren berriz ere baliorik handienak, bai atzerriko segmentuan (7,4 milioi bidaiari), bai Estatuko segmentuan (6,4 milioi bidaiari), eta urteko batez besteko balioak gainditu ziren, hurrenez hurren (5,3 eta 4,5 milioi bidaiari). Hala, jarduera gehiena apiriletik urrira bitartean bildu zen, eta hilabete horietako emaitzek urtero gainditzen dute hileko batez besteko balioa.

Hiruhilekako azterketak denborazko kontzentrazioa argi ikusteko aukera ematen du. Hala, 2025ean, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan bildu zen hotel-eskariaren zatirik handiena, eta bien artean atzerriko segmentuaren % 61,6 eta Estatuko segmentuaren % 63,9 hartu zuten. Horrela, hirugarren hiruhilekoak denboraldiko aldi nagusia izaten jarraitu zuen, nahiz eta bigarren hiruhilekoak protagonismoa irabazi Estatuko merkatuan, guztizkoaren % 30,0ra iritsita.

Eskaintza turistikoa

Espainiako turismo-eskaintza egokitzen ari da eta, 2025ean, apartamentu turistikoek (+% 3,3) eta kanpinek (+% 0,6) presentzia indartu zuten; hotelek bereari eutsi zioten (% 0,0), eta landa-turismoak (–% 2,6) eta, are intentsitate handiagoz, aterpetxeek (–% 11,9) establezimenduak galdu zituzten. Hala ere, emaitza hori ñabartu beharra dago ostatu-eskaintza egunero eskainitako plazen ikuspegitik aztertuz gero. Ildo horretan, hotel-sareak eskaini zuen edukierarik handiena, 1.589.838 plaza eskainita, eta, gainera, zertxobait handitu zen (+% 0,7). Bigarren tokian apartamentu turistikoak (510.727 plaza) eta kanpinak (507.206 plaza) kokatu ziren; lehenengoen eskaintza % 1,1 handitu zen, eta bigarrenena, berriz, % 0,7 murriztu zen. Azkenik, landa-turismoak eta aterpetxeek eskainitako edukiera murriztu zuten (–% 3,2 eta –% 7,1, hurrenez hurren).

Ostatu-modalitate bakoitzak enpleguaren arabera duen garrantziak berresten du, batetik, hotel-ostatuaren nagusitasuna, enplegu osoari egiten dion ekarpen erlatibo handiagoarekin, eta, bestetik, dimentsio-faktorea, hoteletako batez besteko enplegua handiagoa baita. 2025ean, hotelek 254.020 pertsona enplegatu zituzten, urte artean % 4,0ko hazkundearekin eta, batez ere, 2019an baino 34.545 pertsona gehiago izanik (+% 15,7). Era berean, apartamentu turistikoen kopuruaren hazkundearekin batera haien enpleguak ere gora egin zuen (+% 13,4), guztira 35.489 pertsonara iritsita, eta multzoan duten pisua indartu zen.

Azkenik, establezimenduen, plazen eta enpleguaren konbinazioa eskaintzaren batez besteko dimentsioaren ratioetan islatzen da. 2025ean, hotelek establezimenduko 108,1 plazara eta 17,3 enplegatura igo zituzten ratio horiek; hala, batez besteko tamaina handieneko ostatu-modalitatea izan ziren, gainerakoen oso gainetik eta 2019ko beren erregistroen gainetik ere. Kanpinek establezimenduko plaza kopuru askoz handiagoa mantendu zuten, 588,4 plazarekin, nahiz eta ratio hori 2019koa baino % 9,3 txikiagoa izan.

LABORAL kutxa

Gainerako modalitateetan, apenas egon zen aldaketarik bi ratioetan. Landa-turismoa establezimenduko 10 plaza eta 1,6 enplegu inguruan mantendu zen; apartamentu turistikoek, berriz, establezimenduko 3,7 plaza eta batez besteko enplegu oso txikia (0,3) izan zuten, goranzko joerarekin bada ere. Aterpetxeek, bestalde, tamaina berreskuratu zuten 2024arekin alderatuta, baina 2019an erregistratutako batez besteko egituraren oso azpitik jarraitu zuten nabarmen.

208. koadroa. Espainiako eskaintza turistikoaren bilakaera (urteko batez bestekoa)

Eremua	2019	2024	2025*	% Δ 25/24	% Δ 25/19
Establezimendu kopurua					
-Hotelak	14.897	14.712	14.713	0,0	-1,2
-Landa-turismoa	17.217	16.716	16.273	-2,6	-5,5
-Apartamentu turistikoak	132.539	132.250	136.602	3,3	3,1
-Kanpinak	774	857	862	0,6	11,4
-Aterpetxeak	243	1.180	1.040	-11,9	328,0
Eskainitako plaza kopurua					
-Hotelak	1.517.583	1.579.550	1.589.838	0,7	4,8
-Landa-turismoa	165.949	167.208	161.918	-3,2	-2,4
-Apartamentu turistikoak	507.816	505.394	510.727	1,1	0,6
-Kanpinak (partzelaka)	502.002	510.842	507.206	-0,7	1,0
-Aterpetxeak	25.537	68.752	63.902	-7,1	150,2
Langileak					
-Hotelak	219.475	244.165	254.020	4,0	15,7
-Landa-turismoa	25.512	27.128	25.779	-5,0	1,0
-Apartamentu turistikoak	28.499	31.293	35.489	13,4	24,5
-Kanpinak	7.233	8.903	9.207	3,4	27,3
-Aterpetxeak	1.840	5.069	4.905	-3,2	166,6

Oharra: Aterpetxeen serie estatistikoa ez da homogeneoa; 2020tik aurrera beste metodologia bat erabiltzen da..
(*): 2025eko behin-behineko datuak.
Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia

209. koadroa. Eskaintza turistikoaren bilakaera Espainian

Eremua	2019	2024	2025*	% Δ 25/24	% Δ 25/19
Plazak establezimendu bakoitzean					
-Hotelak	101,9	107,4	108,1	0,7	6,1
-Landa-turismoa	9,6	10,0	10,0	0,0	4,2
-Apartamentu turistikoak	3,8	3,8	3,7	-2,6	-2,6
-Kanpinak	648,7	596,1	588,4	-1,3	-9,3
-Aterpetxeak	105,1	58,3	61,4	5,3	-41,6
Enplegua establezimendu bakoitzean					
-Hotelak	14,7	16,6	17,3	4,2	17,7
-Landa-turismoa	1,5	1,6	1,6	0,0	6,7
-Apartamentu turistikoak	0,2	0,2	0,3	50,0	50,0
-Kanpinak	9,3	10,4	10,7	2,9	15,1
-Aterpetxeak	7,6	4,3	4,7	9,3	-38,2

(*): 2025eko behin-behineko datuak.

Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia

Okupazio maila eta prezioen bilakaera

Eskainitako plazen okupazio-mailak berresten du eskariak ostatu-sare nagusietan eskuragarri dagoen edukiera xurgatzen jarraitzen duela. 2025ean, hotelen okupazio-maila % 61,6koa izan zen; kanpinetan (% 45,9), apartamentu turistikoetan (% 38,7) eta landa-turismoan (% 21,6), berriz, egituraz[1] txikiagoa izan zen.

Kasu guztietan, hazkunde neurritsuak izan ziren 2024arekin alderatuta, aterpetxeetan izan ezik, horietan behera egin baitzuen (-% 2,3). Bestalde, 2025ean prezioen indizearen bilakaera moteldu egin zen hotelen (% 5,1), apartamentu turistikoen (% 3,4) eta kanpinen (% 3,8) indize partzialetan, aurreko bi urteetan baino gutxiago hazi baitzen. Aitzitik, landa-turismoaren prezioen indizearen gorakada (% 8,9) nabarmendu zen, gainerako ostatu-modalitateen urte arteko portaeratik aldendu baitzen.

210. koadroa. Okupazio mailaren eta prezio-indizeen bilakaera Espainiako turismo-ostatuen sareetan (urteko batezbestekoa)

Eremua	2019	2024	2025*	25/24	25/19
Okupazio maila plaza kopuruko				*(aldea ehuneko puntutan)*	
-Hotelak	58,4	61,4	61,6	0,2	3,2
-Landa-turismoa	18,7	20,7	21,6	0,9	2,9
-Apartamentu turistikoak	37,1	38,4	38,7	0,3	1,6
-Kanpinak (partzelaka)	39,7	45,8	45,9	0,1	6,2
-Aterpetxeak	31,0	34,2	31,9	-2,3	0,9
Prezio-indizea**					
-Hotelak	2,1	7,0	5,1		
-Landa-turismoa	1,4	4,5	8,9		
-Apartamentu turistikoak	0,6	7,1	3,4		
-Kanpinak	2,5	5,2	3,8		
-Aterpetxeak	E.d.	E.d.	E.d.		

(*): 2025eko behin-behineko datuak
(**): Oinarria = 2008 hoteletarako eta oinarria = 2002 besteetarako.
Iturria: EIN. Hoteletako okupazioaren galdetegia

4.3 TURISMOA EAEN

Eskari turistikoa

EAEko hotel-jarduerak balantze positiboarekin itxi zuen 2025a: ia 4 milioi bidaiari hartu zituen (+% 3,5) eta ia 8 milioi gaualdi erregistratu zituen (+% 3,6). Hala, inoizko zifrarik handienak lortu zituen, eta 2019ko emaitzak nabarmen hobetu zituen (+% 22,4 eta

[1] Alde horien atzean daude, besteak beste, okupazio-maila neurtzeko moduen arteko desberdintasunak, artatutako merkatu-segmentuak eta asteburuetako eta udako urtarokotasunaren eragina.

LABORAL kutxa

+% 23,3, hurrenez hurren). Gainera, EAEk Estatu osoak baino urte arteko dinamismo handiagoa izan zuen (+% 1,9 eta +% 1,0, bidaiarietan eta gaualdietan, hurrenez hurren), baina horrek ez zuen haren kuota erlatiboa aldatu (% 3,3 eta % 2,1, bidaiarietan eta gaualdietan, hurrenez hurren); horrek erakusten du batez besteko egonaldia Estatukoa baino nabarmen txikiagoa izaten jarraitzen duela (2,0 egun eta 3,1 egun, hurrenez hurren).

Era berean, egiaztatu zen EAEko hotel-jardueraren bultzada bereziki nazioarteko segmentuan oinarritu zela, bidaiarien (+% 5,8) eta gaualdien (+% 7,2) kopuruak gora egin baitzuen; Estatuko segmentuaren hazkundea, berriz, askoz neurritsuagoa izan zen (+% 1,5 eta +% 0,4, bidaiarietan eta gaualdietan, hurrenez hurren).

211. koadroa. Hotelen sareko eskaera turistikoaren bilakaera, EAEn eta Estatuan (2025)

Kontzeptua	Bidaiariak			Gaualdiak			Batez besteko egonaldia
	2025	% Δ 25/24	% Δ 25/19	2025	% Δ 25/24	% Δ 25/19	2025
EAE	3.896.837	3,5	22,4	7.727.069	3,6	23,3	2,0
Estatuko egoiliarrak	2.029.247	1,5	10,4	3.908.373	0,4	9,1	1,9
Atzerriko egoiliarrak	1.867.590	5,8	38,7	3.818.696	7,2	42,2	2,0
Estatua	118.420.257	1,9	8,9	366.640.312	1,0	6,9	3,1
Estatuko egoiliarrak	54.635.614	0,6	3,6	121.801.801	-0,2	1,8	2,2
Atzerriko egoiliarrak	63.784.643	3,1	13,9	244.838.511	1,6	9,6	3,8

(*): 2025eko behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat (Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta) eta EIN (Hoteletako okupazioaren galdetegia)

212. koadroa. Bidaiarien sarrera, gaualdiak eta batezbesteko egonaldia, jatorriaren arabera (EAE 2025) *(hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak)*

Eremua	Bidaiariak	%	%Δ 25/24	%Δ 25/19	Gaualdiak	%	%Δ 25/24	%Δ 25/19	Batez besteko egonaldia
GUZTIRA	4.619.799	100,0	5,0	34,2	9.506.416	100,0	4,7	35,4	2,1
Guztira, Estatukoak	2.437.048	52,8	3,3	20,0	4.953.671	52,1	2,1	19,5	2,0
-Madril	541.738	11,7	3,2	18,5	1.111.064	11,7	2,2	19,2	2,1
-EAE	466.710	10,1	3,0	24,5	861.688	9,1	0,4	26,8	1,8
-Katalunia	347.470	7,5	-0,3	17,3	735.985	7,7	-0,9	18,6	2,1
-Andaluzia	146.487	3,2	1,3	7,9	341.980	3,6	2,1	4,9	2,3
- Gaztela eta Leon	149.537	3,2	2,0	18,6	289.121	3,0	0,0	17,2	1,9
-Valentziako Erkidegoa	141.713	3,1	6,0	25,4	325.160	3,4	4,1	22,0	2,3
-Aragoi	90.989	2,0	4,3	11,9	178.267	1,9	4,4	10,1	2,0
-Galizia	92.006	2,0	1,4	13,7	195.087	2,1	3,8	12,5	2,1
-Nafarroa	99.768	2,2	6,2	37,5	162.259	1,7	4,5	38,2	1,6
-Asturias	75.142	1,6	14,2	16,9	137.273	1,4	10,2	11,3	1,8
- Gaztela-Mantxa	61.434	1,3	7,3	21,5	149.090	1,6	11,0	19,5	2,4
-Beste autonomia-erkidego batzuk	224.054	4,8	5,4	25,4	466.697	4,9	3,2	24,5	2,1
Atzerrikoak, guztira	2.182.751	47,2	6,9	54,7	4.552.745	47,9	7,7	58,3	2,1
-Frantzia	424.589	9,2	-2,6	47,2	685.608	7,2	-2,3	51,1	1,6
-Amerika	410.304	8,9	8,3	57,5	951.983	10,0	6,4	61,7	2,3
-Alemania	185.495	4,0	7,3	42,2	411.910	4,3	11,2	46,1	2,2
-Erresuma Batua	206.995	4,5	20,6	60,1	441.622	4,6	18,5	67,2	2,1
-Italia	130.738	2,8	9,3	59,1	288.882	3,0	13,0	62,6	2,2
-Portugal	86.094	1,9	6,9	62,8	177.778	1,9	6,0	59,5	2,1
-Belgika	69.655	1,5	3,4	74,3	142.715	1,5	3,4	80,0	2,1
-EBko gainerakoak (1)	370.418	8,0	9,0	85,9	800.985	8,4	11,2	81,6	2,2
-Europako gainerakoak (2)	110.925	2,4	10,3	39,6	241.471	2,5	10,2	42,8	2,2
-Munduko gainerakoak	187.538	4,1	7,2	26,4	409.792	4,3	6,4	32,9	2,2

(1): EBko gainerakoak Austria, Bulgaria, Zipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Polonia, Txekiar Errepublika, Errumania, Suedia eta Kroazia.
(2): Europako gainerakoak: EBkoak ez diren Europako herrialdeak.
Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Azterketa EAEn kokatutako turismo-ostatu guztietara (hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak) zabalduz gero, 2025ean 4.619.799 bidaiari eta 9.506.416 gaualdi izan ziren guztira. Zifra horiek urte arteko gorakada esanguratsua erakusten dute (+% 5,0 eta +% 4,7); horrenbestez, azkenaldiko bilakaera positiboa sendotu eta 2019arekin alderatutako hazkunde oso nabarmena berresten dute (+% 34,2 eta +% 35,4, bidaiarietan eta gaualdietan, hurrenez hurren).

Jatorriaren araberako azterketak Estatuko merkatuaren aldeko banaketa txiki bat erakusten du (bidaiarien % 52,8 eta gaualdien % 52,1), nahiz eta nazioarteko merkatuaren aldean indarra galtzen ari den. Testuinguru horretan, Madril nabarmendu zen, hazten jarraitu baitzuen (+% 3,2 eta +% 2,2) eta Estatuko sailkapenaren buru izan baitzen (541.738 bidaiari eta 1.111.064 gaualdi). Bigarren tokian EAE bera kokatu zen (+% 3,0 eta +% 0,4), eta ondoren Katalunia, behera egin baitzuen (-% 0,3 eta -% 0,9). Hala, hiru merkatu

horiek Estatuko jatorriko gaualdien % 55 hartzen dute, eta gainerakoa beste jatorri batzuek osatzen dute; horien artean, Asturiasko (+% 14,2 eta +% 10,2) eta Gaztela-Mantxako (+% 7,3 eta +% 11,0) dinamismoa nabarmentzen da.

Atzerriko segmentuak 2.182.751 bidaiari eta 4.552.745 gaualdi ekarri zituen, eta Estatuko segmentuak baino hazkunde handiagoa izan zuen (+% 6,9 eta +% 7,7). Frantziak atzerriko bidaiarien bolumen handiena biltzen jarraitu zuen, nahiz eta 2025ean behera egin zuen (-% 2,6); Amerika, berriz, bigarren tokian kokatu zen eta atzerriko gaualdien bolumen handiena ekarri zuen (951.983). Erresuma Batuak hazkunderik nabarmenenetako bat izan zuen bidaiarietan (+% 20,6) eta gaualdietan (+% 18,5); era berean, Alemaniatik (+% 11,2) eta Italiatik (+% 13,0) etorritako bidaiarien gaualdien hazkundea ere azpimarratu behar da.

213. koadroa. EAEko turismo-eskariaren bilakaera, hoteletan, lurraldearen arabera (2025)

Kontzeptua	Bidaiariak			Gaualdiak			Batez besteko egonaldia 2025
	2025	%Δ 25/24	%Δ 25/19	2025	%Δ 25/24	%Δ 25/19	
Araba	511.882	-2,7	23,0	1.096.472	1,9	39,1	2,14
Estatuan bizi direnak	352.369	-2,6	19,0	740.754	-0,2	30,6	2,10
Atzerriko egoiliarrak	159.513	-2,9	32,8	355.718	6,5	61,0	2,23
Bizkaia	1.791.639	7,6	18,0	3.427.735	6,4	16,7	1,91
Estatuan bizi direnak	943.415	4,9	6,1	1.727.071	2,5	1,9	1,83
Atzerriko egoiliarrak	848.224	10,7	34,8	1.700.664	10,7	36,9	2,00
Gipuzkoa	1.593.316	1,3	27,4	3.202.862	1,3	26,1	2,01
Estatuan bizi direnak	733.463	-0,5	12,3	1.440.548	-1,9	9,2	1,96
Atzerriko egoiliarrak	859.853	3,0	43,9	1.762.314	4,1	44,3	2,05
EAE	3.896.837	3,5	22,4	7.727.069	3,6	23,3	1,98
Estatuan bizi direnak	2.029.247	1,5	10,4	3.908.373	0,4	9,1	1,93
Atzerriko egoiliarrak	1.867.590	5,8	38,7	3.818.696	7,2	42,2	2,04

Iturria: Eustat.

EAEko hotel-sarearen lurralde-bilakaerak emaitza desberdinak erakusten ditu. Bizkaiak Gipuzkoak baino urte arteko hazkunde handiagoak izan zituen (+% 7,6 eta +% 6,4, bidaiarietan eta gaualdietan, hurrenez hurren; Gipuzkoan, +% 1,3 bi aldagaietan); Araban, berriz, bidaiarien kopuruak behera egin zuen (-% 2,7), baina gaualdienak gora (+% 1,9). Bizkaiak (1.791.639 bidaiari eta 3.427.735 gaualdi) eta Gipuzkoak (1.593.316 bidaiari eta 3.202.862 gaualdi) EAEko turismo-jardueraren zatirik handiena bildu zuten; Arabaren ekarpena, berriz, txikiagoa izan zen, haren edukierarekin bat etorriz (511.882 bidaiari eta 1.096.472 gaualdi).

Atzerriko turismoak hobekuntzaren eragile nagusia izaten jarraitu zuen. Nabarmena izan zen segmentu horrek Bizkaian izandako urte arteko hazkundea (+% 10,7, bai bidaiarietan, bai gaualdietan); Gipuzkoan txikiagoa izan zen (+% 3,0 eta +% 4,1), eta Araban bidaiarien kopuruak behera egin zuen (-% 2,9), baina gaualdienak gora (+% 6,5). Horren ondorioz,


batez besteko egonaldiak bi eguneko muga gainditu zuen hiru lurraldeetan, eta zertxobait handiagoa izan zen Araban (2,23 egun) Bizkaian (2,00) eta Gipuzkoan (2,05) baino.

2025ean, Estatuko merkatuaren balantzea nazioartekoarena baino dinamismo txikiagokoa izan zen, baina azken horren indarrak konpentsatu egin zuen. Izan ere, Araban (-% 2,6 eta -% 0,2) eta Gipuzkoan (-% 0,5 eta -% 1,9) behera egin zuten aztertutako bi aldagaiek, bidaiariek eta gaualdiek; Bizkaian, berriz, biek izan zuten saldo positiboa (+% 4,9 eta +% 2,5). Hiru lurraldeetan, batez besteko egonaldia nazioarteko turismoarena baino txikiagoa izan zen; Araban bakarrik gainditu zuen bi eguneko muga (2,10), eta ratio horren azpitik geratu zen Gipuzkoan (1,96) eta, batez ere, Bizkaian (1,83).

Azken batean, hotel-jarduerari egindako lurralde-ekarpenak Bizkaiaren (% 46,0 eta % 44,4, bidaiarietan eta gaualdietan, hurrenez hurren) eta Gipuzkoaren (% 40,9 eta % 41,4) pisua erakusten du; bi lurraldeek jardueraren zatirik handiena biltzen dute, eta Arabak osatzen du gainerakoa (% 13,1 eta % 14,2). Hala, aurreko urteetakoaren antzeko egitura ageri da.


Azkenik, merkatuaren araberako segmentazioak zenbait ñabardura erakusten ditu, 2025ean izandako koiunturazko bilakaera gorabehera, bere horretan mantentzen direnak. Hala, Bizkaiak Gipuzkoarekiko alde handiagoa erakusten du Estatuko segmentuaren kuota erlatiboan (% 46,5 eta % 44,2, Bizkaian; % 36,1 eta % 36,9, Gipuzkoan). Nazioarteko turismoaren erakarpenari dagokionez, ordea, Gipuzkoa dago zertxobait aurretik (% 46,0 eta % 46,1), eta Bizkaia oso hurbileko balioetan kokatzen da (% 45,4 eta % 44,5). Argi eta garbi, Arabak pisu handiagoa du Estatuko segmentuan nazioartekoan baino, eta % 10etik beherako ekarpena du bi aldagaietan.

38. grafikoa. Bidaiarien eta gaualdien ekarpena hiru lurralde historikoetan, (%), hotelen sarea 2023, 2024 eta 2025



Iturria: Eustat.


39. grafikoa. Bidaiariak eta gaualdiak, lurraldeen eta merkatu-segmentuen arabera (%), hotelen sarea 2025



Iturria: Eustat.

EAEko hotel-sarearen hileko bilakaerak urtarokotasun-eredu argia erakusten du, Estatuko merkaturako dagoeneko aipatu den bezala eta udan urtarokotasun oso nabarmena duten helmuga-merkatu ia guztietan ohikoa den bezala. 2025ean, abuztuan bildu ziren urteko baliorik handienak, 432.427 bidaiari eta 921.868 gaualdirekin; gaualdiei dagokienez, uztaila kokatu zen ondoren, eta bidaiariei dagokienez, maiatzetik uztailera bitarteko hilabeteak. Apiriletik urrira bitartean, bai bidaiarien sarrerek, bai gaualdiek urteko batez bestekoak gainditu zituzten —hilean 324.736 bidaiari eta 643.922 gaualdi—; horrek berresten du eskaria urteko erdiko hilabeteetan eta turismo-jarduera handieneko aldian kontzentratzen dela.

40. grafikoa. Bidaiari kopuruaren eta gaualdien hileko bilakaera, hoteletan, EAE 2023-2025



Iturria: Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (EUSTAT)

Eskaintza turistikoa

2025ean EAEn 641 establezimendu zeuden, 2024an baino 15 gehiago. Hazkundea Gipuzkoan kontzentratu zen bereziki, 8 establezimendu gehiago izan baitzituen; ondoren Bizkaia (+6) eta Araba (+1) kokatu ziren. Gainera, hotel-sarearen tamainaren hobekuntza hori izar bateko eta biko establezimenduen eta pentsioen bultzadari zor zaio; horiek bereganatu zuten hazkundearen zatirik handiena, eta EAEko hotel-sarearen % 75,4 osatzen dute.

Eskainitako plazei dagokienez, EAEn 13,3 mila plaza inguru izan ziren guztira, 2024an baino % 2,5 gehiago. Eskaintzaren zatirik handiena Bizkaiak (% 45,0) eta Gipuzkoak (% 40,1) bildu zuten, eta Arabak osatu zuen gainerakoa (% 14,9). Bilakaerari dagokionez, urte arteko hazkundea handiagoa izan zen Bizkaian (+% 3,0) eta Gipuzkoan (+% 2,5) Araban baino (+% 1,2). Era berean, EAE osoan, hobekuntza handiagoa izan zen hiru izarreko eta gehiagoko segmentuan (+% 2,9), zeina, aldi berean, pisu handiena duen segmentua baita (% 62,0), kategoria txikiagoko segmentuan baino (+% 1,9).

214. koadroa. EAEko eta lurralde historikoetako hotel-eskaintza

Kontzeptua	Establezimenduak* (kop.)				Eskainitako plazak** (milaka)			
	2024	2025	%	Aldea Kop. 25-24	2024	2025	%	% Δ 25/24
Araba	74	75	100,0	1	1.953	1.976	100,0	1,2
-Hiru izar edo gehiago	20	21	28,0	1	933	949	48,0	1,7
-Izar bat edo bi eta pentsioak	54	54	72,0	0	1.020	1.027	52,0	0,7
Bizkaia	236	242	100,0	6	5.786	5.960	100,0	3,0
-Hiru izar edo gehiago	64	65	26,9	1	3.936	4.046	67,9	2,8
-Izar bat edo bi eta pentsioak	172	178	73,6	6	1.851	1.914	32,1	3,4
Gipuzkoa	316	324	100,0	8	5.179	5.310	100,0	2,5
-Hiru izar edo gehiago	71	72	22,2	1	3.106	3.211	60,5	3,4
-Izar bat edo bi eta pentsioak	245	254	78,4	9	2.073	2.099	39,5	1,2
EAE	626	641	100,0	15	12.919	13.246	100,0	2,5
-Hiru izar edo gehiago	155	158	24,6	3	7.975	8.206	62,0	2,9
-Izar bat edo bi eta pentsioak	471	486	75,4	15	4.944	5.040	38,0	1,9

Oharra: Batura batzuetan alde txikiak daude. Eustatek argitaratutako datua mantendu da.
(*): Hotel-establezimenduen urteko totala bat dator hautatutako urtean gutxienez egun batez irekita egon diren establezimenduen kopuruarekin.
(**): Eskainitako plaza kopurua, guztira.
Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Beraz, EAEko hotel-eskaintzaren osaera, establezimendu kopuruari dagokionez, argi eta garbi kategoria txikiagora lerratuta dago; eskainitako plaza gehienak, berriz, kategoria handiagoko establezimenduek biltzen dituzte. Eredu hori oso nabarmena da Bizkaian, non kategoria handiagoko establezimenduek plazen % 67,9 biltzen duten (establezimenduen % 26,9), baita Gipuzkoan ere (% 60,5 eta % 22,2, hurrenez hurren); Araban, ordea, ez da

LABORAL kutxa

hala, izar bateko eta biko hotelek eta pentsioek eskainitako plazen erdia baino zertxobait gehiago biltzen baitute (% 52).

215. koadroa. EAEko eta lurralde historikoetako hotelez kanpoko eskaintza (2025)


Kontzeptua	Landa-ostatuak			Apartamentu turistikoak		
	2025	% EAE	Aldea 25-24	2025	% EAE	Aldea 25-24
Araba						
Establezimenduak* (kop.)	103	25,6	2	346	16,7	65
Plazak** (milaka)	368	24,4	-% 3,2	401	19,0	% 5,2
Bizkaia						
Establezimenduak* (kop.)	117	29,0	-1	986	47,6	144
Plazak** (milaka)	430	28,5	-% 0,8	1.029	48,8	% 25,9
Gipuzkoa						
Establezimenduak* (kop.)	183	45,4	-2	741	35,7	23
Plazak** (milaka)	709	47,1	-% 0,7	677	32,1	% 7,8
EAE						
Establezimenduak* (kop.)	403	100,0	-1	2.073	100,0	232
Plazak** (milaka)	1.506	100,0	-% 1,4	2.106	100,0	% 15,3

(*): Hilero irekitako establezimenduak. Urteko batez besteko emaitzak
(**): Urtean eskainitako plaza guztiak, hilabeteko datua gehituta
Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

Hotelez kanpoko eskaintzari dagokionez, eta landa-ostatuekin hasita, aldaketa txikiak antzematen dira 2024ko datuekin alderatuta. EAEk 403 establezimendu ditu, aurreko ekitaldian baino bat gutxiago, eta 1.506 mila plaza eskaintzen dituzte (-% 1,4). Eskaintza hori Gipuzkoan dago oso kontzentratuta, establezimenduen % 45,4 eta plazen % 47,1 biltzen baititu; Bizkaiak eta Arabak, berriz, landa-ostatuen eskaintza osatzen dute, bi adierazleetan oso antzeko ekarpenekin.

Apartamentu turistikoek, bestalde, dinamismo handiagoa erakutsi zuten, eta 2025ean 2.073 establezimendura (+% 12,6) eta 2.106 mila plazara (+% 15,3) iritsi ziren. Bizkaia ostatu-modalitate horren eskaintzan ekarpen handiena duen lurralde gisa sendotu da, establezimenduen % 47,6 eta plazen % 48,8 biltzen baititu, Gipuzkoaren (% 35,7 eta % 32,1) eta Arabaren (% 16,7 eta % 19,0) aurretik. Bilakaerarik nabarmenena izan zuen lurraldea ere Bizkaia izan zen, 2025ean EAEko eskaintza handitu zuten 232 apartamentu turistiko berrietatik 144 bertan kokatu baitziren.

41. grafikoa. Lurralde bakoitzak EAEn eskainitako plazen guztizkoari egindako ekarpena ostatu motaren arabera, 2019an eta 2025ean



Iturria: Eustat.

Lurralde bakoitzak eskaintzaren osaerari egiten dion ekarpenari dagokionez, aldaketa esanguratsuak antzematen dira 2019ko emaitzekin alderatuta. Hotel-saretik hasita, Bizkaiak plazen eskaintzaren buru izaten jarraitzen du, haren pisu erlatiboa % 47,5etik % 45,0ra murriztu bazen ere; Gipuzkoak, berriz, kontrako bilakaera izan zuen, eta % 40,1eko pisua lortu zuen (% 38,5 2019an); Arabak, aldiz, ia balio beretan jarraitu zuen (% 14,0 eta % 14,9).

Apartamentu turistikoei dagokienez, azken sei urteetako bilakaera desberdina izan da. Hala, Gipuzkoak % 32 inguruko pisua sendotu zuen; Arabak, berriz, ia erdira murriztu zuen bere ekarpena (% 34,2 2019an eta % 19 2025ean), eta Bizkaiak nabarmen indartu zuen bere eskaintza, jardueraren ia erdia bereganatu arte (% 48,8, 2019ko % 33,9aren aldean).

Landa-ostatuen eskaintzan, aldiz, lurralde-banaketa ia ez da aldatu: Gipuzkoak lehen postuan jarraitzen du, plazen % 47,1ekin (2019an % 46,7); ondoren Bizkaia dago, % 28,5ekin (2019an % 29,9), eta, azkenik, Araba, % 24,4ko partaidetzarekin (2019an % 23,4).

Hotel-jardueraren azterketa osatzen duten batez besteko egonaldiaren eta okupazio-mailaren adierazleei dagokienez, 2024arekin alderatuta garrantzi txikiko aldaketak antzematen dira, baina egoera desberdinak erakusten dituzte eremu geografikoaren arabera.

LABORAL kutxa

216. koadroa. Hoteletako batez besteko egonaldia eta okupazio maila, zonalde geografikoaren arabera. 2019 eta 2024-2025

Kontzeptua	Batez besteko egonaldia				Okupazio maila; (plazak)			
	2019	2024	2025	Aldea 25-24	2019	2024	2025	Aldea 25-24
Araba	1,89	2,05	2,14	0,09	51,6	55,1	55,5	0,4
Gasteiz	1,98	2,14	2,27	0,13	53,3	56,4	56,6	0,2
Arabar Errioxa	1,60	1,63	1,67	0,04	53,1	51,7	53,5	1,8
Arabako gainerako zonaldeak	1,75	1,82	1,85	0,03	42,2	47,9	49,1	1,2
Bizkaia	1,93	1,93	1,91	-0,02	56,6	55,7	57,5	1,8
Bilbo	1,92	1,96	1,93	-0,03	61,7	61,3	62,5	1,2
Bilboko metropoli-eremua (*)	1,84	1,74	1,79	0,05	50,9	46,9	48,7	1,8
Bizkaiko kosta	2,07	1,95	1,88	-0,07	51,2	46,5	47,6	1,1
Bizkaiko barnealdea	2,14	2,06	2,02	-0,04	44,2	45,2	49,7	4,5
Gipuzkoa	2,03	2,01	2,01	0,00	60,4	61,0	60,3	-0,7
Donostia	2,06	2,07	2,08	0,01	67,3	65,8	65,6	-0,2
Metropoli-eremua Donostia (*)	2,02	1,82	1,85	0,03	47,3	48,3	47,1	-1,2
Gipuzkoako kosta	1,74	1,70	1,71	0,01	60,4	60,9	59,9	-1,0
Gipuzkoako barnealdea	2,57	2,41	2,27	-0,14	45,9	46,8	46,3	-0,5
EAE	1,97	1,98	1,98	0,00	57,4	57,7	58,3	0,6

(*): Hiriburuak ez dira sartzen.
Iturria: Eustat.

2025ean, batez besteko egonaldia handitu egin zen Araban (2,14 egun, ehuneko +0,09 puntu), egonkor mantendu zen Gipuzkoan (2,01 egun) eta zertxobait murriztu zen Bizkaian (1,91 egun, ehuneko -0,02 puntu). Eremu geografikoen arabera, Gasteizek eta Gipuzkoa barnealdeak izan zituzten baliorik handienak (2,27 egun), nahiz eta kontrako bilakaerak izan zituzten (ehuneko +0,13 puntu eta ehuneko -0,14 puntu). Ondoren Donostia (2,08 egun) eta Bizkaia barnealdea (2,02 egun) kokatu ziren; gainerako eremu geografikoak, berriz, batez besteko egonaldiaren bi eguneko mugaren azpitik geratu ziren.

Okupazio-mailari dagokionez, Gipuzkoak uzkurdura txiki bat izan zuen adierazle horretan (% 60,3, ehuneko -0,7 puntu), baina % 60tik gora modu iraunkorrean mantentzen den Lurralde Historiko bakarra izaten jarraitzen du. Horretan, zalantzarik gabe, Donostiak laguntzen du, taldeko emaitzarik onena baitu (% 65,6), nahiz eta zertxobait behera egin zuen (ehuneko -0,2 puntu). Bizkaiak, aldiz, hobera egin zuen okupazio-mailan (% 57,5; ehuneko +1,8 puntu), eta Bilboko balioa nabarmendu zen (% 62,5; ehuneko +1,2 puntu); emaitzarik onena, berriz, Bizkaia barnealdeak izan zuen, % 50eko okupazio-mailara hurbildu baitzen, 2024ko datua nabarmen hobetu ondoren (ehuneko +4,5 puntu). Araban ere okupazio-mailak hobera egin zuen (% 55,5; ehuneko +0,4 puntu), baita lurraldeko gainerako eremu geografikoetan ere; Gasteizek izan zuen emaitzarik onena (% 56,6), baina hazkunderik txikiena (ehuneko +0,2 puntu).

217. koadroa. Eguneko batez besteko tarifa (ADR) EAEko hotel-establezimenduetan, lurralde historikoaren eta kategoriaren arabera, eurotan 2019 eta 2024-2025

Kontzeptua	Hotel-establezimenduak				
	2019	2024	2025	% Δ 25/24	% Δ 25/19
Araba	72,4	85,4	91,1	6,7	25,7
Hiru izar edo gehiago	84,0	106,8	112,1	4,9	33,4
Izar bat edo bi eta pentsioak	52,6	64,8	70,3	8,6	33,7
Bizkaia	85,8	108,0	112,5	4,2	31,1
Hiru izar edo gehiago	97,8	121,8	128,0	5,1	30,9
Izar bat edo bi eta pentsioak	58,6	75,2	76,9	2,2	31,3
Gipuzkoa	109,7	130,6	140,1	7,3	27,7
Hiru izar edo gehiago	134,9	151,0	162,7	7,8	20,6
Izar bat edo bi eta pentsioak	77,1	94,5	100,0	5,9	29,8
EAE	93,4	114,0	120,4	5,6	28,8
Hiru izar edo gehiago	108,9	131,9	140,0	6,1	28,5
Izar bat edo bi eta pentsioak	66,5	81,1	84,9	4,7	27,8


Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta.

EAEko hotelen Eguneko Batez Besteko Tarifa, bestalde, 120,4 eurora iritsi zen 2025ean, 2024arekin alderatuta % 5,6ko hazkundea eta 2019arekin alderatuta % 28,8ko hazkunde handia izan ondoren. Gipuzkoak tarifa altuenak izaten jarraitzen du, batez beste 140,1 eurokoak; ondoren Bizkaia dago (112,5 euro), eta Araba, berriz, ez da batez beste 100 euroko mugara iristen (91,1 euro). Hazkundea orokorra izan zen lurralde eta kategoria guztietan, baina handiagoa izan zen Gipuzkoan (+% 7,3) eta Araban (+% 6,7) Bizkaian baino (+% 4,2).

Kategorien arabera, EAEn hiru izarreko eta gehiagoko establezimenduen tarifa 140 eurokoa izan zen; izar bateko eta biko hotelena eta pentsioena, berriz, 84,9 eurokoa. Bi kategorien arteko aldea bereziki nabarmena da Gipuzkoan: kategoria handiagoko establezimenduen tarifa 162,7 eurokoa da, eta kategoria txikiagokoena, 100,0 eurokoa. Hala ere, gehien hazi ziren tarifak muturreko balioetan kokatu ziren. Hain zuzen ere, Araban kategoria txikiagoko tarifa (70,3 euro) eta Gipuzkoan kategoria handiagokoa (162,7 euro) izan ziren, urte arteko +% 8,6ko eta +% 7,8ko aldaketekin, hurrenez hurren.

LABORAL kutxa

42. grafikoa. Hoteletako ostatuaren batez besteko tarifa eta eremu geografikoa, 2015-2019-2025



Iturria: Eustat.

Azkenik, hazkunde orokorreko testuinguru batean, Arabako Errioxako datua nabarmendu zen, 2025ean grafikoko baliorik handiena lortu baitzuen, 213,3 eurorekin, orain arte erreferentziarik altuena izan den Donostiaren aurretik (168,6 euro). Beste muturrean, metropoli-eremuek eta barnealdeko eremuek tarifa merkeagoak dituzte; 2025ean, Donostiako metropoli-eremuak izan zuen batez besteko tarifarik txikiena (76,2 euro).



6.FINANTZA SEKTOREA


LABORAL kutxa

1. IKUSPEGI OROKORRA

2025ean, Trumpen Administrazioaren eraginez hasiera nahasia izan arren eta muga-zergen esparrua alde bakarrez lehertu arren –beste faktore disruptibo batzuen artean–, urtean zehar egoera lasaituz joan zen eta azkenean hazkunde ekonomikoa esperotakoa baino hobea izan zen, batez ere, enpleguaren balio maximoengatik. Inflazioaren beherakada iraunkorra izan zen urte osoan zehar, nahiz eta espero baino motelagoa izan. Horrek Europako Banku Zentralaren diru-politika lasaitzea justifikatu zuen. Horrela, 2025a amaitzean (abenduaren 18an), gordailuen erraztasunari, birfinantzaketa-eragiketa nagusiei eta kreditu-erraztasun marjinalari aplikatutako interes-tasak % 2,00, % 2,15 eta % 2,40koak izan ziren, hurrenez hurren.

Erreferentzia horiek 2026ko lehen hiruhilekora arte[1] mantendu dira, epe ertainera begira inflazioa % 2ko mailan egonkortu dadin bermatzeko. Hala ere, *"Ekialde Hurbileko gerrak goranzko arriskuak ekarri ditu inflazioarentzat eta beheranzkoak hazkunde ekonomikoarentzat; ondorioz, aurreikuspenak askoz ere ziurgabeagoak dira. Gerrak inpaktu handia izango luke epe laburreko inflazioan, energiaren prezioen gorakadaren eraginez. Epe ertaineko inplikazioak gerraren intentsitatearen eta iraupenaren araberakoak izango dira, baita energiaren prezioen igoerak kontsumoko prezioetan eta ekonomian izango duen eraginaren araberakoak ere".*

43. grafikoa. Kanbio-tasa: Euroa versus Dolarra*



(*): Eguneko datuen hileko batezbestekoa.
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Era berean, Erreserba Federalak (Fed) oinarrizko 25 puntuko hiru beherakada aplikatu zituen (2025eko irailaren 18an, urriaren 10ean eta abenduaren 11n), baina % 3,75 eta % 3,50 arteko interes-tasekin hasi du 2026a[2], Irango Gerrak eragindako ziurgabetasun

[1] 2026ko martxoaren 16a, Europako Banku Zentralaren bilera. Inflazioaren % 2,7ko pronostikoa egin zuten, Irango gerrak energiaren prezioetan izandako inpaktua aintzat hartuta.
[2] 2026ko martxoaren 18ko Feden bilera; inflazioa % 2,7koa izango zela aurreikusi zuten.

geroz eta handiagoari erantzunez[1]. Ahalmen ekonomikoaren eta ordainsariaren (erreferentziazko tasa) arteko desberdintasuna Estatu Batuetako ekonomiaren aldekoa izan zen 2025ean, Europakoaren kalterako. Horrek azaltzen du euroaren/dolarraren arteko parekotasunean izan zen apurketa urtarrilean (1,03) eta abenduan (1,18) erregistratutako balio minimoen eta maximoen artean; izatez, urteko batezbestekoa (1,13) urrun gelditu zen 2022 eta 2024 artean lortutako zifratik (1,07 hiru urteko batezbestekoa), eta 2015 eta 2021 arteko emaitzaren antzekoa lortu zuen (1,14 zazpi urteko batezbestekoa).

Erantsitako koadroak erakusten du burtsako indize nagusiek balio-igoera handia izan zutela, Ibex-35ak baitik bat (+% 49,3), gehiengo historikoarekin itxi baitzuen urtea (17.307,8 puntu) eta ordura arteko erregistrorik onenak gainditu baitzituen[2]. Ziurgabetasun-maila altuak baldintzatu zuen Ibexaren finkapen hori. Halaber, adierazgarria da Dax-Xetrak (+% 23,0), FTSE 100ek (% 21,5), Nikkeik (+% 26,2) eta Nasdaq Compositek[3] (+% 20,4) erregistratutako % 20tik gorako balio-igoera. CAC-40 (% 10,4), Dow Jones (% 13,0) eta Eurostoxx 50 (+% 18,3) ratio horren azpitik geratu ziren. Urtearen hasiera ez da erraza izan eta martxoko itxierek erakusten dute galera orokorrak izan direla emaitzetan (oraingoz) 2025 amaierako balioekin alderatuta.

218. koadroa. Burtsa-indize nagusien bilakaera

(puntuak)

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (París)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FTSE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2023	10.102,1	7.543,2	16.751,6	7.733,2	37.689,5	33.464,2	4.521,7	15.011,4
2024	11.595,0	7.380,7	19.909,4	8.173,0	42.544,2	39.894,5	4.896,0	19.310,8
2025	17.307,8	8.149,5	24.490,4	9.931,4	48.063,3	50.339,5	5.791,4	23.242,0
2026ko martxoa	17.049,6	7.816,9	22.680,0	10.176,5	46.341,5	51.063,7	5.569,7	21.590,6
Urte batetik besterako aldakuntza (%)								
2023	*22,8*	*16,5*	*20,3*	*3,8*	*13,7*	*28,2*	*19,2*	*43,4*
2024	*14,8*	*-2,2*	*18,9*	*5,7*	*12,9*	*19,2*	*8,3*	*28,6*
2025	*49,3*	*10,4*	*23,0*	*21,5*	*13,0*	*26,2*	*18,3*	*20,4*

Oharra: Urte bakoitzeko azken egunean.
Iturria: Espainiako Burtsak eta Merkatuak (BME)

Indarrean dagoen egiturari dagokionez, Estatuko kreditu-erakundeen kopurua mantendu egin zen[4]. 2025ean, 219 erakunde egon ziren aktibo, eta horien barrua, gordailu-erakundeak egonkor mantendu ziren eta EFC/ECAOL taldeak bi erakunde galdu zituen. Era berean, bulegoen sareak (aurrez aurreko arreta) behera egiten jarraitu zuen, finantza-erakundeek harreman digitalaren aldeko apustua egiten baitute orokorrean. Hala ere, aldi berean, irekiera eta arreta tarte pertsonalizatua sustatzen dute, inklusibitatea

[1] Erreserba Federalak % 4,25ean mantendu zituen interes-tasak, inflazio-aurreikuspenak (okerrenak) eta Estatu Batuetako ekonomiako (balizko) enplegu-narriaduraren aurreikuspenak aintzat hartuta (2025eko maiatzaren 7a).
[2] 2007ko azaroaren 8ko errekor historikoa (15.945,7 puntu); otsailaren 26an 18.496,6 puntura iritsi zen, baina 2026ko martxoaren 31n 17.049,6 puntutan geratu zen.
[3] NVIDIA, Tesla, Apple, Alphabet, Amazon, Microsoft eta Metak baldintzatua, botere oso handia baitzuten merkatu globalean; zehazki. AAren gaineko aurreikuspena izan zen kotizazioen sustapen-faktorea.
[4] Aldaketa gutxi aurreikusten dira, BBVAk Sabadellen gainean egindako EEPk ez baitu aurrera jarraitu.

LABORAL kutxa

bermatzeko banku-zerbitzuen irisgarritasunean[1]. Hala, EAEn, Nafarroan eta Estatuan beherakada izan zuen sareak 2025ean (-% 1,0, -% 1,2 eta -% 1,6, hurrenez hurren) eta kutxazainek[2] berriro ere, eta galera hori ez zen konpentsatu salmenta-puntuetako terminalen sarearen hazkundearekin.

Hala ere, aurrez aurreko sarea (bulegoak eta kutxazainak) birdimentsionatuz eta egokituz joan ahala, finantza-jarduerekin lotutako enplegua suspertuz joan zen pixkanaka, 2020an erregistratutako balio minimoaren ostean[3]. Hala, 2025ean gora egin zuen berriro finantza-jardueren afiliazioak EAEn (+% 2,9), Nafarroan (+% 3,7) eta Estatuan (+% 2,5), eta, ondorioz, enpleguak hobera egin zuen bosgarren ekitaldiz jarraian.

219. koadroa. Kreditu-erakundeak eta EFC

(erakunde kopurua)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Erakunde kopurua. Guztira	228	227	223	221	219
Gordailu-erakundeak	194	190	185	184	184
Espainiako gordailu-entitateak	110	110	109	108	105
EFC/ECAOL	33	34	35	34	32

Oharra: guztizkoarekiko aldea Kreditu Erakunde Ofizialei eta ESIS sistemikoei dagokie.
Iturria: Espainiako Bankua.

220. koadroa. Gordailu-erakundeak. Bulego kopurua

	Kopurua			2025, hauekiko: (%)		
	2023	2024	2025	2024	2019	2008
EAE	971	961	951	-1,0	-22	-52,2
Nafarroa	403	402	397	-1,2	-13,5	-44,6
Espainia	17.603	17.379	17.109	-1,6	-28,3	-62,5

Iturria: Espainiako Bankua.

221. koadroa. Afiliazioa(1) finantza-jardueretan

(afiliatu kopurua)

Urtea	Finantza- eta aseguru-jarduerak			Finantza-jarduerak(2)		
	EAE	Nafarroa	Espainia	EAE	Nafarroa	Espainia
2023	12.771	3.282	320.826	8.079	2.242	194.768
2024	13.150	3.365	327.836	8.467	2.287	199.736
2025	13.447	3.454	335.786	8.713	2.372	204.741
2025/2024; %	*2,3*	*2,6*	*2,4*	*2,9*	*3,7*	*2,5*

(1): Urte bakoitzeko abenduaren 31n. Erregimen orokorra
(2): Aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik
Iturria: Gizarte Segurantza.

[1] 2025eko ekainaren 28tik aurrera derrigorrez bete beharreko araudia (European Accessibility ACT).
[2] Espainian 37.100 kutxazain daude (urte arteko tasa: -% 0,9), 4,62 milioi salmenta-puntuko terminal (urte arteko tasa: +% 7,40) eta 119 milioi ordainketa-txartel (urte arteko tasa: +% 11,6) Ordaintzeko bitartekoen gaineko estatistika, 2025eko lehenengo seihilekoa. Espainiako Bankua (2026ko urtarrilaren 30a).
[3] 2009an erregistratutako gehiengo historikoari dagokionez (serie alderagarria, CNAE-09), 18.325, 4.495 eta 387.694 afiliaturekin EAEn, Nafarroan eta Espainian, hurrenez hurren.

2. KREDITU-ERAKUNDEAK

2.1 KREDITUAREN BILAKAERA

Kredituaren bilakaera Estatuan

2025 amaieran, Estatuko kreditu-erakundeen aktiboa 3.222.826 milioi eurokoa izan zen, eta kreditu horren urte arteko hobekuntza (+% 5,2) azken hamarkadako altuena izan zen. Horrela, eta bigarren urtez jarraian, 3 bilioi euroko muga gainditu zen, eta kopuru hori ez zen lortu 2012-2013 biurtekotik (3.422.611 M € eta 3.025.756 M €, hurrenez hurren).

Osagai guztiek lagundu zuten aktiboaren urtetik urterako saldoa areagotzen. Kreditu-saldoaren bilakaera positiboa (+% 4,9) nabarmendu zen bereziki, partida nagusi gisa finkatu baitzen (guztiaren % 68,4) bi bilioi euroak gaindituta. Horrez gain, ekintzek eta parte-hartzeek (+% 3,9) eta balio desberdinek (+% 15,5) hobera egin zuten, 261.552 eta 477.669 milioi euroko saldoekin (guztizkoaren % 8,1 eta % 14,8, hurrenez hurren). Zifra horiek arindu egin zuten sektorizatu gabeko aktiboetan erregistratutako beherakada (-% 5,8), 277.659 milioi eurokoa izan baitzen (guztizkoaren % 8,6).

222. koadroa. Kreditu-erakundeen aktiboaren osaera

(M euro)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Guztira	2.937.622	2.929.279	2.967.128	3.062.986	3.222.826
Kredituak	2.101.592	2.012.799	2.058.594	2.103.071	2.205.946
Akzioak eta partaidetzak ez diren balioak	315.637	365.811	372.205	413.389	477.669
Akzioak eta partaidetzak	242.290	235.027	246.379	251.673	261.552
Sektorizatu gabeko aktiboak	278.104	315.642	289.950	294.853	277.659

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kreditu-saldoaren erdia baino apur bat gehiago (% 55,7; ehuneko -0,7 puntu) beste sektore egoiliar batzuena izan zen[1] (sektore pribatua; enpresak eta familiak), eta laurden bat beste sektore ez egoiliar batzuena (% 27,9, ehuneko +2,0 puntu). Bi kasuetan, urte arteko jarduna positiboa izan zen (+% 3,6 eta +% 12,9, hurrenez hurren). Halaber, Administrazio Publikoen kreditu-saldoak gora egin zuen (% 10,7), nahiz eta ekarpen osoa askoz ere txikiagoa izan (% 3,9). Azkenik, hiru linea horiek konpentsatu egin zuten sistemaren kreditu-saldo propioan izandako beherakada (-% 6,1), kreditu-saldo osoan zuen pisu erlatiboaren beheranzko joerari eutsi baitzion (% 12,6; ehuneko -1,5 puntu). Laburtuz, 2025ean, kreditu-saldo bizia areagotu egin zen bosgarren urtez jarraian, 2 bilioi euroak gaindituta. Hala, azken biurtekoan izandako erregistroak hobetu ziren, ekonomiako eta enpleguko

[1] Barne hartzen ditu finantza-erakunde ez-monetarioak, aseguruen eta pentsio-funtsen enpresak, finantzarioak ez diren erakundeak eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

LABORAL kutxa

dinamismoak eta finantzaketaren irisgarritasunaren hobekuntzak (interes-tasen jaitsiera) sustatuta.

223. koadroa. Kreditu-erakundeak. Kreditua agenteen arabera

(M euro)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Guztira	2.101.592	2.012.799	2.058.594	2.103.071	2.205.946
Kreditu-sistema	452.347	319.260	337.538	296.255	278.137
Administrazio Publikoak	81.491	81.978	78.998	76.930	85.156
Beste sektore egoiliar batzuk	1.223.700	1.219.477	1.181.269	1.185.262	1.227.786
Beste ez-egoiliar batzuk	344.053	392.083	460.788	544.624	614.867

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kredituaren jomuga Estatuan

Aipatu dugun moduan, beste sektore egoiliar batzuen (sektore pribatua; enpresak eta familiak) kreditu-saldo biziak hobera egin zuen bigarren urtez jarraian (+% 0,3 eta % 3,6 urte arteko tasan 2024 eta 2025 amaieran, hurrenez hurren), eta joera-aldaketa baten bilakaera gisa interpretatu daiteke hori, aurreko hirurtekoan erregistratutako beheranzko profila (-% 0,1, -% 0,3 eta -% 3,1 2021ean, 2022an, eta 2023an) eten baitzen, eta hala, amaiera eman zitzaion 2009az geroztik izandako desapalankamendu finantzarioaren prebalentziaren etapari.

224. koadroa. Kreditu-erakundeak. Kredituak, motaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Guztira	1.223.700	1.219.477	1.181.269	1.185.262	1.227.786
Merkataritza-kreditua	47.169	55.056	51.733	50.246	52.238
Eperako beste zordun batzuk	1.070.780	1.066.951	1.032.228	1.037.221	1.084.091
Beste mailegu batzuk	105.750	97.470	97.308	97.795	91.457

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Horri dagokionez, urteko emaitzak erreferentziazko interes-tasetan (BCE) izandako beherakadaren inpaktu metatua berretsi zuen, eta hala, operazio berriak baldintza onuragarriagoetan[1] sinatzea eta egiturazko faktoreak hobetzea ahalbidetu zuen. Besteak beste, enpresen eta familien dinamismo inbertitzailea, balantzeen saneamendua eta berankortasun baxua nabarmendu ziren. Kreditu pribatuaren hobekuntza hori (+% 3,6) eperako beste zordun batzuen partidan eta merkataritza-kredituan oinarritzen da (+% 4,5 eta +% 4,0, hurrenez hurren), eta beste mailegu batzuen saldo biziaren murrizketa (-% 6,5)

[1] 2023ko irailean erregistratutako erreferentziazko (kredituaren erraztasuna) interes-tasa maximoak (% 4,50) izan zirenetik, jarraian beheranzko profila izan zen 2024an (% 3,15 abenduan) eta 2025ean (% 2,40 apirilean); horiek ez ziren aldatu urteko gainerako hilabeteetan.

konpentsatzen dute. Hortaz, 2025eko emaitzek erakusten dute 2009az geroztik indarrean zegoen desapalankamenduaren joera aldatu egin zela, eta operazio berrien ekarpenak pisua irabazi zuela. Agerikoa izan zen hori epekako beste zordun batzuen (hipotekak) ibilbidean.

Gordailuko erakundeei atxikitako 2025eko kreditu-saldo biziaren igoerak (+% 3,7) segmentu ia guztien dinamismoa baieztatzen du[1]; urte arteko zifrak hobetu egin ziren jarduera produktiboei eta etxebizitzak erosi eta birgaitzeari bideratutako kredituan (+% 2,9 eta +% 3,7, hurrenez hurren), kontsumo-kredituaren igoera handiarekin batera (+% 16,4). Horiek guztiek, elkarrekin, nabarmen konpentsatu zuten beste kreditu batzuen geldialdia (-% 0,1).


225. koadroa. Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Guztira	1.173.435	1.166.763	1.126.785	1.130.821	1.173.173
Ekoizpen-jarduerak	550.342	542.154	514.953	517.471	532.488
Etxebizitzak erostea eta birgaitzea	500.045	499.417	484.126	486.364	504.559
Kontsumo iraunkorreko ondasunak	49.688	49.545	52.564	56.316	65.527
Beste kreditu batzuk	73.360	75.647	75.142	70.671	70.599

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

44. grafikoa. Gordailu-erakundeak. Kreditua, jomugaren arabera. Beste sektore egoiliar batzuk



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kreditu-saldo biziaren zatirik handiena jarduera produktiboen (% 45,4) eta etxebizitzak erosi eta birgaitzearen (% 43,0) artean banatzen da. Hori kontsumo iraunkorreko ondasunei (% 5,6) edo beste helburu batzuei (% 6,0) zuzendutako kredituarekin osatzen

[1] Maileguak emateko irizpideek egonkor jarraitu zuten eta eskaria modu orokortuan areagotu zen (Bankuko maileguen inkesta, 2024ko laugarren lauhilekoa, Espainiako bankua) https://www.bde.es/f/webbe/GAP/Secciones/SalaPrensa/NotasInformativas/25/presbe2025-07.pdf


da. Perspektibaz ikusita, helmugaren araberako kreditu-merkatuaren banaketak egitura nahiko egonkorra izan zuen, eta familiei esleitutako kredituaren (ehuneko +1,4 puntu) eta etxebizitzen erosketa eta birgaitze-lanen (ehuneko +0,4 puntu) hobekuntza erlatiboa nabarmendu ziren, ekoizpen-jarduerekin alderatuta (ehuneko -1,5 puntu).

Kredituaren bilakaera EAEn eta Nafarroan

2025ean, Euskal Herriko kreditu-saldoak urte arteko hazkunde handia izan zuen (+% 2,8), baina Estatuan erregistratutakoa baino txikiagoa (+% 4,2) izan zen. Hala, Euskal Herrikoa izan zen kreditu-saldo bizi osoaren % 6,7, eta, beraz, pisua galdu zuen 2019an lortutako balio maximoarekin (% 7,1) alderatuta. EAEn erregistratutako eboluzio positiboaren (+% 3,4) emaitza izan zen hori, Nafarroan hobekuntza ahulagoa izan baitzen (+% 0,5). Zehazki, Bizkaian (% 4,3), izandako urte arteko hobekuntza nabarmendu zen, Gipuzkoakoarekin (+% 2,5) eta batez ere Arabakoarekin (+% 0,4) alderatuta. Bilakaera horrek Bizkaiak EAEko kreditu biziari egindako ekarpena[1] indartu zuen (% 60,1; ehuneko +0,5 puntu), Gipuzkoak egindakoa okerrera joan zen (% 29,0; ehuneko -0,2 puntu), baita Arabakoa ere (% 10,9: ehuneko -0,3 puntu).

45. grafikoa. Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuei emandako kredituaren bilakaera

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Kreditu-saldo biziaren bilakaerak barne hartzen du administrazio publikoen eta beste sektore egoiliar batzuen (BSE) segmentuen jarduera. Azken horrek biltzen du eragiketaren zatirik handiena (guztizkoaren % 90 inguru) aintzat hartutako geografia-eremu guztietan.

[1] Kontuz: ezin da zuzenean lurralde bakoitzeko agenteek emandako kreditu gisa hartu. Izan ere, entitateek lurralde bakoitzari egindako esleipenean oinarritzen da (bulegoen finkapenaren eta jardueraren araberakoa). Egoitzarekin lotura duten faktoreek ere eragina dute. Kredituaren lurraldekako banaketa honetan badirudi Bizkaiak neurriz kanpoko ordezkaritza zuela, EAEko BPGari (2024) egiten dion lurralde-ekarpena kontuan izanda (% 50,6); izan ere, Gipuzkoaren (% 33,4) eta Arabaren (% 16,0), ekarpenak txikiagoak ziren. Hala, Bizkaiak pisu handiagoa zuen BPGan, kredituan baino.

2025 amaieran, beste sektore egoiliar batzuei esleitutako kreditu-saldo bizia hazi egin zen Euskal Herrian (+% 2,9), EAEko emaitza dela-eta (+% 3,4) —eta hiru lurralde historikoetakoa; +% 1,7, +% 4,6 eta +% 1,8 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat—. Bestalde, Nafarroan kreditu pribatuaren hobekuntza ez zen hain ona izan (+% 0,9). Hala ere, Estatuan erregistratutako eboluzioak gainditu zuen dinamismo hori (+% 3,7).

Euskal Herriak Estatuko kreditu pribatu osoan egindako ekarpena % 6,3 izan zen, kreditu-jarduera osoa baino pixka bat txikiagoa da ratio hori (% 6,7). Kreditu pribatuaren egituran, berriz, EAEk pisua hartu zuen (% 79,3; ehuneko +0,4 puntu) eta jaitsiera izan zuen, berriz, Nafarroak (% 20,7; ehuneko -0,4 puntu). Beste sektore egoiliar batzuen kreditu-saldo biziaren EAEko lurralde-banaketa (% 11,3, % 57,5, % 31,2, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat) bat dator beste adierazle batzuekin, esaterako, biztanleriarekin edo PBGarekin.

226. koadroa. Gordailu-erakundeak. Kreditua, agenteen eta lurraldearen arabera

(M euro)

Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2023	791	6.649	7.440
	2024	808	6.535	7.343
	2025	723	6.647	7.370
Bizkaia	2023	6.757	32.397	39.154
	2024	6.574	32.341	38.915
	2025	6.770	33.833	40.603
Gipuzkoa	2023	1.260	18.611	19.871
	2024	1.053	18.023	19.077
	2025	1.200	18.353	19.553
EAE	2023	8.809	57.657	66.465
	2024	8.435	56.900	65.335
	2025	8.693	58.833	67.526
Nafarroa	2023	820	15.009	15.829
	2024	791	15.235	16.026
	2025	741	15.372	16.113
Euskal Herria	2023	9.628	72.666	82.294
	2024	9.227	72.134	81.361
	2025	9.434	74.205	83.639
Espainia	2023	75.167	1.126.785	1.201.952
	2024	73.820	1.130.821	1.204.641
	2025	82.368	1.173.173	1.255.541

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Administrazio Publikoei atxikitako saldo biziak ekitaldiko hobekuntza-profila partekatu zuen, nahiz eta Euskal Herrian erregistratutako urte arteko gorakada (+% 2,2) Estatu osoan erregistratutakoa (+% 11,6) baino askoz ere txikiagoa izan. Hala, Euskal Herriko Administrazio Publikoen kreditu-saldoaren pisu erlatiboa finkatu egin zen (% 11,3) eta ratioak Estatu osoko pisua bikoiztu zuen ia (% 6,6). Euskal Herriko konposizioan arreta jarriz gero, EAEn urte arteko hobekuntza erregistratu zen (+% 3,1) eta Nafarroan izandako beherakada konpentsatu zuen (-% 6,3). Halaber, Lurralde Historikoen araberako xehetasunak berretsi egiten du sektore publikoaren kredituak Araban izandako beherakada handia (-% 10,5), Bizkaian izandako hazkundearen aldean (+% 3,0), eta, batez

LABORAL kutxa

ere, Gipuzkoan erregistratutako hazkunde handiaren aldean (+% 13,9). Azkenik, banaketa orekatuagoa duten beste kreditu-figura batzuekin alderatuta, EAEri esleitutako Administrazio Publikoen kredituaren zati garrantzitsu bat Bizkaian kontzentratu zen (% 77,9), Gipuzkoarekin (% 13,8) eta Arabarekin (% 8,3) alderatuta.

Beste adierazle batzuk: hipoteken eraketa eta ibilgailuen matrikulazioa

2025ean, higiezinen merkatuaren suspertzea berretsi zen, etxebizitzen gaineko hipoteka berriek gorakada nabarmena izan baitzuten EAEn (+% 22,4), Nafarroan (+% 5,7) eta Estatuan (+% 17,7). 2025ean sinatutako hipoteka berrien bolumenak (25.482, 5.868 eta 500.905, EAEn, Nafarroan eta Estatuan) agerian utzi zuen hobekuntza argia izan zela, eskari kaudimendunak eta finantzaketa-kostuen beherakadak sustatuta. Hala eta guztiz ere, oraindik ez zen 2006ko balio maximoetara iritsi (43.328, 13.292 eta 1.342.171).

227. koadroa Etxebizitzen gaineko hipoteka berrien eraketa

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
EAE					
Hipoteka kopurua	21.098	23.076	19.052	20.825	25.482
Zenbatekoa guztira (milioi €)	3.319	3.700	3.033	3.328	4.349
Batez besteko zenbatekoa (€)	*157.304*	*160.328*	*159.176*	*159.813*	*170.671*
Nafarroa					
Hipoteka kopurua	5.190	5.219	4.555	5.553	5.868
Zenbatekoa guztira (milioi €)	640	681	609	710	873
Batez besteko zenbatekoa (€)	*123.380*	*130.508*	*133.714*	*127.932*	*148.688*
Espainia					
Hipoteka kopurua	418.058	464.107	380.966	425.522	500.905
Zenbatekoa guztira (milioi €)	57.493	67.256	54.031	61.854	82.032
Batez besteko zenbatekoa (€)	*137.523*	*144.914*	*141.827*	*145.361*	*163.767*

2025: behin-behineko datuak.
Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.


Interes-tasa finkoarekin edo aldakorrarekin sinatzen diren urteko hipoteken banaketa desberdina izan da urtetik urtera estatu osoan[1], unean uneko agertoki finantzarioak baldintzatuta. 2025ean, erreferentziazko interes-tasak % 2 ingurukoak zirenez, hipoteka finkoak izan ziren nagusi (% 65,0), aurreko bi urteetan zuten pisuarekin alderatuta (% 60,2 eta % 58,8 2023an eta 2024an, hurrenez hurren). Interes aldakorreko hipotekak, berriz, % 35,0 izan ziren.

Sinatutako operazio berrien batez besteko zenbatekoaren hazkundea da hipoteken jardueraren susperraldia islatzen duen adierazlea, eta gorakada nabarmena izan zen EAEn, Nafarroan eta Estatuan urte arteko tasan (+% 30,7, +% 22,8 eta +% 32,6, hurrenez hurren). Batez besteko zenbatekoak altuagoa izaten jarraitzen zuen EAEn (170.671€) Estatuarekin (163.767€) eta Nafarroarekin (148.688€) alderatuta; eta EAEn eta Estatuan erreferentziazko balio maximoak, hau da 2008koak, gainditu zituen (164.406 € eta

[1] Informazio hori ez dago eskuragarri EAEren eta Nafarroaren kasuan, baina bi eremuen egoera islatzen duela uste dugu.

148.865 €, hurrenez hurren). Nafarroa maila ia berean gelditu zen (2008an 149.172 €). Kontuan izan behar da 17 urte behar izan direla 2008an erregistratutako batez besteko zenbatekoaren balio maximora iristeko, 2013 eta 2016 artean erregistratutako balio minimoetatik[1] urrunduz.

46. grafikoa. Euriborraren bilakaera(*) (hamabi hilabetera)



(*): Hilabete bakoitzaren itxierako datua da.
Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.

228. koadroa. Aldaketa notarialak erregistratu dituzten etxebizitzen gaineko hipotekak

(Hipoteka kopurua)

Lurraldea	2021	2022	2023	2024	2025
EAE	3.415	3.374	4.046	4.853	3.054
Nafarroa	1.024	557	457	1.271	1.113
Espainia	207.381	113.050	102.364	122.043	107.826

2025: behin-behineko datuak.
Iturria: Hipoteken Estatistika. EIN. Geuk egina.

Bestalde, aldaketa notarialak erregistratu dituzten hipoteken[2] kopuruak behera egin zuen EAEn, Nafarroan eta Estatuan, 2024an azken hamarkadako zifrarik altuenetako bat izan ostean. 3.054 hipoteka izan ziren EAEn (-% 37,7) eta 1.113 Nafarroan (-% 9,3). Estatuan apenas gainditu ziren 100.000 hipotekak (-% 11,8), eta, kasu horretan, 2021eko hipoteken erdia izan ziren. Hau da, interes-tasen hazkundearen unerik okerrenak pasatu ondoren, hipoteken baldintzak egokitzeko beharra ere murriztu egin zen. Hori guztia dela eta, eta perspektiban aztertuta, ikus daiteke notariotzan egindako aldaketen bolumena handiagoa izan zela azken bosturtekoan (2021-2025) 2019an baino (1.218, 184 eta 39.543,

[1] Balio minimoak Estatuan 2013an (100.011 €) izan ziren; EAEn, 2014an (120.289 €), eta Nafarroan, 2016an (101.449 €), hogeita hamar (2005-2024) urtean balio txikienak bildu dituen laurteko batekin (2013-2016).

[2] Hauei egiten die erreferentzia: nobazioa (hipoteka kontratatu ondoren egiten den eta kontratua berriro negoziatzeko aldeen borondateen akordio berri bat eskatzen duen edozein aldaketa), hartzekodunaren subrogazioa (banketxez aldatzea, eta, beraz, kontratuak baldintza berriak izatea) eta zordunaren subrogazioa (hipotekaren titularra aldatzea, titular berriaren onarpenarekin; kontratuaren baldintzetan aldaketak egon daitezke edo ez). Hauek dira egindako aldaketen alderdi nagusiak: epea, zenbatekoa, erreferentzia mota eta/edo aplikatutako diferentziala.

LABORAL kutxa

hurrenez hurren), normalizatutako urte baten erreferentzia gisa (berriki erregistratutako interes-tasen aldakortasunik gabe).

Azkenik, 2025ean gora egin zuten hipoteken exekuzioek[1] EAEn, Nafarroan eta Estatuan (+% 21,4, +% 14,8 eta +% 22,0, hurrenez hurren). Horrek agerian uzten ditu azken sei urteetan izandako zailtasunak (2020-2025). Izatez, adierazle horrek hazkunde garrantzitsua erregistratu zuen 2019arekin alderatuta, baina oso urrun gelditu zen 2014ko erregistroetatik[2].

229. koadroa. Hipoteka-betearazpena hasita duten etxebizitza partikularrak

(Etxebizitza kopurua)

Lurraldea	2014	2019	2022	2023	2024	2025
EAE	267	72	183	154	196	238
Nafarroa	311	33	75	55	54	62
Espainia	44.939	7.382	14.343	11.369	10.736	13.069

2024: behin-behineko datuak.
Iturria: Hipoteka Betearazpenen Estatistika. EIN. Geuk egina.

Etxebizitzari buruzko informazioa (hipotekak) erositako ibilgailu berriei (matrikulazioak) buruzko informazioarekin osatzen da. 2025ean, 30.011, 7.963 eta 1.148.650 ibilgailu berri matrikulatu ziren EAEn, Nafarroan eta Estatuan, hurrenez hurren, eta urte arteko aldakuntza hobetu zen (+% 16,4, +% 8,8 eta +% 13,0) 2023an eta 2024an erregistratutako emaitza positiboekin bat etorriz. Hala ere, matrikulatutako unitate berrien bolumena oso urrun dago oraindik 2018ko erregistroetatik (41.701, 13.243 eta 1.321.437 unitate, hurrenez hurren).

Bestalde, bigarren eskuko autoen merkatuaren[3] joera ez zen hain dinamikoa izan, saldutako unitateen hazkundea ibilgailu berriena baino txikiagoa izan baitzen (+% 0,8, +% 1,4 eta +% 4,2, EAE, Nafarroa eta Estatua), baina, hala ere, ibilgailu berrien merkatua gainditu zuen saldutako unitateen kasuan (77.985, 32.299 eta 2.218.824 EAEn, Nafarroan eta Estatuan).

230. koadroa. Ibilgailuen matrikulazioaren bilakaera Turismoak

(Unitate kopurua)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
EAE	24.716	21.949	24.409	25.772	30.011
Nafarroa	7.228	6.329	7.173	7.321	7.963
Espainia	859.477	813.376	949.362	1.016.963	1.148.650

Iturria: Anfac. Geuk egina.

[1] Hipoteka baten karga ezarrita duen ondasun higiezin baten salmenta agintzen duen prozedura exekutiboa, zordunak hipotekan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik.
[2] Eskuragarri dagoen lehen urtea, EINek ez du lehenagoko informaziorik argitaratzen. Eskuragarri dauden datuen arabera, 2014an 267 hipoteka-betearazpen hasi zituzten EAEn, 311 Nafarroan eta 44.939 Estatuan.
[3] Iturria: Ganvam

Berankortasunaren bilakaera

Zalantzazko kredituen saldoa 30.951 milioi eurokoa izan zen 2025ean, hortaz, urte arteko beherakada erregistratu zen azken ekitaldian ere (-% 15,4), eta 2013an erregistratutako balio maximoaz geroztik (191.748 milioi euro) izandako beheranzko profila berretsi zen, % 83,9ko beherakada metatuarekin. Kreditu-saldoa areagotu arren (+% 3,8) gertatu zen murrizketa hori; hortaz, zalantzagarrien tasa are gehiago jaitsi[1] zen eta % 2,64an kokatu zen. Azken urteotako ratiorik baxuena da, 2013an lortu zenetik oso urrun (% 13,77). Horrenbestez, erregistratutako kredituaren dinamismoa higiezinen-merkatuarekin egon arren lotuta batik bat eta albiste sektorial jakin batzuei ikusgarritasun handia eman arren (higiezinen prezioen hazkundea), berankortasun-tasak erakusten du oso urrun geundekeela higiezinen arloko burbuilarekin lotutako arriskuetatik.


231. koadroa. Gordailu-erakundeak. Zalantzazkoen edo berankortasunaren guztizko tasaren bilakaera.
Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Urtea	Kreditu zalantzagarriak	Kreditua, guztira	Zalantzagarrien tasa (%)
2021	49.378	1.173.435	4,21
2022	40.276	1.166.763	3,45
2023	38.768	1.126.785	3,44
2024	36.600	1.130.821	3,24
2025	30.951	1.173.235	2,64

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

47. grafikoa. Berankortasunaren bilakaera (zalantzagarrien tasa, %)



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Segmentu guztietan murriztu zen kreditu zalantzagarrien saldoa, batik bat ekoizpen-jardueretan (-% 14,3) eta familietan (-% 16,7), eta rol garrantzitsua izan zuen bi kasuetan

[1] Ordaindu gabeko edo kobrantza zalantzagarriko kredituen ehunekoa, emandako finantzaketa osoari dagokionez.

(17.230 eta 13.563 milioi euro, hurrenez hurren). Gainerako eragileetan erregistratutako beherakadarekin[1] osatu zen joera hori (-% 18,2), pisu marjinala izan arren (158 milioi euro). Segmentu bakoitzaren xehetasunak baieztatzen du zerbitzuen sektoreak zer pisu duen produktiboen artean (11.378 milioi euro; -% 12,6), eta etxebizitzak eskuratu eta birgaitzeak (8.441 milioi euro; -% 21,7) familien kasuan.

Berankortasunaren jaitsiera partekatua den arren, mailan dauden aldeak mantendu egin ziren. Ekoizpen-jardueren segmentuan erregistratutako ratioa (% 3,2) ratio globala baino handiagoa izan zen (% 2,6), eta eraikuntza[2] (% 6,5) eta zerbitzuak, ostalaritza (% 4,4) eta merkataritza eta konponketak (% 5,4) nabarmendu ziren. Familien zalantzagarrien tasa berriz (% 2,1) tasa orokorra baino txikiagoa izan zen, eta desberdintasun handiak izan ziren kategorien artean. Tasak askoz ere baxuagoak ziren etxebizitzen erosketan eta birgaitze-lanetan (% 1,7) beste helburu batzuekin alderatuta (% 4,0, normalean kontsumo-kredituekin lotuta).

232. koadroa. Gordailu-erakundeak. Kreditu zalantzagarria eta berankortasun-tasa, helburuen arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

Kontzeptua	Kreditu zalantzagarria (milioi euro)			Ratio zalantzagarriak (%)		
	2023	2024	2025	2023	2024	2025
Zalantzazkoak guztira	38.768	36.600	30.951	3,4	3,2	2,6
Ekoizpen-jarduerak	21.145	20.116	17.230	4,1	3,9	3,2
Nekazaritza eta arrantza	1.115	1.104	857	5,4	5,5	4,3
Industria	3.973	4.092	3.469	4,0	4,2	3,5
Eraikuntza	1.942	1.908	1.525	8,3	8,1	6,5
Zerbitzuak	14.114	13.011	11.378	3,8	3,5	2,9
Higiezinak	*2.050*	*1.678*	1.318	*3,0*	*2,4*	*1,8*
Finantzak (ez banka)	*283*	*261*	260	*0,4*	*0,4*	*0,4*
Merkataritza eta konponketak	*4.577*	*4.561*	4.145	*5,8*	*5,9*	*5,4*
Garraioa eta biltegiratzea	*1.351*	*1.088*	1.034	*4,2*	*3,5*	*3,4*
Ostalaritza	*1.852*	*1.584*	1.283	*6,5*	*5,8*	*4,4*
Beste zerbitzu batzuk	*4.002*	*3.840*	3.339	*4,0*	*3,5*	*2,8*
Beste helburu batzuk / familiak	17.386	16.291	13.563	2,9	2,7	2,1
Etxebizitzak erostea eta birgaitzea	11.467	10.783	8.441	2,4	2,2	1,7
Beste batzuk	5.919	5.507	5.122	5,1	4,6	4,0
Gainerakoak	237	193	158	1,9	2,5	2,1

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

[1] Hauek barne: familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak, kreditu zalantzagarrien 129 milioi euroko saldoarekin (-% 0,0), eta sailkatu gabeko taldea, 64 milioi eurorekin (-% 41,3).

[2] Sektore honek kalte handia jasan zuen 2008ko krisialdiaren aurreko kreditu-hedapenagatik eta jarduera horren ondorengo gainbeheragatik (aktiboen balio-galera, salmenten beherakada, enpresa-likidazioak, etab.).

2.2 GORDAILUEN BILAKAERA

Estatuko kreditu-erakundeetako gordailuak

2025ean erregistratutako kaudimen ekonomiko-finantzarioaren bilakaera berresten dute lortutako emaitzek, kreditu-erakundeetako gordailuetako saldoak hazkundea izan baitzuen Estatu osoan (+% 8,8). Bilakaera hori hiru etapatan bereizten da: lehenengoan (2020-2021), hazkundea izan zuten gordailuek (2020an +% 11,4 eta 2021ean +% 5,7) bizi izandako paralisiaren eraginez –behartutako aurrezkia–; bigarrenean (2022-2023) geldialdia izan zen (-% 2,5 eta % 0,0) pandemiaren amaieraren eta espiral inflazionistaren hasieraren eraginez; eta, hirugarrenean, 2024 eta 2025 artean, metatutako baliabide finantzarioek hobera egin zuten (2024an +% 3,6 eta 2025ean +% 8,8), hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren hazkundearen (beste faktore batzuen artean), ziurgabetasunaren (aurreikusitako aurrezkia) eta beste aurrezki-figura batzuen konpetentzia eskasaren eraginez.

Estatuko banku-gordailuen saldoa 2,4 bilioi euro ingurukoa zen, 2008an lortutako gehieneko balioa gaindituta; igoera hori familien eta enpresen segmentuan sostengatzen da, 1,59 bilioi euroko saldo historikoarekin[1] (+% 4,6), administrazio publikoek erregistratutako hobekuntzaz gain (+% 16,2) —alderatuz gero, pisu marjinala izanik (162.320 milioi euro)—. Halaber, igoera arina izan zen kreditu-sistemaren saldoan (+% 2,5) eta beste sektore ez-egoiliar batzuetan (+% 23,8). Horiek batera saldo osoaren lauren bat hartu zuten (% 5,5 eta % 21,4, hurrenez hurren).

233. koadroa. Kreditu-erakundeak. Gordailua, eragileen arabera

(M euro)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Guztira	2.177.660	2.122.526	2.122.928	2.198.682	2.392.296
• Kreditu-sistema	409.433	241.691	143.641	127.656	130.829
• Administrazio Publikoak	96.988	96.028	96.545	139.717	162.320
• Beste sektore egoiliar batzuk	1.425.055	1.441.212	1.441.390	1.516.688	1.586.034
• Beste ez-egoiliar batzuk	246.183	343.595	441.352	414.622	513.113

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Familien eta enpresen gordailuetako saldoa igo izanaren (+% 4,6) arrazoia da kontuan hartutako figurek hobekuntza orokortua izan zutela. Ageriko gordailuak nabarmendu ziren batik bat (+% 6,6) eta epekako posizioak murriztu egin ziren (-% 5,0). Gainera, ekitaldi horretan ordainsaria lautu egin zen berriro ere eta beste taldeekin osatu zen[2] (% 3,5 guztizkoaren gainean eta +% 2,9 2025ean).

[1] 2024ko 1,52 bilioi euroko maximoak gainditu ziren.

[2] Barne hartzen ditu aktiboen aldi baterako lagapena (21.263 M€; +% 35,3 urte arteko tasan), finantza-pasibo hibridoak (15.441 M€; +% 2,4), aktiboen transferentziagatik eratutako pasiboak (17.807 M€; -% 6,0), eta mendeko gordailuak (245 M€; +% 5,0).

LABORAL kutxa

234. koadroa. Kreditu-erakundeak. Gordailua, moten arabera. Beste sektore egoiliar batzuk

(M euro)

Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	
Guztira	1.425.055	1.441.212	1.441.390	1.516.688	1.586.034
• Agerikoa edo aurrezkia	1.264.798	1.293.722	1.194.511	1.219.518	1.299.511
• Eperakoa	117.220	109.395	198.269	243.976	231.768
• Beste batzuk	43.037	38.095	48.609	53.194	54.755

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Gordailuen bilakaera EAEn eta Nafarroan

Estatuan jarduten duten gordailu-erakundeei atxikitako gordailuen saldoa[1] 1,7 bilioi eurokoa izan zen (+% 5,8 urte arteko tasan), hau da, serieko erregistrorik handiena. Hobekuntza hori partekatua izan zen, baina Euskal Herrian ez zen hain dinamikoa izan (+% 2,5), EAEn hazkunde txikiagoa erregistratu baitzen (+% 2,0) Nafarroarekin alderatuta (+% 4,4). Gipuzkoan (-% 2,8) eta Araban (-% 1,3) izandako beherakadek eragin zuten egoera hori, Bizkaian dinamismoa erregistratu baitzen (+% 5,8).

235. koadroa. Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen eta Administrazio Publikoen gordailuak.

(M euro)

Lurraldea	Urtea	AP	BSE	GUZTIRA
Araba	2023	2.381	11.482	13.864
	2024	2.100	11.626	13.726
	2025	1.800	11.751	13.550
Bizkaia	2023	6.865	44.591	51.456
	2024	7.526	46.289	53.815
	2025	8.282	48.657	56.939
Gipuzkoa	2023	708	30.270	30.979
	2024	853	31.932	32.785
	2025	567	31.286	31.853
EAE	2023	9.955	86.343	96.298
	2024	10.479	89.847	100.326
	2025	10.649	91.694	102.342
Nafarroa	2023	1.367	20.733	22.099
	2024	1.271	21.677	22.948
	2025	1.449	22.506	23.955
Euskal Herria	2023	11.322	107.076	118.398
	2024	11.750	111.524	123.274
	2025	12.098	114.200	126.297
Espainia	2023	96.123	1.413.514	1.509.637
	2024	139.040	1.488.666	1.627.706
	2025	161.457	1.561.007	1.722.464

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.


[1] Kreditu-erakundeen azpitaldea, bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek osatua.

Euskal Herriko gordailuen saldoa 126.297 milioi eurokoa izan zen, serie historikoko zifrarik altuena −baita EAErentzat eta Nafarroarentzat ere−, eta Estatu osoko gordailu-erakundeetan dauden sektore pribatuko gordailuen % 7,3ko ekarpena egin zuen. Lurraldearen araberako banaketa mantendu egin zen, EAErena izan baitzen ekarpen nagusia (Euskal Herrikoa % 81,0), eta EAE barruko banaketa (% 13,2, % 55,6 eta % 31,2 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat) BPGaren antzekoa izan zen (% 16,0, % 50,7 eta % 33,3, 2025ean), aberastasunaren, eta ondorioz, baliabide finantzarioen adierazle gisa.

Gordailuaren zatirik handiena beste sektore egoiliar batzuei zegokien (familiak eta enpresak), eta saldo osoaren gutxienez % 85 bildu zuen aztertutako eremu bakoitzean. Gainera, grafikoak erakusten du 2025ean gora egin zuela familien eta enpresen gordailuetako saldoak, Gipuzkoan izan ezik, emaitza negatiboa izan baitzuen (-% 2,0). Sektore publikoko gordailuei dagokienez, jaitsi egin zen saldo hori Araban (-% 14,3) eta batez ere Gipuzkoan (-% 33,5), nahiz eta orokorrean goranzko joera erakutsi (+% 3,0 eta +% 16,1 Euskal Herrian eta Estatuan).

48. grafikoa. Gordailu-erakundeak. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak

(Urte arteko aldakuntza-tasa)



Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

Aurrezkiaren beste adierazle batzuk

Estatuko[1] familien[2] aurrezkiarekin lotutako beste adierazle batzuen bilakaera ikus daiteke atxikitako koadroan. Lehenik eta behin, 2025ean, errenta gordin erabilgarria[3] nabarmen hobetu zen (+% 3,6), bigarren urtez jarraian bilioi bat euroren atalasea gainditua; hori bat

[1] Informazio hori ez dago eskuragarri EAEren eta Nafarroaren kasuan, baina bi kasuen egoera islatzen duela uste dugu.

[2] Familiei buruzko eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeei buruzko informazioa hartzen du barne.

[3] Lanetik datozen diru-sarreren batura da, kapitalaren errentak, prestazio sozialak eta transferentziak gehituta, eta hauek kenduta: familiek ordaindutako zerga zuzenak eta gizarte segurantzak ordaindutako kuotak. Errenta gordin gisa eskuratzen da, transferentzia arrunten saldoa gehituta.

dator enpleguaren sustapenarekin (maximo historikoak) eta inflazioaren moderazioarekin. Faktore horiek familien aurrezteko eta kontsumitzeko gaitasuna hobetu zuten. Hala, familien aurrezki-tasa[1] % 12,0koa izan zen; 2020-2021 biurtekokoa baino txikiagoa (% 17,5 eta % 14,2), "behartutako" aurrezkiaren arrazoiengatik, eta 2023an eta 2024an erregistratutako balioen antzekoa (% 12,0 eta % 13,6, hurrenez hurren).

236. koadroa. Familien errenta gordin erabilgarria eta aurrezkia

(M euro)


Kontzeptua	2021	2022	2023	2024	2025
Errenta gordin erabilgarria	811.179	853.864	945.071	1.027.715	1.064.458
Aurrezki gordina	115.395	77.192	113.739	139.917	128.126
Aurrezki-tasa (%)	*14,2*	*9,0*	*12,0*	*13,6*	*12,0*

Iturria: EIN. Espainiako Kontabilitate Nazionala. Kontu ez-finantzarioak. Geuk egina.

Interes-tasaren, kostuaren eta ordainketaren bilakaera

Inflazioa mugatu eta % 2tik gertuko mailan geratu zen. Aldi berean, Europako panoramako jarduera ekonomikoa ere moteldu egin zen (Europako ekonomia nagusietakoa, batez ere). Bi faktore horiek justifikatu zuten Europako Banku Zentralak erreferentziazko interes-tasak murriztea. Estrategia horren inpaktua Euriborraren hamabi hilabeteko bilakaeran ikus daiteke, eta erakusten du 2024an (% 3,274) eta 2025ean (% 2,223) apaldu egin zela Euriborraren urteko hilabeteko batezbestekoa, 2023an (% 3,865) erregistratutako ezohiko gorakadarekin alderatuta, 2008 erdialdetik erregistratutako altuena izan baitzen.

49. grafikoa. Euriborraren bilakaera(*) (hamabi hilabetera)



(*): Hileko datuen batezbestekoa
Iturria: Europako Banku Zentrala. Geuk egina.

Gainera, 2025 amaierako itxieraren datua (% 2,26 abenduan) urteko batezbestekoa baino altuagoa izan zen eta 2024an erregistratutako egoeraren aurkakoa izan zen (% 2,436

[1] Familien aurrezki gordinaren eta errenta gordin erabilgarriaren arteko zatidura.

abenduan). Zifra hori 2025eko lehenengo seihilekoan zehar izandako beheranzko joeraren[1] barruan kokatu zen, eta gorakada txiki bat izan zuen udaren ostean, hazkunde-profil jarraituarekin[2]. Une honetako ziurgabetasuna ikusita, 2026an zehar gora egitea aurreikusten da.

Erantsitako koadroak berresten du 2025ean beheranzko dinamika orokortua izan zela maileguen eta gordailuen operazioetan aplikatutako interes-tasetan, bai familien kasuan, bai sozietate ez-finantzarioen kasuan, ingurune makroekonomiko dinamikoaren barruan (BPGa eta enplegua maximoetan) operazio berrien hazkundea azaltzen duen palanka gako baten moduan. Aurrezki-figuren ordainsaria ere kaltetu zen, interes-tasak 2024an erregistratutakoak baino baxuagoak izan baitziren kasu guztietan. Gainera, ez zen % 2ra iritsi epekako figuretan, familietan (% 1,68) eta sozietate ez-finantzarioetan (% 1,93). Erreferentziazko interes-tasaren bilakaeraren gaineko ziurgabetasuna agerikoa da; izan ere, azken hiru urteetan, epea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa zen ordainsaria.

237. koadroa. Kreditu-erakundeak. Familietarako(2) eta sozietate ez-finantzarioetarako eragiketa berriei aplikatutako interes-tasak (TEDR)(1)

(%)

	2021	2022	2023	2024	2025
FAMILIETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK(2)					
– Etxebizitza(3)	1,38	2,96	3,78	2,90	2,61
– Kontsumoa(3)(4)	6,10	7,13	7,69	6,97	6,54
– Beste helburu batzuk(3)	2,44	4,78	5,66	4,73	4,13
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOETARAKO MAILEGUAK ETA KREDITUAK.					
– Zorpekoak	1,55	2,68	4,79	4,23	3,51
– 250.000 €-ra arteko kredituak(3)	1,69	3,53	5,33	4,11	3,22
– 250.000 eta 1.000.000 € arteko kredituak(3)	1,29	3,36	5,08	3,85	3,12
– 1.000.000 € baino gehiagoko kredituak(3)	1,04	3,26	4,99	4,01	3,35
FAMILIEN GORDAILUAK(2)					
– Agerikoak	0,02	0,04	0,15	0,17	0,14
– Eperakoak(3)	0,06	0,72	2,58	2,10	1,68
• 1 urte arte	0,01	0,51	2,60	2,13	1,70
• 2 baino gehiago	0,03	1,05	1,25	1,96	0,87
SOZIETATE EZ-FINANTZARIOEN GORDAILUAK					
– Agerikoak	0,03	0,11	0,69	0,63	0,42
– Eperakoak(3)	0,45	1,60	3,52	2,73	1,93
• 1 urte arte	0,45	1,60	3,56	2,75	1,93
• 2 baino gehiago	0,55	0,79	0,36	0,79	1,321

(1): TEDR: Definizio mugatuko tasa efektiboa, hau da, komisiorik gabeko UTB.
(2): Familiak eta familien zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
(3): Batez besteko tasa haztatua, produktu desberdinei dagokienez, epearen arabera. Abenduaren 31n.
(4): 2010eko maiatzetik, kreditu-txartelen bidez emandako kreditua ere sartzen da.
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina. Geuk egina.

[1] Eta behera egiten jarraitu zuen 2025eko maiatzera, ekainera eta uztailera arte (% 2,081, hiru hilabeteetako itxiera-datua).
[2] Igoera-profilarekin, 2025eko maiatza-ekaineko % 2,081etik 2026ko martxora bitarteko % 2,565era.

3. INBERTSIO KOLEKTIBOKO ERAKUNDEAK

Inbertsio kolektiboko erakundeen (IKE) 2025eko bilakaeran, ondarearen % 13,0ko hedapena nabarmendu behar da. Hala, ekitaldia itxi zenerako, kudeatutako bolumen osoa 484.680 milioi eurokoa izan zen. Dinamismo horren oinarri nagusia inbertsio-funtsen (IF) portaera izan zen, sektorean daukaten hegemonia sendotu baitzuten 458.698 milioi euroko ondarearekin (+% 13,0). Inbertsio libreko IKEek (ILIKE) izan zuten hazkunderik handiena: +% 22,8, 7.955 M€. Kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek (SICAV), bestalde, aurreko urtean hasitako susperraldia mantentzea lortu zuten: +% 8,7, 17.214 M€. Bi segmentu horiek inbertsio libreko IKEen IKEek izandako bilakaera negatiboa orekatu zuten: -% 3,9, 813 M€.

2025eko ekitaldia itxi zenerako, 2.023 erakunde ziren guztira, hots, aurreko urtean zeudenak baino 52 erakunde gutxiago. Datu horrek sektorean 2008an hasitako egiturazko atzeraldia berresten du, eta % 68,2ko uzkurdura metatu zuen jada, 6.354ko maximo historikoaren aldean. Murriztapen hori IFen (-52 erakunde) eta SICAVen (-19 erakunde) artean banatu zen, eta ezin izan zuten ILIKEek orekatu, nahiz eta erakunde kopurua igo (+17).

2025eko datuek berretsi dute jarduera birdimentsionatzeko joera, efizientzia operatibo handiagoa eta erakunde bakoitzeko batez besteko ondare handiagoa lortzeko xedearekin. Oro har, ondare hori 239,6 milioi eurokoa izan zen (+% 15,9), eta SICAVetan (41,8 M€, +% 13,2), inbertsio libreko IKEetan (48,2 M€, +% 8,7) eta inbertsio libreko IKEen IKEetan (101,6 M€, -% 3,9) baino zertxobait handiagoa IFetan (319,0, +% 17,2).

238. koadroa. Finantza arloko Inbertsio Kolektiboko Erakundeen ondarea eta kopurua

Kontzeptua	Ondarea (M euro)		Erakunde kopurua	
	2024	2025	2024	2025
Inbertsio-funtsak (IF)	405.931	458.698	1.492	1.438
Inbertsio-sozietateak (SICAV)	15.830	17.214	429	412
Inbertsio libreko IKE[1] (ILIKE)	6.476	7.955	146	165
Inbertsio libreko IKEen IKE[1]	846	813	8	8
Guztira	429.083	484.680	2.075	2.023

(1): Inbertsio libreko IKEak bi motatakoak izan daitezke, aktiboetan modu zuzenean (inbertsio libreko IKEak) edo inbertsio libreko beste IKE batzuen bidez (inbertsio libreko IKEen IKEak) inbertitzen duten kontuan hartuta. Funts edo sozietate erakoak izan daitezke bi motak.

Iturria: CNMV.

Hala, beste urte batez, IKEen jarduera inbertsio-funtsetan ardaztu zen (ondare osoaren % 94,6 eta erakundeen guztizko kopuruaren % 71,1), eta, horien aurrean, SICAVek bai pisua, bai protagonismoa galtzen jarraitu zuten (% 3,6 ondarean eta % 20,4 erakundeen kopuruan). Bi talde horiei inbertsio libreko IKEak gehitzen zaizkie, posizioak pixka bat hobetuta (ondare osoaren % 1,6 eta erakundeen guztizkoaren % 8,2) eta inbertsio libreko

IKEen IKEak. Horiek sektorean gutxieneko presentzia dute (% 0,2 eta % 0,4, hurrenez hurren), eta geldialdi nabarmena dute.

Amaitzeko, iturri espezializatuek diotenez, "ekitaldia ixten denerako aukerek ziurgabetasun-inguruneak baldintzatuta jarraitzen dute, AEBko eta Euroguneko moneta-politiken arteko desadostasun posiblea nagusituta. Nahiz eta interes-tasen arriskua arindu den, mehatxu geopolitikoek eta lehen lauhilekoan burtsa-merkatuetan ikusitako lurrunkortasunak iradokitzen dute baliabideek jarraitu dezaketela errenta finkoko aktiboetara lekualdatzen, segurtasun handiagoko posizioen bila errenta aldakorrarekiko esposizioaren aurrean".

HIF eta SICAVen ondarearen banaketa

Inbertsio-funtsen ondarea 458.698 milioi eurokoa izan zen 2025a amaitu zenean (+% 13,0). Gehienbat, finantza-inbertsioen zorroaren aurrerapenengatik igo zen (438.402 milioi euro, +% 13,3), eta diruzaintza ere areagotu zen (18.968 milioi euro, +% 7,1). Beraz, inbertsioen zorroak pisu nagusia edukitzen jarraitu zuen ondarearen egituran, guztizkoaren % 95,6rekin. Diruzaintza, aldiz, % 4,1 izan zen, eta zordun eta hartzekodunen saldo garbiak —1.328 milioi— % 0,3ko partaidetza txikia izan zuen.

Horrez gain, ikusi da IFen inbertsio-zorroaren egitura operatiboak nazioarteko merkatuetarantz daukan joeran sakondu zuela, eta finantza-inbertsio guztien % 80,5 izan ziren jada. Kanpo-zorroak hazkunde bikaina eduki zuen (+% 15,9), atzerriko zorraren balioetako posizioen igoerak bultzatuta batez ere (+% 21,1). Aldiz, barne-zorroaren bilakaera neurritsuagoa izan zen (+% 3,8). Dena den, garrantzi estrategikoa edukitzen jarraitu zuen, finantzazio-motor giltzarria delako barne-ekonomiarako. Bereziki azpimarratzekoa da ondare-tresna nazionalen indarra (errenta aldakorra, +% 31,9), Espainiako burtsak urtean zehar izandako errentagarritasun bikainarekin lerrokatuta.

Hitz batean, IFen zorroaren 2025eko konposizioan, zorraren balio adierazgarriak nagusitu ziren berriro, nola kanpo-zorroan hala barne-zorroan, guztizkoaren % 59,7 eta % 71,9 metaturik, hurrenez hurren. Guztira, partida hori 272.347 M€-koa izan zen (+% 16,8), eta ondoren datoz inbertsio kolektiboko erakundeak 94.912 M€-rekin (+% 7,1) eta ondare-tresnak 68.457 M€-rekin (+% 14,8). Gainerako posizioek pisu txikiagoa izan zuten.

LABORAL kutxa

239. koadroa. Inbertsio-funtsen eta -sozietateen ondare-banaketa

(M euro; balio efektiboa)

Kontzeptua	Inbertsio-funtsak(1)			Inbertsio-sozietateak		
	2024	2025	%Δ 25/24	2024	2025	%Δ 25/24
Ondarea	405.931	458.698	13,0	15.830	17.214	8,7
Finantza-inbertsioen zorroa(2)	386.962	438.402	13,3	15.016	16.403	9,2
Barne-zorroa	82.535	85.652	3,8	2.308	2.183	-5,4
Zorraren balio adierazgarriak	*60.958*	*61.601*	*1,1*	*992*	*885*	*-10,8*
Ondare-tresnak	*6.308*	*8.319*	*31,9*	*845*	*848*	*0,3*
Inbertsio kolektiboko erakundeak	*12.002*	*13.423*	*11,8*	*439*	*428*	*-2,5*
Gordailuak; kreditu-erakundeak	*3.100*	*1.989*	*-35,8*	*5*	*0*	*--*
Eratorriak	*86*	*122*	*41,3*	*-1*	*-2*	*--*
Beste batzuk	*82*	*199*	*142,8*	*28*	*25*	*-9,7*
Kanpo-zorroa	304.420	352.745	15,9	12.707	14218	11,9
Zorraren balio adierazgarriak	*173.974*	*210.746*	*21,1*	*2.426*	*2.591*	*6,8*
Ondare-tresnak	*53.342*	*60.138*	*12,7*	*5.343*	*5.878*	*10,0*
Inbertsio kolektiboko erakundeak	*76.593*	*81.489*	*6,4*	*4.921*	*5.730*	*16,4*
Gordailuak; kreditu-erakundeak	*469*	*383*	*-18,3*	*0*	*0*	*--*
Eratorriak	*42*	*-12*	*-127,5*	*-3*	*-1*	*--*
Beste batzuk	*0*	*0*	*--*	*20*	*20*	*1,0*
Zalantzazko inbertsioa, inbertsio berankorra edo auzipeko inbertsioa	7	6	-19,5	1	1	-26,0
Diruzaintza	17.714	18.968	7,1	899	716	-20,4
Zordun/hartzekodun garbiak	1.255	1.328	5,8	-85	96	-212,6

(1): Hortik kanpo daude inbertsio libreko IKEak (ILF eta ILIKEF). Helburuko bereziko konpartimentuen datuak guztizkoetan sartuta daude, baina ez dute bokaziorik. Hori dela eta, bokazioen batura ez dator bat guztizkoekin.

(2): Interesak txertatuta daude epigrafe guztietan.

Iturria: CNMV.

Azkenik, SICAVen ondarea areagotu zen 2025ean (+% 8,7), finantza-inbertsioen zorroak egindako aurrerapenean oinarrituta batik bat (+% 9,2). Aitzitik, diruzaintzak atzera egin zuen (-% 20,4), eta zordun eta hartzekodunen saldo garbia negatibo izatetik positibo izatera igaro zen. Jardueraren zatirik handiena kanpo-zorroan kontzentratu zen berriro (guztizkoaren % 82,6), hazkunde handi samarrarekin (+% 11,9), barne-zorroak behera egin zuela kontuan hartuta (-% 5,4). Aktibo motari begiratuta, posizio nagusia ondare-tresnetan egindako inbertsioa izan zen berriro, 6.726 milioi eurorekin. Ondoren, inbertsio kolektiboko erakundeak kokatu ziren, 6.158 milioirekin, eta zorraren balio adierazgarriak, 3.476 milioirekin. Gainerako partidek pisu txikia izan zuten.

HIFen tipologia

Inbertsioen nolakotasuna aintzakotzat hartuta berretsi da euroaren errenta finkoak modalitate hegemonikoa izaten jarraitu zuela bai bolumenean, bai inbertitzaileen oinarrian, 169.162 milioi euroko ondarearekin eta 5,7 milioi partaide gainditua. Bestalde, errenta aldakorraren segmentuak oso portaera dinamikoa eduki zuen, batez ere nazioarteko osagaian: funtsen erroldarik handiena (362 erakunde) eta 65.130 milioi euroko ondarea bildu zituen.

2025eko balantzea ikusita berretsi da inbertsio-funtsek aurrera egin zutela bi aldagai nagusietan: ondarea (+% 13,0) eta partaide kopurua (+% 7,7). Funts kopuruak behera egin zuen, ordea (46 tresna gutxiago). Ondarearen hedapena alderdi hauetan kontzentratu zen, gehienbat: euroaren errenta finkoa (+% 24,7), euroaren errenta finko mistoa (+% 35,4), euroaren errenta aldakor mistoa (+% 71,1) eta itzulketa absolutuko funtsak (+% 30,0). Aitzitik, beste osagai hauek atzera egin zuten: moneta-funtsek (-% 2,8), nazioarteko errenta aldakor mistoak (-% 3,0), kudeaketa pasiboak (-% 4,1) eta, batez ere, errendimendu finko (-% 22,8) eta aldakorreko (-% 35,9) bermatuek.

Funtsen kopuruak ere doikuntza-prozesua islatu zuen, nazioarteko errenta finkoko (+5 funts) eta euroaren errenta finko mistoko (+12) modalitateek gora egin baitzuten, eta euroaren errenta finkoa ez baitzen ia aldatu (-1). Aldi berean, behera egin zuten beste funts hauek: nazioarteko errenta aldakor mistoak (-6), euroaren errenta aldakorrak (-5), kudeaketa pasiboak (-10), errendimendu finkoko bermatuek (-11) eta errendimendu aldakorreko bermatuek (-29). Funts orokorrek eta itzulketa absolutukoek ia egonkor jarraitu zuten.

240. koadroa. Higigarrietako Inbertsio Funtsen (HIF), partaideen eta ondarearen banaketa[1,2], zorroaren osaeraren arabera

Kontzeptua	Funts kopurua		Partaide kopurua		Ondarea (M €)	
	2024	2025	2024	2025	2024	2025
Monetarioa[2]	4	4	397.338	370.381	22.845	24.601
Errenta finkoa (euroa)[2]	289	288	4.978.733	5.736.586	135.684	169.162
Errenta finkoa (nazioartekoa)	59	64	972.610	1.170.688	13.876	15.718
Errenta finko mistoa (euro)	64	76	432.088	520.089	15.556	21.064
Errenta finko mistoa (nazioartekoa)	101	98	629.200	620.156	22.522	23.684
Errenta aldakor mistoa (euro)	21	21	10.508	20.180	734	1.255
Errenta aldakor mistoa (nazioartekoa)	169	163	568.982	560.983	22.833	24.185
Errenta aldakorra (euro)	75	70	691.994	747.059	6.111	7.877
Errenta aldakorra (nazioartekoa)	357	362	4.225.554	4.282.602	60.220	65.130
Kudeaketa pasiboa[2]	106	96	782.384	905.488	27.474	26.357
Errendimendu finko bermatua	58	47	156.582	114.626	6.381	4.927
Errendimendu aldakor bermatua	74	45	119.237	63.288	3.674	2.356
Berme partziala	0	0	0	0	0	0
Itzulketa absolutua	43	43	634.016	687.229	6.974	9.069
Globalak	294	290	1.972.624	2.051.452	61.048	63.311
Bokaziorik gabe	0	1	0	2.018	-1	1
FIM, guztira	1.714	1.668	16.571.850	17.852.825	405.931	458.698

(1): Erreferentziazko datan isileko egoera zuten funts-banaketak.

(2): 2019ko bigarren hiruhilekoaz geroztik, 1/2019 Zirkularrak ezarritako definizio berrietara egokitzen dira bokazioak. "Monetario" kategoriak Merkatu Monetarioko Funtsen (FMM) lau mota hartzen ditu barne, aipatutako zirkularrak definitzen dituenak; gaur egun, "Likidazio-balio aldakorreko merkatu monetarioko funts estandarra" motako funtsak bakarrik daude erregistratuta. "Euroaren Errenta Finkoa" kategoriak barne hartzen ditu Euroaren Errenta Finko berria eta Epe Motzerako Euroaren Errenta Finkoa; eta "Kudeaketa Pasiboko IKE" kategoriak barne hartzen ditu indize bati erantzuten dioten IKEak eta bermatu gabeko errentagarritasun-helburuak dituzten IKEak.

Iturria: CNMV.


LABORAL kutxa

Partaide-kopurua 17,85 milioira iritsi zen (+% 7,7), eta horrek aditzera ematen du finantza-produktu hori erakargarria dela, aurrezkiak eskura daudela eta inbertsio-posizioak dibertsifikatuta daudela. Igoera handiena euroaren errenta finkoan (+% 15,2), euroaren errenta mistoan (+% 20,4), nazioarteko errenta finkoan (+% 20,4) eta euroaren errenta aldakor mistoan (+% 92,0) kontzentratu ziren. Nazioarteko errenta aldakorrak (+% 1,4) eta funts orokorrek (+% 4,0) hein txikiagoan egin zuten gora. Aitzitik, partaide kopurua murriztu egin zen beste osagai hauetan: moneta-funtsetan (-% 6,8), nazioarteko errenta aldakor mistoan (-% 1,4), kudeaketa pasiboan (-% 0,6) eta, batez ere, errendimendu finko (-% 22,8) eta aldakorreko (-% 46,3) bermatuetan.

Beste ikuspuntu batetik begiratuta, ikus daiteke errenta finkoko jardueraren zatirik handiena «euro» osagarrian bildua dagoela oraindik; izan ere, 288 funts ditu, 5.736.586 partaide eta 169.162 milioi euroko ondarea. Errenta aldakorra batez ere nazioarteko modalitatean ardazten da; zehazki, 362 funts, 4.282.602 partaide eta 65.130 milioi euroko ondare-bolumena ditu.

50. grafikoa. Higigarrietako Inbertsio Funtsen lau taldeak bereizten dituzten hiru aldagaien urte arteko bilakaera

(urte arteko aldakuntza-tasa , 2025/2024)



Iturria: CNMV. Geuk egina.

Bukatzeko, inbertitzaileen estrategia zerk baldintzatu zuen erakusten da grafikoan, modu sintetikoan: batetik, arriskuarekiko gero eta ezinikusi handiagoa, 2025eko lehen lauhilekoan burtsan izandako lurrunkortasunagatik; eta bestetik, ziurgabetasuna, moneta-politiken arteko desadostasuna ikusita (AEB eta EB, funtsean). Hala, baliteke egoera horrek fluxuen lekualdaketa eragin izana, posizio seguruagoetarantz eta kudeaketa pasiboko produktuetarantz, errenta aldakorrean gerta zitezkeen zuzenketak arinduta, modu horretan. Halaber, sektoreak bere eraldaketa lantzen jarraitu zuen, jasangarritasunaren bidean. Zehazki, 2025ean, 235.394 milioi euro kudeatu zituen ESG irizpideak betez, eta 416 erakunde izatera iritsi ziren Europar Batasuneko inbertsio-estandar arduratsuekin bat egin zutenak.

4. BURTSA-MERKATUA

Burtsa-indize nagusiek berretsi egin dute aurreko biurtekoan (2023-2024) gertatutako balio handitzea; izan ere, moneta-politika ez da hain murriztailea izan eta interes-tasak txikiagotzen joan dira inflazio-adierazleak neurritsuak zirela ikusirik. Hobekuntza horretan Ibex-35ak izandako irabazia nabarmentzen da (+% 49,3), gehiengo historikoarekin itxi baitzuen urtea (17.307,8 puntu) eta ordura arteko erregistrorik onenak gainditu baitzituen[1]. Ziurgabetasun-maila altuak baldintzatu zuen Ibexaren finkapen hori. Halaber, adierazgarria da Dax-Xetrak (+% 23,0), FTSE 100ek (% 21,5), Nikkeik (+% 26,2) eta Nasdaq Compositek[2] (+% 20,4) erregistratutako % 20tik gorako balio-igoera. CAC-40 (% 10,4), Dow Jones (% 13,0) eta Eurostoxx 50 (+% 18,3) ratio horren azpitik geratu ziren.

Urtearen hasiera zaila izan zen, eta, beste ezegonkortasun-faktore bat gehituta (Irango gerra), ondorioak iraupenaren araberakoak izango dira hein handian. Martxoa amaitu zenerako, burtsa-indizeen balioek lehen inpaktua erakutsi zuten, galerak orokorrak izan baitziren 2025aren amaierako balioen aldean (FTSE 100 eta Nikkeirentzat izan ezik). Nolanahi ere, bi hilabete igarota eta gatazka konpontzeari (eta Ormuzko zirkulazioari) buruzko "albiste" ugariren ostean, badirudi inpaktu hori alde batera utzi dela eta hobetzeko bidera itzuli garela: maiatza amaitu zenean, burtsa-indizeen balioa handitua zen oro har. Dena den, ikusi behar da zer gertatzen den urtearen gainerakoan.

241. koadroa. Burtsa-indize nagusien bilakaera

(puntuak)

Urtea	Ibex-35 (Madril)	CAC-40 (Paris)	Dax-Xetra (Frankfurt)	FTSE 100 (Londres)	Dow Jones (New York)	Nikkei (Tokio)	Eurostoxx 50	Nasdaq Composite
2023	10.102,1	7.543,2	16.751,6	7.733,2	37.689,5	33.464,2	4.521,7	15.011,4
2024	11.595,0	7.380,7	19.909,4	8.173,0	42.544,2	39.894,5	4.896,0	19.310,8
2025	17.307,8	8.149,5	24.490,4	9.931,4	48.063,3	50.339,5	5.791,4	23.242,0
2026ko martxoa	*17.049,6*	*7.816,9*	*22.680,0*	*10.176,5*	*46.341,5*	*51.063,7*	*5.569,7*	*21.590,6*
2026ko maiatza	***18.362,9***	*8.224,61*	***25.104,7***	*10.409,28*	*51.032,46*	*66.385,00*	*6.050,54*	*26.972,62*
Urte batetik besterako aldakuntza (%)								
2023	*22,8*	*16,5*	*20,3*	*3,8*	*13,7*	*28,2*	*19,2*	*43,4*
2024	*14,8*	*-2,2*	*18,9*	*5,7*	*12,9*	*19,2*	*8,3*	*28,6*
2025	*49,3*	*10,4*	*23,0*	*21,5*	*13,0*	*26,2*	*18,3*	*20,4*
2026ko maiatza	*6,1*	*0,9*	*2,5*	*4,8*	*6,2*	*31,9*	*4,5*	*16,1*

Oharra: Urte bakoitzeko azken egunean.
Iturria: Espainiako Burtsak eta Merkatuak (BME)

[1] 2007ko azaroaren 8ko errekor historikoa (15.945,7 puntu); otsailaren 26an 18.496,6 puntura iritsi zen, baina 2026ko martxoaren 31n 17.049,6 puntutan geratu zen.
[2] NVIDIA, Tesla, Apple, Alphabet, Amazon, Microsoft eta Metak baldintzatua, botere oso handia baitzuten merkatu globalean; zehazki. AAren gaineko aurreikuspena izan zen kotizazioen sustapen-faktorea.

LABORAL kutxa

4.1 IKUSPEGI OROKORRA

Lehen mailako eta jaulkipeneko merkatuak

Zorraren balio adierazgarrien lehen mailako merkatua nabariki uzkurtu zen 2025ean; zehatz-mehatz, jaulkipen garbien bolumen osoa 54.859 milioi eurokoa izan zen, hau da, aurreko urtean baino 12.930 M€ gutxiago. Bilakaera negatibo hori azaltzeko, sektore pribatuen portaerari erreparatu behar zaio batik bat, sektore publikoak jaulkipenen jarduera areagotu izana neutralizatu baitzuen. Administrazio publikoek jaulkipenen motor nagusia izaten jarraitu zuten. Zehazki, jaulkipen garbiak 67.531 milioi eurora iritsi ziren (+4.165 M€), nola administrazio zentralak, hala autonomia-erkidego zein toki-entitateetako gorakadak bultzatuta.

Aitzitik, finantza-erakundeek desapalankamendu-prozesua areagotu zuten, eta saldo garbi negatiboa 14.443 milioi eurora iritsi zen (-5.785 M€). Bestalde, finantza-sozietate ez direnek dinamismo bizia erakutsi zuten 2024an, baina gogor moteldu ziren 2025ean, 1.771 milioi euroko jaulkipen garbiekin soilik, kontuan izanda aurreko urteko erregistroak baino 11.310 milioi txikiagoak izan zirela.

242. taula Zorraren balio adierazgarriak. Jaulkipen garbiak

(M euro)

Kontzeptua	2023	2024	2025	Δ 25/24
Administrazio Publikoak	72.779	63.366	67.531	4.165
Administrazio zentrala	71.063	62.026	65.233	3.207
Autonomia Erkidegoak eta Toki Korporazioak	1.716	1.340	2.298	958
Finantza-erakundeak	37.977	-8.658	-14.443	-5.785
Monetarioak (FEM)	44.847	2.430	-3.324	-5.754
FEM ez direnak	-6.871	-11.087	-11.119	-32
Sozietate ez-finantzarioak	-3.931	13.081	1.771	-11.310
GUZTIRA	106.825	67.789	54.859	-12.930

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

Bigarren mailako merkatuak: Burtsak

2025ean, akzioen bigarren mailako merkatuek aurreko urtean hasitako susperraldirako joera sendotu zuten, eta Espainiako merkatuari azken hamarkadan eragin zion uzkurdura operatiboaren zikloa hautsi zuten, beraz. Akzioetan negoziatutako egiazko bolumena 386.251 milioi eurora heldu zen, ekitaldiaren dinamismoa agerian uzten duen urte arteko igoera nabariarekin (+% 21,1). Jardueraren funtsezko zati bat bankuen sektoreari dagokio, eta haren negoziazio-jarduerak 127.677 milioi euroko saldoa eduki zuenez (+% 35,1), merkatuko segmentu aktiboenaren gisara sendotu zen. Orobat, enpresa elektrikoek (+% 24,7) eta eraikuntzak (+% 12,4) bilakaera positiboak eduki zituzten, eta SIBEren bolumen osoa indartzen lagundu zuten.


243. koadroa Burtsa-merkatua Negoziatutako bolumenen balio efektiboa (akzioak)

(M euro)

Kontzeptua	2023	2024	2025	%Δ 25/24
Akzioak (SIBE, Espainiako Burtsa arteko Lotura Sistema)	301.249	318.573	385.771	21,1
Bankuak	94.717	94.511	127.677	35,1
Elektrikoak	50.877	53.825	67.097	24,7
Eraikuntza	17.901	23.629	26.552	12,4
Komunikazioa	28.000	26.764	21.854	-18,3
Gainerakoak	109.753	119.844	142.590	19,0
Gainerako akzioak	480	480	480	0,0
Madrilgo burtsa	360	360	360	0,0
Bartzelonako burtsa	120	120	120	0,0
Bilboko burtsa	0	0	0	0,0
Valentziako burtsa	0	0	0	0,0
Akzioak, guztira	301.729	319.053	386.251	21,1

Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina.

51. grafikoa VIBEX lurrunkortasun-indizea; ondo ipini grafikoa



Kotizatutako lurrunkortasun inplizituaren bilakaera islatzen du VIBEX® indizeak, MEFF merkatuko IBEX 35® indizearen gaineko aukeretan, 30 eguneko denbora-tarte konstante batean.

Iturria: Espainiako Burtsak eta Merkatuak (BME)

Merkatuaren suspertze orokorra gertatu zen nahiz eta lurrunkortasun inplizituak gora egin zuen (% 15,0, eta 2024an, % 12,8). Dena den, merkatuko arrisku-agertoki "kontrolatu samar" baten barruan geratu zen, eta estres-maila neurritsuan[1]. Kontratazioa hobetzeko, hainbat faktorek eduki zuten eragina: prezioen balioa handitzeak (kontratazioaren egiazko zenbatekoa igotzeko lagungarria), egiturazko hobekuntzek eta zerbitzu berriek

[1] "Izan ere, lortu zen maila IBEX 35ek 1992ean abiarazi ostean izandako batezbesteko historikoa baino **7,3** puntu txikiagoa izan zen". Iturria: BME

LABORAL kutxa

(eragiketak gauzatzea erraztu zuten, eta likidezia sustatu), inbertitzaileen partaidetza handiagoak eta emaitza onak izateak aldagai nagusietan (inflazioa neurrira ekartzea, hazkunde ekonomikoa, etab.). Laburbilduz, nahiz eta 2025eko lurrunkortasuna 2024koa baino handiagoa izan, ez zen nahikoa disruptiboa izan maximo historikoen, inoizko dibidendu handienen eta esparru operatiboen hobekuntzak eragindako baikortasuna gelditzeko.

Bigarren mailako merkatuak: Errenta Finkoa

2025eko ekitaldian zehar, bizkortze nabarmena gertatu zen errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan, eta aurreko urtean izandako uzkurtzeko joera leheneratu zen. ARCO sistemaren bitartez negoziatutako bolumen osoa 95.828 milioi eurora heldu zen; urte arteko igoera irmoa, beraz (+% 19,9).

Susperraldi hori Altxorraren Letren ezohiko dinamismoak bultzatu zuen (+% 40,5, 5.209 M€), eta, orobat, lagungarria izan zen bonu eta obligazio ez-bereizien segmentuetan gertatutako hazkunde nabarmena (+% 20,2), merkatuko jardueraren nukleoa baita (87.569 M€). Bi segmentu horiek bonu eta obligazio bereizien atzeraldia (-% 9,9) orekatu zuten, eta, hala, aurreko ekitaldiko hobekuntzarako joera hautsi zen. Balantzeak erakusten du aktibo burujabeak erakargarriak direla, errendimenduen kurba normalizatu izana eta Altxorraren enkanteetan estaldura-maila historikoak lortu dituen eskaera mesedegarri diren ingurune batean[1].

244. koadroa. Errenta finko publikoaren bigarren mailako merkatuan negoziatutako bolumenak(1)

(M euro)

Kontzeptua	2023	2024	2025	%Δ 25/24
CADE sistema - ARCO sistema (2)	85.487	79.956	95.828	19,9
– Bonu eta obligazio ez-bereiziak	76.621	72.864	87.569	20,2
– Bonu eta obligazio bereiziak	2.259	3.384	3.050	-9,9
– Altxorraren Letrak	6.608	3.707	5.209	40,5

(1): Eguneroko zifren batez bestekoa 2017az geroztik, araudi-aldaketa dela-eta, errenta finko pribatuko merkatuek ez dituzte argitaratu negoziazioaren gehiengoaren datuak (sistemako erabiltzaileen arteko salerosketa zuzenak).

(2): 2017an, Espainiako Bankuaren Idazpenen Zentralaren (CADE) lehengo sistemaren kudeaketa Espainiako Burtsa eta Merkatuen Taldearen esku geratu zen, ARCO izenarekin, eta Europako T2S sistemarekin homologatu zen.

Iturria: Altxor Publikoaren hileroko estatistikak. Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa.

Espainiako deribatuen merkatuaren (MEFF) jarduerak aurreko bosturtekoko (2020-2024) uzkurtzeko joera leheneratzea lortu zuen, eta bolumen negoziatua nabarmen handitu zen (+% 22,6, 35.046 mila kontratu). Dinamismo horretarako *"mesedegarriak izan dira*

[1] BME; 2025eko urteko txostena.

berehalako merkatuko igoera orokorrak, IBEX 35en maximo historikoak eta merkatuko arrisku-ingurunea; izan ere, nahiz eta noizean behin gorakadak gertatu, estres-maila neurritsuetan mantendu zen". Horrez gain, finantza-aukeren segmentuan gertatutako hazkundea ere azpimarratzekoa da (+% 40,7), akzioen gaineko aukerek bultzatuta1 (+% 48,4, 16.310 mila kontratu). Geroko finantzarioen merkatuak, bestalde, % 9,9 egin zuen aurrera oro har, akzioen gaineko gerokoen trakzio irmoan oinarrituta (+% 17,8), eta indizeen gaineko gerokoek izandako uzkurdura orekatu zuten (-% 7,6).

245. koadroa. Geroko Finantzarioen eta Aukera Finantzarioen Espainiako Merkatua*

(mila kontratu)

Kontzeptua	2023	2024	2025	%Δ 25/24
Geroko finantzarioak, guztira	16.544	16.780	18.433	9,9
– Indizeen gaineko gerokoak (IBEX)	5.244	5.161	4.771	-7,6
– Akzioen gaineko gerokoak	11.279	11.473	13.513	17,8
– Dibidenduen gaineko gerokoak	21	146	149	2,2
Aukera finantzarioak, guztira	13.370	11.809	16.613	40,7
– Indizeen gaineko aukerak (IBEX)	559	815	303	-62,8
– Akzioen gaineko aukerak	12.811	10.994	16.310	48,4
MEFF, guztira	29.914	28.589	35.046	22,6

(*): Egindako eragiketak
Iturria: BME (Espainiako Burtsak eta Merkatuak)

4.2 BILBOKO BURTSA

Aurreko biurtekoan balioa handitzeko ibilbidea gertatu zen, eta Bilboko Burtsako indize orokorrak ibilbide hori sendotu zuen 2025ean, nazioarteko burtsako indize nagusien aparteko dinamismoarekin lerrokatuta. Urtea 2.630,20 punturekin itxi zuen, eta urte arteko igoera bikainarekin (+% 45,8). Hala, IBEX 35en errentagarritasun-mailetatik oso hurbil geratu zen.

Grafikoan, indizearen balioa agertzen da hil bakoitza ixtean. Urtean zehar, profila goranzkoa izan zen argi eta garbi. Eguneko itxieren xehetasunei begira, aipatzekoa da kotizazioaren urteko maximoa 2.836,30 puntu izan zela (abenduak 30), eta gutxieneko balioa 1.813,00 puntu izan zen (urtarrilak eta apirilak 13). Indizea 2.630,20 puntuan itxi zen, hots, urteko maximoa baino pixka bat gutxiagorekin (2.836,30); izan ere, maximo hori ez zen urtearen azken egunean lortu, IBEX 35aren kasuan ez bezala.

[1] **Europako estiloko akzioen gaineko aukeren** merkaturatze estrategikoak lagunduta. Aukera horiek diferentzien arabera likidatzen dira eta operatibak errazteko zein kapital-eskakizunak murrizteko diseinatu ziren, bai txikizkako inbertitzaileentzat, bai inbertitzaile instituzionalentzat. 2025eko urteko txostena, BME


LABORAL kutxa

246. koadroa. Bilboko Burtsaren Indize Orokorra. Azken balioa, maximoa eta minimoa

Urtea	Azkena	Maximoa	Minimoa
2018	1.330,08	1.337,44	1.323,12
2019	1.485,36	1.488,93	1.481,62
2020	1.291,18	1.298,11	1.290,87
2021	1.397,35	1.399,37	1.390,08
2022	1.310,47	1.321,07	1.309,51
2023	1.594,01	1.599,68	1.593,18
2024	1.804,01	1.806,96	1.794,03
2025	2.630,20	2.836,30	2.046,82

Oharra: Oinarria 2000, 1999ko abenduaren 31koa.
Iturria: Bilboko Burtsa.

52. grafikoa. Kotizazio Indize Orokorra Bilboko burtsa



Iturria: Bilboko Burtsa.